

**Patxi Iraola**

# **Naizen apurra**

---

**Auspoa Liburutegia**

**316**

IRAOLA, Patxi (1933-)

Naizen apurra / Patxi Iraola ; hautaketa eta transkripzioa, Rufino Iraola ; edizioa, Joxemari Iriondo ; [sarrera, Eusebio Igarzabal]. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2009.

329 or. : argk. : 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 316)

Aurkibidea

LG SS 1495-2009. - ISBN 978-84-7907-629-0

I. Iraola, Rufino (1945-). II. Iriondo, Joxemari (1938-). III. Igarzabal, Eusebio (1944-). IV. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera. V. Izenburua. VI. Saila.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

821.361-94"19/20"

Hautaketa eta transkripzioa: Rufino Iraola

Edizioa: Joxemari Iriondo

© edizio honena: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

800 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-629-0

Legezko Gordailua: S.S. 1495/09

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

**Patxi Iraola**

**Naizen apurra**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura eta Euskara Departamentua  
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2009

## Aurkibidea

---

Patxi Iraola, Oleiko Patxi .....	9
Hitzaurrea: iritzi kritikoa .....	11
Olegiko ataritik .....	17
Zaldibiaren kokagunea eta historia laburra .....	21
Gure aurrekoak .....	23
Gerra zibileko oroitzenak .....	49
Gaztaroa gogoratzen .....	65
Hirukote berezia: «Jainkoa», Lazkao Txiki, Artzanberri .....	89
Gure herriko soziedadeetako bertso-giroa .....	101
Hirurogeiko hamarkada .....	119
Txapelketak .....	127
Herriz herri .....	135
Hirurogeita hamarreko hamarkada .....	139
Laurogei/laurogeita hamarreko hamarkada .....	171
Goierriko bertsolariak .....	193
Bestelako saioak .....	203
Bat-batekoak .....	203
Bertso jarriak .....	293

## **PATXI IRAOLA, OLEIKO PATXI**

---

Liburu bat egin behar zuela entzun nuenean, burura lehenengo etorri zitzaidana izan zen, “bat-batean kantatu dituenak biltzen hasten badira, makina bat gelditu behar zaiek bildu gabe”.

Gure gazte garaian, eta geroxeago ere bai esango nuke nik, inguruan sortzen bazen bertsotan jarduten zenik, Patxik aurki probatuko zuen mahairen baten bueltan otorduren bat aitzakitza hartuta. Hau ere esatekoa baita, Patxik mahaiain egin ditu saio gehienak eta seguru asko onenak ere bai. Bertso zaharrak kantatzen, berriz, Patxi da bukatzen ez den al-mazena. Horrekin makina bat gazte gozatu du. Lazkao Txikik berak, enteratzen zenean norbait jarduten omen zela bertso-tan, Patxiri galdetzen zion: “Hor ba omen zeok jarduten da-nen bat, probatuta al dek?”; eta Patxik askotan: “Bai ondo jarduten dek”. Orduan Lazkao Txikik: “Bai ondo jardungo dek baina garai baten Artxanberrik harrapatu balu”.

Artxanberriren bertsokera zen nonbait ziri sartzaila edo zenbait garaitan motzaila ere bai, eta Patxiren kasoan esan beharra dago hortan alderantzizkoa ere badela. Berak ahal duen bertsorik onena botako du, bertsolari danak bezela, tartean ziriren bat ere izan liteke, baina Patxik moztu nekez, eta nahita seguru asko sekula ez, baizik ari diren gaiaren ingurua zabaldu, eta bertsotan jarduteko hori bada zerbait.

Gu bertso munduan zerbait mugitzen hasi ginenean, edo geroxeago, bazen Goierriin halako mugimendu edo kezka bat bertsolariak sortzearekin. Ordizian irailako festetan txapelketa egiten zen; Zepai saria urte mordoan egin zen; AMPO saria, Idiazabalen; Osinalde saria ere orduan sortu genuen, Gabi-rian, eta lehenengoa Patxik irabazi zuen. Denok elkarrekin hartuemana bagenuen. Geuretzat hitzaldiak eratzen ere hasi ginen, eta Joan Mari Lekuona ekarri genuen hiru bat aldiz bai behintzat. Asmo horien berri ematera joan eta Iraolak baietz esan, eta hura koadrilan sartzea izugarria izan zen guretzat.

Elkarrekin bertsozara joan garenean, beste inorekin baino gehiagotan egin dut Patxirekin, bidean goazela, gairik jartzen ez badigute ere saioa nola egin eskema bat egiten ahalegindu izan gara. Norbaitek esan izan dit hori ez ote den inprobisatzea, baina nik uste inprobisatzea ez ezik ezinbesteko zela garai hartan elkar informatuta edukitzea, zeren inguruan egin behar genuen bertsoan eta bertsoak inprobisatu batek esaten duenari besteak ondo jarraituz inprobisatzen da. Honetan Patxiren burua oso argia eta gaztea da eta izatera, berriz, oraintxe zebilen bera baina zaharragoekin, eta bihar hogeit urte gazteagoekin, edade konturik nabarmendu gabe.

Hori dek Patxi, segi hola!

Eusebio Igarzabal

## Hitzaurrea: iritzi kritikoa

---

Patxi Iraolak liburu egokia osatu du, bere neurrikoa. Gero irakurleari dagokio gustatu zaion ala ez esatea. Patxik material asko ipini du mahai gainean, material interesgarria, mugak garbi zehazten dituen edo, bestela esanda, jatorria non duen erraz igartzen zaion materiala: bera bizi izan eta ibili den tokian bildutakoa, Zaldibia eta Goierriekin hertsiki lotua. Baina ez horrela atera zaiolako, baizik eta hasieratik horrela planteatu duelako, bere neurrira egin nahi zuelako.

«Materiala mahai gainean jarri», esan dut. Eta material hori gestionatzen lagundu diogunak ere ahalegindu gara bere esanetara jartzen. Hark ahoz transmititurikoa paperean itsastea izan da gure lana, aldioro berari iritzia eskatuz, gustura geratuko zen formulazioa aurkitu arte. Horixe zen lehenengo promesa: «Hi gustura utziko ez hauen hitz erdirik ere ez». Eta bete dugu.

Patxiren liburua ez da ohiko bertso-liburu bat. Askoz ere gehiago da. Bere autobiografia da, bertsolaritzarekin zeharo inplikaturik bizi izan baita; ez dago ulertzerik Patxi Iraola Garmendiaren bizitza bertsorik gabe, ezta haren bertsoa bere bizitzako esperientzia guztiak kontuan hartu gabe. Uztarri berean doa dena, sinbiosi totala osaturik. Bizitza kontatzen du bertsoan eta bertsoa da Patxiren bizitza.

Eman ditudan datuen arabera, pertsonala eta lokalista esango du norbaitek. Nik esango nuke aski unibertsala dela, esportagarri eta estrapolagarria, bertsolaritza osotasunean tratatzen duelako, eta berarekin batera jardun duten protagonistak guztiz errepresentatiboak direlako. Hemen egindako esperientzia da, baina Euskal Herri osoari lotsarik gabe erakusteko modukoa.

Liburu autobiografikoa da, eta, aldi berean, besteren bertsoak sartzen ditu. Nire gusturako, oraindik gutxiegi sartu ditu, zeren, bere memoria pribilegiatuari esker, bertso-jasotzaile handia izan baita. Memoriaren kontua herentziatik datorkio; batez ere, amaren aldetik. Azkenean, berea edo

inorena, bertsoa da Patxiren «obsesioa», emozioei eragiteko sistemaren piezarik garrantzizkoenetako bat.

Patxi Iraolaren liburua originala da. Oraingoan «original» hitzaren adiera darabilkit guztiz zentzu objektibo eta denotatiboan. Liburu horretan datozen bertsoen %90 inguru inoiz argitaratu gabeak dira, gutxienez liburu formatuan, zinta zaharretatik transkribatu ditugulako asko eta asko, eta beste asko Patxiren memoriatik atera ditugu zuzenean. Areago oraindik, badira gaur egun liburuetan daudenak, baina bere momentuan Patxik gogoan hartuak eta hark emanak liburuan ipintzeko; adibidez, Xalbadorren Lazkaoko bertsoak, Artxanberri eta Lazkao Txikiren batzuk, etab.

Patxi Iraolaren autobiografia oso urrunetik hasten da. Bere izaera osatzen lagundu dioten bizipen ezinbestekoak jotzen ditu aurrekoen bizitza eta haiengandik jasotako altxor kulturala: bertsoak, ipuinak, fabulak, pasadizoak, pertsonaia ospetsuen biografiak, etab. Eta hori ere sartu egin du liburuan, irakurlea erraz asko konturatuko denez. Baina entzunda bezala sartu ditu, ahozko tradizioak agintzen duen eran. Izango da Patxik kontatzen dituen ipuinen bertsio osatuagorik, baina hark bere memoriatik eskuratu ditu, eta ez liburuetatik.

Patxi Baserritarra da hitzaren zentzu osoan, nahiz eta hogeita hamar urtez fabrikan lan egin. Baserritik eta baserriko kulturatik ari da hizketan. Olegi zaharretik dihardu, 1964an Olegi Berrira aldatu bazen ere. Haren bertsoari, gaia edozein dela ere, belar-usaina dario beti, oro har bertsolari-tzak atzo goizera arte izan duen legez.

Patxi Iraolaren autobiografiaren beste parte inportante bat herriko soziedadeetan kokatua dago. Soziedade eta tabernan egiten den bertso-iturritik edan du. Giro hori da berea eta giro horretan kantatzen diren bertsoak ere bai, nahiz eta bertsolariak beste batzuk izan. Beraz, historia hori ere bere autobiografian sartu egin du, berea balitz bezala asumiturik.

Jende asko aipatzen du. Hori bai, gehienetan inguru-koak; paradoxikoki, Lazkako Txiki kenduta, urrutiko jendea-



rekin egindakoak badira ere liburu honetako saiorik luzeenak. Badira aipamen bereziak, hain zuzen, *Hirukote berezia* atalean: Lazkao Txiki, Jesus Eskisabel eta Artxanberri.

Ohartzen da zenbat dezakeen, jabetzen da bere bertso-estiloaz eta deskribatuko du. Bertso-jasotzailea dela esan dugu, eta izan dugun bertso-biltzaile handienarekin gogoratuko da, Aita Zavalarekin, eta goraiatuko du.

Badakigu txapelketa ez dela izan bere arlorik indartsuena. Baina horren berri ere emango digu, eta dozena bat bertso eder dastatzeko aukera eskaintzen dio irakurleari. Badakigu gutxi direla, baina dozena bat bertso gogoangarri ez da marka txarra, kontuan hartzen badugu gehiegi ere ez zela ibili txapelketan.

Egoera politikoaren gainean kantatzeari ez dio inoiz muzin egin, eta hor dauka atal bat oso-osea, *Hirurogeita hamarreko hamarkada* deiturikoa. Ikuspegi abertzaletik kantatu du beti. Nire ustez, azertu handia izan du Mariano Ferrerren dokumentua sartzea, dena hobeto kontestualizatu ahal izateko. Ez dut esan nahi ezer justifikatu beharrik zeukanik, baina testu horrek gauzak asko argitzen ditu, eta orduko giroa ulertzen laguntzen du.

Nola utzi aipatu gabe 91ko omenaldia! Aldi berean, esker-tsu eta kezkatu azaltzen da. Neurritan egindako gauzak gustatzen, nonbait, eta hura gehiegitxo ote zen edo... Bi bertso-sorta datoz atal horretan: lehengo liburuan argitaratuak batzuk, *Hemeroteka* epigrafepean eta, besteak, azken agurrekoak edo eskertzekoak.

Lehen esan dugu Zaldibia eta Goierri lotua dagoela liburu. Beraz, aipatu beharra zeuzkan Goierriko bertsolariak, eta aipatzen ditu. Bakoitzaren halako aipu txiki bat egiten du; laburra, baina esanguratsua, bertsozaleen ordezkariarekin ere ahaztu gabe.


Azkenik, bertsoenak bi atal luze sartu ditu: bata, bat-batekoa; bestea, bertso jarrien atala. Kontrarioak bertsolari handiak badira, bera ere oso maila onean arituta dago. Gainera, gauza bat esan behar da: ez du selektiboegia izateko

egokiera handirik izan, bertso *corpus* osoa ere ez baitzen handiegia. Beraz, oraindik meritu handiagoa.

Bertso jarrien sailak atentzioa eman dit; izan ere, asko hildako lagunei eta adiskideei paratuak baitira, sarritan familiakoek eskatuta. Inoiz gutxitan ikusi dut era horretako horrenbeste bertso liburu batean. Baina bestela jarritakoak ere ez dira gutxi.

Hauxe da dena: Patxi Iraola Garmendiaren biografia, hainbat kontu, jakingarri eta 700 bertso ingururekin.

Rufino Iraola Garmendia



Patxi Iraola eta Eusebio Igarzabal. Ordizia.

*Arg. Josetxo Marin.*

Inoiz ez zait gustatu  
harrokeriz teman,  
horregatik sartzen naiz  
apurren zerrendan;  
neurria hartzea  
ederra zeren dan  
eta zer egingo det?  
Dedanetik eman.



Olegi baserri zaharra.



Gure gurasoak.

## Olegiko ataritik

---

«Patxi Iraola Garmendia, Iraola bertsolaria, 1933ko apirilaren 23an jaio zen, Zaldibiako Olegi baserrian». Horrela hasiko zen nire biografia, beste inork idatzi izan balu, normala den bezala, eta neuk idatzita ere bere horretan uztea pentsatu dut.

Halabeharrez, gure baserriak bi izen ditu Olegi edo Olategi, eta eskrituraren batean *Olaegui* ere azaltzen da. Baina herriak ez bata ez bestea dio esaten, baizik eta «Olei». Ez da nire kasua, baina izan dira familian «Olei» izengoitiarekin, izendatu dituzten pertsonak. Esate baterako, «Olei Handia» esaten zioten gure aitonari, nire aitapontekoari. Hari zor diot izena, Frantzisko Mari baitzen hura. Neroni ere «Prantxiko» deitzen zidaten gaztetan, batez ere etxean; oraindik senide batzuek hala esaten didate.

Auzoak Olaeta du izena, alderdi horretan *ola* edo *olak* izandako aztarnarik ageri ez bada ere. Larraizko bidean dago Olegi, kamiotik hirurehun bat metrora, Bentaberri eta Telleritxorekin triangelua osatzen duela, Igartzeta baserriaren azpialdean, Nañarri eta Gaztelu mendien aurrez aurre. Gaur egun, Olegi-berri etxean bizi naiz, jaiotetxetik nahiko gertu, Txiritaren estatu berean, hau da, soltero.

Pedro Joxe Iraola Jauregi eta Genoveva Garmendia Apatategi ziren gurasoak. Neu naiz oinordekorik zaharrena, baina beste zazpi seme-alaba ere izan zituzten. Aita Olegin bertakoa zen; ama Igartzetakoa.

Bertsoaz maiteminduriko gizona izan naiz: ume-umetatik neurekin izan ditut bertsotarako zaletasuna eta grina berezia, etxeko giroak zeharo kutsatuta, noski. Amak bertso zahar asko kantatu ohi zuen; aitak, berriz, bereak ere bai tarteka.

Nahiko gazterik hasi nintzen lagunartean kantatzen, baina plazarako bidean inoiz pentsatu gabe, adiskide batek «behartu» ninduen arte.

*Naizen apurra*. Izen handirik ez duzunean, beste munduko pretentsiorik gabe jarduten duzunean, errazago da

izenaren jabe izatea; ni, nezakeenaren barruan, saiatu naiz bertso-lanak ahalik eta ongien bideratzen, izenaren jabe izaten, naizen apurra erakusten.

Ez naiz ahaleginduko, ordea, neurea azaltzen bakarrik, mintzatuko naiz ezagutu dudan bertso-giroaz ere, eta hementxe ezarriko dut giro horretatik bildutako besteren uztaren mostra zabal bat, bertsolari hainbat izan bainaiz bertso-jasotzaile.

### **Iraola Garmendia**

Ez da kasualitate makala, baina azkeneko lau gizaldietan hiru *Iraola Garmendia* izan dira Olegin: birraitona, aitona eta gu geu. Aitak eten zuen katea, *Iraola Jauregi* baitzen; bera ere, ordea, *Garmendia* batekin ezkondu. Gainera, hark ere hirugarren eta laugarren abizenak *Garmendia* eta *Garmendia* zituen.

Beste detaile bat ematearren, esan dezagun Zaldibiako Arrue baserritik etorri zela *Iraola* Olegira: Jose Iraola Nazabal, gure birraitonaren aita.

Aitaren aldeko amona Beasaingo Arriaran auzokoa genuen, Buruarreta baserrian jaioa, eta gero Muxika baserrira aldatua. Maria Antonia Jauregi Garmendia zituen izen-deiturak. 1945. urtean hil zen, 78 urte zituela. Etxekoandre eta baserriko lanean, bizitza normal-normala eraman zuen; eguneroko bizitzaz aparte ez dut gogoratzen gauza aipagarri eta berezirik.

Amaren aldeko amona, berriz, ataundarra zen; Ataungo Munduate baserrian jaioa. Katalina Apalategi Goikoetxea ziren haren izen-deiturak; ondo abizen ataundarrak biak ere. 1943an hil zen. Nik ezagutu nuenerako dezente bajatuta zegoen, baina ez zuen ahoan bizarrik. Behin batean, gure ama gaixo antzean eta, zer moduz zegoen galdetu zidan; ondo zegoela esan nion. «Hi bai, ondo hago», erantzun zidan.

### **Olegi zahar**

Kontu bitxia da, baina nondik gatozen ikusteko, 1888an, aitona zena ezkondu zenean, oso polita da eskriturak Olegiko

ondasunei buruz zer dioen ikustea. Beste askoren artean honela dio:

*«Los comparecientes Don Francisco Iraola y su esposa Doña Ana Josefa Garmendia dicen que viven en el caserío Olaegui, sito en Zaldivia y que tienen los siguientes bienes: cuatro vacas con dos crías y una burra, cuyo valor es de setecientas cincuenta pesetas; cien ovejas y una borda, de valor mil setecientas cincuenta pesetas, herramientas de ganado y labranza, de valor mil pesetas y además doscientas quince pesetas que tiene que haber de varias personas....»*

Bestalde, eskritura horren arabera, Olegikoe Andurio mendian ere bazuten terrenoa. Kasua da sekula ez dugula entzun, ez etxean eta ez inon, terreno horren berririk. Saldu egingo zuten, edo galdu egin ote da?

Baina dena ez da edukitzea, ematekoak ere bazituzten: zortziehun pezetaren zorrak ageri dira eskrituran; ez da harritzekoa, ordea, gure birraitonak Itsasoko baserri bat eskuratu baitzuen lau mila eta ehun pezetaren truke. Baina badi-rudi laster eta erraz kitatzeko modua izan zuela, saldu egin baitzuten Jauregiogena izeneko baserri hori

Jakina, nire gogoramena baino lehenagoko kontuak dira horiek. Segur aski, gure gurasoen gogoramena baino lehena-goak ere bai, eta ez dut gogoan han bildutako sagarrik edo gaztainarik inoiz jan izana. Beraz, Olegi izan da nire betiko habia. Bi bizitzako etxea zen, berez, baina hori ere aurrera-goko kontua da, nik bakarra ezagutu baitut beti.

Amak lurrera «jausia»  
non hartu nuen bizia  
horra esaten hasia  
hantxe daukagu gure Olegi  
nere kabi berezia:  
jaio ta bertan hazia  
naizen moduan hezia  
ta dedan dohaiz jantzia



Iraola anai-arrebak, Olegin, 1990.



Patxi, Agerreko Nikolas Aiestaranekin.



## Zaldibiaren kokagunea eta historia laburra

---

Zaldibia Goierriko eskualdean dago kokatua; Ordiziatik 4 kilometrora; Tolosatik 20ra eta Donostiatik 45era. 16,2 km<sup>2</sup>-ko hedadura du, 164 altitueda (herriko plazan) du. 1.500 bizilagun dauzka momentu honetan. Herri hauekin egiten du muga: Arama, Altzaga, Gaintza, Abaltzisketa, Ataun, Lazkao eta Ordiziarekin. Baita Eniro-Aralar mankomunitateko lurrekin ere egiten du muga. Aldi berean, mankomunitate horretako kide da. Amundarain ibaia da garrantzitsuen, Urtsue-rreka ahaztu gabe. Azkeneko hori aurrenekoaren ibai-adarra da, eta Amondarain, berriz, Oriaren ibai-adarra. Ordizian egiten du bat Oriarekin. Mendirik garrantzitsuenak hauek dira: Nañarri (1.341 m), Auza-Gaztelu (899 m) eta Intzartzu (565 m).

Bien bitartean libre izanik, independente izanik, 1399an, Altzaga, Arama, Gaintza, Itsasondo eta Legorretarekin batera, *Villafrancari* lotu zitzaion. Horrela iraun zuen 1615era arte; urte horretan hiribildu bilakatu zen, Villafrancaren tutoretzatik askaturik, eta urte horretan bertan sortu zen *Oria Ibaiaren Batasuna*-rekin bat egin zuen. Elkarte horren xedea zen gastuak murriztu eta abantaila ekonomikoak lortu. 1682. urtean atera egin zen elkartetik. Baina berriro itzuli egin zen, 1741ean, eta han jarraitu zuen 1768ra arte. Berrogeita hamar urtez bere kasa ibili ondoren, berriz ere 1818an, elkarte berria sortu zuen: Atzalbea, Beasain eta Ataunekin batera, 1852an desegin zen arte.

Zaldibia, batik bat, nekazari- eta artzain-herria izan da XX. mendearen erdi aldera arte. 100 baserritik gora zituen produkzioan Zaldibiak, eta berrogeita hamar artzain baino gehiago ere bai.

Zaldibiak, Aralar mendiaren babesean kokaturik, artzaintzarako erraztasun handiak izan ditu. Irispide errazeko galtzada bat zuen. Ardiak larre onetan bazkatzeko modua izan du beti. 1409. urtean, Enirio-Aralar Mankomunitatea

sortu zen, hamalau herrik osatua, eta Zaldibia horko partaide da hasieratik.

Sal-erosketa hobetzarren, 1569an Ordiziako bidean galtzada eraiki zuten. Horrek, begi-bistakoa denez, indartu egin zuen Ordiziako azoka (1512) eta Zaldibiako nekazari eta artzainei mesede handia egin zien.

1870. urtean, Ordizian *Norteko Trenaren* geltokia eraiki zuten; Zaldibiako Udalak ere egin zuen bere ekarpen ekonomikoa, trena eta geltokia izateko; horrela, Tolosan eta Donostian ere saldu ahal izango zituzten beren produktuak.

(DV, Zaldibiako kronika: 08/10/24)

## **Gure aurrekoak**

---

*Gure aurrekoak.* Atalburu orokor samarra, agian; baina saiaturko naiz eremua ahalik eta zehatzenik zedarritzen. Gure aurrekoak esatean, gutxienez, lau gauza esan nahi nituzke: euren eguneroko bizitza nolakoa zen –beraz, lanari eta lana-besei lotua legoke–; zer-nolako giro sozio-politikoan bizi ziren; zer kultura-girotan mugitzen ziren; horrekin loturik, etnografikoki nola definituko genukeen gizarte hura; eta, azkenik, bertsolaritzak, baldin eta existitzen bazen, zer esan nahi zuen gizarte hartan.

Ez nuke atzera gehiegi jo nahi; geldi gaitzen, hasteko, azken karlistada (1876) eta Kubako gerraren (1898) tarte horretan. Ez naiz hasiko hemen historia egiten, ezin izango bainuke, ez naiz horraino iristen. Apalagoak dira nire xedeak. Baina karlistadari buruz zerbait kontatu nahi nuke; ez gero jakin dudana, baizik eta gure etxean, batez ere aita zenaren ahotik entzunda bezala. Gero jakin dudana diodanean, esate baterako, Orixek Santa Kruzi buruz idatzi zuen liburuaren eta abarren gainean ari naiz. Irakurketa horiek alde batera utziko ditut, eta aitak kontaktzen zigunaren aditzera emango.

### **Santikutz**

‘Santikutz’ idatzi dut, gurean hala deitzen baitzioten beti Santa Kruz apaiz gerrillariari. Haren oihartzuna, ikusten duzuenetz, oso hedatua zegoen: edozein baserri puntatako aitonak edo amonak emango zuen aditzera. Bazuen beste bertute bat ere. Pasarte bera, toki batean eta bestean, askotan desberdin kontaktzen zuten. Ni etxean entzundakoari lotuko natzaio. Esan beharrik ez dago balio historikorik ez duela izango, baina bai balio sinboliko eta mitiko handia. Beraz, horrela azaltzea eta ikuspegi horretatik epaitzea nahiko nuke; azken finean, helburua da gure aurrekoak zein girotan bizi ziren ikustea.

Zaldibiako parrokian, oso antzinatik, bazen zilarrezko gurutze bat. Gerora neuk ere ezagutu nuen. Sakristian egoten zen ondo gordeta, jai eta ospakizun handietan bakarrik ateratzen zuten handik. Santikutz inguru hauetan zebilela, gurutze hori desagertu egin omen zen. Zurru-murrua zabaldu zen Santikutzen mutilek eraman zutela. Hernialdeko apaiz gerrillaria gogor haserretu omen zen, eta elizako sakristaua eta herriko jueza hartu omen zituen preso. Kontuak argitzea gustatzen zitzaion, nonbait, baina ez nolana: *paloak* eman omen zizkien biei ala biei, berrogeita hamarna *palo*. Ez dakigu egia ala gure aurreko horien irudimenaren kontua den, baina esaten zuten jueza hil egin zela, eta sakristaua ozta-ozta atera zela bizirik.

Beste batean, Subi baserriko Santiago Gaztañagarekin egin omen zuen topo Galbariotako iturrian Santikutzen «batailloiak» (ez dakigu horrenbeste mutil Zaldibian bilduko zuen inoiz). Subi baserria hiru herriren mukan dago: Zaldibia, Abaltzisketa eta Gaintza. Galbariota, berriz, herritik Olegirako bidean dago, kamio-ertzean.

Kuestioa da Santiago gaztea espioitzat hartu zutela, eta hari ere paloak eman omen zizkioten. Larri-larri ibili omen zen, baina ez zen hil.

Santikutz inguru hauetan zebilenean, herriko erretorea Nafarra omen zen. Oker ez banago, Patrizio Berasategi zituen izen-deiturak. Santikutz Nafarroara joan nahian omen zebilen, eta Don Patriziok lagundu omen zion, Olarango Saroira (Olakosai) arte; gaur egun, Akapulko ere esaten diote toki horri, Mexikokoaren oroimenez edo; hango musikarekin eta bizimoduarekin gustaturiko asko izan baita gure artean. Don Patriziok (ustezko konfiantzaren gauzak izango ziren) esan omen zion apaiz-bizitzatik urrundu eta bizimodu lasaka antza ez ote zuen hartu. Orduan Santikutzek, fusila gora jasorik, erantzun omen zion: «Etor hadi gaur nirekin eta ikusiko diagu bizimodu lasaka norena den».

Nafarroara iritsi zenean, Erregea han omen zegoen, eta ezkutatu egin omen zuten, Santikutzek gizona azkar garbitzen omen zuen eta. Santikutzen figura mitikoaz mintzatzen

zitzaizkigun, baina ez ziguten askorik argitzen noren alde zebilen. Suposatzen da karlisten alde eta liberalen kontra, baina, historiak esaten duenez, ez zen inorekin ondo etortzen.

Beste pasarte bat ere bada, Beizaman gertatua (Orixek agian beste puntu batean kokatuko du). Nik, entzunda bezala, ipiniko dut, eta nik entzundakoaren arabera Beizama da eszenatokia. Baserri batean gordeta zegoela, liberalek aurkitu egin omen zuten; inguratuta zegoela ikustean, etxeko nagusiari prakak eta alkandora eskatu, buruan otarra eta eskuan igitaia hartu eta, arbi-hostoa egitera balihoa bezala ihes egin omen zien. Ez zen ganadu ederra izango! Oraingoan bai, oraingoan Orixeri utziko diogu hizketan: Santa Kruz apaiza jesuita sartu zen azkenean, eta esaten du merituren bat izango zuela, «jesuitek ez baitute edozein moduz inor hartzen». Eta Orixek horretaz bazekien zerbait.

### **Kubako gerra**

Kubako gerraz ere mintzatzen ziren gure etxean. Neuk ere ezagutu nuen han izandako bat baino gehiago. Ez ditut gogoan denen izenak, baina ulertzeko adina aitortuko dizuet. Hauek ziren horietako batzuk: Sorron baserriko Jauregi «Kartero zaharra», Igartzetako Tomas Elozegi, Telleriko Martin Otegi, Saturdiko Joxe Antonio Iruin, eta denetan ezagunena Patxi Erauskin, «Patxi Errota» bertsolaria. Gure amak esaten zuen (ez dakit norengatik) goseak amorratzen, platanok lur-estali eta jatera ausartzen ez, ez baitzekiten jatekoak zirenik. Hura ere ez zen izango ederra! Baina Kubako kontu gehien utzi diguna Patxi Errota bertsolaria da. Gu bertso batekin konformatuko gara. Gehiago nahi duenak jo beza *Auspoa liburutegia* saileko 130. alera; hantxe aurkituko ditu xeheetasun gehiago.

Zenbat seme eder bala granadaz  
hil da sartzen da lurpera,  
harkaitzak negar egin lezake  
konparazio batera;

zer estadutan gelditzen geran  
hortik kontuak atera.  
Mutil solteroak izango diton  
andregaietzaz aukera.

Txirrita zalea izan zen politika-kutsuko bertsoak eta historiari lotuak idazten. Baditu Foruen inguruan edo Kubako gerrari buruzko bertso batzuk, nik sarritan entzunak eta kantatuak; haiekek gogoratuko ditugu:

Mila zortzihun hirurogeita  
hamaseigarren urtian,  
ekaitz gaizto bat sartu zitzaigun  
Kantabriako partian,  
lehenago ez zen kintik tiratzen  
gure sorleku maitian,  
elementu hau nundik sortu zan,  
ongi entera gaitian,

Kintak jarrita ondorenean  
beste hogeit bat urtian  
zenbat amaren seme onradu  
Kuban sartu zen lurpian!  
Guraso askok negar egin du  
hura saldu zan artian.  
Gehienak lutoz jantzi ginaden  
Kantabriako partian.

Aberats askok pagatzen zuen,  
soldadu joan zenbait pobre;  
lege hori jarri ez bazen ere  
arlotiarentzat hobe,  
azkenerako estranjerua  
egin zen islaren jabe;  
lehen ere Kuba saldu zitekeen  
hainbeste gizon hil gabe

## **Aralar mendiko kontu bitxiak**

Gure aurreko Zaldibia nolakoa zen aipatu dugu lehenago. Esan dugu artzainak eta baserriarrak zirela gehienak. Gure familian ere hala ziren, bai Olegin eta bai Igartzetan, nik baserriar soil ezagutu banituen ere. Aurrera jo aurretik, tes-tuinguruan hobeto kokatze aldera, Jose Garmendia Arruabarrrena historialari eta apaiz herritarrak idatzi eta Rufino Iraola Garmendiak euskaratu eta moldaturiko artikulua-ren laburpena ezarriko dut lehenik:

*Zaldibiak badu, dantza eta herriko seme argiez gain, iragan isil bezain monotonoa, bere muino eta baserrietako isiltasunaren parekoa. Kasik ez dago ezer berezirik, bizimodua bera ez bada, txikikeria deigarriez beteriko bizimodu berezia. Dena dela, bere historia patxadatsuen harien, bada zenbait gauza, zenbait gertaera, denbora iheskorren atzaparretatik errekuaturik, gure garaietaraino iritsi dena, aro bat islatu eta giro jakin bat definitu duena.*

*Oraingoan Aralartik datozkigu berriak, antzinateko mendi patriarkal horretatik; gaur, eliz dorreko kanpai-hotsek Santa Fe zaindariaren jaiak iragartzen dituzten honetan, betilun eta txiro ageri zaigu. Geroxeago, bildotsak bidaliko dizkigu, elkarren kontra estuturik eta artzainen txistu-hots eta txakurren artean, Bizkai aldera abiatzeko. Horixe da, udazkenean, artzain-herri honen ohiko erretratua.*

*Atsegin dut, zinez, momentu batez begiak itxi eta oroitza-penetan galtzea. 1500. urtean nago, gure herri honen edozein ingurutan. Toki aski zakar eta bakartia da, alde guztietatik laharrez eta basoz josia. Nire begiak gari sailak, arta soroak eta abar ikusten ohituta daudelarik, oraindik ezin naiz jabetu garai hartako landaredi ugariaren sendotasunaz. Gaurkoarekin alderatuta, oso bestelakoa zen Gipuzkoako paisajea; esan beharrik ere ez dago animalia-mota askoren bizitokia zela; baziren hartzak, otsoak, basurdeak, basakatuak, azeriak... Eta hainbestexa dira, XVI. mendean, Aralar mendiko artaldeei eraso egiten dieten sarraskigileak, Enirio-Aralar elkarteko herriak bilera egin beharrean aurkitzen dira; 1578ko maiatzaren*

20an egin zen bilera hori eta ordenantza hauxe idatzi zuten: hartza akabatzeagatik, 6 dukat (16,50 pezeta) saritzat; otsoarengatik, 2 dukat; eta beste piztia mota batzuk (obillo) harrapatzeagatik, 2 erreal.

Ordiziako diru-kontuetan ageri denez, 1579tik 1608ra bitartean, ontzako urrea ordaindu zitzaien ehiztariei, 19 hartz eta 7 otso akabatzeagatik. Gerturago etorrira, 1658an, Gabirian hartz bat harrapatu zuten, eta Aralarren beste bat, 1735ean; azkeneko horrek 87 kg pixatu zituen larrua kenduta, eta Ordiziako Valmedianoko Markesaren palazioko atarian egon zen jendaurrean erakusgai. Iztuetak dioenez, idiazabaldarrek 39 kiloko tigrea harrapatu zuten zepoan, 1776an.

Baina sarraskigile guztien artean, otsoa da ugariena eta Gipuzkoako lurraldean gehien iraun duena; horren seinale gisa, hor daude bere izena daramaten hainbat toki. Zaldibian ere badira erro hori daramaten baserri-izenak.

Tresna asko erabili zen, Aralar ingurutik otsoa desager zedin: zepoa, tranpak, otsotarako perdigoia (berezia) eta, batez ere, benenoa. Horretarako, artzainek pizti harrapatzaileak eramaten zituzten, diru truk, piztiaren arrastoak ikusi orduko. Adituok biderik bide ibiltzen ziren, abere-tripak lorrean zituztela, eta han-hemenka sebo-puskak ipintzen zituzten, benenatutako okelarekin nahasi. Otsoak arrastoari zuzen jarraitzen dio, pozionarekin topo egin arte.

1895ko elurtean, harrapaketa-modu hori dela medio, sesio izugarria sortu zen zaldibitarren eta ataundarren artean. Zaldibiakoek benenatutako asto-burua ipini zuten Enirio-Aralar elkarteko mendietan, eta ataundarrek ahuntz-burua, euren herri-terrenoan; hauek ere pozoinduta, noski. Hurrengo egunean joan ziren batzuk eta besteak nor bere karnata (cebo) ikustera, eta gurek hiru animalia aurkitu zituzten akabatuta: azari handi bat, izugarrizko arranoa (hegotik hegora metro eta erdi neurturen zuen) eta 49 kiloko otso bikaina. Hirurak ere jatura egin zuten tokitik gertu zeuden akabatuta.

Era berean, ataundarrek, ahuntz-buruari begira jarri zirenean, otso-arrastoak ikusi zituzten elurretan; haien ustez,



*otsoa, ataundarren janaritik probatu ondoren, Zaldibia aldera joan zen. Zaldibitarrek otsoa harrapatu zutela jakin zutenean, ataundarrek pentsatu zuten eurek ipinitako ahuntz-burutik janda benenatu zela, eta erreklamatu egin zieten zaldibitarrei. Ataungo alkatearengana joan ziren biak, bai ataundarrak eta bai zaldibitarrak, ziurtagiri bila, hori beharrezkoa baitzuten 375 pezeta kobratzeko, hau da, artzainen elkarteak ordain-saritzat izendatua zeukana jasotzeko. Alkatea zeharo txundituta geratu zen, batzuen eta besteen arrazoiak entzunda; izan ere, nork jakin zer janda, asto-burua ala ahuntzarena, akabatu zen otsoa?*

*Hala ere, Ataungo Alkateak ez zuen Salomonen biderik hartu. Dakigunez, Salomonek, epaiketa sonatu hartan, haurra erdibitu egin zuen, berea zela zioen emakume bakoitzari zati bat emateko. Ataungo Alkateak ideia askoz argiagoa izan zuen: albaitariari deitu eta piztiaren sabela irekiarazi zion. Halaxe egin zuen, eta astoaren belarria aurkitu zion; belarria haragi zaila izaki, ez zuen izan desegiteko astirik. Egindako proba guztiz erabakigarria gertatu zen, eta zaldibitarrek eraman zituzten otsoa harrapatzegatik emandako diruak.*

*(...)*

Arestian esan dut gure familiak, bai Olegikoa eta bai Igar-tzetakoa, artzainak zirela. Hamaika aldiz gertatuko ziren aurreko artikuluko horretan aipatzen den egoeran. Ez daukat beraiek zuzenean kontaturiko era horretako istoriorik, baina uste dut Jose Garmendiaren lanak ederki ordezkatzeko duela haien ahotik, hartara jarri ezker, entzungo nukeena.

Udan, Olegiko familia Ezki zeritzon parajeetan egoten zen hasieran, baina gero Arransarora aldatu zen. Hain zuzen, amaren familia ere han egoten zen. Bizilagunen artean, pika-reska apur bat beti izan izan da. Hemen ere badira batzuk. Bat kontatuko dizuet. Gure aita zenak artoa botatzen omen zuen txabolan eta Jose Antonioren (amaren osaba) oiloak etorri artoa jatera eta tarteka arrautza bertan egiten hasi omen ziren; eta gure aitak arrautzak jaso. Geroagoan ere amak errieta ematen zion aitari jokabide hori zela bide. «Hori egin egin behar da, gero!», esaten zion.

Baina alderantzizkorik ere entzunda gaude. Igartzetako amonak Olegiko Etxaburuko hesitik egurra eramaten omen zuen sua egiteko; gero zer gertatuko eta Olegiko bildotsak Igartzetako baratzean sartzen. Orduan Igartzetako amonak gogor erasotzen omen zion errietan, bildotsak hobeto zaintzeko esanez. Olegiko aitona Jose Frantziskoren erantzuna besterik ezin izan: «Sartuko ez ditun, ba, labe-sua egiteko eramaitzan, berriz ere, hesiko zotzak».

Beste detailtxo bat emango dizuet, garai hartako bizimodu nolakoa zen hobeto igartzeko. Igartzetakoez ardiak gauez itxian edukitzen omen zituzten, garoarekin azpiak eginda. Zertarako? Gero soro-belardietan botatzeko simaurra izan zezaten, altxirriarekin batera. Gure ama zenak kontatzen zuen nola ibiltzen ziren Arransarotik simaur eta altxirri-garraioan. Pentsatzen jarrita ere! Mundua beti ibiliko da bueltaka, baina buelta bakoitzean ez du arrasto berdina uzten.

Elkarri adarra jotzen ez ziren kamutsak. Antonio Burruntzi esaten zioten artzaina, Lusaon egoten zena, oso berandu jaisten omen zen udazkenean eta oso goiz joan udaberrian. Igartzetakoak, berriz, nahiko azkar jaitsi eta maiaztzaren erdi aldera arte igo ez. Urte batean, sumatu omen zuen Igartzetako Joxantonio eta Praski anaiak badatozela, eta bidera atera omen zitzaien, gazta txiki bat eskuan zuela, eta Burruntzi horrek bota omen zien: «Gazta honek inongo zorrik ez dik», eta Praskik erantzun: «Hartzeko handirik ere izango ez dik».

Lana ez ezik, mendian festa eta erromeriak ere egiten zaileak ziren. Feriak ere ohikoa izan behar zuen. Besteak beste, pilota-partidarik ez zen faltako; bereziki aipatzen dut hori, gure aitona Frantzisko Mari zena pilotaria baitzen. Dakizueenez, ezker hormarik gabeko joko-lekuak ziren orduan; nola-bait esateko, aldeak alde, izango zuen oraingo tenisaren antziz. Pilota-partidaz gain, korrika-apustuak ere jokatzen zituzten. Dirudienez, orain adinako paper eta telefono-dei gabe moldatzen zuten haiek dibertsioa.

Makilariak uste baino gehiagotan izan ohi ziren; horretan ere gure aitona tarteko. Inoiz herriren bateko festatara joaten

baziren, ez ziren joango makilak txabolan ahaztuta, han eramango zituzten eurekin, eskandaluren bat sortuta ere. Gutxi fidatu beraiek sortzea ere! Dena dela, batzuetan harro, epe-lak emanda, itzultzen ziren etxera, eta hurrengoan buru-makur, hartuta alegia. Oso «profesionalak» ziren, nonbait; entrenatu eta dena egiten zuten.

Behin batean, gure aita zenari, Igaratzako feria-egun batean, Amezketako aitona bat inguratu omen zitzaion, Eloorraingo Artano, eta esan omen zion:

–Olei Haundiaren semea omen haiz.

–Bai, halaxe naiz –erantzun gureak, eta amezketarrak jarraitu:

–Garai batean ez zuan ganadu ederra; gu ere zerbait bagintuan, baina haren aurrean ez zuan giro.

Antza denez, gure aitona «bataila» askotan parte hartua zen makilari gisa. Jakinda gaude behin batean San Migelen ere nahiko gaizki pasatu zutela, nafarren kontra borrokan hasita.

## **Mikeleteak eta Guardia Zibilak**

Gure aitonak 20 urte inguru zituen garai horretan (1860an jaioa zen), bi aldaketa nagusi gertatu ziren. Txirritarren bertsoan ikusi dugun eran, 1879ra arte soldadu ez zen tiratzen hemen, ez zen hemendik inor soldadu joaten, orduko foruen babesean (kontuan izan 1876an kendu zituztela). Baina gero bai. Bestetik, mikeleteak kendu eta guardia zibila ipini zuten. Zaldibiara etorri ziren lehenengo urtean harrika eman omen zieten. Herriko festak omen ziren, eta hor omen zebiltzan gora eta behera guardia zibil horiek, eta jarri dira perratokitik Iburguren baserrira alderako bidean, bazterrean harriak pilatuta, guardia zibilak pasatzen ikusten zituzteneko pronto. Azaldu zirenean hasi dira goitik behera harrika, eta guardia zibilek han sartu behar izan omen zuten Albitxu-berriko karreran. Beharko sartu!

Horrelakoxe giroan bizi izan ziren gure aurrekoak, eta guk ere, aldez edo moldez, kutsatuta egon behar. Beraz, gure bertso-gintza zein testuingurutan kokatu behar den hortik kontuak atera. Jatorria non duen eta zer bizi izan duen, gero horren arabera mugituko da bat bizitzako larre eta eremuetan.

### **Bertso-giroa**

Gure birraitonak, Jose Frantzisko Iraola Garmendiak, memoria ikaragarrikoa izan behar zuen. Mendian, uda partean behintzat, egiten zuen bizimodua; baina asteazkenetan jaitsi ohi zen Ordiziako feriara. Inoiz edo behin bertso saiorik izaten bazen, bertsorik gogoan hartu gabe nekez etxeratuko omen zen hura. Biloba mutil-koskorrak ere berekin batera egoten omen txabolan (gure aita zena, Mizpizabaletako Pedro Joxe Aiestaran Iraola etab.). Aitona norabait joaten zenean, pozez txoratzen egoten omen ziren; esaten omen zioten elkarri: «Aitona gaur ere joan dek; gauean bertsoak seguru zetia-gu». Bereak ere kantatzen omen zituen tarteka.

Gure aitona, aldiz, ez zen bertsolaria. Jakin ere oso bertso gutxi zekizkien. Dena dela, umeei lo harraraztekoan eta kantatzen zituen koplak edo antzeko batzuk:

Mandazainek ekartzen dute  
Nafarroatik olio,  
hi bezelako bertsolariak  
ez dik neretzat balio.

Aldabako Mariak  
alabak baditu,  
gezurra frankorekin  
enpleatzen ditu.

Hiru koltxoi nabarrak,  
kutxa bat berria,  
adios beti-betiko  
alaba Maria.

Baina aitona gorabehera, gure etxean beti hitz egin da bertsolariez. Nik txiki-txikitatik nuen, adibidez, hauen aditzera: Xenpelar, Ixuela, Oilaki, Udarregi, Pello Errota, Joan Jose Ugarte esaten ziotena, Ametza (Lekunberrikoa?), Txirrita, Frantses Txikia, Villabonako itzaina, etab.

Hurrengo bertso hau izango da, seguruenik, entzun nuen lehenengotarikoa. Txirritarena omen da. Pello Errota, dirudenez, gaizki-esaka antzean ari zen kantuan Udarregiren aurka, eta Txirritak honela erantzun zion:

Joan Jose Udarregi  
Usurbilgo zana,  
hamaika ditxo eder  
euskeraz esana;  
bota nahi izanda ere  
kolpeko dozena  
ez zitzaion ahitutzen  
hari almazena.  
Pello ta ni ez baina  
hura zan gizona.

Beste behin Pello Errota eta Villabonako itzainak egin omen zuten topo. Bertsotan hasi omen ziren, eta Pello Errotak esan omen zion (gutxi gorabehera): «Nik alaba zuri emateko gupidarik ez det, baina azkar ibili, adiskidea, pretendiente asko dauzka eta». Eta Villabonako itzainak erantzun:

Ederki asko ikasia naiz  
zure alabaren fineza,  
jatorritikan ez leike izan  
izugarritzko pieza.  
Aita berorrek emana dauka  
gaiztakerizko laineza,  
aukera haundia baino hobeto du  
inork ikusi nahi eza.

Beste batean, Pello Errota, Jose Bernardo, Joan Joxe Ugarte... Donostian izan omen ziren Lore Jokoetan. Gaua

parrandan igaro eta hurrengo goizean Villabonako Izkina tabernan omen zeuden, handik bakoitzak bere etxera, karro edo korreo zaharren batean, martxa egiteko asmotan. Bakarren bat burua mahai gainean botata omen zegoen. Ikusi ditu Villabonako itzain horrek (kale-garbitzailea omen zen) eta honela eraso omen zien:

Ikusten danez hauek  
dauzkagu logurak;  
ez ditu hola jarri  
iturriko urak.  
Pello hau moskortzen du  
ardoan figurak...  
Nire iritzirako  
berdinak hirurak.

Hurrengo bertso hau ere hamaika aldiz entzuten zen gure etxean. Ez dakit libururen batean egongo den. Esaten dute-nez, Joan Jose Ugartek Pello Errotari kantatua da:

Zer dirala uste dek  
ardoaren saltsak,  
gezurra diodala  
iruditzen al zak?  
Hik galdu al hituen  
komunean galtzak,  
ezkontzeko egindako  
oihalezko beltzak?

Gure ama zena memoria aparteko emakumea zen. Badaukat pena ederra hark kantatzen zuen hainbeste eta hainbeste bertso jaso ez izana. Bertso horietako asko ez daude liburuetan, edo nik ez ditut, behintzat, topatu. Beste batzuk bai hor daude; adibidez, *Markesaren alaba* eta *Brabanteko Genovevarenak*. Horiek ere ederki kantatzen zituen. Hona mostra txiki bat, nik oso umetan ikasiak:

Konbeni zaigun historia bat  
kantatu ahal bageneza...  
Horretarako lagun zaiguzu  
zeru-lurreko jueza.  
Beljikan ziran birtute haundiko  
dukia eta dukesa;  
haien alaba Jenobeba zan  
Rinboselako Kondesa.

Duke-dukesen alaba hau zan  
ttikitandikan hazia;  
bost urterako berak bezela  
ardatzian ikasia.  
Amak hau zion: —«Haur honek badu  
bestek ez duen grazia».  
Hain umil ta ondo egiten zion  
agindutako guzia.

Hamaika urte zitubeneko  
ikusitzen zan Elizan.  
Aingeru baten bizimodua  
jendiak hala zeritzan:  
Gaixo zeudenak bisitatuaz  
gazte-gazterik hasi zan;  
ahal zezakian limosna eginaz  
oso kontentu bizi zan.

Txirritaren bertsoak ere ohikoak ziren gure etxean.

Europatikan Amerikara  
askok egin du bisita,  
etxe onean jaiogatik  
danak han ezin bizi-ta;  
lana eginaz aberastuak  
dabiltza ondo jantzita.  
Gaur ez lituzke ezagutuko  
beren amak ikusita.

Handik honera baldin baletor  
gizon bat ona ta fina,  
bere lanaren sakrifizioz  
diru pixka bat egina,  
parienteak bisitatzera  
hark dakarren atsegina,  
ailegatzean ez du faltako  
zeinek ondo hitz egina.

Bertsoekin jarraituz, hurrengo ere sarritan kantatzen  
zuen gure amak:

Orain ehun urteko  
zenbait gizon abil,  
ez baziraden hil,  
bat txoratu liteke  
munduan balebil:  
hemengo tren da tranbi,  
eta automobil,  
hitza berriz nolanahi,  
alanbrean dabil;  
lehengo bidez gezurra  
besterik ez dabil.

Frantses Txikia oso aipatua zen gure etxean, baita herri-  
rrian ere. Pasadizo polit bat, behintzat niri asko gustatzen  
zaidana, kontatuko dut. Frantses Txikia bertsoan izan  
omen zen Zaldibian, eta gau beranduan hala galdetu omen  
zuen, bertsoan noski, ea harentzat ostatua non zen. Han  
omen zegoen «Albitxerriko» Primo Zaharra. Jarraitu aurre-  
tik eman ditzagun argibide batzuk: a) herriak «Albitxerri»  
esan arren, Albitxuberri da baserriaren izena; Zaldibiako  
kalearen erdi-erdi dago, nahiz eta baserria izan; b) Primo  
Zaharrak izena ez dakit nola zuen, baina abizena, behinik  
behin, Sukia; c) kale-baserri horretan zezena edukitzen  
zuten, baita gure garaian ere. Hauxe da Primo Zaharraren  
bertsoa:



Ostatu faltik ez zen izango  
ibili bazina zuzen,  
hainbeste toki badago eta  
gure etxeraino goazen,  
ta lotokia jarriko dizut,  
orbel pılan behien atzen,  
ta gaur gauetik izango dira  
gure etxean bi zezen.

Ba omen zen Ordizian igeltsero bat, bertotan dezente egiten zuena. Primo Zaharrarekin egokitu da, eta kantatu omen zion: «Nik brotxa beltzarekin pareta zuritu». Eta Primok erantzun: «Nik behi beltxari esne zuria atera». Emandako arrazoiak badakizkigu, baina ez bertsoak osorik. Ezin denean ezin da, eta horrekin konformatu beharko dugu.

Bertso zaharrak ez ezik, Fernando Amezketarraren bizitza eta ipuinak, Goñiko Zalduaren ipuinak, Ezkioko «Ama Birjinaren» kontuak, Jentil begibakarrarenak, artzain gezurtiarenak, Iztuetaren bertsoak (Kontxesiri), Lardizabalen *Tesamentu Zar eta Berriko Kondaira* liburuko pasarteak... ere askotan entzun ohi genituen. Aise ohartuko garenez, irrati eta telebistarik ez zen garai haietako ilunabarrak eraman errazagoak izaten ziren hain gustuko genituen kontu zaharrak entzunez.

## **Fernando Amezketarra**

Merezi du Fernando Amezketarraren zenbait datu biografiko gogoan hartzea, lehenengo bertsolaria ere, arrasto nabarmenak utzi zituen behintzat, hura izan baitzen.

1764ko urriaren 10ean jaio zen, Amezketako Espilasaletxe baserrian, eta 1823ko uztailaren 9an hil; beraz, nahiko gazterik hil zen. Esaten dute arana lepo jan eta ondoren ura edan zuelako hil zela. Heriotza gertu zuela ohartu zenean, honela hitz egin omen zien etxekoei: «Ni hiltzen naizenean esan, ailegatutako leku guztietan, ez nauela goseak hil; beti erdi goseak eta miserian ibili banaiz ere, ondo aseta hil naizela»

Senideetan zaharrena zen Fernando, eta Amezketan jaio zen bakarra; beste guztiak Adunan jaio ziren. Zergatik ote? Gurasoak ezkondu eta handik bi hilabetera jaio zelako. Herriarren aurrean lotsaturik, «nabarmenkeria» hura ezkutzera bere jaioterrira, Amezketara, joan ziren.

Jaio ez ezik hazi ere Amezketan egin zen errezeloak ditu Aita Zavalak, Fernandoren biografoak, konfirmazioko agiriak ere herri honetan agertzen baitira. Ezkondu eta bertan bizi zela, berriz, haren ipuin eta bertsoek garbi adierazten digute. Nolanahi ere, ezkontzaren legeetan jaio izan balitz, «Fernando Adunarra» izenarekin ezagutuko genuen gaur, edo agian Adunan ez zuen aurkituko Amezketan bezalako girorik bere gaitasunak garatzeko.

Fernando, herriak, ipuinlari bezala gehiago ezagutu du bertsolari moduan baino. Baina, dirudienez, bertsotan ere dezente egingo zuen. Hala ere, nik hark kantaturiko bertsoak baino lehenago ikasi nuen berari Hernaniko Txabalategik botatako bat. Huraxe gogoratuko dut:

Fernando ta Zabala  
Amezketakoak,  
badakit zeratela  
zeratela badakit  
koplari bapoak.  
Gu ez izanagatik  
zuek ainakoak  
egin ginuzen zerbait  
zerbait egin ginuzen  
ustez Jaungoikoak.

### **Goñiko zalduna**

Gure etxean bazen haren ipuina, erdaraz; kristalezko koadro baten sartua, ilustrazio grafiko eta guzti. Honela zioen, gutxi gorabehera:

Goñiko Zalduna gerrara omen zihoan zaldi gainean, emaztea eta umeak etxean utzita. Egun batean deabrua azaldu zitzaion pertsona-itxuran. Geldiarazi du Goñiko Zaldun hori eta «notizia» hau eman omen zion: «Zure emaztea beste batekin dago ohean».

Itzuli da itsumustuan gure zalduna, etxean sartu, logelara joan eta, ez bat eta ez bi, bertan hil zituen biak. Sarraskiaren ostean badoa berriro eta non egiten duen topo emaztearekin. Hura harridura!

–Baina, baina zu hemen? Nortzuk dira, bada, gure ohean daudenak?

–Aita eta ama zaharra; epelago eta goxoago egon daitezen ipini ditut han.

–Bada, biak hil ditut.

Hitzik gabe geratu ziren senar-emazteak. Teodosio, hala zeritzan zaldunak, bere bideari jarraitu zitzaion, kontzientzia nola lasaitu ez zekiela. Apaiz batengana joan zen konfesatzera; hark esan zion, ordea, bekatu hura ez zezakeela barka Aita Santuak baino. Orduan, Erromara jo zuen; Aita Santuarekin aitortu eta hark hau eman zion penitentziatzat: kate lodi-lodiak gerri bueltan bildu eta mendian bizi zedila haiek apurtu arte.

Aralar mendira etorri zen Teodosio. Behin batean, San Migelgo kobaren ondoan neska gazte batekin egiten du topo, eta galdetzen dio:

–Zer egiten duzu hemen?

–Herensugea etorri zain nago, jan nazan, eta horrela gure herriari bakean utz diezaion.

–Zoaz hemendik –esan eta bera geratu zen deabruaren zain.

Iritsi zenean heldu diote elkarri borrokan, eta Teodosiok San Migel goiaingeruari deiadar egin omen zion: «Lagundu». San Migel jaitsi omen zen zerutik ezpatarekin, eta lehenengo kolpean herensugearen lepoa eta Teodosioren katea apurtu zituen.

Mendiz mendi zebilen  
Goñiko Zalduna,  
egin zuelako hain  
pekatu astuna,  
Aita Santuak baizik  
barkatzen ez duna.  
Guk ez dakigu nor zen  
kateen jostuna  
baina bai San Migelek  
puskatu zituna.

### **Juan Ignazio Iztueta**

Gure aurrekoen artean Juan Ignazio Iztueta (1767-1845) aipatu beharra daukat, derrigorrez. Batetik, gure herriko, Zaldibiako, pertsonaiarik unibertsalena delako, koreografo eta dantzari gisan egin zuen lanagatik; bestetik, bertso dotore askoak ipini zituelako. Besteak beste, Kontxesiri paratuak ezagutzen ditu herriak gehien; horietakoxe bat edo beste gogoratuko dugu:

Egunaz argi gutxi, gauean ilun,  
kotsuelorik ez da neretzat inun  
maitea gabe;  
egin ote nadin haren jabe  
oroituzean,  
zenbat pena nere bihotzean  
ditut igaro;  
maite det eta ez da milagro.

Ai, hau bakardadea eta tristura!  
Nere bihotz gaixoa ezin piztu da,  
hain dago hila!  
Beti dabil kotsuelo bila  
bere artean.  
Banengo maitearen aldean  
ordutxo biko,  
pena guztiak lirake hilko.

Iztuetak, bestalde, gogor salatzen du dantza eta ohitura zaharren kontrako giroa. Batez ere, handizkiek eta jauntxoek dihardute herri xehearen ohituren aurka. Merezi du hurrengo pasartea irakurtzea (apur bat moldatu egin dugu, ulergarriago gerta dadin): «Bada gure lurraldean ezertarako ere balio ez duen txoriburu-jendilajea eta euskaldun guztientzat iraingarria». Geroago dio gure hizkuntza eta ohitura zaharrak entzuteak ematen diela higuinik handiena. Ez da horrekin bakarrik konformatzen. Gehiago ere esango die. Alegia, gure dantza gogoangarriak barregarri utzi nahi dituztela. Dantza herrikoien defendatzaile handia agertzen zaigu gure zaldibitarra; eta behin eta berriz aipatzen ditu kanpotarrek gure ohituren aurrean erakutsi dituzten miresmena eta begirunea; noski, bere arrazoiak indartzeko asmoz aipatu ere. Honela dio Iztuetak, guk apur bat moldaturiko hitz hauetan: «Gizon adituek arreta, errespetu eta miresmen handiz begiratu izan diete beti euskal joko, hizkuntza eta ohiturei». Honako izen hauek aipatzen ditu: Marina, González Arnao eta Abella.

### **Frantzisko Ignazio Lardizabal**

Konparazioak balio baleza, Iztueta munduko gizona zen; zer esan asko eman zuena, bere lana garrantzitsua izateaz batera. Lardizabal, aldiz, isileko inurria genuen. Gainera, gazterik hil zen, 1855, 49 urterekin, eta egindako lan asko galdu diren susmoa gero eta handiago da.

Nolanahi ere, *Testamendu Zarreko eta Berriko Kondaira*-rekin ez zuen arrakasta makala izan, gutxik bezalakoa. Alde horretatik ez dago kexatzeko moduan gure bigarren herritar hau ere. Garai batean, ez zen izango sukaldeko tximinia ondoan liburu hori ez zuen etxerik. Gurean, konkretuki, bazen, *Brabanteko Genovearen* historia eta bertso liburuarekin batera, edo *Markesaren alaba* eta beste hainbat bertso-paperekin nahasi.

Dudarik gabe, Lardizabal da Zaldibiaren izena goren jaso duen gizona, Iztuetarekin batera, beste guztiei ezer kendu gabe.

Lardizabalek oso joskera bereziko hizkera du, baina ez gaitetzen hor sar, agian ateratzen kostatu egingo litzaiguke eta; niri, behintzat, bai.

Bestalde, asko hitz egin izan da Lardizabalek Zaldibian ikasitako hiztegia ote zerabilen edo. Nik esan behar banu, esango nuke oso hiztegi zabala darabilela, nahiz eta oso Zaldibiako hitzak ere izan tartean. Hauek dira batzuk:

Kejura, pozoni, nozitu, zearo (Zaldibiako esanahiarekin), korde, arpaso, aienatu, amabi, oñazkar, atzendu, baldi, ballera, besanga, erreten, estali, gesal, gogoangarri, gogaikarri, illeti, orre, setioan, zeatu, zentoi, beztitu (amortajar), zerroa (tupido)...

Jakintsua elizan  
eta gramatikan,  
zenekien guztia  
jarririk praktikan,  
ia berrehun urte  
hemendik joanikan,  
baina ez pentsa oraindik  
ahaztu zeranikan.

## **Ezkioko Ama Birjina**



Bi haur otoitzean.

Ezkioko «Ama Birjinaren» istorioa ere ohikoa zen gure etxean. 1931 inguru horretan izan behar zuen. Ezkioko haur batzuei Ama Birjina azaltzen zitzaie la zabaldu omen zen. Ondorioz, egundoko jende pilak biltzen hasi ziren, autobus-jabe-  
ren bati ez omen zitzaion batere gaizki etorri. Errezatu, kanta-  
tu eta hitzaldi beroak egiten zituzten. Zenbait kasutan, jendea  
txorabiatu eta erori egiten omen zen. Beste batzuek han ez  
zuten parte oneko gauzarik sumatu. Nolanahi ere, Elizak ez  
zion eman oniritzirik, debekatu egin zuen. Alabaina, jende  
askok aurrera jarraitu zuen, igandero Ezkiora joaten. Nik  
neuk ere ezagutu nituen ezkirozaleak gure herrian. Hauek isil-  
peko bilerak egiten zituzten, behin etxe batean eta, bestean,  
besteren batean. Bestalde, ondo oroitzen naiz gure herriko  
erretoreak, sermoietan, ezkirozaleen kontra hitz egiten zuela.

Bertsolari askok ipini zizkion bertsoak gertakari hari.  
Esaten dutenez, Urdanpiletak bertsoak paratu eta Txirritak  
erantzun egin zion. Beste askoren artean, agi danean, Txirri-  
tak buruarina deitu zion Urdanpilletari, eta honek berriro  
erantzun hari; bertso asko dira, Txirritari zuzenean eran-  
tzundakoa hogeigarrena da:

Txirrita jartze'idazu  
nei buruarina,  
hobe zenduke horrela  
ariko ez bazina,  
zure haundi hori balitz  
diamante fina,  
balioa baleukake  
Espainiak aina.

### **Igartzeta: amaren jaiotetxea**

Asko joaten ginen gu Igartzetara. Amak, hangoa izanik,  
joera handia zeukan. Gu ere ez ginen atzera geratzen, jolase-  
rako lagunak ere hantxe baikenituen. Ordenari apur bat ja-  
rraituz, banaka-banaka hasiko gara hango gauza batzuk  
kontaktzen.

Gure amari entzundakoak esaten hasi nahi nuke; hala ere, hark zekien dena esatea ez da erraza izango. Igartzetan garai haietan lau bizitza ziren; guk ezagutu genuenerako hiru baziren ere, orain bezalaxe. Batean, Elosegi Etxabe familia bizi da; bestean, Otegi Mujika; eta gure amaren jaiotetxean, Alkaiaga Garmendia. Elosegi, Otegi eta Garmendia dira aspaldikoak. Alkaiaga beranduago sartu zen, Lazkaomendiko Abalin baserritik etorria, hain zuzen; beraz, Lazkao Txikiren etxekonekoa.

1930 aldera saldu egin ziren auzoko baserriak. Banaketa eta partiketa etorri zirenean, familia bat Igartzetatik Iparragirrera joan zen.

### **Ditzolariak**

Ba zen Igartzetan gizon bat Erramun Elosegi izenekoa, oso gizon argia eta hitzun egokia. Bertsoetan ere bazuen tajua. Behin batean, txerri kokkor bat ekarri zuten Ataundik, txerri ernaia, baina lehenengo umezkoa, eta 10 ume egin zituen. Txerriak, jeneralean, atzeko bi tititan esne gutxiago izaten du. Han egokitzen diren kumeak gose antzean egoten dira, eta haiek hasten dira saltatzen besteen artera eta izugarrizko borroka sortzen da txerrikumeen artean. Erramun hori ari da txerrikume horiek nola edo hala zuzentzen. Txerrikumeak hasi zitzaizkion elkarrekin borrokan. Gu ere ezagututa gaude bizimodu hori. Hala, behintzat, egin du bere eginahala iraina harrarazten, eta pixka bat lasaitu, elkarrengana bildu eta lokartu zirenean, kopla hau kantatzen zion txerri txikiari:

Ataungo fruitue,  
ez hola ohitue,  
ume asko egin dezu-ta  
galduko zaitue.

Gizon hori, garai hartakoa izateko, nahiko modernoa omen. Burusoila zen, baina atzeko ileak goraka orraztuta estaltzen omen zuen soilunea; horretarako atzeko ileak ez



zitzen mozten, baizik eta luze utzi, gero buelta emateko. Laboraria eta artzaina zen.

Urte batean, etxeko lanak nahiko atzeratuta zeuzkan. Garia egiteko sasoia azaroa izaten da (hazi-aroa). Dirudienez, urteren batean geratu zen azaroan garirik erein gabe. Joaten da Ordiziako feriara, eta han koadrila baserritar bat ari zen hizketan, taldekoren batek esan omen zuen: «Zaldibian egon behar du nekazariren bat garia ereiten hasi gabekoa». Ordu-rako abendua omen zen. Eta gauzak nola izaten diren, egun hartan bertan omen zuen hazitako garia etortzekoa, Beasain-go Usurbe baserritik.

Erramunek entzun egin zien esan zuten dena, eta eran-tzun omen zien: «Bai, bai, egongo da, bai, Zaldibian bakarren bat, nire moduko lasakaren bat izango da hura».

Udaberrian ardiak negututa zetorrenerako, askotan beza-la, zain omen zeuzkan herriko apaizak, adarra jotzeko. Bada-tor, eta apaiz horiek: «Beno, Erramun, aurten zer moduz pasatu da, bada, negua?» Eta esan omen zioten: «Hara, jau-nak, hil zirenak urdinak, eta bizi direnak nabarrak; aurten nire ardiek, borrokan hasita, ez dituzte botako adarrak».

Guk ezagutu genituen, eta apaizei erregaloak egiteko ohi-turak aurreragotik ere baziren, nonbait. Erramunek udabe-rrian urtero eramaten omen zien arkumeren bat apaizei, baina urte batean geratu da arkumerik eraman gabe. Apaiz-ek kontrol zorrotza eramaten omen zuten, eta ez omen ziren gelditzen motiboa jakin gabe. Klean tokatu denen batean esan omen zion apaiz batek: «Erramun, aurten zer pasatu da arkumearekin?; ez duzu ekarri». «Hara, jauna, izan dut, ba-da, merkataria». «Zein izan duzu, ba?». «Mirua, ez dakit noiz ekarriko duen dirua».

Behin, orduan ere izango ziren *Hamarrenak eta primiziak* edo... Labore guztiekin gertatzen omen zen berdin. Gereziak ere eramaten omen zitzaizkien apaizei. Erramunek, kasuali-tatea, urte horretan ez eraman gerezirik ere. Apaizak: «Erra-mun, aurten gereziekin zer pasatu da?». Hara, jauna, erdiak jan ditu auzoak, beste erdiak zozoak, horrela gastatu dira gure aurtengo gerezi gozoak».

Beste behin, ordurako aitonduta, Bedaiora omen zihoan. Auzoko batek galdetu omen zion:

–Nora abiatu zara, Erramun –eta Erramunek:

–Bedaiora noa. Andrea ekarri nuen handik eta txarra atarra zait. Keja ematera noa.

Horrelakoxe bromosoa izan behar zuen.

Beste batean, Erramunek Iparragirren omen zuen alaba, eta Iparragirreko ataritik egiten omen mendirako joan-eto-rria. Badoa mendira, eta aitona zetorrenerako bilobak ateratzen zitzaizkion bidera, eta ume horiek hasten zitzaizkon: «Nora zoaz aitona?», eta Erramunek: «Mendira noa, ez izan banintz indianoa».

Beste behin, ari ziren gaztaina biltzen. Bilobetako batek esan omen zion. «Aitona, honako Lazkao-gaztaina hau bota behar al degu?». Gaztaina klase asko ziren: Inurri-gaztaina, Lazkao-gaztaina, Legorreta-gaztaina, Andre Mari gaztaina... «Aitona, honako Lazkao-gaztaina hau bota behar al dugu?». «Zer Lazkao eta zer Beasain!, gure basoan dagoena bota edozein», erantzun omen zien.

Erramun eta ateraldiak aipatu ditugu, baina zerbaitengatik aipatu ditugu. Ikusten dugunez, Erramun ditzolari bikaina zen; nire ustez, hori da bertsolaritzaren aurrekaria. Bes-tetik, zein giroatik gatozen gehiago sakontzeko ere balio dit kontakizunak. Agian, gauzak egoki kontatzeko zahar haien grazia falta zaigu.

## **Gure amaren amona**

Gure amaren amona, aitaren aldetik, Zaldibiako Telleritxo baserrikoa zen. Joana Bautista Gurrutxaga Aiestaran, 1831ean jaioa Ezkondu zenean, garai hartan usadioa zen bezala, arreo gurdian eraman zuten Telleritxotik Igartzetara. Gurdia bereziki presatzen zuten, garrasi atera zezan, eta horrela auzoek jakin zezaten. Ni nago isilik eramandakoren bat ere izango zela tartean, baina tira! Soinua ateratzeko, zurezko ardatza seborik gabe uztea aski izaten zen. Ezteiak

-eta pasatuta jarri dira, eta handik egun batzuetara, Joana Bautistaren aita, Frantzisko Ignazio Gurrutxaga Izagirre, oso haserre joan zen Igartzetara, esanez arreoaren tartean bazela hara joan behar ez zuen prenda bat; prenda hura hurrena ezkondu behar zuen alabak Emakumaran baserrira eraman beharrekoa zela. Egundoko eskandalua armatzen hasi zen. Orduan, gure amaren aitona, aitaren aldeko aitona (Pedro Garmendia Maiz -1829-) esan zion: «Gizona, gizona, ni Telleritxora ez nintzen joan armairuaren bila, andrearen bila baizik. Andrea uztazu hemen eta armairua, eraman behar baduzu, eraman ezazu». Hala bidali zuen gizon hori etxetik, bere armairuarekin.

Emakumaran baserrira ezkondu zen ahizparen tratua nola izan zen ere kontatzen zuen gure amak. Ezkondu zenean, hamazazpi urte omen zituen, eta tratua omen zen hogeituro arte Telleritxon lana egitea. Dirudienez, gaztea zen eta arreotan eraman zuenaren ordainik ez zuen utzi ordura arte egindako lanarekin.

Orduko bizimodua eta orduko gauzak. Horrekin dena esana dago.

## **Elkarbizitza**

Lehen aipatu dugun Teleritxoko Joana Bautista Gurrutxaga hori (dokumentuetan *Burruchaga* azaltzen da) gure aitona «Praskiren» ama zen, gure amaren amona. Oso emakume langilea eta etxekoia izan behar zuen, etxeko lanetan oso trebea; gure amak horrela esan izan zuen. Zahartu zenean, eta gaizki jarri, elizakoak eskatu omen zituen. Baina, estutzeko ere ez zuten gauza handiaren beharrik izango eta, estu, nonbait. Etxekoneko Juan Migelek gure birramonarekin diferentziaren bat edo izango zuen, dirudienez, eta amona horrek eskatu omen zuen, gaizki jarri zenean, Joan Migeli esateko etortzeko; hitz egin behar zuela harekin hil aurretik. Esan diote Joan Migeli Joana Bautistak joateko esan diola, eta bere ohe aurrean azaldu omen zen segituan, eta hala esan omen zion:

–Hi, Joan Migel, gu mugetan eta ez gaituk oso zintzo-zintzoak izan. Ni ere saiaturen ninduan zerbait, baina hi ere saiaturen hintzen. Nik hiri barkatzen diat; hik niri barkatzen al didak?

–Bai neska, bai. –Joan Migelek esan omen zion–. Barkatzen dinat, eta joan hadi lasai.

Horrelakoxe komeriak, orduan. A ze aldea gaurko bizimoduarekin konparatuta!

Garai hartan erlijioak erruz agintzen zuen. Doktrina, behintzat, ikasi beharra zegoen. Atal honekin amaitzeko, badut beste pasadizo bat. Gure ama Beasainen ibili zen eskolan urtebetez. Erdaraz ikastearren bidali zuten hara, eta defendatzeko moduan ikasi zuen. Han zebilela bi hizkuntzatan ikasi zuen doktrina. Erdarazkoa bikarioak besteei lezioa hartzen entzunda ikasi zuen. Izan ere, memoria aparteko emakumea zen, lehen esan dugun bezala.

Ikusten duzuen eran, kontakizunak ez dira zehatz-mehatzak, eta haria ere ez logikoa sarritan, baina, helburua zein den jakinda, nahiago izan dut horrela jokatu. Adibideak ipini ditut, gure aurrekoen bizimodua apur bat ulertzen lagun diezaguten.

Bizimodu haren ikuspegi bat ematea besterik ez zen asmoa, ez nuen inolako zuhaitz genealogikorik osatu nahi.

## Gerra zibileko oroitzapenak

---

### Gertatu zaiguna

Mila beatzirehun hogeita hamahiru  
jaio eta arnasa hartu,  
handikan laster anai arteko  
gerra zibila suertatu,  
euskal hizkuntza debekatua,  
edozein gauza pekatu.  
Jaio behar ta garai ederra  
ez genuen azertatu.

Ni oso haurra nintzela, hiru urte nituela, hasi zen gerra zibila. Hala ere, gogoratzen naiz orduko gauza batzuekin. Behin batean, soldaduz inguratuta ikusi nuen gure etxea. Inguratu ez ezik, barrura ere sartu ziren, mandiotik barrena. Ganbara osoa miatu zuten goitik behera; ez zuten gizonik aurkitu. Arrautzak bai, eta alerik utzi gabe denak eraman zituzten.

Hiru urterekin oso zaila ere bada, eta nik ez nekien zer gertatzen zen, baina ohartu nintzen normaletik ateratzen zen gauzaren bat zela. Arandi esaten genion terreno batean ari zen aitona oihal-haga konpontzen. Bi gauzatarako baliatzen genuen terreno-mutur hori: arropak eskegitzeko eta alamar-tsoa (San Joan sua) egiteko.

Esan bezala, hantxe aurkitu zuten soldaduek. *Gorrieta-koak* omen ziren. Auzoko beste baserri batera zihoazen. Bazen gizon ordiziar bat emaztea baserri horretakoa zuena; gizon hori karlista izaki, haren bila omen zebiltzan. Inguruko zulo guztiak miatu zituzten arren, ez zuten aurkitu. Dirudieenez, ardientzat prestaturiko garo-pilan zegoen edo zeukaten gorderik; gain-gainean ibili omen ziren, baina aurkitu ez. Hala hobe, ez naiz inoiz poztu gizonak elkar hiltzen ikusita. Gizon hura, geroztik, hamaika aldiz ikusi izan nuen Ordizian; agian, ez nuen berak bezala pentsatuko, baina poza

hartzen nuen ikusitakoan. Bide batez, esan dezadan, karlista izan arren, oso euskaltzalea zela.

Gizon haren atzetik ibili ondoren, itzuli ziren berriro gure etxera *Gorri* horiek. Orduan Olegin lur asko gorritzen zen. Sagasti berriak ere bageneuzkan. Gogoan dut patata egin genuela sagarrondo tartean. Soldaduak hemen egokitu ziren egunean garia ebakitzen ari ginen Telleritxo-buru esaten genion soroan.

Garai hartan, merienda sorora eramateko ohitura zen gure etxean, eta beste guztietan. Gure amak aitonarekin bidaltzeko asmoa zuen, baina, soldaduak bertan ikusi zituenean, haiekin ikaratu eta bera joan zen sorora, meriendarekin. Akordatzen naiz, sagar handi baten azpian meriendatzen ari ginela, soldaduak bueltan nola itzuli ziren. Bentaberri aldera jo zuten. Gure ama ez zen haserre izango!

Bentaberrin bazen Teodora izeneko neska gazte bat. Begi-bistan daukat Aldatsegiko iturritik bueltan zetorrela nola egin zuen topo soldaduekin. Txarroa laster hustu zioten. Nik begi zorrotzez begiratzen nien, eta ez zait ahaztuko sekula haien armek eguzkitan nolako distira botatzen zuten.

Bentaberri gero ere aipatu beharko dugu, bertso-toki paregabea izan baitzen denboraldi luze batean.

Gerraz zerbait gehiago jakiteko motiboa ere izan nuen. Besterik ez nintzen ezer askorik jabetuko, baina ongi akordatu bai noiz amaitu zen. Gero gure koinatua izango zen Joan Asurabarrena gure etxean egoten zen. Gogoan dut lizentziatu zirenean, Patxi izeneko laguna eta biak, nola etorri ziren zakur guztiak zaunkaz zituztela. Gure etxean tertulian egon ondoren, gu lotara eta Patxi bere etxera joan zen. Patxi ez zuen suerte handirik izan: Tolosan lanean ari zela istripua izan zuen, eta handik hara hil zen, lizentziatu eta urtebete ingurura.

Gerrako kasu gehiago eta mingarriagoak ere badira Zaldibian.

## Telletxea kapitaina

Telletxea mikeleteetako kapitaina zen. Beasaingo Murumendi inguru horretan ibili behar zuen, goitik agindutako eginkizunen bat betetzen. Bere asmoa omen zen *Nazionalera* pasatzea. Beraz, desertatu egin izango zuen. Murumenditik Gaintzara etorri omen zen, erretorearen etxean gorde zen. *Gorriak* etorri omen ziren bila aurrena, ingurumari hau artean nazionalisten esku zegoela. Erretorea atera omen zitzaien, eta buru etorri zenak esan omen zion apaizari: «Zu lehen mesede handiak egindakoa zara, eta ez zaitugu gehiago endredatuko». Gehiagozkorik gabe utzi eta alde egin omen zuten.

Handik laster, ordea, *Nazionalak* nagusitu omen ziren, eta haiek ere Telletxea topatu nahi. Egia esan, kasu hau guztiz surrealista iruditzen zait. Esan dudan eran, Zaldibiako erreketek ere Telletxearen bila omen zebiltzan. Nola arraio, beraiegana biltzeko asmoan bazebilen? Ez da ulergarria. Baina kasua da Zaldibiako erreketek horiek jakin omen zuten beste herritar batek salatuta (izenak ez ditugu ipiniko, pentsatuko duzuen motiboagatik). Gaintzako Ibarritza baserrian omen zegoen. Erreketeak heldu zirenean, amona atera omen zen errezibitzera. Amona horrek ukatu egin omen zuen han inor zegoenik, baina oso estu hartu omen zuten, baionetarekin hormaren kontra. Orduan amona garrasika hasi eta Telletxea bera azaldu omen zen.

Tartean beste aipamen labur bat egitea komeni da. Errekete horiek uste omen zuten Bixente Zubeldiak «Txirlok» zeukala gordea eta hura preso omen zeukaten, eta eskapada handia egin omen, juxtu-juxtu atera zen bizirik. Txirlo hori zen Eskribau etxean jaioa eta Artzanberri bertsolariaren lehengusua, eta hura bezalaxe azeri-harrapatzailea.

Kuestioa da Telletxea non zegoen zekienak berak bazekie-la, era berean, «Txirlok» ez zuela zerikusirik gorabehera horretan, eta libratzeko moduak egin omen zituen.

Parentesi txiki horren ostean, itzul gaitezen Telletxearengana. Gaintzan hartu eta Zaldibiara ekarri zuten. Herriko

Ostatu tabernan bazkaria eman, eta Lazkaomendiko eskolak dauden inguru hartara eraman omen zuten, eta hantxe eman tiroak.

Lazkaomendiko baserriar batek (izena bihoa berriz ere esilpean) behiak edo idiak lotu eta alper-etxearen gainean eraman omen zuen hilerrira, esanik: «Honentzat adina baduk hau ere»

Beste bertsio batek dio, aldiz, Lazkaoko apaiza zela mespretxuz mintzatu zena: «Horren gainean al dakark? Lorrean ekartzea ere bahuen horrentzat adina». Ez dakigu zein den egiazkoa, baina, edozein dela ere, gizalegetik biak daude urrun.

Bada oraindik barruari jira gogorragoa ematen diona: esaten dutenez, hil ondorenean ere ez zioten bakean utzi, norbaitek uztau- (lapaitz) orria sartu omen zion ahoan.

Orain hunkiturik egoten gara telebistako irudiak ikusita; haiek ere, grabaturik baleude, ez lirateke gozoak izango!

Noizbait gaixotu egin behar eta, zorioneko salatari hori, gaixotu da. Dirudienez, gaixotasunak adina kezkatzen zuten egindako azioek, eta lagun batek hala esaten omen zion: «Har beltza ari zaik hiri barrua jaten; gu lasai gaudek». Horrek ere badu bere krudelkeria punttua, baina...

## **Emeterio Garmendia**

Emeterio Garmendia zen Ordiziako Oiangu baserriko semea. Gizon horrek ez zeukan beste deliturik, errepublika garaian guarda izatea. Hori zela eta, pertsekuzio gorria ikusi behar izan zuen. Dirudienez, alper-etxearen gainean Telle-txea kapitaina eraman zuenak berak salatu zuen. Izan ere, esan dugun bezala Emeterio guarda zen, eta salataria, berriz, ehiztaria. Behin, ehizan harrapatu eta multa egin omen zion Emeteriok; agian, horrek ere bultzatuko zuen lazkaotarra. Gogoan dut Emeterio hori iluntze batean gure etxera nola etorri zen; afaldu zuen, eta gure aitarekin trukatu zituen hitz batzuk. Hark gomendatu omen zion *Gorriak* Larrantzen zeudela eta erraza zeukala haiengana pasatzea, berak lagundu-



ko ziola. Ezetz esan omen zion; Utsularren lehengusuak edo ezagunak zeuzkala, garitan lana bazeukatela eta haraxe joango zela, ea gauzak baretzen ziren.

Gaiztoak, nonbait, begi ugari izaten du, eta jakin dute erreketek edo, kontrarioek behintzat, non dagoen, eta etorri zaizkio bila. Hartu eta Ordiziara eraman omen zuten. Ordizian nahiko gizon jatorra egon behar zuen orduan: Alegria komandantea; hari esker jende asko libratu omen zen hemen. Emeterio horri ere galdetu dio, bada: «Zer egin duk hik? Zenbat hil dituk? ». Emeterio isilik, eta esan omen zion: «Segi ezak etxera».

Esan dizuet, bada, gaiztoak begi zorrotzak izaten dituela, eta berriz ere topo zorioneko lazkaomenditar horrekin; gogoratzen alper-etxearen jabearekin? Horrek esan omen zion: «Hi hemen, makina bat joan duk hortik aurrera hi baino hobea!» Antza denez, berriz ere salatu egin zuen. Emeterio hori hartu eta, oraingoan, kamioan omen zeramaten Urbasako *Balcón de Pilatosetik* behera botatzeko. Baina hara zihoazela sekulako matxinada montatu omen zuen kamioan, eta Lizarraustiko horretan tiro eman eta bertan utzi zuten. Hori ohikoa omen zen, hau da, kamioan eskandalua armatzen hasten zena jo eta bertan garbitu.

Zaldibiako Fabrikako txerri-tratalaria, Esteban Tolosa, tokatu omen zen han, eta hark ikusi, Nafarroatik zetorrela, eta bere artean esan omen zuen: «Hiri ere egin al diate? Hamaikari egin ziotek kulpa handirik gabe».

Pentsatzen egoten naiz, gizona berez eskasa bada, gerrak oraindik ere eskasago eta animaliago bihurtzen duela.

Azkeneko horrekin lotuta, beste pasadizotxo bat kontatuko dizuet. Ezagutu nuen erreketek ibilitako bat esan izan zue-na: «Frentean genbiltzala tiro egin eta kontrarioa erortzen ikusten genuenean guk hartzen genian poza». Gizon hura ere ez zen, bada, beste inor baino gaiztoagoa, baina, dirudenez, zirkunstantziek zeharo aldatzen dute inoren portaera. Norbaiti entzuna nago Kalkutako Ama Teresa ere kriminal bihurtitekeela, halako metodo makur batzuk erabiliz gero. Eta

pentsatzen egoten naiz ez dela dena gezurra izango, sines-teak lanak baditu ere.

### **Gernikako Bonbardeoa**

Buruz ez nekien, baina gero irakurri dudanez, 1937ko apirilaren 26an gertatu zen hori. Nik lau urte eta hiru egun neuzkala. Hala ere ederki gogoratzen dut hegazkinak gure Etxaburu paretik nola pasatzen ziren. Gero gure koinatua izango zena (eta gerrara joan behar izan zuena) mandioan ari zen sega pikatzen. Ni han nenbilen inguruan eta hegazkinak bata bestearen atzetik ikusten nituen pasatzen, Nafarroa aldetik Bizkai aldera. Uste dut, hala entzundako errezeloa daukat behintzat, Zaragozan kargatzen zituztela aparatu kriminal horiek. Bonbak botatzen zituztenean, lurrikara ikaragarria izango balitz bezalako hotsa entzuten zen. Hortik aurrera ez nekien ezer, haur izaten jarraitzen nuen.

### **Bizkaiko praileak**

Kasu honek ez dauka erlaziorik zuzenean Zaldibiarekin edo nire inguruarekin, baina hemen ere, gutxienez, hiru zaldibitar badira protagonista edo testigu. Horietako batek sekula ez zuen horretaz hitzik egin, baina beste biak bai, eta haiei entzundakoa kontatzea besterik ez dut egingo. Beti bezala beude izenak isilpean. Bi praile fusilatu omen zituzten; oker ez banago, karmeldarrak eta Santi Onaindiaren ezagunak. Geroxeago emango dut xehetasuna.

Hilketa horren testigu izan zen batek errukiz eta hunkiduraz kontatzen zuen kasua. Gizon hau oso gazterik hil zen; gaixotasun marrajo batek eraman zuen, beste asko bezalaxe. Bihotz oneko pertsona zen zalantzarik gabe. Hala esaten zuen: «Praile gaixoek hamar minutu eskatu zituzten hitz egiteko; baita egoki hitz egin ere, eta esan zituztenak entzunda balorea behar da, gero, haiek hiltzera boluntario ateratzeko!»

Bigarren gizonak ere kontatzen zuen Bizkaian praileak nola hil zituzten. Oraindik gehiago esaten zuen. Permisoarekin etorri zen batean bikario zaharrari esan omen: «Jauna,

gu hor praileak hiltzen ari gara, eh!», eta erantzuna: «Zer edo zer egingo zien». Zorioneko «zer edo zer egingo zien!»...Horrekin ez dut esan nahi bikario zaharra, Don Martin, beste edozein baino pertsona gaiztoagoa izango zenik, baina adibide ederra da ikus dezagun gerrak zertaraino zatartzen gaituen eta kontzientzia edo juizioa nola galarazten digun.

Gizon honek berak neure aurrean galdetu zion, behin batean, Santi Onaindiari, praile haiek ezagutzen al zituen; eta baietz erantzun zion, bera beste toki batean bazegoen ere. Santi Onaindia Xalbadorri buruz hitzaldia ematera etorri zen Zaldibiara, ea horrela hobeto ulertzen genion, ondorengo egun batean bertotara etortzekoa baitzen urepeldarra.

Hirugarren gizonak ez zuen sekula ezer esan, zuzenean inplikaturik egon baitzen fusilamenduan. Gero halamoduzko bizimodua eraman zuen.

### **Irastortzako fusilatuak**

Gerra zibilean fusilaturiko bi komunisten? gorpuak atera zituen Aranzadi Elkarteak. Irastortza baserriaren ondoko borda inguruan zeuden lurperatuak. Martin Ibargurenek zekien, eta hark esaten zuen lekuan, oker handirik gabe, hantxe azaldu ziren. Horretarako, Martinek alde aurretik abisua emana zeukan Udaletxean. Argitu dezagun Irastortza baserrikoa dela Martin; beraz, bere etxeko lurretan zeuden. Hori gertatu zenean, hamasei urteko mutila zen Martin. Martinen aita zenak, Bitor Ibargurenek, alkatea izaki, lur eman behar izan omen zien, auzoan laguntza eskatuta.

Bakarren batzuentzat berri aztoragarria izango zen hori, baina gure etxean betidanik entzun izan nuen nik Irastortzako bi enterratuen berri. Gure aita zenak askotan kontatzen zuen. Ez dakidana da xehetasun guztiak zekizkien, baina garrantzitsuena bai. Hark esaten zigun bezala kontatuko dut. Gure aitaren esanetan, fusilatuak komunistak ziren, bietako bat Beasaingo Fabrika Handian lan egindakoa. Dirudienez, komunistei ez zieten lur ematen kanposantuan, baizik eta horrelako leku ezkutuetan edo hildako tokian bertan.

Esan bezala, herrian jende gehiagok ere badaki, eta baliteke beste bertsioren bat izatea. Dena dela, funtsean gauzak ez dira gehiegi aldatzen.

Gure aitak esan ohi zuen haietako baten zapatak jantzita nor ibili omen zen ere. Egia ala fantasia, nik erositako prezioan saltzen ditut gauzak.

Atera zituztenean, omenalditxo bat eskaini zitzaien. Neu hantxe izan nintzen, bertso batzuk kantatzen, Altzo Txikirekin batera. Jendetza handia bildu zen omenaldian: Arantza-dikoak, argazkilariak, kazetariak, etab. Orain falta den bakarra da gorpuak identifikatzea eta duintasunez lur ematea, egia osoa jakitea.

### **Aita Tirso**

Aita Tirso berez bizkaitarra bazen ere, Altzoko karmeliten komentuan egoten zen. Komentuan bertako lanez gain, sermolari ibiltzen omen zen herririk herri. Sermolari eta hiztun egokia izan behar zuen. Guk haren aditzera handia genuen, aitaren bidez; gure aita, lehenago ere esan dudan eran, Altzon ibiltzen baitzen ardiekin.

Gerra bete-betean egokitu omen zitzaion Zaldibiara elizkizunen batean parte hartzera eta sermoia egitera etorri beharra. Inolako aho-bizarririk gabe, pulpitutik hala esan omen zuen: «Hor ez dabil inor erlijioaren alde, baizik eta agintea nork eskuratuko». Dakigunez, *Nazionalak* erlijioaren «aldekoak» baitziren.

Gure amak esaten zuenez, jende asko beldurtu egin zen, ez beraiei ezer gertatuko zitzaielako, baizik eta Aita Tirso paradero txarren bat izango ote zuen. Baina handik, behintzat, libratu izango zen.

### **Sermoiak erdaraz**

Jakinekoa da, gerra irabazi zutenek irabazi zutelako, ondorioak izan zituela erakunde eta bizitzako arlo guztietan. Horien artean, inork gutxik ulertu arren, sermoiak er-

daraz egitea. Zaldibian bazen apaiz bat orendaindarra: Don Gabriel Amondarain. Seminaria nahiko berandu joandakoa eta apaiz-bizitza osoa hemen egin zuena. Erdaraz egiteko ohitura handirik ez omen zuen, baina gerra ondoren hartan hala egin behar izan zuen. Sinesteak ere lan du nola litekeen horrenbesteko itsumena sortzea pertsona arrazionalen artean. Ez dakit zenbat denbora iraungo zuen egoera horrek, nik neuk ez daukat gogoan sermoiak erdaraz entzun izanik.

Lazkao Txikiren txistea gogorazten dit. Don Gabrielen moduko apaizen batek Hausterre Egunean gazte guztiak (*jóvenes y jóvenas*) elizara joateko gonbidatu zituenekoa. Hortxe utziko dugu, hortik aurrerakoa denok baitakizue.

### **Multak edo isunak**

Kontatu behar dudana oso kasu partikularra da, baina barkatuko ahal dit irakurleak xehetasun handiegitan sartzen banaiz. Aita zenari gertatua da. Erreketeak sartu zirenean, aguazilak bandoa jo omen zuen, soldaduentzat ahal zuenak ahal zuena ekarri eta udaletxean entregatzeko. Gure etxean kalean esnea saltzeari utzi beharrean gertatu ziren, eta gazta egiten zuten. Gure aita hori joan da zakukada gazta hartuta, entregatu du, eta beste kargudun batek (izenik ez, mesedez) deitu omen zion: «Hi, Pedro Joxe, etor hadi pixka batean». Gureak uste omen zuen gosari txikia edo horrelako zer edo zer eskaintzeko izango zela, baina bai zera! «Mila errealeko multa daukak, nazionalistei botoa eman hielako». Gureak ezin sinestu: batetik nola arraio jakin zuen, bestetik horregatik multa nola bota zitekeen, eta, azkenik, isuna ordaintzeko dirurik ez. Eskerrak lagun onak ere bazeuzkan! Lagun horrek utzitako diruarekin ordaindu omen zuen. Gozoa joan omen zen fabrikara, lanera, bazter guztiak erre beharrean. Gutxiagorako al da?

Oharra: amak, berriz, karlistei eman omen zien. Hori pluralismoa gure etxean!

## Razionamendua

Gerra garaian ez zen falta izan jenerorik, baina bai amaitu zenean. Segituan etorri zen razionamendua. Eta gosea! Dirua edukita ere, askotan ezer erosterik ez.

Eta kontrola ere izugarria. Pertsona jakin batzuk zeuden izendatuta baserrietara joan, terrenoak neurtu eta apunteak udaletxera eramateko. Bestetik, baserritarrek parte eman beharra zaukaten zenbat labore, artoa, garia edo dena delakoa, izan zuten. Jakina, guzti-guztiek ez zuten zuzen esango edo deskuidatuko ziren. Harrapatzen bazituzten, solamente, larrutik ordaindu behar izaten zuten.

Udaletxeko apunteak hartu eta guardia zibilak joaten ziren baserrietara, ez guztietara, tranparik egiten zuten ikustera. Askoren ustez, guardia zibilak nora joan esanda bidaltzen zituzten herritik, ondo «orientatuta».

Hemen izan zen jendea sekulako multa tzarrak ordaindutakoa eta, ordainduko bazuen, diru bila kanpora atera behar izan zuena. Penagarria! Aspaldiko kontuak, egia, baina ez dut uste erabat ahanztea ere komeni denik. Historiaren egiteko nagusia omen da zenbait gauza berriro gerta ez dadin begiratzea.

Aipatu dugun kontrol horrekin batera, bazen beste erakunde bat ere. *Junta de abastos* deitzen zitzaion. Hemen ere baziren gizon batzuk, ezagunak noski, nahiz eta, berriro esanda ere, guk izenak isilpean gordeko ditugun. Horien egitekoa zen baserrietara joan eta txahalak «tasatzea». Eta nahi bazenuen edo ez bazenuen, esandako prezioan eman egin behar.

Batean, baserritar bati hiru txekor kendu zizkioten batera. Mataderira zaramatzatela hiruetako batek hanka hautsi eta *Junta de abastosekoak* itxura gabeko deskontua egin. Bizi izan zen arte guztian ez zitzaion baserritar hari burla hori egin izanaren pena joan. *Junta de abastos* horretako arduradunetako bat hil zenean ere, hemen kontatzerik ez dagoen moduko hitzak jaurtiki zituen. Zenbat miseria eta zenbat gorroto bazterretan!

Ez da dena hemen amaitzen. Izandako laborearen hainbesteko bat ere entregatu egin behar izaten zen; gure etxean, adibidez, 300 bat kilo gari eramaten zituzten. Urte batean, portzentajerik gabe, 150 kilo patata entregatzeko ordena etorri zen; gure etxean, urtabe txarra izaki, etxerako alerik gabe geratu ziren. Bestalde, tabakoa ere entregatzen genuen, hura ere tasako prezioan, jakina. Beste detaile bat: batetik bestera ibiliko baziren, *salbokonduktua* behar izaten zuten.

Dendariak ere baziren, jenero asko samar, legeak agintzen zuena baino gehiago, sartu eta ezkutatu behar izaten zutenak. Nik badakit non egon zen, adibidez, garrafoikada kafe gordeta. Baita saguek zakuak zulatu eta, garia, gordeta zeukan lekutik ibaiak eramandakoa ere. Beraz, alferrik ere galdu zen hamaika gauza.

### **Aitonarekin umetan**

Orain arteko kontuak, ia denak, besteri entzunak izan dira, baina hemendik aurrera neuk gogoratzen ditudanak esaten hasiko naiz, nahiz eta oraindik aurrekoen oroimenera joko dudan behin baino gehiagotan. Umetan, aitona-rekin asko ibili nintzen ni ganadu-janetan, etab, aita orduan fabrika ibiltzen baitzen lanean. Bost urte nituenerako, astoa eramane eta ekarri egiten nion, alegia aitona-  
belarrez kargatu eta nik eramane eta ekarri astoa. Nik ez nuen lan asko egingo, baina hori egiten nion behintzat. Astakada dezente behar izaten ziren, eta han ibiltzen nintzen astoari segika, aitona amaitu zela esan arte. Egun batean, gogoratzen naiz, urriaren azken aldera, San Simon omen zen. «San Simon eta San Juda, joan da uda eta negua heldu da», da esaera zaharra, eta orduan egia gertatu zen. Elurra egin zuen, elur lapatxa, Zaldibiako kaleraino. Egun hartan ere, astoarekin ibili nintzen. Amak prantatu zidan astoa eta gero esan zidan: «Aitonari eramane egin beharko diok astoa, umea». Eta halaxe joan nintzen, eta hiru edo lau beaje ekarri genituen. Hori izango zen 1938 inguruan.

Elizara ere eramaten ninduen aitonak. Zaldibian bazen apaiz bat ataundarra, Bikuña izenekoa; nik ez nuen ezagutu, eskolan hasi nintzenerako ez zegoen Zaldibian apaiz hori, baina haren aditzera handia dut; izan ere haren kontuak eta txisteak ahoz aho ibili ziren urte luzeetan. Ipuin politena zen esaten zutela gotzainari basurdea eramanda egin zela apaiz. Badakizue... herriaren irudimenak ez du akaberarik!

Gure aitonari gustatzen zitzaion, meza ondorenean, bere kidekoekin biltzea, eta tabernak ondo aprobetxatzen zituzten; hasi Juan Kruzenetik (gero Joxepane, eta orain ere bai), Ostatu (orain Beti Gazte), Zapatari (Orain Estankoa), eta handik Migel Marinera (orain Arrese jatetxea). Akordatzen naiz, behin batean, Migel Marinean azeitunak jaten nola aritu ziren. Niri ere eman zidaten azeituna-ale bat probatzeko, baina nik ez nuen jan, mikatza iruditu zitzaidan. Orain jaten dut, baina orduan ez zitzaidan iruditu jateko modukoa zenik ere.

Aitona zenak, ganadu-jatekoak egin ez ezik, gobernatu ere berak egiten zituen. Hori izaten zuen lehenengo lana, goizean, jaiki ondoren. Lehenik, ikuiluko lanak egin eta gero sorora joan izan zen, 9:30ak edo 10:00ak aldera. Soroan ni ibiltzen nintzen itzolan (itaurrean). Ez zen batere presatia, bere patxandan ibiltzen zen, nahiago izaten zuen horrela, tabakoa pipatik lasai errez. Soroan zuin<sup>1</sup> pare bat egiten genituenean, esaten zidan: «Ea, umea, atsedean egin behar dugu orain, behiak nekatuta daude eta» Baina nik uste bera izaten zela deskantsua hartu nahi zuena. Jartzen zen soro-bazterrean, arearen harri gainean eserita, aterako zituen pipa, tabakontzia, gatz-harria, altzairu puska bat eta ardagaia. Txapel handi batean erabiltzen zituen horiek denak. Pipa tabakoz puntaraino bete eta zapal-zapal eginda jartzen zuen. Ondoren, altzairuzko pieza ipintzen zuen, hari erantsita ardagaia eta dena prest zeukanean, altzairuaren kontra sutzen zuen gatz-harria, eta harekin pizten zen ardagaia, ardagai sutua pipa-muturrean ipini eta horrela pizten zuen tabakoa. Gatz-harria da karaitzak eta hargorriak barruan izaten duten marmol-itxurako beta bat.

---

1 zuin: tartean hazia botatzeko; eskuak hartzen duena.



Hala, aitona patxadan aritzen zen pipa erretzen. Ganaduak hausnarrean hasten ziren, hori seinale ona da, nekatuta dagoen behiak edo idiak ez dizu hausnarrean egingo. Gero esaten zidan: «Beno, umea, berriz ere buelta batzuk egin egin beharko ditugu, bada» Horrelaxe ibiltzen nintzen.

Kontu horiek 1939 ingurukoak izango dira, gerra garai-koak. Gure aitona artean sufiziente zegoen. Laurogeita hiru urtetik laura zihoala hil zen. Otsailaren 10ean beteko zituen 84 urte eta aurreko urrian hil zen, 1943an, nik 10 urte nituela. Ordubete bat pasatu zuen lotan bezala, eta horrela hil zen xuabe-xuabe, inolako zarata eta lanturik gabe. Ez zen denbora askoan gaixo egon. Esate baterako, Santa Fe egunean, urriaren 6an, mahaian egon zen kafea hartzen, nahiz eta ohera nahiko aguro erretiratu zen.

Gerra ondorengo kontuak hasita zeuden ordurako: razio-namenduak (aipatu ditugu), goseak eta miseriak. Nahiko lanak baziren ondoren hartan.

## **Martopilak**

Gaske askok, eta helduxeagoek ere, ez dute jakingo «martopilak» zer diren. Gaurko hitzetan esan behar bagenu, esan beharko genuke ospakizun «femista» bat zela, emakumezkoak bakarrik elkartzen baitziren. Non, zertarako eta noiz? Familia izaten zuenaren etxean eta, begi-bistakoa denez, jaiotza hori ospatzeko. Bide batez esan dezagun garai hartan, 1960 igurura arte, haurrak etxean jaiotzen zirela.

Egutegia ezarria egoten zen: jeneralean, jaio eta hurrengo egunean baitaitzen zen haurra; handik berrogei egunera «elizan sartzea» izaten zen. Zer zen hori? Zeremonia bat non ama bere haurrarekin joaten zen elizara, eta han otoitz batzuk errezatuz egiten zen ospakizuna. Horrekin gogoratzen zen «Jesus elizan aurkeztu zutenekoa», errosarioan esan ohi eran eta Moisesen Legeak agintzen zuenaren arabera, San Lukas ebanjelariak kontatzen duenez.

Bataio ondorenean, gehienetan igandean, haurra izan zuenaren auzoko eta familiarteko emakumezkoak elkartzen

ziren meriendatzeko. Txahal-okela, oilaskoa edo horrelakoren bat saltsan, txokolata eta gailetak loidirekin (ardo goxoa) izan oin zen menua; eta, ondoren, hitzaspertu ederra, auzoko eta herriko kontuak astinduz.

Nik gogoratzen ditudan lehenengo martopilak dira arreba gazteena jaio zenekoak (1939), baina bereziki gogoratzen ditudanak dira laugarren anaia (senideetan seigarrena) jaio zen urtekoak (1941). Orduan miseria handia zegoen bazterretan eta, besteak beste, dirua izanda ere erosi ezina. Gure aita zen horrek inguratu zuen nonbaitetik okela puskaren bat; hura pertzean patata kaxkarrekin gisatu eta halaxe prestatu zuten merienda. Ez dakit zenbat emakumezko izango ziren, baina dezente bai; guk nahiko sala handia genuen, eta uste dut gehientsuena bete zela.

### **Ordiziako lehengusuak Olegin**

Nik sei-zazpi urte nituenean, mahaikada bikaina elkar-tzen ginen; txiki eta handi, hamahiru bai. Ordiziako lehengusuak ere, sarritan, gurean egoten ziren. Behin batean, Gabiriako praile bat etorri zen eskean; hark atea jo zuenean han atera ginen denok, bata bestearen atzerik, katilua eskuan genuela, taloa eta esnea janez. Gure ama hori hasi da zerbait emateko asmoan, eta hala esan zion praileak: «Ez etxekoandre, ez, horiei denei ematen badaukazu lanik asko», eta limosnarik hartu gabe joan zen. Ez zuen edozeinek egingo hori.

Umea banintzen ere, badut beste irudi bat edo irudi-sekuentzia bat buruan ondo grabatua. 1939. urtea zen. Urtero bezala, Santa Fetan etorri da Ordiziako izeba Romana gure etxera, eta gaixotu.

Besteak beste, perretxikozale porrokatua zen. Hark ohitu gintuen perretxikoak aprobetxatzen. Garai hartan gure basoetan nonahi atera ohi zen perretxikoa. Hark nahikoa izaten zuen ordu erdi bat feri-saskia perretxikoz leporaino betetzeko. Gero berak ipintzen zituen modu batera eta bestera. Sukaldaria ere ona zen.

Esan bezala, gaixotu zen, eta ez nolana hiko gaitza; tifus ote zuen edo esan zuten; nolana ere, oso kutsakorra. Herriko praktikanteak, Santos zenak, denoi txertoa eman zingun, eta denok onik atera ginela.

Baina inork etorri nahi ez gure etxera, ezta familiakoak ere; ama, berriz, familia izateko egunetan: izeba hil eta hurrengo egunean jaio zen seigarrena, arrebetan gazteena.

Gorpua ehortzi egin behar eta hilobizalerik aurkitu ezin. Bati galdetu, eta ezetz; besteak ere ez. Haiek komeriak! Nola bait osatu dute laukotea, geure aita barruan zela, eta hala eramane zuten. Gero bidean norbaitek txanda egin zion aitari, «hik hor gaizki ematen duk» esanda.

Gorpua eramatea etorri zen apaizarekin gogoratzen naiz oraindik, atzo goizean gertatu izan balitz bezalaxe. Hura ere ez zen etxe barrura sartu, Etxaburuko soro barrenean ibili zen jira eta buelta, eta ez denbora laburrean, hilobizaleak etorri arte guztian.

Emakume hark ez zuen halakorik merezi, baina badakigu beldurak zer eginarazten duen.

## **Eskolako kontuak**

Haurrak ginela lanean gogor  
hasi ginan basarrian,  
eta eskolara joaterik ere  
ez zan izaten sarri han,  
orain hargatik hartzen gaituzte  
ezjakinaren neurrian.  
Jakinduria behar danean  
egon behar baztarrian.

Azkar samar esateko modukoak dira nire eskolako kontuak. Nahiko berandu hasi nintzen eskolan, hortxe zazpi edo zortzi urterekin. Hasi bai, baina segida handirik gabe ibili nintzen; etxean bazen beti zerbait. Joandakoan ere, berriz, fundamente handirik ez. Gogoan izan gerra osteko mutikoak ginela.

Martin Barandiaran genuen maisua, ataundarra; ez zigun, ordea, hitzik ere euskaraz egiten, eta guk zer ulertuko genion?

Eskolara sartu aurretik instrukzioa egiten genuen, soldaduskan bezala, formazio eta guzti. Guk ez, baina gure aurrekoek uniformez jantzita egiten zuten instrukzioa. Dirurik ez zegoelako edo ez dakit zergatik, guri ez ziguten eman uniformerik. Ezta beharrik ere!

Instrukzioa egin ondoren, eskolara sartu eta kantatu egiten genuen lehenbizi. Kantu «*patriotikoak*», jakina. Gero, errosarioa errezatu. Gu zerbait ikasten hasterako, ia ateratzeko ordua izaten zen. Ari ginenean ere ez genuen ezer ulertzen. Gauza batek salbatzen ninduen, memoria ona neukan eta horrexek, buruz ikasten nituen gauzak. Esan bezala, gero erditan joan ez. *Eskoladu* motzak atera ginen gu.

Zaldibiatik atera eta Ordizian ibili nintzen gero hiru bat hilabetez, beste maisu batekin; arrasatearra zela uste dut. Harekin ikasi nuen gauzei tankera pixka bat gehiago ematen: *sumar, restar*, leitzen, eta... Baina hiru hilabetean milagrorik ezin egin.

Gero, berriz ere, Zaldibian ibili nintzen, Albizturko maistrarekin; ordurako 12 urte baneuzkan, eta oso gustura nenbilen, baina doktrinako txartela atera nuen, eta horrekin batera eskola ere utzi egin behar. Pena handia izan nuen, onenean nenbilenean utzi behar izan nuen. Badakizue, orduan doktrinari eskolari baino garrantzi handiagoa ematen zitzaion, eta behin txartela lortuz gero noranahirako pronto gelditzen zen bat.

Gau-eskolan ere ibili nintzen. Hamahiru urterekin auzoko baserri batera, Telleritxora, joan nintzen morroi. Zazpi hilabete egin nituen morroi; itzuli eta handik aurrera baserrian lanean, hogeitaka urte arte. Garai horretan ibili nintzen pixka bat gau-eskolan.

Etxeko lanez aparte auzora ere joaten nintzen lanera. Mizpizabaleta baserrira joaten nintzen, eta han pasatzen nuen eguna lanean, behintzat boladarik handientsuena zenean. Gure aitaren lehengusua zen nagusia, eta hura bezalaxe Pedro Joxe. Ondo konpontzen nintzen harekin.

## **Gaztaroa gogoratzen**

---

Gaztaroa ez dakit nola neurtzen den, baina badakit gure garaian lehenago «gizontzen» ginela, edo lanari lehenago heldu beharrean aurkitzen ginela. Nik uste dut denbora hori izan litekeela, oker handirik gabe, baserrian lanean hasi eta soldaduskatik etorri bitartekoa. Beraz, gutxi gorabehera, 1948 ingurutik 1956 aldera arte. Gauza asko dauzkat kontatzeko, baldin eta gogoratu eta paperean egoki ipintzeko mol datzen banaiz,

### **Baserria: lana, lanabesak, tratuan...**

Ni baserritarra izan naiz, gainera baserrian aritua nahiko denbora luzean, eta derrigorrezkoa da nire biografian baserria eta baserriko kontuak azaltzea, nahiz eta liburuaren oinarria «bertsolaria» izan. Badakit gauza hauek urrun samar geratzen direla, eta are urrunago jende gaztearentzat. Endemas ere horrexegatik du garrantzia hemen azaltzeak, geroari begira adibide historiko gisa jasota gera daitezen. Beraz, ez da ulertu behar nire kasu partikular moduan bakarrik, baizik eta garai hartako baserriko giro orokorraren sinbolo bezala geratzea nahiko nuke, nik dezakedan apurretik abiatuta.

Baserriko lanak ez du etenik. Jakinekoa da ganaduak egunero behar duela atentzioa. Eta horrez gain, bestela ere, izaten da zer eginga. Otsail aldera ezkerro, patata-lurrak konpontzen hasi behar izaten zen; gero, udaberrian, artoa eta babarrunak ereiteko aroa zen, eta da. Arto tartean, askotan, pagotxa egiten genuen. Egun jakina geneukan horretarako: San Ignazio bezpera. Pagotxa mokadu gozoa izaten da udaberrian ganaduentzat. Esan ohi da pagotxak astoa ere azkar harrotzen duela.

Badirudi baserrian azkarrago korritzen duela denborak: udaberriak berehala dakar uda. Orduan belar ontzea da egi-tekorik nagusia, belarrak ondu eta garia ebaki, artoa jorratu... Ondorenean, segituan, arbi-lurrak konpondu, galtzua

areaz urratuta; hortik dator «are-belarra» deitzen zaiona, erretzeko baino balio ez duena, ez baita ona ez jateko eta azpiak egiteko, hautsez eta harri-kaskarrez beteta egoten da eta. Arbi-lanak amaitu orduko garotan hasi behar izaten genuen, eta babarrunak biltzen ere bai, intxaur-lanak ahaztu gabe; laster etorriko zen artoa ebakitzeko sasoi, baita sagar biltzekoa ere; eta konturatu baino lehen, gaztaina garaia gainean; gaztaina asko izaten zen orduan; hamaika zakukada salduak gara Ordiziako ferian.

Igandeetan (orduan ez zen astebururik izaten) anaiak eta aprobeztatzen genituen belarrak ebakitzeko eta abar, baina sailik handienak neuk pasatzen nituen segaz, bai belardiak eta bai garadiak.

Hara hi, sega, belar ebaten  
garai baten hintzan modan,  
nola beheko ibar-zelaitan  
eta berdin mendi-goran.  
Zenbat saio nik egin ditudan  
natxiok ezin gogoran,  
edadekorik hainbat eginik  
ez zekiat egongo dan.  
Hamaika izardi atera-arazi  
didak hik nere denboran.

Hogeita hamarren bat gurdi-belar eta beste horrenbeste garo garraiatuko genuen, urtabearen arabera. Hain zuzen, gariak eta artoak gorabehera handi samarrak izaten zituzten urte batetik bestera, eguraldiak eta beste faktore batzuk zer esanahi handia dute baserrian. Eta ez da beti eguraldi ona izaten.

Hasieran esan dut aspaldi samarreko kontuak direla, eta hala dira; konparazio baterako, garia ereiteari utzi zitziola izango dira honezkero berrogeita hamar bat urte. Gure etxean azken samarrekoak izango ginen, eta beharko utzi garia ereiteari, ez baitzegoen burutzerik burgoi-txoriekin; jakina, sailak urritu zirenean, zegoen tokira joaten ziren haiek,

eta kapaz ziren soro osoa ziztuta uzteko; kusoei ez zien kasu handirik egiten, gero eta gutxiago. Artoa ereiteari utzi zitzaio-la dezentez gutxiago dira; zenbat ez dakit juxtu-juxtu; gaine-ra, ez zitzaion utzi garia ereiteari bezain kolpean.


Garaiak nola aldatu diren ikusteko, detaile bat emango dizuet. Teila-fabrika egin zenean, 1956an edo, desmontea egiteko lurra goldatu egin zuten; ni soldadu nengoen arren, aita han ibili zen goldean; jakina, behin lehenengo geruzak kenduz gero, gauzak zaildu egiten ziren, eta puntakoak behar ziren. Auzoko Ignazio Eloseggi eta gure aita aritu ziren idi pare banarekin. Goldatu ahala, palaz kargatzen zen kamioa. Lekutan izango ziren oraingo eskabadorak! Hango horma tzar guztiak ere eskuz eginak dira; harginak gailegoak ziren, askotan bezala; orain hormak eskabadorarekin egiten dituzte tokirik gehienetan.

Arestian esan dudana adibide bat besterik ez da; baina ederki adierazten du zer-nolako ziztuan aldatu diren denborak eta garaiak. Orduan nork esango zidan niri kontu hauek kontatzen ordenadorearen aurrean aritu behar nuenik!, nahiz eta beste bati kontatu.

Baserriak berekin du tratua. Gehienetan, Ordiziako ferian egiten genituen sal-erosketak. Ganadua erosi, behintzat, seguru han: behiak baziren, idiak baziren... Txahalak, normalean, etxetik eramaten zituen harakinak. Txerrikumeak, berriz, ferian saltzen ziren jeneralean.

Tratuari buruz ari garenez, aspaldi samar tabernan egin-dako galdera bati erantzun nahi diot, orduan emandako esplikazioaz gain. Zer da «jota uztea»? galdetu zidaten. Jota uztea da erosleak saltzailea, agindutako prezioan, eman nahi ezta ikusten duenean, aziendak balio duten baino gehiago eskaintzea. Gero, saltzailea konturatzen denean ez lezakeela hartu eskatzen duena, erosleak agindutako prezioan emateko prest jartzen da, baina orduan erosleak esango dio ezetz, lehen zela garaia, «orain emazkiozu nahi duzunari». Hori baserritarrek burlatzen hartzen zuten, baina hamaika batek nozitu du.

Orain, inori leziorik emateko asmorik gabe, baserrian erabili ohi ziren lanabes batzuk aipatu nahi nituzke:



Goldea: lurrari buelta emateko.



Laian: lurrari buelta emateko (goldearen aurreko sistema)




Besarea:  
arto-errenkadako lurra harrotu eta belar txarrak kentzeko.





Karramarroa: lurra sakonagotik mugitzeko.



Area: lurra xehatzeko.



Alperra: lurra zapaldu eta berdintzeko.

Alperra deitzen genion hura  
zer tresna klase ote dan  
garbi esaten hasi behar det  
inork nahi badu antzeman:  
harri mazizo sendoa lehertu  
harrobi edo kanteran  
gero harginek moldatzen zuten  
zilindroaren tankeran.

Beste ehundaka tresna, milaka ez esatearren, aurki litezke baserriari lotuak. Guk printzipalenak edo usuenak ipini ditugu. Bakoitzari ipini diogun esplikazio txikiaz aparte, argazkitik ondoriozta daiteke zerk zertarako balio duen.

Etxeko lanaz aparte auzolana ere izaten zen. Gure bailaran lanik handiena elizpidea garbitzea eta txukuntzea izan ohi zen. Urte batean, porlanezko eskailerak egin genituen Bentaberritik hasi eta Igartzetaraino. Lan horiek, sarritan, erdi jolasean egiten ziren; broma ederrean, behintzat. Auzolan guztietan herriak ardoa ipintzen zuten. Askotan, azkene-rako umorerik, eta agian bertsorik, ez zen falta izaten.

Laian ere, normalean, auzokoak elkartuta egin izaten zen, «orain gurean eta gero zuenean»; etxe bakar batetan zaila zen behar adina laiari izatea.

Gari jotzea ere berdin; alegia, elkarri lagunduz egiten zen. Gure garaian, makina bat ibiltzen zen baserri sail batean, batetik bestera txandatuz; egun bat edo egun eta erdi pasatzen zituen gure etxeko gariak jotzen.

Hori baino lehen, garia igitaiaz ebakitzen zenean ere auzolanean egiten zen, bailara osoak hartzen zuen parte; auzo bakoitzak bere antolaketa-sistema zeukan.

Txerri-hiltzea izaten zen beste motibo bat auzokoak biltzeko; denak ez baziren ere ingurukoena behintzat. Itsasondoko Jesus Lete «Ibai-ertz» zenak badu artikulu bat *Txerri bodak* izenekoa; oso ederki esplikatzen du txerria hil eta ondorengo eginkizunak zein eta nola izaten ziren. Jesus Lete lagun handia genuen. Bertso-jartzaile eta idazle bikaina zen. Epaimahaiko gotea ere tokatu zitzaion behin baino gehiago-

tan. Gure etxean egiten zenak badu antzik, baina baita alde-rik ere hark esaten duenarekiko. Testu hura irakurri nahi duenak jo beza hemerotekara (DV: 1992/11/20), hantxe aurkituko ditu nireak baino xehetasun handiagoak.

San Martinak esan ohi da txerria hiltzeko garaia, baina gurean ez zen sekula garai horretan hiltzen, baizik eta otsail aldera. San Martinen kontuak, nik uste, erdarazko esamoldean duela oinarria: *A todo cerdo le llega su San Martin*.

Txerria hiltzeko eguna aukeratzeko, ilargialdiari errepara-tzen zitzaion; izan ere, ahardia bazen ilberrian hilko zuten, eta, ordotsa bazen, ilberan. Dena dela, gehienetan txerrama zaharra izan ohi zen, umaldi batzuk egindakoa,.

Hiltzeko bezperan edo aurreko egunetan, txikiketak egi-ten ziren: porrua eta tipula ondo xehatu labanaz, odolkiak egiteko. Odolkiaren osagairik inportanteena txerriaren bera-ren odola da, eta hura nahastu egin behar izaten zen lapiko-ra isuri ahala, matoitu ez zedin.

Odolkiak egin eta pertzean jartzen ziren egosten, zumeak pertzetik kanpora zirela; zumetik tira eginik odolkiak pertze-tik ateratzen ziren, haizerik ote zeukaten ikusteko. Haizatuta bazeuden, orratz burubeltzarekin zulatzen ziren, haizea ate-ratzeko.

Ondoren, odolki partiketa etorriko zen. Etxeko neska eta mutil koskorrak joaten ziren odolki partitzera. Aza-hostoan jartzen ziren odolkiak; txerriaren beste zenbait puskatxo ere bai; koadrodun zapian bildu eta odolkiak partitzera! Erreto-reagana, maisu-maistregana, lehengusu eta konpromisoa zeneukan beste guztiengana.

Gauean, txerria hiltzen lagundu zietenak afaltzera bildu-ko ziren etxekoekin. Nahikoa odolki, gibel eta bestelako txe-rriki jango zuten haiek, kolesterol beldur handirik gabe.

Ondorengo egun batean txerria txikitu egiten zen, urdai eta urdaiazpikoak banatu eta lukainkak egiteko materialak ere bai. Lukainkagaia txikitu eta baratxuri eta oreganoz igur-tzirik, egun batzuetan aproposko ontzi batzuetan uzten zen; gero lukainkak egin eta haga luze batzuetan zintzilika ipini,

lizunik gabe ondo lehor zitezen. Gure etxe zaharrean ez zen haize falta handirik izaten, berezko «leihoak» ere nahi baino gehiago zituen eta.

Txerria hiltzekoan  
nork bere lantxoak:  
hiltzailea aurrera  
eskuan gantxoak,  
kokozpetik sartzean  
zer karramintxoak!  
Ez da gozoa jartzen  
nahiz berez mantsoa.

Mahai gainera kurriskaz  
eta ez isila  
lepapeko txokotik  
sasta! akutxila,  
amona ontziakin  
odolaren bila,  
egiteko odolki  
edota murtzila.

## **Uztargileak**



Uztarria, kurtera eta kopetakoekin.

Uztarria egitea artesau-lana da. Gizon banaka batzuk izaten ziren horretan aritzen zirenak Esan beharrik ere ez, gaur egun uztargile ofizioa zeharo ezkutatu dela hemen

hauetatik. Izango dira 35/40 urte hemengo idiak eta uztar-behiak bukatu zirela, eta, horrekin batera, uztargileak. Askok usteko du laborantzaren aurrerabideak ekarri zuela aldakuntza. Hori izan daiteke egia toki batzuetan, adibidez Nafarroan, baina hemen, bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian, nekazaritza bertan behera uztetik sortu zen, batik bat, aldaketa. Orain dela berrogei urteko paisajearekin ez dauka zeri-kusirik gaur egungoak. Orduan soroak ziren toki askotan, gaur belarra eta zaborra dago, eta orduan belardia zen tokian pinua. Garai hartan, atariko intxaurraren azpian jarri eta, begiratzen zenuen tokira begiratzen zenuela, ez zenituen us-te bezain erraz apartatuko begien bistatik soro-lanean ari ziren itzainak, mordoak baitzen.

Bestetik, guk baso handiak genituen; egurra franko atera genuen bolada batean, negozio handirik egin ez bagenuen ere.

Aurreko paragrafoko parentesi txiki horren ostean, itzul gaitezen uztargilearengana. Uztarri egitea, esango nuke, ofizioa baino zerbait gehiago zela: artesautza-lana, lehen esan dudan moduan, eta ez batere erraza. Funtzionala izateaz gain, dekoratiboa ere bazen; kutxen antzera uztarriak taila batzuk izaten zituen.

Bestalde, idi pare edo behi pare bakoitzari bere neurri-ra egin behar zitzaion. Normalean, pare bati egindakoa besteari gaizki etorri ohi zitzaion, nahiz eta, beste erremediorik ez zegoenean, uztarri zaharra idi pare berriarentzat aprobetxatu. Hala ere, baserritar onak nekez egingo zizun horrelakorik.

Uztarri motza ere izaten zen, hau da, animalia bakararentzakoa. Hori, jeneralean, arto-besarrerako-eta erabili ohi zen. Dena den, Ordizian ezagutu nuen idi bakarrarekin ibiltzen zen errekadista bat.

Uztargilearengatik esan dezakegun gauza bera esan dezakegu perratzaileagatik, nahiz eta ofizio ezberdinak diren. Gainera, perratokiak geroxeago itxi ziren. Orain, nola uztarria hala perratokia, biak dira museo eta erakusketa etnografikoko piezak.

## **Nafarroara jenero bila**

Oso normala zen hemendik Nafarroara, mendiz, jenero bila joatea. Gauza asko ekarri ohi ziren: patata, garia, ardoa... Ni, estreinako aldiz, 14 urterekin joan nintzen, Telleritxo baserrian morroi nengoela, hazitako garia ekartzera. Gerago ere joan izan nintzen, nahiko sarritan. Horko joan-etorria gutxi gorabehera nolakoa izaten zen jakiteko, urte batean egindakoa kontatu dut. Barkatu txikieria gehiegirekin buroa betetzen badizuet.

Kasu honetan, auzoko lehengusua eta biok joan ginen; hura gizon ezkondua eta ni 16 urteko gaztea (orain «16 urteko umea» esaten da). Asto, zaldi eta mando, dozena erdi bat kaballeria izango genituen moldatu beharrekoak.

Ilun-bistan iritsi ginen Lakuntzara. Gure lehengusu horrek galdetu zuen jenerorik ba ote zegoen edo, aurretik hitzik egin gabe joan baikinena, eta ezetz erantzun zioten. «Arruazura joan behar diagu», esan zidan. Hala, abereak hartu eta trenbidearen ertzetik barrena, iritsi ginen Arruazura. Joan eta jo dugu atea, eta baietz, badutela jeneroa, baita ganaduek eta guk geuk deskantsatzeko tokia ere. Baserri hartan ikusi nuen bezalako ganadu-talde bikainik ez dut toki askotan ikusi.

Tolba batetik lastoa bota eta gure animaliei eman zien jaten. Geuri ere eskaini ziguten afaria. Baina han inguruan gure auzotar bat bizi zen: Ausoegiko Domingo, eta lehengusu horrek hura bisitatzera joan behar genuela. Joan ginen, eta ez ginen damutu; bazen beste auzotar bat ere, Erramun, gu bezalaxe bisitan joana. Ederki afaldu genuen. Bazen hura fardelean generaman anoia adinakoa. Ez genuen gutxi estimatu, egun osoa puska lehorra jaten arituta.

Herriko tabernan festa zegoen, kintoen despedida. Soinu eta guzti ari ziren ospatzen. Geu ere ez ginen atzera geratu, majo egin genuen dantza. Gero, lasto-pilan etzanda, begiei bilduak eman genien, eta goizeko hirurak aldera abiatu ginen handik animaliak kargatuta. Egunsentiarekin batera iritsi ginen Punttarrira; hain urrun sekula ez du ikusi eguzkia. Eguerdi alerako iritsi ginen Oidaira. Kaballeriak deskargatu,

haiei zer edo zer eman, geuk ere zerbait hartu eta atsedean txiki baten ostean, berriro martxa.

Oidutik behera abiatu ginenean, «bertsotan egin behar diagu», esan zidan lehengusuak; «nik puntua jarriko diat eta hik erantzun». Halaxe egin genuen; ez dakit zer erantzungo nion, baina ez ginen asko isildu.

Amaieran, eskari bat egin zidan lehengusuak: «Ez iezaioik, gero, inori esan nola ibili garen». «Ez, gizona, ez; zaude lasai», nik erantzun. Uste dut promesa ongi bete dudala, hauxe baita bidaia horretaz mintzatzen naizen lehenengo aldia.

### **Ofizio gehiegi**

Esaerak badakizue zer dioen: «Hombre de muchos oficios pobre seguro». Nafarroan oraindik hobeto adierazten dute: «Cien oficios, mil miserias». Guri ere horrelako zerbait gertatzen zitzaigun. Baserri hutsetik bizi ezina besterik ez zegoen ordurako ere, hau da, nik hogeit bat urte-edo nitunerako. Horregatik, lehenago ere aipatu dudan eran, Mizpizabaleta baserrira joaten nintzen lanera, hemezortzi bat urtetik fabrikari hasi arte. Esan dut Pedro Joxe zela nagusia; bakarrik bizi zen, eta hark ere behar laguntza. Nik ez dakit argazki finkoek dena esplikatzeko duten, baina batzuk grabaturik gertatzen dira. Esate baterako, 1953ko uholdean, asteazkena zen, xehetasun gehiago nahi dituenarentzat, sagar biltzen aritu nintzen, baita bildu ere zakukada batzuk. Baina bide guztiak urak moztu zituen, eta sagarrak bertan utzi behar izan genituen. Hala ere, gaitz erdi, hurrengo egunean, *Anterorenak* eginda bederen, lortu genuen sagar horiek bere tokira eramatera. Pixka bat deskuidatu izan bagina, errekan goial azalduko ziren.

Bolada batean basoan ere aritu nintzen lanean. Gure osaba batek Ataungo herri terrenean basoa ateratzea hartu zuen bere kontura. Beasaingo hiru moble-fabrikatarako zen materiala. Osabarekin ondo konpontzen nintzen; idiak ere onak geneuzkan orduan, eta han ibili ginen. Lana dezente egin genuen, baina jornal polita atera ere bai.

Hortik Aretxabaletara joan nintzen lehengusu kontratista batekin. Etxeari teillatua ematen aritu nintzen. Ahal zen neurrian saiatu ginen lanean; saiatuta ere ezer asko ez, baina bestela gutxiago baitzegoen.

Beste ofizio bat ere izan nuen: hilobizale. Ni solduskatik etorri nintzenerako, gure adineko jende gehiena lanean hasia zegoen: obran ez bazen fabrikan, non edo han. Gehienetan, lau lagun nahiko betikoak izaten ginen: Peatzeta baserriko Santos Olano, Mendizabalgo Antonio Beloki, Galbariotako Ignazio Beloki eta ni neu. Hil-kanpaia entzuten genuenean adi-adi egoten ginen, bagenekien-eta deituko zigutela; eta gehienetan halaxe izaten zen. Orduan, goizez egiten zen hileta-elizkizuna, hamarrak aldera; egin beharrekoak eginda-koan bazkaria ematen ziguten. Hamaika txuleta jandakoak gara herriko hildakoen kontura. Baina ohiturak ohitura dira. Dirutan ez genuen ordainik izaten.

Hogeita bost urterekin, 1958an, Beasaingo Fabrika Handian sartu nintzen; karga-deskargan jarduten nuen, baina baserriko lanari utzi gabe. Hamabietatik iluntzeko zortzietara egiten nuen lana, baserrian aritzeko denbora izatearren. Oraingoz gera bedi aipamen hutsean, aurrerago emango ditut xehetasunak.

## **Festa eta erromeriak**

Gure gazte-denboran, festa eta erromeria asko egiten zen. Hori bai, denak igandez izaten ziren; beste sei egunak lanearako hartzen genituen, Jainkoak bezalaxe. Erromeria bikainak egiten ziren, adibidez, Larraitzen San Pedrotan eta Pazkoa bigarrenean, San Migelen, etab. Garaiak eta giroak zeharo aldatu dira: orain ez dago benetako erromeriarik; soinua jota ere dantzarik inork ez du egiten eta. Orain ere egiten dira leku batzuetan erromeriak, baina oso fortzatuak eta ez dira lehen egiten ziren haien isla soila baino.

Hori esanik, gure garaiko inauteriez egingo ditut hitz bi. Dozena bat urte nituenetik hasi eta soldaduskara joan arte guztian ibiliko nintzen. Azkeneko urtetan, *Txantxo dantza*



egiten genuen; gure anaia Pedrok Abaltzisketatik ekarritako dantza zen hori, makila motz batzuekin egiten zena. Hiru egunez ibiltzen ginen eskean baserririk baserri; gauean ere ez ginen etxera etortzen. Dantzariak, soinu-joleak, saskizaleak eta zahatozaleak osatzen genuen taldea. Beste pertsonaia bat ere izaten zen, «zatarra» esaten zitzaion, etsaiaren figurakoa. Garai modernoek beste inauteri bat ekarri dute, eta akabo usadio zaharrak. Oraingo inauteriak ez dauka ezertan antzik, ardotik urera besteko aldea dago.

San Migeleko ibilaldia ere aipatzekoa da. Abuztuaren 28tik hurrengo igandean egiten zen bilera. Absolutziko igandea esaten zitzaion. Jai erdi erlijiosoa erdi profanoa izaten zen. Bezperatik abiatzen ginen herritik koadrilan. Iluntzerako iristen ginen hara. Hara iritsi eta konfesatzea zen lehenengo gauza; gero, bezperak errezatu; ondoren, sermoia. Orduan dena erlijioak kutsatuta zegoen. Hala ere, gauean izaten zen broma eta umorerako tartea.

Altsasuko praile kaputxinoak egoten ziren konfesatzen, eta batzuk, niri neroni sekula ez zait tokatu ez bazait ere, nahiko astokiloak. Oso normala omen zen honelako gauzak esatea: «Infernuaren erdi-erdian hago», eta antzekoak. Behin batean, ez dakit emakumetan libre antxean ibili ohi zelako edo, lehenbailehen ezkontzeko esan omen zion gure lagun bati. Handik denboratara ere hala esaten zuen: «Oraindik ez diat bete San Migelgo penitentzia». Baina noiz-bait bete zuen, horratik. Seme-alaba jator askoen gurasoa da gaur egun.

Esaten dute, hobeto esan, berak aitortzen zuen, pentsamendu txarrik eta izaten zuen galdetu omen zion Lazkao Txikiri.

–Horiek zer dira?, berriz galdetu Lazkao Txikik.

–Horiek zer diren ez dakit?, neskekin pentsatzen egotea eta.

–Jum!, nik izaten ditudan onenak horiek dira.

–Alde egizak azkar hemendik –esan omen zion praileak haserre, eta Lazkao Txikik:

-Ni ez naiz hemen denbora askoan egoteko asmoan etorri.

Beste pasadizo bat ere kontatzen dute. Mutil bat, bezperan konfesatutakoa, berriro hurrengo goizean joan omen konfesatzera, eta apaizak, ohiko erritualari jarraiki, galdeztzen dio:

-Zenbat denbora da azkeneko aldiz konfesatu zinela?

-Atzo arratsaldean.

-Atzo arratsaldean?, apaizak harrituta.

-Bai, jauna; neska batekin topo egin nuen, uste baino aurrerago joan; ezin izan nion tentazioari eutsi.

-Nik adinako suertea izan duk; nik bazaramatzat hemen 50 urte eta sekula ez zaidak horrelakorik gertatu.

Ironia bada ere, polita da; bestela, berriz, apaizak eta praileak ere, odolkien moduan, egiten diren bezalakoak.

Bertsolariak ere ezagututa nago San Migelen; ez ofizialki eramanak, baina bai bertsolari politikak: Lazkaomendiko Matxain eta Ataungo Joxe Mari Begiristain. Nik beti begia eta belarria bertsolariari zuzenduak izaten nituen, eta iruditu zitzaidan ondo egiten zutela. Gero nik tentatu izan duen Joxe Begiristain, baina ez zidan sekula erantzun bertsotan. Lazkao Txiki ez zen tontoa, hark ondo kontrolatuta zeukan Goerri bertsotan zeinek egin zezakeen. Aipatu ditudan bi horiek, Goiburu etab. Partikularki Goiburu, ez zeuzkan azaren barreko hostotzat.

Bukatzeko, zinten historia. San Migela joaten zenik nekez etorriko zen zintarik erosi gabe. Ez dakit zer esanahi zeukaten zinta haiek, baina, nolana ere, sinbolo erlijiosoak izango ziren; begiratu, bestela, gertaera honi. Lehen aipatu dudan Lazkaomendiko Matxain horrek zahatoari zinta erantsita zeukan. Han genbiltzala, orduan hango kapilaua zena, Inozentzio Aierbe (ez da hil zarra), azaldu zen. Matxain horrek:

-Trago bat nahi du?-, eta apaizak:

-Kendu, mesedez, zinta hori hortik segituan.

Hitzik trukatu gabe bete zuen lazkaomenditarrak apaizaren agindua.

Erromeria eta Goierriko bertsolariez mintzatzen ari garenez, Goierriko bertsolari bati emango diot hitza lehengo erromeriaz mintza dadin: Florentino Goibururu:

Lehengo mendiko erromeriak  
ziran ugari antxian,  
egun-argitan dantzatu eta  
iluntzerako etxian:  
orain gauean dantzatzen dira  
gehienak leku itxian,  
gauzak ederki aldatu dira  
hemen denbora gutxian.

Saio hartan neu nintzen Goibururekin, Lazkaon; honela erantzun nion:

Ez ziran metro askorik ere  
gure etxetik abiran,  
Bentaberria deitzen zitzaion  
etxe koxkor baten jiran;  
soinujolea, neska ta mutil  
komeni zaien mugiran.  
Orduan ere nere iritziz  
bapo dibertitzen ziran.

### **Igande bazkalondoa Olegin**

Hasteko, ez dago ahanzterik hamaika lagun, 11 juxtu, batzen ginen mahaian. Kasu honetan ez da zenbaki sinbolikoa, konkretua baizik. Bazkaltzeko zer izaten genuen, askotan behintzat, buruan daukat: garbantzua, oiloa saltsan eta

arroz-esnea. Bazkaltzeko garaian edota bazkalondoan hiru gauza egiten ziren gure etxean, irratia iritsi ez zen arte. Bazkaltzen ari ginela, bikarioak elizan, Meza nagusian, egindako sermoia errepikatzen zigun Amak. Ez naiz ohartzen sermoi guztiez, baina bi pasadizo kontatu beharra dauzkat derrigor. Bata Titanic famatuarena da.

Mundu osoak daki Titanic-en historia. Baina berezia da gure amaren bertsioa; Nik ulertzen dudanez, sermolariaren hitzetan, harrokeriazko bekatuaren ondorioa da Titanic hondoratzea. Mitoak dio, apaizak gure ama eta gisakoei buruan sartu zienak alegia, «Jainkoak ere ezingo du honen kontra» zeramala idatzia itsasontzi horrek. Ondorioa garbia da: Jainkoak esku hartu zuela, zuenean, Titanic-en hondamendian. Eta gisa horretan, gizonaren harrokeria zigortu zuela Jainkoak. Mezua begi-bistakoa da: «Izan gaitezen umilak. Jainkoari gaina hartzerik ez dago».

Pena da gauza bat, edo kontraesan bat, Titanic-en ere pobreak baino aberats gehiago salbadu zen. Hori ere Jainkoak nahi izan al zuen? Dena dela, garai hartan Titanic batean joateko, pobre-pobrea ez zen inor izango.

Luteroren kasua da bestea. Behin batean –amak hala kontatzen zuen–, Martin Lutero eta Katalina emaztea leihotik begira omen zeuden. Zerua, izarrez betea, zoragarri omen zegoen, eta Katalinak esan omen zion Martini:

–Hau zeruaren zoragarria–, eta Martinek erantzun.

–Ez, ordea, zuretzat eta niretzat.

Horrela hitz egiten zuten gure herriko apaizek, Lutero eta bere adiskide guztiak kondenatuta zeudela «demostratzeko». Benetan, ikaragarria da. Eta noizbait aitortu beharko lituzkete botatako astakeriak eta egindako kalteak. Eta, jakina, barkamena eskatu.

Bazkalondoan, nire txanda izaten zen. Nik bertso zaharrak kantatzen nizkien, tutean hasi aurretik. Pedro Mari Otañoren bertsoak izan ohi ziren askotan, baina baita Xenpelar, Txirrita eta abarrenak ere...

## **On Luzio Kortajarenari dongitua**

Hogeigarren ehunkian  
kristauen bizitzan,  
bi urte inguruak  
dauzkagu desditzan;  
begira dierriak  
zer-nola dabilzan.  
Elkar porrokatutzen  
nonahi arakintzan.  
Aurreratuzen goaz  
txangurroen gisan.

Gizon eta herriak  
dabilta beldurrez  
elkar zelatatuaz  
lehorrez ta urez,  
hitz ederrak esanaz  
barrendik gezurrez,  
-Zein dirade gaiztoak?  
-Besteak bai, gu ez.  
Indarra nagusi ta  
gogorrena juez.

## **Ameriketako panpetan: onbuari**

Txabola ondoko onbu laztana,  
maitatzen zaitut gogotik,  
eta bihotza erdibitzen zait  
joatean zure ondotik,  
nere burura ekartzen dezun  
oroimen gozoagatik.  
Zure itxura ikusi nahi dut  
ez dizut eskatzen frutik.  
Ni hemen bizi naizen artean  
arren egon zaitez zutik.

## **Xenpelarrenak**

### 1

Gaitzak gerade umiltzen  
eta bakean unitzen,  
ez da errez ibiltzen  
anaiak elkar hiltzen  
zer dan etenditu gabe,  
hortan galduko gerade.

Umildadean alkarri  
errespetua ekarri,  
lege eder bat jarri,  
bizi gaitezen garbi,  
hori desio nuke nik  
isuri gabe odolik.

### 2

Ezkondu eta ezkongai  
guztiok ondo bizi nahi,  
dirua degunean jai.  
Familiako buruzagiak  
kontu gehiago ere bai,  
lehen ardo edaten lasai,  
orain urrutitik usai,  
etxean nago andre zai.

### 3

Andria dabil tratuan  
emarian ta hartuan  
lehorrian ta portuan;  
bere bototik salduko luke  
senarra hiru kuartuan.  
Isla batera barkuan  
entregatzeko kontuan  
ez da prezio altuan.

## **Aro honetako bertso-giroa**

Soldaduskara joan aurretik sekula ez nuen parte hartu saio ofizial batean, nahiz eta nire kasa jarduten nuen. Lehenbiziko aldiz Zaldibiako Depositutan kantatu nuen. Baina aurrerako baino atzerako kolpe handiagoa izan zen hura. Mutil koskorra nintzela, etxeok Deposituetara bidali ninduten enkargu bat egitera, auzotar bati tabakoa eramatera, beste gauza askoren artean tabakoa ere egiten baitzen gure etxean. Han baziren gure familia ondo ezagutzen zutenak, eta bertsotan ekin ziguten anaiari eta bioi. Denak ez naiz gogoratzen, baina orain Gabirian bizi den «Alkixa» artzainarekin ere aritu ginen.

Ez genuen uste, eta nahi baino ere urrunago hedatu ziren gure «bertsoen» oihartzunak. Hori pasatu ondoren, joan naiz Don Gabriel apaizarengana konfesatzera. Hark egindako galdera guztiei erantzun nien, eta amaitu nuela uste nuenean, non botatzen didan:

-Lehengoan, Depositutan bertsotan aritu omen zinen.

-Bai, aritu ginen.

-Bada, hori ez duzu ofizio ona, eh! Bertsolaria jende arlotea izaten da; gehienek gaizki amaitzen dute; hobe duzu uztea.

Apaizaren esana aintzat hartzen genuen garai hartan. Puska batean utzita egon nintzen, baina gogoan nuela. Alferrik da! Hori berezkoa izaten da, eta, lehenxeago edo geroxeago, bultzaka azaltzen.

Bertsoren bat edo beste hemen ezartzearren, saiatuko naiz memoari eragiten. Behin batean, gure aita, Hilario Nazabal eta Pedro Nazabal (gure lehengusua) ari ziren kantuan. Hilariok deitu eta esan zidan: «Etor hona, Patxi, biok egin behar diagu hauen kontra». Besteek ez dakit zer kantatuko zuten, baina nik hauxe:

Hemen jendeai gustatzen zaio  
komeriak ikustea,  
tratu txarrean sartzea baino  
ez alda hobe uztea?

Aita nahikoa zahartua dago,  
ni oraindikan gaztea,  
ez da egokia aita-semeak  
alkaren kontra hastea.

Saioak ez zuen gehiago jarraitu. Badirudi nire bertsoak hunkitu egin zituela, batez ere gure aita.

Beste behin, Lazkao Txiki zegoen Bentaberrin, eta nagusiak esan zidan. «Beno, Prantxiko, kantatu lasai, zuk horrenbeste badezakezu eta; Lazkao Txikiri, berriz esan zion, hi ez hadi, gero!, mokoka hasi». Lazkao Txikik honela kantatu zuen:

Ez zaidazula jarri  
holako kakorik,  
arren ez zaidazula  
esan holakorik.  
Nahiz eta aurpegia  
estu ta plakorik,  
mokoka egiteko  
ez daukat mokorik.

Eta nik:

Buru argia eta  
hiztun egokia,  
zuk ez dezu kulpik nik  
gutxi edukia.  
Esan nahi zun «ez utzi  
hitzez ebakia»,  
horrek nola dadukan  
nere errukia.

### **Bentaberri, bertsolari-habia**

Bentaberrik aparteko kapitulua merezi du, gero Lazkao Txikik edo Legorretako Jesus Eskisabelek mereziko duten eran. Esan genezake Bentaberri bertsolaritzaren txoko esti-



matua izan zela Goierrin. 1942tik hasiko naiz. Eguna ez nuke zehaztuko, baina badakit gu, amarekin, Igartzetan (bere jaiotetxean) izan ginela. Etorri eta afaltzen ari ginela aitak ekin zion: «Bentaberrin bertsolariak daude; Uztapide eta Basarri omen dira; horiek omen dira oraingo onenak. –Gure aitak oso informazio gutxi zeukan; adibidez, ez zekien Basarri txapelduna zenik.–. Baina horiekin aritu da mutil koskor bat...Esan dute Abalingo Feliperen semea dela. Nola egiten duela, gero, bertotan!. –Harrituta etorri zen–. Oraindik hori aterako da bertsolaria!». Ez zegoen «Lazkaomendiko» esan beharrik; orduan bat jotzen ziren Lazkaomendi, Zaldibia...

Hori izango zen bertsolariak lehenengo aldiz etorri ziren eguna. Esan behar da nondik nora etorri ziren ere. Zaldibia-ko Olalde baserriko Matias Garmendia, Basarri *Trabajado-reetan* zegoela, haren guardian egona zen; handik hara amista-dea egin eta halaxe etorri Bentaberrira.

Handik hurrengo igandean ere, bertso-soinua entzun nuen, eta ni, nahiz eta ume-moko hutsa izan, sartu egin nintzen. Izan ere, etxean bezala ibiltzen ginen gu Bentaberrin. Egotez ere gure etxetik bertantxe dago. Azkeneko urte mordoan artzaina bizi da, baina lehen taberna zen. Joakin Zubeldia «Gautxorik» eta bere emazte Martina Garmendiak gobernatzen zuten taberna hori, aipatzen ari naizen garai horietan.

Esan bezala, sartu nintzen, eta «Moxo» izeneko batekin ari zen kantari Lazkao Txiki. Izugarrizko inpresioa egin zidan, inpresio ona.

Bentaberri bertsoleku eta erromeria-toki handi bihurtu zen bolada aski luzean. Lazakomendi aldetik ere, neska eta mutil, jende asko etortzen zen. Lazkao Txiki ere bai, guztien tartean, txapel txikia buruan zuela, begi argi askoekin.

Hemen herrian bertako bertsolariak ere asko ziren orduan, eta ez gaizki aritzen zirenak. Uste dut aipatzearekin ondratu egingo ditugula: Migel Munduate «Zunzuni», Zelearko Hilario Nazabal, Lazkaoetxeko Hilario Amondarain, Albi-

txuberriko Lorentxo Sukia, Igartzetako Hilario Otegi, Urtsu-  
biko Patxi Zubeldia (Iker Zubeldiaren aitona).

Bertsotan hemen jendeak erraz samar egiten zuela ikus-  
teko adibide bat ipiniko dut. Hermandeko bazkari batean,  
herri-bertsolari edo, hobeto, taberna-bertsolari batek kanta-  
turiko bertsoa duzue hau:

Antonio, badiagu  
zenbait esamesa,  
hi ere ni bezela  
nahiko aldrebasa,  
hi eta ni zuzendutzen  
ez zegok erreza,  
ta gu zeruratzeko  
alperrik dek meza.

Hasieran, Uztapide eta Basarri etorri baziren, gero Zepai  
eta Basarrik ere egin zuten bisita. Hemen alto egin behar  
dut, pasarte xeibre bat kontatzeko. Bersolariok ere, asko-  
tan, xeibre askoak izango ginen, baina baita inguratu ere  
antzekorik. Bazen gizon bat Zaldibian *Aierdi Xaharra* esaten  
ziotena. Nik ez dakit zer burubide zerabilkien, baina Benta-  
berrin bertsolariak zirela jakin zuenean, esan omen zuen  
bere blusa erakustera joan behar zuela, Zaldibiako neskek  
blusa nola konpondu zioten erakustera. Esan eta egin gaine-  
ra. Gizon ihar-iharra zen. Zepaik kantatu zion handiena.  
Honela amaitu zuen bertsoa:

Gauza hori guri esanarekin  
ez zera asko gizendu,  
hobe zenuke erantzi eta  
bertan botako bazendu.

Ondorenean, Txapel eta Basarri etorri ziren. Gero Mitxe-  
lena ere bai, mutiko gazte-gaztea, 18ren urte zituela. Hurre-  
na, Santa Fe egun batean, Lasarte etorri zen lehenengo aldiz,  
Uztapiderekin, soldaduskara joan aurretik.

Lizaso eta Lasarte ere izan ziren, lizentziatu ziren urtean. Ikus dezakegunez, orduan ere baziren bertsolariak garaiz asko hasitakoak.

Hurrengo pasartea oso gogoan dut. Oraindik gutxi gogorazi nion Lasarteri, Zaldibiako zaharren egoitzara etorri zen batean:

«1953 ingurua zen. Uztapide eta biok etorri zineten. Haste-ko, gosaria izaten zenuten han. Gosaldu eta, ondorenean, bertso saioa. Uztapide jaten ez zu begira egon zinen. Hark bukatu zuenean, bertso-saioa egin zenuten biok; hura han gelditu zen, eta zu ohera joan zinen. Minez aguntatu ezinik zeunden egun hartan. Egun txarra pasatu zenuen. Alberro, «Gaintzako Itsua» zen egun hartan soinu jotzen, eta Uztapide harekin hasi zen bertsoan. Konturatu zinen zu, nonbait, han goitik Uztapide bertsoan ari zela... jaiki eta etorri eta biok egin zenuten bertso saioa. Arratsaldeko saioa egindakoa mahaiari gelditu zinen. Orduan zegoen hemen “Urtsukoerrotako Amerikanoa” esaten zioten, baserri horretako semea. Egun osoa hor pasatu zuen hark, bertsoan entzun eta...Uztapideri puru habano handi bat eman zion, baina zuri ez. Afalaondoan hasi zinetenean, gaia horixe zenuten bertsoan aritzeko. Zuri eman ez zizunez, hortixe eraso zenion. Gero, zuri ere, eman zizun, nahiz eta nahiko gaixo ikusi. Puru hori hartu zenuen kantatutako bertsoa honelatsu zen:

Zerbait esaten jardun dut baina  
orain ez dadukat penik,  
ez derizkiot egin detena  
alferrik egin detenik;  
nik banekien ez zala txarrik  
jaun horrengandik ertenik.  
Gure herrian ez da ikusten  
holako atxur-kirtenik.

Haserreak ere gertatzen ziren inoiz. 1956an, izotzak hainbeste pinu erre zuen urte hartan, pinu garraioan jardun ostean, bazkaria antolatu zen Telleritxon. Bentaberritik ehun

metrora dago Telleritxo. Bentaberri itxi zenean Telleritxon ireki zen taberna berria, *Azkenportu* izenarekin. Uztapide eta Lasarte ziren etortzekoak, baina haiek, nonbait, etortzerik ez eta, beste bi bertsolari bidali zituzten: Lizaso eta Hernani Txikia. Niri neroni iruditu zitzaidan oso saio ona egin zutela, baina batzuek sekulako haserrea hartu zuten, eta jangela printzipaletik kanpo geratu ziren bazkaltzen. Jangela printzipalera joan nahi zuenak duro bat ordaindu behar zuen.

Gero, behean, Hilario Nazabal eta Migel Munduate hasi ziren bertsoan, «profesionalei» bizkar emanik; hauengana bildu zen jende asko. Euskaldunak beti izan gara arraro samarrak.



Iraola, Goiburu, Zeberio, Ibarbia, Barandiaran, Zendoia, Etxaluze, Muñoa eta Igarzabal, Ordiziako txapelketan 1971ko irailean.

## Hirukote berezia

---

### **Jesus Eskisabel: ni plazara irten izanaren «erruduna»**

Guk Legorretako Jainkoa deitzen bagenion ere, berez lazkaotarra zen; zehatz esanda, Lazkaoko Olaso kale-etxean jaioa genuen. Mutil koskorra zela, aita eta ama hilik, umezurtz geratu zen. Horrelakoetan ohi denez, familiartekoak egin ziren haren kargu. Ordiziako Agarretxiki baserrian zeuzkan osaba-izebak eta haiek jaso zuten.

Agerretxikiko osabaren oroitzaz-edo, «Jainkoa» esaten hasi zitzaizkion, eta horrekin geratu zen. Legorretara joan zenean, berriz, «Legorretako Jainkoa».

### **Gizon Atsegina**

Oso gizon atsegina zen, umore handikoa eta bromosoa. Zenbat aldiz egon ote ginen elkarrekin! Bromarako arte izugarria zuen; hari entzun nizkion inori entzun dizkiodan ateraldirik graziosoenak.

Behin batean, han geunden koadrilan; Lazkao Txiki zena ere hantxe zen. Hizketan ari ginela juntatu zaigu aspaldiko ezagun bat eta, elkar agurtu ondoren, han hasi zen iritsi berri hori:

–Zahartzen ari gaituk, zahartzen.

–Bai, ez zagok, bada, beste erremediorik, gazterik hil nahi ez duenak zahartu egin behar –bota zion Jainkoak.

–Urteak konturatzerako joaten ditut –besteak, eta Jainkoak orduan:

–Urteak joan? Hiri joango zitzaizkian, niri etorri egin zaizkidak, hauek hemen zeudek!

Gero pasadizo hori Lazkao Txikirena izango balitz bezala hartu izan da, baina nik Jesusi entzun nion lehenengo aldiz: harena da.

Lazkaon jaio eta Ordizian gazte denbora eman ondoren, Legorretara ezkondu zen. Hango kale-etxe batean egin zuen habia, pisu normal batean. Gero, ordea, taberna jarri zuen. Bar Olaso zuen izena taberna horrek. Jaiotetxearekin oroituta ipini zion izen hori. Pasadizo hau ere dotore kontatzen zuen: «Andreak antza eman zidan tabernazalea nintzela, eta, tapa!, hark etxean taberna ipini». Beste hau ere oso berea da: «Tabernan zintzotutako gizona naiz ni». Haiek algarak eragiten zizkion jendeari!

### **Elkar ezagutu**

1963an ezagutu genuen elkar. Jesus, adiskide eta lagun naz gain, tarterikoa nuen: gure aita zenaren lehengusua zen. Bagenuen guk Zaldibiatik Beasaina joandako izeba bat, eta ni haren etxera joaten nintzen, Loinazetan, bazkaltzera. Eta Jesus ere bai. Hantxe egin genuen topo. Bertsotan hasi ginen, eta arratsalde osoan hartantxe aritu. Geroztik adiskide eta lagun handiak izan ginen. Eta, festetan, hura Zaldibiara etortzen eta ni Legorretara joaten hasi ginen.

Hura ez zen konformatzen, ordea, adiskide eta lagun iza-tearekin. Gizonari ez dago, bada, hori baino gehiago eskatzerik. Ni plazan ikustea nahi zuen, ordea, mundu guztitik. Plazan hasi behar nuela esaten hasi zitzaidan; aurrena, bro-ma abarrean edo, eta gero serioago. Niri ez zitzaidan sekula burutik pasatu plazan kantatuko nuenik, eta ez nion ematen aurrerabiderik. Inbidia eta gogoia soberan nituen, baina auserdia falta. Oso zaila jotzen nuen plazan bertsotan egitea, beldur handia ematen zidan. Lazkao Txikik ere tentatzen ninduen, baina benetako bultzagilea «Jainkoa» nuen. Hark plazan ikusi nahi ninduen, eta egun batean «tranpa» egin zidan, «zaldien hanketara jaurtiki ninduen». Deitu eta esan zidan:

–Patxi, datorren igandean koadrila bat badet egunpasa egitera etortzeko eta Lazkao Txiki eta zurekin pentsatu dut, bertso batzuk kantatzeko. Joan nintzen, baita, hamaiketako eta guzti, ederki errezibitu ere. Halako batean konturatu nin-

tzen mahai bat zeramatela tabernatik kanpora. Bere tokian ipini zutenean, Jesus hori gure mahaira etorri zen, eta esan zigun:

–Hortxe egin behar duzue biok saiotxo bat.

–Tabernan egitekotan ez ginen, bada, geratu? –erantzun nion nik.

–Bai, baina zuek badezakezue horrenbeste –, eta han utzi ninduen non nengoen ez nekiela; baina ez neukan beste erre-medorik. Nola edo hala amaitu genuen saio hori, eta bazka-londoan ere aritu ginen; tabernan, noski. Iluntzean, berriro, plazan aritu ginen. Uste dut eguerdian baino hobeto aritu nintzela, lasaiago nengoen. Hala ere, neure bertsorik ez daukat gogoan, baina bai Lazkao Txikik kantatu zuen bat:

Ikusten al dek, Patxi, zeharo  
estadu txarrez gaudela,  
batzuek haurrak hazten ai dituk  
ta gu oraindik honela.  
Esan behar dit gazte denboran  
andregai bat banuela:  
Jende tartean hor ikusten dit  
gure auzoko Manuela.

Manuela hori han zegoen eta jende artetik sekulako txaloak jo zizkion berak. Izugarritzko grazia egin zuen Lazkao Txikik bertso horrekin.

## **Haren ateraldiak**

Haren ateraldi guztiak esaten hasiko bagina... ez dakit zenbat denbora beharko genukeen. Egun batean, Uztapide gaixo zegoela, joan gatzazkio ikustaldi bat egitera, eta han ere aipatu genuen Legorretako Jainkoaren kontua. Hala esan zigun Uztapidek: «Hura granuja handia da». Hark kontatu zigun oraingo hau: «Behin, Basarri eta biok bagoaz Goierri aldeko herri batera bertsotara, eta artean goiz zela, eta Jesus bisitatu behar genuela. Larunbata zen, artean goiz samar,

eta han ari zen gauean utzitako ontziak garbitzen. Hark hartu zuen poza gu ikusi gintuenean. Bertsolaririk ondoan izanez gero, azkar ahanzten zitzaizkion lanak. Halako batean zerbait ohartu zen, eta esan zigun: «Sukaldera noa, esnea egosten utzi dut eta». Erdi barrez itzuli zen berehala, eta esan zigun: «Esnea ere badaukagu, bada, konfiantzazkoa, irakinda ere gainezka egiten ez duena».

Jesus, zure etxea  
taberna Olaso,  
han entzun nizun hainbat  
hitz-jario gozo.  
Sarturik dauzkat danak  
memorian preso,  
eta zu neretzako  
ona zien oso,  
zu zintudan bigarren  
aita edo guraso.

Elkarrekin gozatu  
genduen bizitzan  
tertulia gozoan  
edo bertsogintzan.  
Zu zinela medio  
plazaratu nintzan,  
baina utzi ninduzun  
umezurtzen gisan...  
zu hil zinadenean  
Legorreta hil zan.

Berak ere kantatu izan zuen. Hona ekarri dugun bertsoa da Jesus Eskisabelek, 1959an, Ordizian egindako saioko agurra:

Gaurko bilera honi ez diot  
gaizki dagonik iritzi,  
lehen hasiera eman degu-ta  
noizbait beharko da utzi,



euskera eta ohitura onak  
galtzerik ez du merezi.  
Ordiziara sarri bisitak  
einez ondo-ondo bizi.

## **LAZKAO TXIKI**

Iruditzen zait, beste guztien baimenarekin, Lazkao Txikik atal berezia eta propioa merezi duela, bai berez izan denagatik eta bai nik harekin edo hark nirekin, elkarrekin, izan dugun harremanarengatik. Arestian esan dut nola ezagutu nuen. Baina gaitza litzateke kalkulatzea elkarrekin zenbat ordu eman dugun, ez bertsotan bakarrik, baita bizitzako gorabeherak, harenak eta nireak, aztertzen edo... kontatzen. Dena dela, bertsotarako ere lagun ona zen. Erraz ematen zion hasitako hariari jarraipena, goldearen nabarrak bezala ebakitzen zituen bide berriak. Horretan ere aparta zen.

Lazkao Txiki definitzeko, egia esan, adjetibo batzuk behar dira: fina, sentibera, hitzari eusten zekiena, eskuzabala, konplexua, kontradiktorioa, apala, oilarra eta aldagaitza.

Zenbaiten iritiz, zenbat balio zuen jabetu gabe joan zen mundu honetatik. Nire ustez, aldrebes da: bere burua eta bere zirkunstantziak ondoegi ezagutzen zituelako sufritu zuen hainbeste. Eta besteak ezagutzen zituelako ere bai.

Joxe Migelek sufritzen bazuen, batez ere zatiketarengatik sufritzen zuen, faltsukeriagatik sufritzen zuen. Haren tesia garbia da: «Pobreak famatuta, aberatsei segi». Bete-betean asmatu zuen beti: «Kontzientzia nolakoa den ez zaitezte la atzendu, gizonak nola bizi behar dun ederki erakusten du; premiz danari lagundu eta inori ezer ez kendu; lege beharrik ez genduke guk hori beteko bagendu».

Bertsolaritza harentzat sentimendua zen, sufrimendua zen. Sinesgarritasunik inork islatzen bazuen, LazkaoTxikik islatzen zuen.

Jende asko dago Lazkao Txiki bertsotan ezagutu duena, baina nik bertsotatik kanpora ezagutzeko pribilegioa izan

nuen. Ezin etorri beti bat harekin, baina beti ulertzen nion, eta beti ulertzen duzun gizona, horixe da, «gizona».

Joxe Migel argia zen. Erraz antzematen zion zeinek zion egiazko kariñoa, zeinek onartzen zuen zen bezala, eta nork hartzen zuen txori-izugarri, eszenatokiko estereotipoaren arabera; Joxe Miel txikiak, gure aita zenak deitzen zion eran, beroa behar zuen, eta ez zuen gehiegitan lortzen berotasun hori, batez ere oholza gainetik kanpora.

Joxe Migel artista zen. Artista gehienak arraroak izaten omen dira. Nik ez dakit nor ote naizen hura eta beste asko artistak zirela edo direla esateko, baina bai esan dezakedala Joxe Migel artista arraroa zela. Oso arraroa. Bertsoarekin, eta kasik euskara besterik jakin gabe, hitzak tolesten zituena, hitzekin artea egiten zuena. Benetako bertsolaria, denek ulertzen ziotena. Nire ustez, bertsolaritzak egon behar du herri xehearen hizkerarekin guztiz identifikatua, uztartua. Lazkao Txikik bete-betean asmatu zuen horretan

Lazkao Txiki sentibera porrokatua zen. Behin batean, nire adiskide batek bertsoa irakatsi zion neska txiki bati, eskolan; hurrengo egun batean, Lazkao Txiki eta neska hori, bere gurasoekin, toki berean egokitu afaltzen. Neska joan zaio eta bertsoa kantatu dio oso-osorik. Han ikusiko zenuten Lazkao Txiki malkotan urtzen.

Lazkao Txikik bazekien jende askok maite zuela. Baina frogatzea gustatzen zitzaion. Pedro Mari Otañok Txepetxarengatik esaten duen bezala, “(...) *amildu arren ez leike galdu dakielako heguan, baina gustatzen zaio jartzia adar sendoxiaguan; inoiz edo behin aurkitzen bada burnizko aldamiñuan, hiru-lau aldiz zapalduko du seguru ote daguan*”. Inork ez dizu ukatuko Lazkao Txikik inseguritate punttu bat edo gune dezentea ez zuenik. Hori badakigu.

Badakigu, era berean, bere buruarekin zapuzten zela oholza gainean egindakoaren aurrean, bere burua bufoi gisa ikusten zuelako. Baina gozotasunez egindako bi hitz aski izaten zituen, horretaz ahanzteko.

Asko hitz egiten da Lazkao Txikiren bakardadeaz. Lazkao Txiki baino bakarrago portzentaje handia bizi da. Baserrian, Zaldibiako Gurutzeta baserrian, noiznahi izaten zuen bisita, eta ondo atenditzea gustatzen zitzaion; ez zuen inor purrustadaka bidaliko. Bestalde, egunero joan ohi zen Beasaina, Beasaingo Loinaz tabernara, bazkaltzera; ez zen inoiz bakarrik egoten, lagun ugari izaten zuen, bai bazkaltzeko, eta bai bazkalondoan. Eta Zaldibiara etortzen zenean, zer esanik ez. Horrez gain, etengabe bertsoan ibiltzen bazen, noiz egoten zen bakarrik? Izatekotan ere, lotako ordu apurretan. Jakina, aitortu beharra dago bakardade hori hor zegoela.

Egia da Joxe Migelek askotan izan zuela bertsoak uzteko tentazioa, lehen esan dudan konplexu horrengatik, hau da, halako bufoi-konplexua zuelako, momentu batzuetan uste izaten zuen denek barre egiten ziotela, baina nik hamaika aldiz esan nion: «Deskuidatuta hago, Joxe Migel. Hire beharra sentitzen dik jendeak, eta hori eskertzekoa duk». Egia da, jendea oso nolabait bizi da, eta alboan broma eta umorea ikusten duenean, pozik jartzen da, protagonista edonor dela ere, ez dio axola.

Egia da niri esan izan zidala: «Begira, dirua baneuka ez nitukek gehiago inora joango bertso tara». Nik badakit, ordea, bertso rik kantatu gabe Joxe Migel ez zela biziko. Arma asko zituen jendea bereganatzeko, baina bertsoa adinakorik ez. Seguru nago, plazara irten ez balitz ere, hura beti bertso tan jardungo zela.

Bazuen kexu apur bat emakumeekiko. Bere burua ez zuen jotzen landare edertzat, baina Joxe Migel, txikia bazen ere, ez zen batere aldrebesa; aurpegiz beste asko aldean egokia zen, eta, nire ustez, saiatu izan balitz, edozein neska konkistatzeko modukoa. Beharbada, arazoa izan zen bere burua ez konbentzitzea.

Joxe Migel beroa zen, kontradiktorioa, baina fina, sentibera. Argizaria baino finagoa, sentitzen zuena esaten zuena; egon zitekeen oker, egon ohi zen bezala, baina halako espiritua duen pertsonarik aurkitzea zaila da.

Bada intentzio osoz izenburua ipinitako haren liburu bat: *Irriz eta malkoz*. Ez da hori Lazkao Txikiren egoera bakarrik. Mundura guztiok etorri gara txanponaren bi alderdiekin; ez dago erabateko zorionik, ezta zeharo desesperatzeko motiborik ere. Zoriona da katearen antzekoa: tarteka, maila batzuk eten egiten zaizkio, eta berriz erantsi egin behar ahalik eta azkarren.

Nik esan behar banu, Lazkao Txiki zoriontsu izan zen bizitzaren momenturik gehienetan, nahiz eta katea soldatu beharrean askotan gertatu, guztiok bezala. Bazekien, gainera, bera pozik zegoenean besteak kutsatzen; alderantzizkoa zaila da, hau da, triste egon eta alaitasuna banatu. Kontradiktoria bazen, baina ez besteok baino gehiago.

Orain artekoa bukatzeko, bertso pare bat eskaini nahi dizkiot. Zer gutxiago?

Joxe Migel, gaztetan  
zure ibilera:  
etortzen zinanean  
Mirandatik behera,  
erromeri tokian  
Bentaberrin gera,  
batzuetan bertsotan  
ta nola gainera!  
Oraindik ametsetan  
elkartutzen gera.

Bizi zeran bezela  
zure irudiak:  
aurpegi txiki polit  
eta argi begiak,  
biok bertso kantari,  
zer ametsaldiak!  
Libratzen zaitunean  
zure hilobiak,  
izugarri gozatzen  
gerade gu biak.

Azkenik, bere hileta-egunean, eskaini nion bertsoa gogoratu nahi dut:

Abalineko izar argia,  
izar misteriosoa,  
itzaldu zera ta ilun dago  
Lazkaomendiko auzoa;  
zu izan zera gure lagunon  
maisu eta gurasoa,  
gure oroitzan jasoko degu  
zure izate osoa.  
Zeruko Aitak izan zaitzala  
bere altzoan jaso.

Bertso Joxe Migelen eskultura ipini zuten omenaldian kantaturiko bat da.

Zeure sortzetik dohai apartaz  
amak ekarri zinduan,  
ta berehala nabarmendua  
zeure artista munduan.  
Irudi osoz aterea zu  
holako harkaitz senduan,  
eta harkaitz hau landu duenak  
zer zentzu edo sen duan.  
Oso dotore egina zaitu  
baina merezi zenduan.

## **ARTXANBERRI**

Artxanberriri ere tarte berezia egingo diot, labur-labur bada ere; batetik, herritarra zelako, eta bestetik bertsolari moduan asko miresten nuelako. Horrez gain, Legorretako Jesusen tabernan sarritan egin nuen topo; batzuetan, Bazarri eta Uztapideren ondoan. Nik baino hogeita hemeretzi urte gehiago izan arren, inoiz edo behin jardun nuen ber-

tsotan harekin, eta, bide batez, Basarri eta Uztafiderekin. Oso zorrotza zen kantuan, baina hiztun egokia eta apala mahaian. Etorri handikoa zen, erraz egiten zuen kantuan, ziria azkar sartuko zizun hark. Ofizioak ere zerbait ikasteko modukoak izan zituen: batetik, artzaina zen; bestetik, azeri-harrapatzailea. Luzamendutan ibili gabe, azkeneko gai horren gainean hark eta Lazkao Txikik kantaturiko bertso erdi bana ipiniko ditut. Berez, osoak ziren, baina nik ez jaso osorik. Portzierto, ohar txiki bat egin beharrean nago: Artxanberriren bertsoa beste bi puntu erantsita ikusi dut nonbait, eta azeri-harrapatzailea zela ez zekien batek erantsiak, baina bertsoak honela dira, ez gutxiago eta ez gehiago; esan gabe ere antzemango diozue zein norrena den:

Zu beti izan zera  
gizon kriminala,  
animaliak hiltzen  
Jaunak egin ahala.

Jainkoak ere badu  
nik adina delitu,  
nik bizirik utziak  
Berak hiltzen ditu.

Baditu gehiago ere bertso harrigarriak, baina sarritan aipatu ditugu, eta beude beren tokian. Ea gai naizen neuk hari zerbait kantatzeko:

Euskadi Irratian, oraindik asko ez dela, egon da martxan programa bat: bertsolari batek besteari puntua ipini behar zion. Niri Patxi Garmendiak ipini zidan; ez dakienarentzat esan dezadan Patxi Garmendia Zaldibiako Gantxaitx baserrikoa dela; bertsolaze handia eta bertsoan ere zerbait egiten duena, nahiz eta plazan ez kantatu. Hona ipini zidan puntua, eta segidan nire erantzuna:

Artxanberri goitizen,  
Patxi Zubeldia

Ez zen gizon nagia  
edo geldia,  
zahartzarora bitarte  
menditik mendiaa,  
azeriak garbitu  
salbatu ardia,  
piztien guardia,  
bertsolari handia,  
bazun ausardia  
eta pikardia.  
Horra kantuan egin  
nik irudia.



Uztapide eta Artxanberri, 1974.VI.30.



Legorretako "jainkoa" emaztearekin.



## **Gure herriko soziedadeetako bertso-giroa**

---

### **Hasierako aipamen laburra**

Zaldibian bertso-giro aparta izan da nire gogoramen guttuan, batez ere herriko elkarteetan. 1959an inauguratu zen Arrantza eta Ehizako elkarte. Zenbat bertso-saio entzun, eta egin, ote dugu! Udaletxearen azpian genuen lokala, ostalua izandako tokian; oso lokal polita, Atxukarrok pintaturiko irudiak hormetan zirela. Hamaika bertsolari pasatu zen handik: Uztapide, Basarri, Lasarte, Agirre, Lazkao Txiki...

### **Lazkao Txikik Basarri**

Kontuak horrela direla, hango pasadizo batzuk, bertsotan emanak, azaldu nahi dizkizuet. Batean, Lazkao Txiki eta Basarri ziren kantuan. Basarri, zorioneko gizezkoon arazoarekin, komunera maiz antzean joan beharrean zebilen. Lazkao Txiki azkar ohartu zen, eta baita bertsoa bota ere:

Basarri dabil sarri  
mahaitikan jaikia,  
jendea molestatuz,  
ez da egokia;  
txisa egitea da`  
bere aitzakia,  
gizon haundia baina  
ontzia txikia.

### **Lasartek apaizei**

Hurrengoa Lasarterena da; hura ere Basarriekin zen. Basarrik atera zuen hizpidea: bazela garaia jendea erretiratzeke; baina segituan ohartu zen tartean bi apaiz zeudela, eta berak eman zion buelta bere arrazoari: ez zela hain desgaraia izango, apaizak ere, behintzat, han zeudela-eta. Orduan Lasartek:

Horra gure artean  
hor apaiz jauntxuak;  
neri ere on egin dit  
gaurko arrantxuak.  
Etxean gaudenean  
gera gu txintxuak,  
tabernara ezker  
denak berdintsuak.

### **Joxe Agirre, Hilario Nazabal eta hirurok**

Beste batean, puntutan ari ginen Joxe Agirre, Hilario Nazabal eta hirurok. Tartean bazen terreno-administratzaile edo horrela ibiltzen zen bat. Badakizue, denok ere hankatik ondo geunden eta, broman hasi gintzaizkion. Honela osatu genuen bertso bat:

Nik: Honek hau egiten du  
nik uste dedanez,  
Hilariok: jendeari askotan  
gezurrak esanez;  
Joxek: gauzik onenetatik  
etxera eramanez,  
Nik: maizterrari kentuta  
nausiai eman ez.

### **Hilario Nazabali**

Hurrengo bertsoa da nik soziedadean kantatua, Hilario Nazabal eta biok ginen, 1964an aldera zen. Garai hartan gure etxean konejuak libre ibiltzen ziren, eta bota nion ez zirela, bada, Olegiko konejuak izango. Erantzun zidan ezetz, aurreko igandean ere bost erbi bota zituela, ez dakit nori eman zizkiola ekartzeko, eta ez dakit zein zela testigu, eta horrela; beste batek bizkarreko ileak kenduta ihes egin ziola... Nik, orduan, hau bota nion:

Beraz tiroak erbi horreri  
egingo zion irrista.  
Hori egia izan liteke  
baina ezin det sinista.  
Garai gatean tiratzen zuen  
nola hodeiak tximista.  
Orain gezurak esaten ditu,  
edo galdu zaio bista.

### **Uztapideren bi bertso**

Beste hau Uztapidek kantatua da; Zaldibian, baina beste elkartean: Guraso Elkartean. Joxe Agirre zuen bertso-laguna. Urtea, oker ez banago, 1962 izango zen. Uztapide txapel-dunorde zegoen orduan, Basarriren ondotik. Agirrek famatu egiten zuen: «Nahiz eta bigarren egon, zu bertsolari handia zara; ez dago inor zuk bezalako berezkorik duenik...» Eta Uztapidek

Hankak baldartzen hasia nago  
eta arintzen kaskua,  
senitartean ere naiz ni  
izandu maiorazkua;  
nire bizitzan beti toka zait  
neri bigarren eskua.  
Eskolarikan ez daukat eta  
beharko det berezkua.

Hurrengoa ere Uztapiderena da; hau ere Guraso Elkartean kantatua, baina Lopategirekin, eta urte batzuk geroago. Kasu honetan, Lopategi ari zen Uztapide abonatzen, hemen esaten dugun eran, zaharraren jakinduriari bakean utzi behar zaiola, eta horrela. Eta Uztapidek:

Arbola zaharrak ez du besterik  
zotz iharra eta orbela,  
ni kontsolatzen ari da baina  
gauzak ez dira horrela;

honez aurrera hobeko degu  
babesa eta epela.  
Beste pozikan ez det sentitzen  
gazteak badatozela.

Hurrengo bertsoa Lazkao Txikirena da. Etxarrin ginen bertsotan biok. Saio bat egin genuen, eta gero soinua hasi zen. Aitona batek, nahiko adinekoak, esan zion emazteari: «Eutsi pipari, mesedez». Hala, dantza-saioa egin zutenean, aitonak berriro eskatu zion andreari pipa, eta andreak eman. Ordurako gu abiatzeko puntuak ginen, eta Joxe Migelek, gorputzaren erdia barruan eta beste erdia kanpoan zuela honela kantatu zion:

Orain ere ikusi det  
ehundoko txiripa,  
eta ikusi dedana  
esango den nik, pa!  
Gauza onerako zuk  
haundigia tripa,  
zeure partez andreak  
eman dizu pipa.

Azkenik, Uztapidek Legorretan Basarriri kantatua. Basarrik, bertso-saioaren hariak hartara ekarririk, esan omen zion Uztapideri «hereje» bihurtzen ari zela; elizara ere ez zela erditan joaten. Eta Uztapidek erantzun:

Basarri zintzoa da  
fedeko gauzetan:  
Otoitza egiten du  
gau eta goizetan,  
traperu hau gaur ere  
izan da mezetan,  
eta aita salduko luke  
kiloko pezetan.

## **Uztapide eta Lasarte, 1. saioa**

Kasu honetan, Uztapide eta Lasarte dira kantuan Gaztelu elkartean. Gai librean ari dira. Ez dago esplikazio behar handirik. Bertsoak entzun ahala ohartuko da entzulea (irakurlea). Lau bat saiostatik hartu ditugu mostrak. Lehenengo saio honetan Uztapide hasten da:

Uztapidek:  
Zer poza eman didaken neri,  
Lasarte lagun prestua,  
nere bihotza lasaitua dek  
lehen bazegon estua.  
Gizonak zerbait mugi behar dik  
egin ezkerro gastua.  
Saiatuko nauk ea egiten dan  
lagun maite hauen gustua.

Lasartek:  
Gure Uztapidek beti bezala  
hasera ederra eman du,  
erantzun nahia baneukake nik  
oraindik ez det berandu,  
broma ederra jarri gentzake  
alkar hartuko bagendu,  
oraintxe baino sasoi hobean  
inoiz ez gera egondu.

Uztapidek:  
Ez zeukat penik lagun hauekin  
zerbait tratatzen hasia,  
mahai santu hontan izan baitegu  
komeni zaigun guzia,  
zer alkartasun ederra horren  
gainez degun ikusia.  
Momentu hauek luzatzen dute  
gizon zaharraren bizia.

Lasartek:

Beste bertso bat apal askoa  
zure lehengoaren truke,  
inortxok asko behartu gabe  
laster moldatuko nuke.  
Lehenago ere zuk bazenduen  
zaldibitarren entzute,  
aurten portatzen baldin bazera  
berriz deituko dizute.

Uztapidek:

Berriz deituko baldin balute  
Uztapiden atsegina,  
orduana ere izango nuke  
zer da zertaz hitz egina.  
Alkartasuna nahi det danakin  
ta utzi txarrerako grina;  
geroko ere ez dator gaizki  
gaur gizonei on egina.

Lasartek:

Sei bat urtean banator honuntz  
zaldibitarren bitartez.  
Manuel, zuri deitzea ere  
ez dezu izango kaltez.  
Bertsozaleak ase beharra  
degu aspaldiko partez,  
herri polit hau ahaztu ez dedin  
Uztapidez ta Lasartez.

Uztapidek:

Sei urteotan zuri deituak  
jakin nahi nuke zein diran,  
nola neri're zaldubitarrek  
asko gustatzen zaizkidan.  
Neri ez didate bat'e deitu ta  
zuri sei aldiz segidan...  
Gaurtik aurrera jakingo dute  
noiz ta zeini komeni dan.

Lasartek:  
Lehen ere erakutsia zera  
bost holako gizalege.  
Arrazoiari erantzuteko  
hemen aurkitzen naiz trebe;  
zuk arrazoa eman dezu-ta  
Lasarte egingo da jabe,  
beraz gaur ere etorri zera  
inork abisatu gabe.

Uztapidek:  
Ikusitzen det nola zeraden  
zu nere kontra jaikia.  
Eta gainera entzuna nago  
txit erantzun egokia,  
arrazoi horri bertso honetan  
eman nahi erabakia:  
Bildur al zera nik kendutzeko  
Zaldibiko parrokia?

Lasartek:  
Soka luzea dago tartean  
guzia ez dezu eten.  
Manuel zaharra, gogoan hartu  
nola erantzuten deten:  
Nik lagun zaharra nere ondoan  
ikusit nahi nuen aurten.  
Uztapideri abisatzeko  
neronek esan nioten.

Uztapidek:  
Paperak egin ginuzen biak  
ta ez nituzke nahi erre,  
nik gaur esaten dizudan gauza  
esango dizut bihar'e,  
neri deitu edo besteei deitu  
ez dio ajola ezer'e,  
sekula deitzen ez badute ere  
lehen geran aina haserre.

Lasartek:  
Abisutxo bat emango dizu  
zuri Lasarte iharrak:  
Oraindik biok egun askotxo  
dauzkagu pasa biharrak,  
bertsoen bidez kontentu uzten  
ditugun zaldibitarrak,  
holako bromik ez du jarriko  
Andaluziko kitarrak.

Uztapidek:  
Ez gera egongo hemen luzaro  
gauza ezin erabakian,  
oain erantzungo dizut bertsoa  
oso era egokian;  
kitarra ez zala honako ona  
lehenago ere banekian,  
baina badu hark serbizioa  
bera sortu zan tokian,

Lasartek:  
Arrazoi dezu bertsolariak  
bertakoak gera egiz,  
hargatik beti askorentzako  
gogozkoak gera begiz,  
baina hitz hauek hobeak dira  
txukun antzean da neurriz  
oraingo aski izango degu  
ta geroxeago berriz.

## **Uztapide eta Lasarte, 2. saioa**

Soziedadeko bertso saioetan, askotan egokitu izan zaie bertsolariei hango presidentea agurtu beharra; inoiz baita alkatea ere, edo herriko erretorea bera. Kasu honetan alkatea dago bazkaldarren artean, Gaztelu Elkarteko presidentez gain. Orain Lasarte hasten da



Lasartek:  
Maitatutzen det hemen dagoen  
famili edo sendia,  
hitz egiteko egokierak  
holaxe etortzen dia.  
Orain artean goazen martxan  
konforme dago jendia,  
beraz txalotu behar dezute  
Gregorio Garmendia.

Uztapidek:  
Pixkat burua makurtu degu  
hori etorri danean,  
lehenago lasai ari banintzen  
ere ni bertso-lanean,  
elektrizista kontuan dabil  
gizon hau agi danean,  
eta uste det negozioia  
daukala gaurko egunean.

Lasartek:  
Jaboi fabrika martxan jarria  
elektrizidade suan,  
nola dabilen esango dizut  
nere oraingo bertsuan,  
alkatea guk maite degu-ta  
hartu gentzake besuan,  
nahi dezun dana kanta zaiozu  
zuk konfiantza osuan.

Uztapidek:  
Badakizute buruz ez dala  
behintzat gizon elbarria,  
orain artean ondo dabil hau  
hala nago igarria.  
Artzain onaren mendean beti  
itxuraz dabil herria,  
eta ez badaude kontentu hoiek  
jarri bezate berria.

Lasartek:

Karguan sartuta dagon batek  
ez ote du zerbait mintza?  
Bankete honek pozez beterik  
txoraturikan gabiltza,  
Uztapide ere kontzejal dago  
ematen dizuet hitza,  
honezkero alkate ere egin zan  
graduz iritsi balitza.

Uztapidek:

Nik erantzuna badaukat bada  
Lasarte berehalako,  
kontzelajak'e gaurko egunean  
dira nola edo halako.  
Eman didazu arrazoi hori  
zitara zeradelako,  
baina alkate ez naiz egiten  
nik neuk nahi ez dedalako.

Lasartek:

Izan ninteke zitara baina  
oso hizlari txukuna.  
Bertso horrekin oraindik ere  
ez degu bete eguna.  
Zuk dadukazun eginkizuna  
da hutsa eta astuna,  
alkate ezin liteke jarri  
eskolarikan ez duna.

Uztapidek:

Zure burua ikusitzen det  
nik gero eta ariño,  
hobe zenduen bertso hori zeure  
buruai bota baziño.  
Nik eskolarik ez jakitea  
ez da izango estraino,  
jakin nahi nuke zedorrek zenbat  
dakizun gehio nik baino.

Saio osoaren tartetik atera dugu hurrengo bertsoa. Uzta-  
piderena da. Soziedadeko presidenteari, Justo Salaberriari,  
kantatzen dio.

Justo maitea goraipa behar,  
lehendakari nola zeraden,  
aitortzen degu lagunak ere  
zeinen jatorrak diraden.  
Mendian nahiz ta elurra egon  
hemen beti dago lurmen.  
Txori gehienak babesten dira,  
pozik sartzen dira hemen.

### **Uztapide eta Lasarte, 3. saioa**

Jesus Letek gaia ipini zien: Uztapide, «Urtain»; Lasarte,  
«Alemana». Boxeoa gai hartuta bertsoan. Lasarte hasita ho-  
na mostra txiki bat.

Lasartek:  
Urtain, badakit oso  
bizkorra zerana,  
ostegunean goaz  
gu alkarrengana,  
zortzi bateri zaude  
pasara emana,  
baina gogorragoa  
dezu alemana,

Uztapidek:  
Hik eginagatikan  
gogorren papela,  
lasai gelditutzen dek  
Urtainen sabela,  
ez al hago jakinda  
gogorra naizela?  
Hi're eroriko haiz  
zortziak bezela.

Lasartek:  
Joaterako erronkan  
bete zera ondo,  
baina alemana dago  
indartsu eta sendo,  
holakorik ez dezu  
ikusiko egundo.  
Ez dituzu pasako  
hamabost segundo.

Uztapidek:  
Alemana oraindik'e  
animoso dago,  
baina nere aldetik  
ni're firme nago;  
beste danak bezela  
joango da k.o.,  
gau hartan lona gainen  
egin beharko du lo.

Lasartek:  
Bazterrak erosiaz  
Urtain honen saltsak,  
gerorako jantzi nahi  
zenituzke galtzak,  
baina alemanak dauzka  
piper eta gatzak,  
hartu behar dituzu  
muturreko latzak.

Uztapidek:  
Lehengo kontrarioa  
banuen plakua,  
harekin bete diat  
eskeinitakua.  
Ezagututzen al dek  
nere ezker kakua?  
Batekin egingo dit  
nik hirekikua.

Lasartek:  
Oraindik kolpe latzak  
ez daude neurriak  
eta badatozkigu  
istilu gorriak:  
Han pasako dituzu  
segundo larriak,  
kolpe batez kenduko  
dizkat belarriak.

Uztapidek:  
Pentsatu ez naizela  
gero ari broman,  
hi egonagatikan  
heure buruz sonan,  
musuka ikusiko  
haute laster lonan,  
ea gelditzen haizen  
bertan Bertzelonan.

#### **Uztapide eta Lasarte, 4. saioa**

Laugarren saioa. Oraingoan ere bada ziri eta bertso ederririk. Nire esplikazio guztiek baino gehiago balio du bertsoak entzuteak:

Lasartek:  
Lanak baditu nola erantzun  
aizu, Manuel, pentsatzen,  
etsai gaiztoak ibili ziran  
zure anima tentatzen,  
bihotza gaitzak behin ikutua  
izango zendun hain zuzen,  
baina San Pedrok ate ondotik  
berriz bidali zinuzen.

Uztapidek:

Pekatu hori Lasartek ez du  
esan berehalakuan,  
ikusitzen da momentu hontan  
nola zegoen jokuan.  
Beraz San Pedrok utzi ninduen  
zeruko atetik kanpuan,  
ea hobeto joaten naizen  
hurrena joandakuan.

Lasartek:

Lehen esan arren hori guztia  
ez da errez sinistia  
gerta leikenik San Pedrogana  
zu baino lehen iristia.  
Luzatu gabe emango dizu  
Lasartek bere ustia:  
Zuk bizitzeko nahikoa dezu  
edariari uztea.

Uztapidek:

Beste bertso bat falta da noski  
oraindik erremateko,  
erdia berak esan dizute  
nik neukana esateko.  
Urdail erdia kendu zioten  
ta ez du hori kalteko,  
oraindik ere badu lekua  
horrek eginak jateko.

Lasartek:

Bertsotan batek ondorenian  
ordaina ere izaten du,  
hamaika bider egia garbi  
Uztapidek esaten du...  
Eskubi aldeko belarri hori  
ez du aldrebes mantendu,  
lehengo askako ote jotzeko  
bolantea ematen du.

Uztapidek:  
Nik bazekiak nola geran gu  
hortarako ekarriak,  
ta danak zeudek disparteak  
entzuteko egarriak.  
Hik ez al dakik bi hego hauek  
daudela ongi jarriak?  
Holakoxeak izaten dituk  
euskaldunen belarriak.

### **Lasartek Etxabururi**

Hurrengo bertsoa Lasartek kantatua da, Beasaingo Fonda esaten genion jatetxean. Ormaiztegiko Bizente Mujika «Etxaburu» zenarekin ari zen kantuan. Hark, dirudienez, andregaiia askatu zuen bertsoan, eta hauxe erantzun Lasartek halako batean:

Andregai bat nahi luke  
bere gustokua,  
baina zail da bilatzen  
neurri juxtukua.  
Ilea joan zaio  
ia kaskokua  
hartuta ere ez dago  
urte askokua.

### **Uztapidek Mirandako amonari**

Hurrengo Uztapiderena da. Don Gabriel apaizaren omenaldira etorrita zegoen Uztapide. Norbaitek eman zion gertatuaren berri. Gauzak honelatsu dira: ez zen denbora asko Miranda baserriko Ines Mujika (berez Azpikoetxekoa) oso gaizki egon zela eta Don Gabrielelek elizakoak eraman zizkiola, baina sendatu eta, hain zuzen, apaiz horren omenaldira etorri emakumea. Orduan Uztapidek:

Horra gure amona  
egondu da minez,  
ohetikan inora  
mugitu ezinez,  
baina sendatu data-ta  
hemen degu Ines.  
Don Gabrieli ia  
egin zion ihes.

### **Lazkano, Lopategi eta hirurok**

Beste bertso hau Lazkano, Lopategi eta hirurok puntutan osatua da. Neu hasi, Lazkanok segi, ondoren Lopategik jarraitu eta neuk amaitu:

Iraolak: Beste gauza bat ere  
baneukan goguan.  
Lazkanok: Auskalo gizon hau zer  
pentsatzen dagan.  
Lopategik: Esan ezazu, Patxi,  
nahi dezun moduan.  
Iraolak: Hobe degula orain  
bazkaltzera juan.

### **Xalbador Lazkaon**

Jarraiako bi bertsoak Xalbadorrek Lazkaoko Esparru elkartean kantatuak dira. Era askotara entzun ditugu bertso berak. Hori seinale ona da, esan nahi baitu Lazkaoko jendea oso bertsozalea zela. Herria inplikatzan denean, herriak gogoan jasotzen duenean, hori gertatzen da: bertso beraren bertso bat baino gehiago sortzen direla. Badakit bertso horiek liburuetan idatzirik daudela; hain zuzen, *Auspoa* saileko *Herriak gogoan* liburuan. Nik, neuk gogoratzen ditudan bezala ipiniko ditut, hau da, bere garaian norbaiti entzun eta jaso nituen bezala:



Zutik jarrita otoizka nago,  
ene lagunak, zerura;  
handien menpe dagon ttipiak  
beti badu arrangura;  
eskatzen dautzut izan zazula  
herri ttipien ardura  
eta xukatu mendien negar  
den Bidasoako ura

Zuk, Joxe Migel, sasoi daukazu  
landutzeko baratzea;  
bat giro ona izan ditaik  
baita txarra ere bertzea;  
hobe zenuke aunitzez ere  
txekor osoa hartzea  
hartarik zutaz izanen dira  
aurrea eta atzea.

Bigarren bertsoaren esplikazioa azkenean (lehenengoak ez du esplikazio beharrik), norbaitek esan badezake ere erre-buelta pasatuta gero alferrik dela seinalea. Propio egin dut, haria ondo ulertzen delako. Dena dela, aipa dezagun Lazkao Txikiren metafora ere: «Txekorra puskaka saltzen den arte, ez noa osorik eroatera». Orain hobeto ulertzen al da Xalbadorren bertsoa?

Baina ez da Xalbadorrek egun hartan kantatu eta nik gogoan jaso nuen bakarra. Halabeharrez, gu ere Lazkaon ginen bertsoan, Begiristain eta biok, beste toki batean: elizako zimiterioan kantatu genuen, baina goiz joan nintzen, eta banekien Xalbador eta Lazkako Txiki Esparru Elkartean zirela, eta neroni kantatzeko ordua iritsi arte haienak entzuzera joan nintzen; joan banintzen joan, sari ederra jaso nuen. Lehengoz gain, bertso hauxe (azken agurra) hartu nuen gogoan, eta baita ere hamaika aldiz kantatu ibili naizen tokian:

Gustura nagon toki batean  
ni luzaro ezin egon  
jakinagatik toki hoberik  
enetzat ez dela nehon.  
Bihar andreak galdetzen badit  
nire bihotza non dagon,  
beldurrik gabe erranen diot;  
«han utzi nuen Lazkaon»

Bertso hau oraindik denbora asko ez dela Goiburuk bota zidan niri, biok ari ginela, gure anaia Joxe Mari, sukaldaria, hizpide hartuta:

Joxemai ona dala kuzinan  
danari entzuten zaie,  
jana ederki prestatutzen du  
ekarri ezkerro gaie,  
eta hi, Patxi, izaten badek  
mokau goxoak jan nahie,  
prestatutzeko ez ditek danak  
hire moduko anaie.

## Hirurogeiko hamarkada

---

### Testuinguru soziala

Testuinguru sozialak beti dauka garrantzia edozein arlotan, eta ez gutxi bertsogintzarako. Bertsolaritzak indar handia hartu zuen 1960tik 1968ko tarte horretan; pentsatu gu ere plaza irten baginen! Nik uste dut txapelketak mesede handia egin ziola, hori izan zen motorra.

Garai honetan, hala ere, ni pixka bat kezkatzen ninduen kontu bat gertatu zen: immigranteen etorrera. Nik ez daukat ezer ere, ez orduan eta orain, ogi bila datorrenaren kontra, baina iruditzen zitzaidan, lehenaz gainera, gure euskarak asko nozituko zuela, eta bertsotako giroak ere bai; zenbait kasutan hala gertatu zen, gainera. Ordea, jakin genuen edo asmatu genuen aurrera egiten, hura ere pasatu zen, behintzat. Gaur egun, orduan etorritako haien seme-alaba asko euskaldunak dira, eta bat baino gehiago bertsolari ere bai.

Beste gauza bat ere gertatu zen garrantzitsua. Irratia eta prentsa bertsolaritzaz hitz egiten hasi zen. Gogoratu besterik ez dago Basarrik *La Voz de Giiupuzcoatik* egiten zituen saioak. Nola egoten ginela entzuten!

Bestetik, Loiolako Herri Irratiak, Joxe Mari Iriondo buru zela, izugarri egin zuen bertsoaren alde. Beste toki batzuetako saioak emateaz gain, berak antolatu zituen txapelketa asko. Neu ere parte hartuta nago. Herriak ematen zuen botoa.

Azkenik, beste gauza batzuk aipatu behar dira: Elizan ere mugimendu gogorrak izan ziren, *Vaticano II.*aren ostea zen. Seminarioak husten hasi ziren, eta herria ere elizatik urrun-tzen. Ikastolen sorrera eta garai modutsu horretan zen. Gaztediaren artean, borroka-giroa gero eta indar handiagoa hartzen ari zen. Hor hasi zen euskara batuaren historia ere, *Ez Dok Amairu* ahaztu gabe. Aldi berean, ezin ahaztu *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkariak egiten ari ziren lan bikaina; egiten ari edo hasi zirena, behintzat. Horrek guztiak ere, nola ez, izan zuen eragina bertsolaritzan.

## **Fabrikan hasi**

Arraro samar egingo zaizue «fabrikan hasi» esatea, baina laster ulertuko didazue. Lehenago esan dut 1958an Beasaingo Fabrika Handian hasi nintzela; oraindik esan ez dudana da hiru urte geroago atera egin nintzela. 1961. urtean, orainxe bezalaxe, krisi handi bat etorri zen, CAFera behintzat, eta zuzendaritzak 25.000 pezeta eskaini zituen boluntario atera nahi zuenarentzat; hartu eta ospa egin nuen. Egia esan, ez zen diru gehiegi izango. Handik gutxira behi berria erosi nuen, 17.000 pezeta ordainduta; beraz, Beasaingo nire diruak laster ezkutatu ziren.

Berriro erabat baserrira dedikatu nintzen 1965era arte. Tartean etxe berria ere egin genuen, orain bizi garen etxea. 1964an aita hil zitzaigun, eta beste gorabehera batzuk ere izan ziren tartean. 1965ean aukera izan nuen berriro fabrikara itzultzeko eta horixe egin nuen. Gainera, lehen neukan baino postu hobea eman zidaten. Beraz, guztira jota, nahiz eta aurreneko dirurik gehienak behia erosten gastatu, negozio ona egin nuen. Hori bai, baserrira erabat utzi nuen oraingoan. Sartu eta erretiratu arte, 31 urte, hantxe eman nituen; 1996an erretiratu nintzen.

Jubilatu ondoren, bolada batean, «artzain» ere ibilia naiz. Terreno puska bat baneukan, eta hasieran dozena erdi bat ardi erosi nituen; gizendu eta hiltzeko asmoan erosi nituen, baina ernai zeuden, eta aurrerako utzi nituen. Haiengandik hasi eta azkenerako hogeita hamar buru izateraino iritsi nintzen. 2004an, ordea, istripu makur izan nuen, belauneko tendoiak hautsi nituen. Operatu ninduten, nahiko ondo jarri nintzen; lehen bezala ez, ordea; edadean ere aurrera eta... Ardiak saldu eta dauzkadan terreno apurrak errentan emanak dauzkat.

## **Bertsotan hasi**

Bestalde, ezin utziko dut tintontzian niretzat oso garrantzizkoa den kontu bat: hamarkada honetan hasi nintzen plazan kantatzen, eta hori izugarrizko aldaketa izan zen niretzat. Hasiera txapelketekin eman nion, eta hori hurrengo

atalean kontatuko dut. Bien bitartean, jarrai dezagun aurretiko batzuk jorratzen.

### **Nire bertso-estiloa**

Iritsi naiz neure bertsogintzaz gehiago mintzatu beharreko atalera, edo hurrengo atalean iritsiko naiz, parte hartu dudan txapelketak aipatzean. Horren aurretik, ordea, neure bertso-estiloaz eta bertso-egikeraz mintzatu nahi nuke apur bat, irakurlea aldeztu aurretik jakinaren gainean jartzeko edo, behintzat, nik neure buruaz zer pentsatzen dudan jakinarazteko, inork sorpresarik izan ez dezan.

Esan dut eskolan gutxi ibilia naizela; beraz, norbaitek bertsolari eskolatuen artean sartu baninduen ere, ez dut us-te oso eskolatua naizenik, nire kasa saiatuta lortutako pixka bat izango dudan arren. Munduaren ikuspegi intuitiboa gehiago daukat idatzitik jasotako erreferentziak baino.

Nire «bertso-eskola» taberna izan da. Beti kantatu izan dut errazago eta emaitza hobekien lortu ere bai tabernan, bazkal edo afalondo batean, plazan eta oholtza gainean baino.

Nire kultura baserrikoa da, baserriko peto-petoea, erlijioaren indarrez osatua, nahiz eta bigarren horretan nire baitan aldaketak nabari; egia da Beasaingo Fabrikak bestelakorik ere kutsatu didala.

Nire tradizioa erabat ahozkoa da. Bi zentzutan, gainera: a) bizimodua beti euskaraz egin dut, oraindik asko kostatzen zait erdaraz hitz egitea, nahiz eta ulertzeko arazo handirik ez dudan; bestetik, idatzizko baliabiderik ez dut erabili kantuan, nire bertsoetan horrelakorik ez duzue barrundatuko. Izan dut akats bat: bertsotara joan behar dudala aurrez jakinda ere, ez dut izan ohiturarik agurra prestatzeko ere, edo han zer giroekin topo egin nezakeen pentsatzeko. Nahiz eta, Igarzabalek dioen eran, gairik ez zela izango genekienean bidean zerbait zirriboratu. Bestetik, askotan etortzen zaizu burura lehen erabilitako arrazoiren bat-edo; horrelakoetan nahiago izaten dut arrazoi hori baztertu eta beste zerbait kantatu, nahiz eta emaitza okerragoa lortu.

Bertsotan zerbait ikasi badut, lagunartean ikasi dut. Joan deneko aspaldi honetan badugu ohitura hemen, Goierriin, astean behin-edo, taldean elkartzeko eta egin izan ditugu saio dezenteak. Oso ondo etortzen da horrelako entrenamendua; zer esanik, ez afaria tartean bada.

Esango nuke hizkera landu gabea dudala; hitz egiten dudan modutsuan aritzen naiz bertsotan ere, nahiz eta saiatu izan naizen beste euskalki batzuetako hitzak eta forma batzuk ikasten. Baina oinarria, neurea eta betikoa da.

Orain ohitua nago gaiarekin jarduten, baina nire estiloa edo jarduna gehienetan izan da gairik gabe eta saio luzeak egitea. Lehen esan dudan eran, hori tabernako jardunarekin lotua dago. Agian, errazago ibiltzen naiz gairik gabeko saio luzean, aldioro gaia aldatuta baino. Eta gaiak? Gero eta gai gehiago jorratu izan ditut. Gai jakin bati buruz gehiegi ez badakizu, arinxeago tratatu eta aurrera.

Simil bat onartzen badidazue, esango nuke bertsolariak, atletekin konparatuta, bi eratakoak direla: distantzia motzean sekulako lana egiten dutenak eta maratoilariak. Oraingo bertsolariak distantzia motzetako espezialistak dira; lehengoak, aldiz, maratoilariak ziren, eta ni ere lehengoan artean nago.

Gure bertsoa, oro har, ulerterreza da. Baina batzuetan gertatzen da oso etxeko hitzak edo baserriko lanarekin zeharo lotuta daudenak erabiltzen ditugula, eta zenbait gazteri arrotz suertatzen zaizkio horrelako gauzak.

Nik bertsoa beti dibertitzeko erabili dut, nahiz eta hileta eta horrelako beste ekintza askotan parte hartu dudan. Baina nik, jeneralean, gustatzen zaidalako egin dut bertsotan.

## **Bertsolaria eta bertso-jasotzailea**

Bertsolari bezala naizena naiz, eta horretan konforme. Nik izan dudan bertuterik handiena besteen bertsoak gogoan hartzekoa izan da. Hori liburu osoan zehar islatua dago; eta islatua geratzen da neuk hala nahi izan dudalako. Ni ez nintzen inoiz etxeratzen bertso saio on samarretik bertsoren bat edo beste gogoan jaso gabe. Irakurritako bertsoak asko dauzkatz gogoan;

kasik horiekin bakarrik liburua egiteko adina edo gehiago. Beraz, irakurlea ez dadila harritu nik memorian jasotako bertso asko azaltzen bada liburuan, propio egina baitago.

Inoiz neuk ipinitako bertsoaren batzuek ondoan ipini dut besteren batena ere; adibidez, *Eguberriak* saioan Bitoriano Gandiagarenak sartu ditut, izan ere hain ederki esplikatzeko baitute guri irakatsi zigutena, nahiz eta gaurko kultur girotik aparte samar egon. Gainera, hauxe erantsi nahi nioke: Gandiagaren hiru bertso horiek poesiaren barruan sartuta egongo dira, baina benetako bertsoak dira: zortziko txikian osaturiko hiru bertso.

Bide batez esan dezadan, Zaldibiari oso lotua dagoela liburua. Arrazoi bat baino gehiago dago horretarako. Beste nonbait esaten dudan eran, batez ere Goierrin eta Zaldibian kokatzen dira nire bertso-esperientzarik gehienak eta normala hori islatzea. Dena den, azalduko dira, adibide gisa bederen, hemendik kanpora emandako urratsen aztarnak ere. *Herriz herri* atalean aurkituko du irakurleak hori.

### **Zavalaren lana oihartzun**

Uste dut, ni ez ezik, jende asko izan dela bertsoak gogoan jasotzeko ahalmen eta grina izan duena. Herriak, oro har, bertso asko hartu du gogoan, eta herriaren lan horrek izan du oihartzunik. Oihartzun hori, dakigun bezala, Antonio Zavalaren lan eskerga izan da. Iruditzen zait oraindik ez garela behar bezala konturatzen Zavalak zenbat lan egin duen joan deneko 50 urte luzeetan. 330 liburutik gora argitaratu ditu, denak herri literaturarekin, gehienak bertsolaritzarekin, lotuak. Nire apur hau ere ez zen argitaratuko, hark soka-muturrari tira egin ez balio. Lan handia eta, batez ere, garrantzitsua. Euskal Herriari buruz zenbait ikerketa, arlo batzuetan behintzat, egiteko ezinbestekoa. Ez zen antologia berezien bila ibili, baizik eta aurkitutako guztia argitaratu zuen; ez zitzaion interesatzen bertso onak bakarrik, baizik eta herriaren ondare osoa.

Halabeharrez, Zavala hil eta ondorengo egun batean ari naiz testu hau idazten. Ni baino askoz jakintsuagoek esan

duten eran, Antonio Zavala joan zaigu, baina *Auspoa* hemen gelditu da. Eta, dirudienez, esku onetan utzita joan zaigu.

Gizon isila zen, ez zuen sekula polemikarik piztu; eta inoiz edo behin berari kritikaren bat egiten bazioten, ez zuen erantzuten. Lana zen haren erantzuna. Hori zen bere okupazioa. Eta hala izan behar 330 liburu idatzi nahi dituenak.

Pazientzia handiko gizona izan da, pazientzia handia behar baita egin dituen miaketa guztiak egiteko, eta hainbeste xehe-tasun emateko. Pasadizo txiki bat kontatuko dut, gauzak ondo egiten zenbateraino saiatzen zen ikusteko. Zaldibiako Patxi Erauskin bertsolariaren liburuak (3 guztira) egiten ari zela, berak ulertzen ez zuen hitz batekin egin zuen topo. *Amabost urteko katu gazte bati jarriak* saileko bigarren bertsoak honela dio hasieran: «Hamabost urte dauzka ez da oso zarra, illajez bai dirudi mullo zatarra». Jakin ez *mullo* hitzak zer esan nahi zuen, baina argitu arte ez zen gelditu. Adiera bat gure amak eman zion: «Liñoaren zakarrari *mulloa* esaten zitzaion; liñoaren finari, berriz, *amukoa*». Baina ez zen horretan geratu; gero beste esanahi bat aurkitu zuen, Olaberriko Joakin eta Jesus Berasategi anaien eskutik: «Mendi-belar bat omen da; gose dagoan terrenoan ateratzen dan belar-pilloxka itsusia».

Zenbat jende ez ote gara baliatu, gero, Zavalaren *Auspoaz*? Sarritan, inolako baimen eta aipamenik gabe.

Berak idatzi ez ezik beste batzuk ere ipini zituen lan horretan: Lasarte, Txomin Garmendia, Ataño, Olea, Lete, etab.

Aita Zavala, egina dezu  
munduko pasadizua,  
izan ondoren langile umil  
eta benetan maisua;  
a ze bilduma utzi diguzun  
ardatz duela bertsoa,  
egintza hortan agertu dezu  
guztiz maitasun itsua,  
zure *Auspoak* puzkatua du  
itzaliko ez den sua.



## **Bertsolaritza bihotzean**

Gu, batez ere, debaldeko bertsolariak izan gara. Kobratutakoan bakarrik kantatu izan bagenu, honezkero frustrazioak irentsi gintuen, eta mingotsak erreta geunden. Gupidarik gabe eta gogoak emandakoan kantatu dugu, kobratutako saioei inoiz muzinik egin ez badiegu ere.

Baina gure mailako bertsolari batek bere bertso-grina eta afizioa ez lezake ase, egokiera eta gogoia duenean kantatzen ez badu. Gehiago esango nuke, Guk Goierrin egin dugun eran, debaldeko zirkuitoak sortu beharko lituzkete beste toki batzuetan ere, oraindik egin ez duten kasuan. Gu aspalditik biltzen gara, eta oraindik ere biltzen jarraitzen dugu asteartero. Zertarako? Afaldu eta bertsotan egiteko.

Bertsolaritza, niretzat, beste ezer baino lehen disfrutatze-ko medio bat da. Bertsotan ez naiz aritzen ez dakit zer helburraren alde, baizik eta gustatzen zaidalako eta disfrutatzen dudalako.

Nire ustez, bertsolari gehiegi ezkutatu da, nahiz eta gu ere itzalean aritzen garen. Esan nahi nukeena da plazako arrakastarik ezean, dena pikotara bota dutela, guk ez bezala.

Nik uste dut, zentzuak laguntzen badit, bertso kantari hilko naizela; nireak edo beste inorenak, baina bertsoak kantatzen.



Idiazabalgo Zepai saria 1973. Elizegi, Bordari, K. Lizaso, Zepairen semea, Iparragirre alkatea eta Patxi Iraola



Loiolako Herri irratian, aita Juan Lekuonaren eskutik saria hartzen, 1968ko apirila. Mutikoa, Xeb. Lizaso, 11 urte.

*Arg. Pepe Gil.*

## **Txapelketak**

---

### **Xehetasun batzuk**

Neuk ere ez nuen uste, baina begiratzen hasi naizenean ohartu naiz txapelketa dezentetan hartu dudala parte; gainera, lehen esan dudana bezala, txapelketa izan ez delarik nire arlorik indartsuena.

Hala ere, aurrena esan behar dudana da lehenengoa, 1964an, intentu hutsa izan zela. Gogoratu zaretenez, aita hil zitzaigula esan dut, eta parte hartzeko asmoan banintzen ere ez nuen hartu. Baina handik bi urtera bai, 1966an, azaldu nintzen. Ordizian egin genuen saioa.

### **Ordiziako kanporaketa**

Goizetik izango ginen 18ren bat bertsolari. Azkeneko saiorako lau gelditu ginen: Segurako Joxe Intxausti, Ataungo Ibon Goikoetxea, eta gu Zaldibiakoak: Joxe Mari Aranburu eta ni. Insaustik irabazi zuen; ni bigarren geratu nintzen. Beraz, hurrengo kanporaketara Insausti eta biok joan ginen; uste dut Hernanin izan zela. Insaustik aurrera jarraitu zuen, baina nire urte hartako karrera hantxe amaitu zen.

Orduan Ordizian kantaturiko bertsoak dira hurrengoak. Poliki jardun nuen irudipena daukat. Kartzelako gaien botatakoak dira hauek. Gaiak honela zioen: «Baso-bide batean zoazela gizon bat aurkitu duzu zuhaitz-adarretik zintzilik, bere buruaz beste eginik edo bere burua urkaturik». Hauek dira bertsoak:

Baso-bidean banentorren ta  
hau da ustekabekoa;  
bihotzak salto bere tokitik,  
leher-zorian det kolkkoa,  
mingaina luze zeukan zintzilik  
ia etenik lepoa;  
hori da hori burutapena,  
hori da egitekoa!

Dudik ez dago bazenduela  
nahikoa buruhausterik,  
zeure kasako zurrunbiloi  
ez zenduela eusterik.  
Bultzatu zaitun har hori aurrez  
ez ote zegon mozterik?  
Ezin ote zen zeure burua  
horrela galdu besterik?

Ustekabean inguratu naiz  
baina damaturik nago,  
ez nintzen honuntz etorriko're  
jakin banuen lehenago;  
zuk egin dezu egitekoa,  
ez zenezake gehiago,  
gorputza hemen utzi dezu ta  
arima non ote dago?

### **Loiola Irratian**

Ziur ez banago ere, uste dut 1967an zela Loiola Irratiko bertsolari-txapelketa. Urte gehiagotan ere izan ziren txapelketak, baina esan nahi dut nik parte hartu nuen urtea. Oker ez banago, Brinkolako Azarolak irabazi zuen. Herriaren botokin ateratzen zen txapelduna.

Esan beharra dago garai hartan izugarrizko lana egin zuela Loiola Irratiak, Joxe Mari Iriondo buru zela. Txapelketak antolatzeaz gain, Joxe Mari bera izaten zen saio askotan gai-jartzailer eta, gero, saio horietako bertsoak ematen zituen irratiz.

### **Osinalde Saria**

Bolada batean, utzita edo uztea pentsatuta egon nintzen. 1971n, ordea, Eusebio Igarzabal etorri zitzaidan Osinalde Saria joango nintzen galdetzerara; puxka batean pentsatzen egon ondoren, baiezkoa eman nion. Halabeharrez, txapelketa

hura irabazi egin nuen. Bertsozik ez daukat gogoan, baina badakit bertso politak atera zitzaizkiala.

Gogoan dut saio batean bi paper egin behar izan nituela: kartzelan dagoenarena eta kartzelazainarena. Ondo irten zitzaidan. Beste nonbait ere ipini ote duten nago, baina ez da gehiegi erabili formula hori. Gogoan dut, era berean, beste saio batean Etxaluzerekin jardun nuela, gai honen bueltan: «Biok anaiak ginen, biok ala biok joan gara inauterietara eta itzuli garenean etxea sutan». Beste gai batean, «Afrikan ibili nintzen, misiolari».

Orduko bertsozik ez dut inon aurkitu, baina gertakari hura gogoratuz, arduradunek hala eskatuta, bi bertso paratu nituen *Goierritarran*, 2005ean:

Hirurogeita hamaika  
hirugarren hila  
eta esker mila,  
ondo gogoan daukat  
han ginan koadrila,  
sei lagun asmo biziz  
txapelaren bila,  
nik eman omen nuen  
goreneko maila,  
hala erabaki zen  
nahiz sinisten zaila.

Luzio, Eusebio,  
Agirre benetan  
nor bere lanetan,  
Murua geroago  
laguntzeko setan;  
zenbat lan egin duten  
hor urte luzeetan;  
Gabirin probatuak  
lehenengo fasetan  
bertsolari on asko  
dabil gaur plazetan.

## **Ordizian eta Beasainen**

Ordizian izan zen beste txapelketa bat, baina oraingoan besteekin, Gipuzkoarekin edo Euskal Herrikoarekin, loturirik gabea; hau da, ez kanporaketa, baizik txapelketa hasi eta amaitu. Igandean hasten zen eta hurrengo asteazkenean amaitu.

Dirudienez, ez zegoen alde zuretik izena eman beharrik. Oraintxe kontatuko dizuet. Ni bertsoak entzuteko asmoan joan nintzen Ordiziara; zer gertatuko eta han Goibururekin topo egin. Galdetu genion batak besteari, ez dakit hark niri edo nik hari:

-Zer habil hemen?

-Hementxe, bertsoak entzutera etorrita.

-Ni ere hartaraxe etorri nauk.

Gero uste dut neuk atera nuela hizpidea eta esan niola, Florentino han ikusi nuenean, animatuta:

-Gu ere joango al gaituk?

-Igual joango gara, eh! -, esan zidan; nik uste asmo horrekin etorrita zegoela.

Hala joan ginen; talde dezentea ginen kantuan, Zendoia, Igarzabal, etab, eta berak irabazi zuen; alegia Goiburuk.

Hurrena, berriz, Beasainen; hura neuk irabazi nuen.

## **Zepai Saria**

Ondoren hartan Zepai Saria ipini zuten martxan, Idiazabal. Ez dakit zenbat aldiz egin zen, baina dozena erdi bat bai, gutxienez. Nik 1974an irabazi nuen. Hala ere, txapela irabazi ez arren, beste bi txandatan bertso onenaren saria eman zidaten.

Txapelketa haietakoren batean edo bestean kantaturikoak dira hurrengo bi saioak. Bakarka aritzeko gaia ipini zidaten denbora luzean familiarik gabe eta lehenengo semea jaio zaigunean atzeratua zela ohartu ginela:

Hara, haurtxo txikia,  
begira zugana,  
zu zinan aspaldian  
desio nuana,  
ta bizitza hartuaz  
gaur zatoz gugana,  
baina ez dakit oso  
ote zauden dana.  
Zer ingo da, hartu behar  
Jainkoak emana.

Maitasunez sortuta  
banuen hurrean,  
bizitza pasa ustez  
goxoki lurrean.  
Zure zain egon gera  
era jatorrean,  
ta orain ikusirik  
hain modu txarrean,  
haurtxo, negarrez nago  
nire zure aurrean.

Seme, zure dohaiak  
gaizki dabiltzela,  
ta nik ez izanikan  
hain bihotz txepela;  
mongoliko ikusirik  
aurrean honela  
bihotzetikan mina  
sentitzen detela,  
baina maitako zaitut  
sano bat bezela.

Txapeldun atera nintzen urte horrekin jarraiturik, honako hau da bakarka egin nuen saioa. Lehenik, puntua jarrita; eta ondoren: «Zein da zuretzat bertsoalaririk onena eta zergatik?» galderari erantzun. Hona hiru bertsoak segidan: bat eta bi.

Gosearen negarra  
mundu zabalean...

Zail da sinisten dala  
kristauen legean:  
asko saiatzen dira  
bakoitza berean,  
miserian daudenak  
erruki gabean.

Bertsolari bat aukeratuaz  
egin nahi nuke aitorra  
lehendabiziko une beretik  
neregan haxe dator, haa!:  
Uztapide da nere partetik;  
aukeratzeko bat, horra!  
Berezkotasun haundia duen  
hain bertsolari jatorra.

Banun gogo ta gizon horri  
noizbait kanta behar nion,  
bere bertsoak entzunda nago  
ni egun bat baino gehion,  
harritzen nintzen hari bertsoa  
nola etortzen zitzaion.  
Euskal Herriak ez daki oraindik  
horreri zenbait zor dion!

Beste saio batean, hosto guztiak erori zaizkion zuhaitza  
nuen gaia, bi bertso botatzeko. Hona biak:

Hara, zuhaitza, begira nago  
zu ikusirik horrela,  
lehen hosto berde zenuen hura  
bihurtu zaizu orbela;  
seinale hau da izaki danek  
bere aldi bat dutela,  
eta aditzera ematen dezu  
udazkena datorrela.



Uda-azkena hemen degula  
aitatu dedan neurrian,  
hostoz jantzia zinan arbola  
orain hor burugorrian,  
baina berriro zure hostotza  
sortuko da indarrian,  
orain galtzen zaizun ordezkoa  
datorren udaberrian

## **Zegaman**

Handik laster Zegaman izan zen beste txapelketa moduko bat. Hura ere Goiburuk irabazi zuen; han neu ere nahiko ondo aritutako errezeloa daukat.

## **Euskal Herriko Txapelketa Nagusia**

Hurrena, Euskal Herriko Txapelketa Nagusian hartu nuen parte, 1979an. Arrasaten eta Gernikan kantatu nuen. Gernikan oso gustura geratu nintzen nire lanarekin. Badakit epaimahaiko batek zorionak eta guzti eman zizkidala. Dena dela, espero banuen ere ez nintzen pasatu aurrera.

1983ko Txapelketa Nagusian ere hartu nuen parte. Oiar-tzunen kantatu nuen, eta ez dakit non gehiago kantatu nuen, baina hantxe amaitu zen nire ibilaldia, eta hantxe bukatu ziren nire txapelketak. Hala ere, ez nuen haria erabat eten. Txapelketa inguratzen zen guztian Goierriko taldea elkartzen ginen, beti izan baita bakarren bat parte hartu duena, haien *sparring* moduan hamaika saio eginak gara.

Hortik hara, astero elkartzeko ohitura hartu genuen, eta oraindik elkartzen segitzen dugu. Ordizian biltzen gara, asteartero, Aldeko tabernaren ondoko lokalean. Han azaltzen gara, hutsik egin gabe, zortzi-hamar lagun astero. Gustura jarduten dugu, eta txarra al da zahartuta ere ikasten jarraitzea?



Goierriko bertsolari taldea  
Murua, Igarzabal, Mendizabal, Goiburu, Zeberio eta Patxi Iraola.  
*Arg. J. Beloki.*



Loidisaletxerekin bertsotan, Deposituan, Zaldibian, 1974.

## Herriz herri

---

Bolada batean, batez ere Zepai Sariaren ondoren hartan, dezente ibili nintzen kantuan Goierritik kanpora ere. Aipa ditzadan batzuk, atentzioa gehien emandako deiei jarraituz.

Gogoan dut Iruñan dezentetan izan naizela, bai plazan, bai antzokian eta baita afari giroko saioetan ere. Lehenengo aldiz, San Ferminetan joan nintzen. Denak ez ditut gogoratu-ko, baina badakit, besteak beste, han zirela Lazkano, Lopategi, Azpillaga eta Arozamena. Hori, oker handirik gabe, 1975 inguruan izango zen.

Gero han bertan hartu nuen konpromisoa ondorengo egun batean, Arozamenarekin, Sunbillara joateko. Hantxe izan ginen biok. Gogoan dut bertso-giro aparta zegoela. Huraxe izan zen Arozamenarekin kantatu nuen gutxietako eta azkenekoa, tamalez handik laster hil baitzen, Xalbadorrekin bateratsu.

Beste batean, Iruñako Labrit frontoian kantatu genuen Igarzabal eta biok. Bertsolariez aparte baziren gauza gehiago ere. Iñaki Perurena ere hantxe zen. Oroitzen naiz erdaldun asko zegoela tartean, eta haien txalo jo beharra; ulertzen bazuten edo bazuten, bertsoero sekulako txalo zaparrada jotzen ziguten.

Iruñatik atera gabe, beste batean antzoki batean ere jardun genuen. Gogoan dut gai batean Muruarekin aritu nintzela, Retegi pilotariaren paperean; nahiko ondo aritutako errezeloa daukat. Bertsoak ikusi 288 eta 289 orrietan.

Geroago, Igarzabalekin ere izana nago hango elkarte batzuetan, euskararen aldeko jaialdi eta afarietan.

Bestetik, Etxarri izan nuen plaza finkoa. Baditut behin baino gehiago joandako urteak: herriko festak, jubilatuen festa, kultur ekintza... gauza asko izaten ziren. Igarzabal askotan izan nuen bertso-lagun, baina baita beste batzuk ere: Lazkao Txiki, etab.

Etxarrirako bidea nola egin nuen aipatzea ere bitxia da. Behin, Lazkaoko Aita Albertori omenaldia egin zitzaion Igara-

tzan, hainbeste urtean meza ematera joan ondoren. Joxe Agirre, Lazkao Txiki eta hirurok ginen bertsoan. Han tokatu, nonbait, kultur ekintza eta herriko beste mugida batzuetan ibiltzen ziren etxarriarrak, haiek akordatu nirekin, eta handik hara egin nuen parrokia.

Badaukat anekdota polit bat ere. Urte batean, bakarrik joan nintzen, ez dakit hala esan zidatelako edo inor libre aurkitu ez nuelako; kuestioa da nik karnetik ez dudala eta lagun batekin joan nintzen, Julian Murua zenarekin. Hara iritsi gara, etorri da kantatzeko ordua, eta neu bakarrik kantuan. Aldamenetik bat hasi zen ea «Igarzabalek» zergatik ez zuen kantatzen. Hasieran, broma zela uste guk, baina azkeneko gizon hori haserretu egin zitzaion, ez genuen berehala konbentzitu nire «txoferra» zela, eta ez Igarzabal.

Areso eta inguru horretako beste herri batzuk ere bertso-toki oso onak dira. Hori bai, behin joanez gero, lana dezente egin behar izaten zen. Egia esan, guri ez zigun axola handirik bertso batzuk gehiago kantatu arren. Herri-meza izaten zen lehenik, gero plazako saioa, eta bazkalondoan mahaietan.

Gauza bera esan liteke Etxaleku eta bailara horretako beste herri batzuei buruz ere.

Puntako bertsolariei askotan gertatuko zitzaaien, baina niri ez hainbat aldiz. Hala ere, inoiz edo behin ailegatu naiz egun berean bi aldiz kantatzera. Batzuetan, gainera, konpromiso txarra izaten da. Orain esango dudan hau Lazkaon Lazkao Txikiren omenaldia egin zenekoa da. Nafarroako Arribera joateko aginduta nengoen, baina bakarren batek esan zidan, Lazkaoko Andres Barandiaran ote zen errezeloa daukat: «Hi ezin haiteke falta Joxe Migelen omenaldian». Halaxe joan eta kantatu nuen. Saioa amaitu, aitaren batean bazkaldu eta Arribera joan nintzen. Han egin genuen bigarren saioa.

Uztegi eta inguruko beste herri batzuetan ere lata pixka bat emanak gara garai batean. Urte batean, behintzat, Begiristainekin izan nintzen.

Bizkaian ere, ez gehiegitan baina batzuetan izana nago. Gogoan dut behin Abel Muniategi genuela gai jartzaile. Hor-tik aurrerakorik ez naiz gogoratzen.

Beste batean, Elejabeitian izan nintzen. Hura ere bazen! Herri-meza batean kantatzeko deitu zidaten. Gure herrian lanean zebilen Usansoloko Sebastian Angoitiaren bidez jaso nuen dei hori. Joan, mezatan dozena erdi bat bertso kantatu, kobratu eta etxera. Nire artean esaten nuen. «Hamaika aldiz kantatu diagu merkeago». Baita geroztik ere, baina ez daukat horren damurik.

Goierritik kanpora Gipuzkoan ere saio batzuk eginak gara.

Bestetik, askotan suertatu zait, bertso-larritza bera hain pobrea izanik, behartsuagoei lagundu beharra. Esate baterako, behin Zarautzen egin genuen saioa, Patxi Larrañaga gai-jartzaile zela, elbarriren bati laguntzeko. Etxe erre eskean ere ibilia naiz behin edo beste.

Urbian ere askotan izan naiz; batzuetan, Segurako In-txaustirekin; bestetan Igarzabalekin. Aittola mendian eginda gaude egunpasa ederra; egun hartan ere ez zen izan bertso falta handirik.

Badakizue, Santa Ageda eskean, bertsolaria estimatua izaten dela. Herrian bertan askotan ibilia naiz. Baina behin, eta bakar-bakarrik, Errezilen ibili nintzen; gaueko 9:00etan hasi eta goizeko 5:00ak arte. Egia esan, azkenerako banuen besteren bat ere zerbait kantatzen zuena, baina ia pisu guz-tiak soinu-joleak eta biok eraman genuen.

Bestalde, bertso-bilerak, dibertitza eta lagunartean ondo pasatzea beste helbururik ez dutenak ere batzuk egiten ditugu urtean zehar. Horietako bi Aralarren egiten ditugu. Azpeitiko koadrila, Lazkano buru dela, eta goierritarrak elkartzen gara. 2008. urtean, Oiduin eta Aitziorren juntatu ginen. Urbian ere egin genuen juntaizoa. Ondo bazkaldu, bertsoan egin eta ondo pasatu. Horrela hartzen ez bada, bertsoak ni-retzat ez dauka zentzurik.

Nafarroako Azkaraten ere urtero elkartzen gara, joan deneko urteetan, koadrilla bat. Han ere berdin, gure helburua da lagunartean bertsoan eginez gozatu.



Zaldibiko omenaldian, Artxanberri aita-emeak,  
Patxi Iraola, Matxain eta Uztapide, 1974.06.30.



Lasarte, Lazkao-txiki eta Patxi,  
Zaldibiko jubilatuen egunean, 1982an.

## **Hirurogeita hamarreko hamarkada**

---

Hamarkada hori, agian, beranduxeago hasi eta pixka bat luzatu egin beharko genuke: 1973 aldean hasi 1983ra arte edo. Politikoki *transizioa* esaten zaion garaia hartuko luke. Horrela egiten badut da bolada horretan oso bertso giro berezia zegoelako. Batetik, «Azpillaga-Lopategi» fenomenoaren jarraipena da, baina baita giro politikoak eragina ere. Mitinetan, hiletetan... sekula baino gehiago kantatuko du bertsolariak. Denok ere gai politikoari erraz heltzen diogu.

Alderdiak etorri ziren, horiek zatiketa ekarri zuten, eta bertsolariak hor birkolokatzen jakin behar izan zuen.

Bien bitartean, honelakoak esaten ohituak geunden:

Herriarentzat bizi  
herriarentzat hil,  
hori egiten duna  
bizirikan dabil

## **Franco hil eta biharamonean atxilotu**

Baina aurrera jarraitu aurretik gertaera konkretu bat kontatu nahi dizuet, 1975ko azaroan gertatua. Bazkaria egin genuen Oiuko txabolan. Bertsolari gisa joan nintzen. Bazkari hori zela eta ez zela, hogeit lagun atxilotu gintuzten Zaldibian. Franco hil eta hurrengo egunean gertatu zen atxiloketa. Tolosan eduki gintuzten, halako txerritegi moduko batean. Geureak eta bi pasatu genituen, baina libre atera ginen, harmana mila pezetako fidantza ordainduta. Egun haiek gogoan, bertsoak jarri nituen. Batzuk *Kontu kontari* liburuan argitaratuak daude, baina ez denak. Asko dira, eta ea itxurazko laburpena egiten dudana:

Joan den hazi-hileko  
hogeita batean,  
hura danbor-soinua  
etxeko atean!

Amak ireki zuen  
ea zein ote han,  
polizi armatuak  
etxea betean  
errez lotu ninduten  
guztien artean!

Amorratuen gisan  
sartu ziren bortxan  
egiten nun gelara  
jaiki eta etzan,  
nere alboko ohean  
anaia ere hor zan,  
izenez galdetzean  
bertsolalaia nor zan.  
«Ni naiz» erantzun nien  
beldurraren dantzan.

Hor, mendian, bazkaltzen  
hilaren beatzian  
izan nintzen galdetu  
amorru bizian.

–Bai, antxumea erreta  
brasaz burruntzian  
jan genuen Oiduiko  
txabola atzian.

–Beraz goazen gurekin  
gaurko arratsian.

Eta agindu zidaten:  
«Azkar jaiki zaitez!»  
Nola hasiko nintzen  
haiekin bai ta ez;  
jaiki eta ari nintzen  
ni janzten instantez,  
eta haiek miaketan  
beren borondatez  
eta paper guztiak  
lotzen sorta batez.



Gero ekarri ninduten  
atari aldera;  
han nere zain gelditu  
zan Land-Roberrera,  
ta sartu nintzanean  
bere barrenera,  
beste hiru lagun zeuden  
triste buruz behera.  
Nere kasa hau nion:  
«konponduak gera!»

Ramon ta Joxe Ramon  
ta bestea Polo,  
mutilak umil zeuden  
ez egon arren lo,  
zer gertatuko ote zan  
nahiko errezelo:  
«jende hauen eskuetan  
gaude ta auskalo!»;  
ez zegon oker nere  
kezka-zurrumbilo.

Joxe Ramon han utzi  
zuten atarian,  
Gure Txoko dan bere  
etxeko parian  
ta enkargu hau eman  
zioten hari han:  
aita ta anaiekin  
hurrengo egunian  
presentatu zedila  
zintzo kuartelian.

Hala gero guk hartu  
genuen irteera,  
beldurra sortzen zuten  
borrero tartera,  
Ordizia utzi ta

Tolosa partera;  
lehenbiziko sarrera  
hirurok batera,  
gaupasa egiteko  
toki politera!

Gero eraman gintuzten  
alderdi banataa;  
prestaturik zeukaten  
neretzako planta:  
txerretegi antzeko  
zirkilu galanta,  
lotu ninduten eta  
beharko aguanta;  
handik entzuten nuen  
danen marru-kanta.

Bai entzuten nituen  
hango marru denak  
nola Ramonen eta  
hala Polorenak:  
antsi agonikoak  
irudi zutenak.  
Hau nion: «ni entzuten  
orain besterenak,  
norbaitek entzungo'itu  
aurki neronenak».

Borreroak noizbat'e  
hala erretira  
eta hontan heldu ginen  
zapatu eguerdira,  
ohol zirriztutikan  
nengola begira,  
gure anai gazteak  
kuartel atarira...  
malkoak laster ziran  
kolkotik begira.

Haiek ikusitzean  
nere oroimenak:  
bururatu zitzaidan  
familiko denak,  
gu hemen gaudelako  
hoben sufrimenak,  
nola anai-arreba  
eta amarenak,  
gu gaizki ta ondo ez  
etxean daudenak.

Anaiek han utzirik  
nere bazkaria,  
hala agurtu zuten  
kuartel-ataria,  
bihotza neukan kezka  
leher-zorian ia...  
banun egun hartako  
nahiko janaria...  
ilunabar aldera  
berriz afaria.

Ongi antolatu nuen  
afaltzeko era,  
ta ez nuen eskasa  
afaria bera:  
oilasko errea ta  
ardoa gainera,  
pozik sartu nituen  
denak barrenera,  
baina handikan laster  
hura abelera!

Bukatu non orduko  
afaria jaten,  
tortura-tokira non  
eramaten nauten!  
Borreroek postrea

prestauta zeukaten,  
hala hasi zitzaidan  
galderak egiten,  
galderak egin eta  
egurra ematen.

Ahuspez jartzen ninduten  
uraren azpian,  
eta bertan eduki  
nahi zuten guztian,  
burua altxatzen nun  
pixka bat uztian,  
barrua estuasun  
marruka tristian,  
pentsa pertsona zer dan  
horra iristian!

Tratamendu klase hau  
gainera hitz hala:  
munduko hitz txarrenak,  
zer jende zitala!  
Uretan sartu-irten  
pasara itzala,  
zahagi baten gisan  
urdaileko azala,  
uste nuen bertantxe  
lehertuko nintzala.

Hontan utzi zidaten  
eta erretira,  
lehengo zirkilu edo  
txerrien tegira,  
eta artalde berria  
gure barrutira,  
joka hartu zituzten  
ta iletatik tira,  
hura garrasi hotsa  
nengoen tokira!

Marru-hotsak entzuen  
han ni gau luzean,  
kezka eta minaren  
karga bihotzean,  
Jexux ezagutu nun  
bere hitz hotsean...  
Ni loturik behi zaharra  
ganbelako antzean...  
han aurkitu ninduten  
astelehen goizean.

Zaldibi, Amezketa  
eta Hernialde,  
han agertu zitzaidan  
makina bat jende;  
-Patxi, baina zer ein dek?-  
danak neri galde.  
-Bainua ahuspez eta  
egurra debalde,  
hoiek denak probatu  
eta hemen gaude!

### **Lopategiren bertsoa**

Lopategiren bertso honek ederki islatzen ditu egoera eta gauzak aldatzeko gogo bizia:

Telebisiñoz datoz  
hainbeste engaino,  
ikurrina nahiago  
guk bandera baino.  
Txikiak hiltzen zertan  
hoinbeste enpeino?  
Joten gaitue baina  
bizi gara oindiño.

## **Ikurrina Udaletzeko balkoian: 1977**

Esan beharra dago derrigor, hain inportantea baita, hamarkada horretan legalizatu zela ikurrina. Zaldibiako udaletxean, konkretuki, 1977ko urtarrilaren 19an eskegi zen, Joan Mari Etxeberria Tolosa alkate zela. Egun hartan, ikurrinaren ohoretan, udaletzeko balkoitik aritu nintzen bertsoan

Eta gauzak nola izaten diren: Joan Marik, urtebete lehenago edo, gogor kontra egin behar izan zion guardia zibileta-ko teniente gazte bati, teniente horrek, edo haren «mutilek» elizako kanpandorretik ikurrina kendu eta plazaren erdian erre zutelako. Alkateak, behar denean, bere autoritatea erakutsi egin behar du, eta halaxe egi zuen Joan Marik.

Bide batez esan dezadan, San Joan bezperan plazan afaldu eta festa egiteko ohitura ere Lizarragako Joan Mari Etxeberriari zor diola Zaldibiak. Horren kontura ere kantatu dugu makina bat bertso. Oraindik geroxeago ere aipatu beharko dut garai hartako alkatea, Joan Mari Etxeberria.

## **Santa Ageda: 1977**

Otsailaren laua degu-ta  
ohiturazko abestian,  
kantari gatoz gaurko egunez  
geure ahalegin guztian,  
berrogei urtez baretu gabe  
iraun duen ekaiztian.  
Lehenengo aldiz gatoz kantari  
ikurrinaren azpian.

Berrogei urtez zuk, Ikurrina,  
non izan dezu ostatu?  
Zure hiletak gure etsaiek  
ustez zituzten ospatu.  
«Beti-betiko...» kanta zizuten  
baina ez zuten asmatu.  
Horra berriro gure herrian  
nahiz odol asko kostatu!

Askatasunez ikusitzean  
zure margoen parpailak,  
pozez ta penaz zuri begira  
malkoz bustirik masailak;  
halako batez askatu zaitu  
urte askoko lan zailak  
eta oraindik preso zugatik  
borroka diren mutilak.

Amnistiaren amets beroa  
lortu gabe oraindio,  
ahal den azkarren aurki dezagun  
horrentzat erremedio,  
eta hizkuntza ofizialdu:  
telebista eta radio,  
hoiek guztiak zor zaigu guri  
kontuak ez du balio.

Hau da herriak hainbat urtean  
nozitu dun zapalkuntza,  
herri kutsuzko izate dana  
langile eta hizkuntza.  
Kontuan izan Madril aldean  
orain dijoan ezkontza:  
bi aldetako jende horiek  
nahi dute gure morrontza.

Orain ezkondu behar dutela  
ari da jende abile,  
exiliotik etorri dana  
Jauregi ere hor dabile.  
Erregeak konsagratzen badu  
hioen ezkontza zibile  
laster diagu Euskadi libre  
sozialista ta langile!

Santa Ageda zeruan dago  
martiri danen tartean,  
izango zuen laguntza franko  
joan dan berrogei urtean;  
eta hoinbestez bukatzen degu  
hemen aurtengo partean,  
agur guztioi, izan zaitezte  
osasuna ta pakean.

### **Artxanberri Sariko bertsoak**

Baina badut dokumentu bat orduko bertsoalaritza kontes-  
tualizatzeke ondo baino hobeto datorrena. Gogoratuko zarete,  
noski, Mariano Ferrerrek urte luzeetan egin duen *El kiosko de  
la Rosi* izeneko programaz. 1977ko martxoaren 15ean egin  
zuen gogoeta daukagu zintan jasoa, Rufino Iraolari esker, eta  
orain hemen transkribatua. Gogora dezagun, garai horretan,  
astebete inguruan, sei pertsona hil zirela: Arrasaten hiru, Itsa-  
son bi, eta Donostian bat. Herrian nola ez zen asaldatuko: se-  
kulako mobilizazioak piztu ziren. Esan behar da hiru hilabete  
juxtu falta zirela lehenengo hauteskundeetarako, eta testuingu-  
ru horretan ipini beharko genuke Marianoren gogoeta bera.

Begi-bistakoa da bertsoalaritzan ere sartuak zeudela kalean  
zebiltzan ideologiak eta borrorak. Adibidez 1976an, Artxanbe-  
rri Saria jokatu zen lehenengo urtean, ia gai guztiak politikoak  
ziren, eta oso orientatuak. Begira kartzelako gai honi, garbi  
ikusten da gai-jartzaileak edo jartzaileek zein hanketatik egi-  
ten duten herren: «Bi eratan gaude zapalduta, herri bezala eta  
langile moduan». Entzun Jon Enbeitaren bertsoa:

Denok dakigu gure etsaien  
atzaparretan gaudela,  
ta askatasuna guk lortutzea  
hark gogoko ez duela,  
era bitara zapaldurikan  
aspalditik gaituela,  
langile legez parte batetik  
eta aberri bezela.



Edo berdin da Mixel Xalbadorrena ikustea:

Euskadi, ondo ikusten duzu:  
zapaltzen zaituzte bitan,  
eta ez dute atzerritarrek  
kofiantziarik zutan,  
guk ez dauzkagu behar ginduzken  
indar guztiak eskutan,  
bainan ordea euskaldun odol  
bero garbia bai sutan.

Besteak beste, Aita Zavala epaimahaiko zen. Ez nau harritzen saioa amaitzean esan zuenak: «Hau mitina entzun dugu!».

### **Mariano Ferrerren dokumentua**

*Me hacía ilusión pensar la salida del invierno. (...) Su enumeración nos excusa de entrar en detalles: Itsaso, Mondragón, movilización en torno a estos hechos, represión durísima por parte de las fuerzas, la muerte de ayer de José Luis Aristizabal. La anormalidad en la que nos hemos visto inmersos a consecuencia de todos estos hechos, nos ha obligado a una reflexión cuyos resultados hemos ido haciendo públicos parcialmente pero que ahora queremos englobar en una reflexión conjunta. No pretendemos ofrecer una respuesta que pueda imponerse por sí misma, sino cumplir con la obligación que sentimos de participar en la búsqueda de posibles soluciones. El análisis que Radio Popular ha ido haciendo a lo largo de estos días nos ha llevado a unas primeras consideraciones generales.*

*Primero.- No podemos dejar a su propia inercia el principio de acción y reacción que parece observarse en la secuencia de los hechos.*

*Segundo.- No cabe razonablemente esperar, por más que pudiera parecer una justa reivindicación, que la solución nos viene mediante la cesión unilateral de una de las partes.*

Tercero.- Creemos, más bien, que esta situación presente sólo tiene remedio si el pueblo vasco asume de un modo colectivo la responsabilidad de mantener, a pesar de todo, un mínimo de convivencia que permita como un primer objetivo reducir una tensión que está en peligro de alcanzar cotas que escapen a todo control. Lo ideal sería que esta responsabilidad colectiva se encauzara a través de organismos o grupos representativos con autoridad moral para encabezar proposiciones que orientaran racionalmente la vida social y política del País Vasco. Pero estos organismos ven limitada su capacidad de dirección por carecer de las condiciones mínimas para incorporarse públicamente a la vida política. Esta limitación explica no pocas cosas de las que están ocurriendo entre nosotros. Pero consideramos que estos momentos urge, a pesar de todo, y si es preciso contra todo, una toma de postura sobre los temas políticos que tienen influencia más directa en la conflictividad del momento presente. Creemos que se trata de temas básicos en torno a los cuales, a la vez que se registran movilizaciones populares, se constata un claro desconcierto colectivo, desconcierto que aquellos grupos que pretenden convertirse en portavoces de opinión, deben inevitablemente tratar de corregir definiendo su postura y asumiendo el riesgo y la responsabilidad que ello supone en estos momentos.

Nosotros, Radio Popular, carentes de una representatividad que diera validez a nuestras propias opiniones, consideramos que nuestra aportación en estos momentos es delimitar con la mayor concreción posible esos temas candentes sobre los que nuestros grupos representativos, o que pretenden serlo, es preciso reflexionen y se definan.

El primero: la amnistía.- Se impone una opción cuyos términos son aceptar la actual oferta de amnistía, dando un tiempo razonable a que se cumpla plenamente lo que significaría un compás de espera en la intensa movilización popular o seguir con esta movilización por considerar los últimos decretos un planteamiento insuficiente.

El segundo: la preparación de las elecciones.- No son pocos los que se preguntan si el actual clima de tensión permite so-

*pesar adecuadamente la conveniencia para Euskadi de participar en las próximas elecciones o la importancia que pueda tener ganarlas para el futuro de nuestro pueblo.*

*Tercero: la movilización popular.- El empleo de la movilización popular ha sido un ejemplo claro de conquista política en el País Vasco que sigue teniendo validez. Pero su empleo sin unas adecuadas garantías puede conducir a la manipulación de la inquietud popular con resultados inciertos, al mismo tiempo que produce un estado de tensión difícil de sobrellevar por la mayoría.*

*Cuarto: la lucha armada.- Hay que preguntarse si es posible hoy la consecución de objetivos políticos urgentes: la consolidación de los partidos, la estructuración de los sindicatos en tanto subsista la lucha armada; hay que preguntárselo y hay que responder.*

*Quinto: la desconexión entre el poder y el pueblo.- La profunda desconfianza que nuestra reciente historia ha creado respecto de la autoridad es un hecho incuestionable. Pero cabe preguntarse si es razonable renunciar totalmente a la utilidad política que para nuestro pueblo puedan significar en este momento de difícil transición las nuevas actitudes de determinados gobernantes y más, insistimos, en estos momentos de máxima dificultad.*

*Estos son puntos que ofrecemos a la reflexión colectiva, puntos cuya clarificación y la toma de postura en torno a los cuales creemos que sería un paso nuevo pero muy importante de cara a la racionalización del conflicto y a su control.*

*Antes hemos dicho que pedimos esta reflexión colectiva porque consideramos que no es posible esperar la solución de la cesión unilateral de una de las partes. Pero esto no significa que consideremos que la responsabilidad de la actual situación o la búsqueda de soluciones recaiga sobre ambos lados al cincuenta por cien. Esta responsabilidad que nos exigimos a nosotros debe subrayarse con una mayor exigencia al referirse a las autoridades que deben ser conscientes de la deuda contraída con el País Vasco; el reconocimiento de esta deuda debe*

*concretarse en una urgente y total realización de la amnistía, el replanteamiento radical del orden público y en un reconocimiento concretado en medidas políticas y administrativas de la personalidad del pueblo vasco.*

*San Sebastián, a 15 de marzo de 1977.*

*Radio Popular.*

### **Amuriza eta biok, 1. saioa**

Begira Amurizak eta biok, 1977 horretan, Zaldibiako Guraso Elkartean egindako saioaren mostra honi, Amuriza hasi eta nik segi.

Amurizak:

Aspaldi gaude morrontzapean  
eta gu kate txarretan:  
hainbat desgrazi sufritu degu  
Euskal Herriko lurretan.  
Orain ez gaude jauntxo horiek  
errukitu beharretan.  
Hoi en arraza erreko ahal da  
itsaso eta lurretan,  
faszista denak kiskaldu bitez  
Gernikako txingarretan.

Iraolak:

Dudik ez dago zerurik bada  
joan nahiko dute hara,  
baina San Pedro ikusirikan  
hartuko duten ikara!  
Euskadi dena erre dadien  
bonbak bota Gernikara,  
geroztik ere Euskadirikan  
ez dezute ez anpara.  
Esango die: «Orain zoazte  
beti-betiko sutara».

## **Amuriza eta biok,**

### **2. saioa**

Baina, politikatik bakarrik ezin bizi eta, umoreko saioak ere egiten genituen; hurrengo bertsoak horren seinale, egun berean eta toki berean kantatuak Amurizak eta biok. Hura hasi eta nik jarraitu:

Amurizak:  
Patxi eta ni nola  
soltero baikara,  
Zaldibin izango da  
hamaika alaba;  
gizonaren bizitza  
ez leike akaba,  
bat harrapauko nuke  
aukerarik bada.

Iraolak:  
Ezin liteke uka  
geradela zahartu,  
oraindik ez gerade  
juizioan sartu,  
norbaiti heldutzeko  
egon arren gertu  
gure kidekorikan  
gaur ez dek agertu.

Amurizak:  
Aukera onak noiznahi  
litezke paratu;  
gure bizimodua  
zertaz konparatu?  
Nahi ez dunak mutilzahar  
betiko geratu  
Zalbibi hontan bada  
nori begiratu.

Iraolak:

Kidekorik ez dela  
esan det lehenbizi,  
nola nauzuen alde  
danei begira hasi;  
gazte diranak berriz  
joan dira igesi,  
beiz'e gauden bezala  
beharko guk bizi.

Amurizak:

Gazte jendeai nola  
behar zaion ekin,  
aukera onik baden  
nahi nuke gaur jakin;  
baina gerta liteke  
nahi eta ezin,  
berdin konpon gintezke  
ezkondu batekin.

Iraolak:

Lehen ere esan degu  
hamaika hitz asto,  
bat gehiogatik ezin  
gu harritu asko.  
Aukera ezik ezkondua  
berdin guk gogozko,  
jakiten hasi behar  
nor dagoen presto.

Amurizak:

Bizkaian ere badira  
holako afanak  
ta ezkontza hartzen dau  
gogo daukanak,  
ta nik ere baditut  
neretzako planak:  
solterutzan eitea  
ezkonduen lanak

Iraolak:

Lehenago ere ez dezu  
sufritu gutxi ta,  
halako soinekoa,  
luzea jantzita;  
ordun egongo zinan  
gaizki iritzita.  
Oain ez al zera joaten  
traje hura utzita?

Amurizak:

Hainbat arrazoi fresko  
dauzkagu debalde,  
baina nola zabiltzan  
nahi nizuke galde;  
nere antzera baitzaude  
maitasunik gabe;  
zu apaiz egin gabe  
ni bezela zaude.

Iraolak:

Ez gera santu eta  
ez gera zintzuak,  
errez zapalduko nau  
gizon jakintsuak;  
zer atarramentu dun  
mutilzahar antzuak,  
nere iritzirako  
biok berdintsuak.

Amurizak:

Maitasunak badauka  
beraren afana,  
nahita ere sarritan  
lortu ezin dana,  
guk ere ken dezakegu  
hortako galbana  
bi ez bada har dezagun  
batto erdibana

Iraolak:  
Beraz biontzat bakarra  
hasi behar bilatzen;  
hasi beharko degu  
neurtzen da tailatzen,  
soziedadean berriz  
samur da failatzen,  
apaiz izanarekin  
ni ez naiz fiatzen.

### **Amuriza eta biok, 3. saioa**

Baina, berriz ere, luze baino lehen sartu ginen betiko arrastoan. Orain ni hasi eta Amurizak jarraitu.

Iraolak:  
Borondatetsu lehen bezala  
bihotzak nahi du ageri,  
eta bihotzak bultzatzen duna  
mingainetik leher bedi;  
lehenago ere egina degu  
ez dakit zenbat hitzaldi  
berriro ere hastera goaz  
goratuz gure Zaldibi.

Amurizak:  
Afan handitan egun hontan naiz  
Zaldibira etorria,  
ondo baitakit hemen dagola  
euskaldunen jatorria;  
kantu ta bertso azaldu dugu  
askatasun egarria,  
hauxe da gure esperantza eta  
hau da gure aberria.

Iraolak:  
Hemen badira emeki eta  
badira gizasemeak,



ahaztu gabe bizi direnak  
Euskal herriko legeak.  
Behar danean txit serbitzari  
leialak eta trebeak;  
eskertzen ditut serbi gaituzten  
gizon ta emakumeak.

Amurizak:

Esker ona da gizonak daukan  
barreneko oparia,  
nolanahikoa ez da izan gaur  
egin degun afaria;  
kuzinera ta hainbeste jende  
benetan saiatu diaa  
askatasuna izan dedila  
hoien lan ordain saria.

Iraolak:

Zapo arraia tomateakin  
gaur afaldutzen hasia,  
arkume errea, haren ondoren,  
goxua eta hezia;  
ikusitzen da jende onaren  
leialtasun berezia;  
oaindik Madrila ez da iritsi  
holako demokrazia.

Amurizak:

Demokrazizko gogoz dauzkagu  
azalak eta barruak,  
baina ez dira guztiz zuzenak  
madriletarren porruak;  
entzungo dira Zaldibiatik  
eiten ditugun orruak;  
noizbait amaitu ditezen gure  
kartzela ta enterruak.

## **Lazkao Txiki eta biok Olako Saroin, 1. saioa**

1976an gaude. Esan dut Joan Mari Etxeberria Tolosa berriz ere aipatu beharko genuela. Zaldibiako herriak badu pinudi bat Olako Saroi edo *Akapulko* inguruan. Alkateak herriarrei eskaini zien pinudia, auzolanean ateratzeko, eta irabazten zen dirua ikastolarentzat. Halaxe egin genuen. Amaitutakoan bazkaria izan genuen. Lazkao Txiki eta ni neu ginen bertsotan. Lehenengo saiotik bana gogoratuko ditugu, Lazkao Txiki hasita:

Lazkao Txikik:

Hara zertara alkartu gaitun  
maitasunaren indarrak,  
moztuak dira beheko pinudi  
horko sasi eta laharrak;  
horregatikan mila zorion  
hemengo gazte ta zaharrak,  
eta hitz batez akabatzeko  
gaur gora zaldibitarra!

Iraolak:

Talde guzti hau hor ibili dek  
lanari gogor heldurik,  
guk ordu batzuk badizkiagu  
hor izarditan galdurik,  
ta bazkari bat anaitasunez  
alkarregana bildurik;  
nik ez zedukat hor egindako  
nekeak egin damurik.

## **Lazkao Txiki eta biok Olako Saroin, 2 saioa**

Geroago beste saio bat egin genuen. Ohartuko zarete «Olako Saroi» eta Akapulko aipatzen direla; erraz antzemango diozue zergatik. Oraingoan ere Lazkao Txiki hasten da:

Lazkao Txikik:  
Herri batean hola behar du,  
hau ez dezaigula eten.  
Ez dakizute zuen asmoak  
zeinen pozik jartzen nauten;  
bigarren saioz aitatu behar  
behar genuena lehenen;  
Patxi, has gaitezen Akapulkori  
esker beroa ematen.

Iraolak:  
Nik ere eskerrak eman nahi diet  
hemen diraden orori,  
gauza horren faltan huts egin eta  
ez bainuke nahi erori;  
pago itzalak ziran hemen lehen,  
hor zan Ausoiko karobi,  
gaur Akapulko deitzen dan hori  
lehen zen Olako Sarobi

Lazkao Txikik:  
Akapulkoren izen polita  
entzuna nintzen lehen ere;  
izen hori ipini zutenak  
han Ameriketara daude.  
Saroi izena oso polita  
inongo dudarik gabe;  
lehenago hala deitzen bazaio  
deitu'iozue gaur ere.

Iraolak:  
Gaizki nahi eta ez zuten noski  
pentsako hortan hasterik,  
probatu gabe gauza nola dan  
ez daukagu ikasterik;  
baina izen horrek utzi ninduen  
goibeldu eta tristerik,  
nik bitartean ez bainekien  
Olako Saroi besterik

Lazkao Txikik:

Denen gustua ta denen poza  
betetzen ez da erreza  
eta alde bat utzi dezagun  
lehengo izen onik eza;  
beste aldetik behar deguna  
sortutzea da nekeza;  
gaur eskertutzen saia gaitezen  
berak eman dun babesa.

Iraolak:

Nik ere berdin zuk bezalaxe,  
eskertu nahi ditut horra!  
Ez egon arren hemen zutikan  
lehenagoko pago-enborra,  
baina gaur ere ez da toki hau  
zimurra eta lehorra,  
izen egokia ez badu ere  
jendea dago jatorra.

Lazkao Txikik:

Lehengo pagoak egon behar du  
moztua edo hautsia,  
bat'e gabe're ez derizkiot  
oso toki itsusia.  
Gazte eta zahar nik ikusten det  
baturik herri guzia,  
hemen ikusten dedan gauza da  
egizko demokrazia

Iraolak:

Hara gauza bat ez aipatzeak  
emango lidaken pena;  
nola egin degun ikusirikan  
gure eginkizun dena;  
lehenengo lana, ondorenean  
bazkaririkan onena;  
hemen dagoen demokrazia  
ez degu ez Fragarena.

Lazkao Txikik:  
Mitin ta mitin hor zebilgiguk  
ez gure zorionean,  
aspaldi hontan alfer antxean  
ez al zebilek lanean?  
Demokrazia zabaldutzen dik  
dabilen toki danean,  
nik esaten dit: «zertan ez zin ein  
Francokin egon zanean?»

Iraolak:  
Beraz orduan demokrazia  
egin behar zin lehenago,  
baina orain ere edukiko dik  
horrek lehen adina gogo;  
politikatik desagertua  
diktadore asko dago,  
hobe genduke hau ere haien  
ondoan baldin balego.

### **Azpillaga eta biok**

Hurrengo saioa da Azpillaga eta biok egina, Zaldibiako  
Guraso Elkartean, hura hasita:

Azpillagak:  
Euskal Herriko guda tzar hori  
zeinek ote degu maite?  
Guraso asko han galdu ziren  
gerra hau zela bitarte  
geroztik ere inperialistek  
zerikusia daukate,  
lehengo bidean segiko degu  
Euskadi askatu arte

Iraolak:

Garbi daukagu gogoia eta  
garbi guk kontzientzia,  
askotan ia galdutzen zaigu  
guk degun pazientzia  
ikusirikan nola dabilizan  
Espainia eta Frantzia:  
Einahal batean utzi nahi ezta  
gure zazpi probintzia.

Azpillagak:

Gure zazpi probintzia hor daude  
ia beldurrez aidian,  
hala ere gogor jarraitzen degu  
geure izate garbian.  
Frantzi ta Espaini bi aldetatik  
Euskadi dago erdian...  
Ia-ia dudan jarri nago  
abertzaleak zein diaan.

Iraolak:

Abertzaleak zein diren inoiz  
ez det dudarik izandu,  
bakoitzak bere moduan pentsa  
bidea noski libre du,  
baina borroka egunero egin  
herririk ez dedin galdu...  
Abertzaleok hobe genduke  
elkarri besoak zabaldu.

Azpillagak:

Istimatzen det ta errespeta  
Patxik esaten zuana,  
errespetatu beharra dago  
gure euskera laztana,  
abertzaleak nahiz esan arren  
euskara mintzo bakana,  
abertzalea bakarrik degu  
euskaraz eitten duana.

Iraolak:

Euskara degu lehendabiziko  
abertzale albistia,  
ta ein nahi eza ez badaki hark  
nahiko notizi tristia,  
baina lehenengo behar lukeena  
hizkuntzakin sinistia;  
gure euskara lehenengo eta  
gero nahi duen guztia.

Azpillagak:

Patxi zurekin ados nator ni  
zure izaera baten...  
guk bezelaxe nola ez dira  
beste guztiak joaten?  
Nik abertzale askorentzako  
arrazoi ez det ematen,  
euskara jakin gabe dabilta  
«gora Euskadi» esaten.

Iraolak:

Hori ez da ez egiazkoa,  
nire iritziz, izatez  
eta euskara jakin behar da  
horretan saiatu bitez.  
Ikasbideak badira orain  
daudenentzat borondatez,  
ikasten ez dutenak dudik'be  
daude zabarkeri batez

## **Berriro Amurizarekin. 1. saioa**

Hura hasita burutzen dugu hurrengo saioa:

Amurizak:

Nahiz katepean herria egon  
ari gerade kantari,  
morrontza latza badugu ere  
itxaropena ugari.

Alkartasuna ta joka nahia  
degula denon gidari,  
laster izango gara libreak,  
ta askatuko Euskadi

Iraolak:

Badakizute egun batean  
ez da bukatzen karrera,  
nola guk hautsi hain errez hainbat  
hesi gogor ta barrera?

Baina badegu bide zuzen bat  
ta ez dijoa txarrera,  
abertzaleok elkar harturik  
jarrai dezagun aurrera.

Amurizak:

Berrogei urtez makurtu degu  
burua eta gerria,  
hamaika zigor sufritua da  
euskaldunen aberria;  
hala ere bada geroari adi  
esperantza txit berria:  
diktaduraren azpian ere  
bizi da Euskal Herria.

Iraolak:

Eta gauz denak egiten dira  
lan einez, harturik beta;  
pentsa ongi nun egin ekintza  
ta nun azaldu kopeta,  
Euskal Herria oraindik bizi  
harturik hainbat kolpe-ta  
hau hilko duen diktadurarik  
oraindik ez da inbenta.



Amurizak:

Hainbeste urte egonak gera  
ta ezin geroari utzi  
guk ere noizbait behar ditugu  
geure hortzak erakutsi,  
Euskal herria aurrera doa  
nahiz hezur batzuek hautsi  
askatasunik ez bada ere  
umore onari eutsi.

Iraolak:

Zigor ta guzti oraindik ere  
lehengo asmoak proposa  
ta badakite eman artean  
ez dezaketela goza,  
euskal herriko gogo bizirik  
inoiz ez liteke osa  
gure eskutan utzi bitarte  
Mirandatik Burdeosa.

## **Berriro Amurizarekin, 2. saioa**

Hurrengo saioa gaia ipinita egin genuen. Urtarrilaren 16ko bilera aipatzen da, hau da, 1977ko urtarrilaren 16an Euskal Herriko alkateek Etxarrin egin zuten bilera. Oker ez banago, egun horretan zen Joxe Lizasoren omenaldia. Oraingoan ni hasten naiz.

Iraolak:

Euskal biltzar bat nola daukagun  
orain dute iragarri,  
nola geraden gu euskaldunok  
alkartasunnan egarri,  
Nafar, Araba Gipuzkoakin  
denok alkargan ezarri.  
Lehen Bergara izan genuen  
oraingoan da Etxarri,  
bildu gaitezen hor hamaseian  
guztientzat indargarri.

Amurizak:

Morrontzapean pasa ditugu  
tristeziako urteak,  
baina irekitzen hasita daude  
esperantzaren ateak;  
ez gaitu nonbait betiko ehortzi  
kanposantuko bakeak.  
Abertzaleak ginen lehen eta  
orain berriz alkateak,  
laster hautsiko ditugu hola  
Euskal Herriko kateak.

Iraolak:

Berrogei urtez izandu degu  
zapalkuntzarik txarrena:  
Gerrate hartan faxista hoiek  
bazter guztiak benena,  
eta geroztik hainbeste egur  
Euskal Herrian barrena,  
ikusten degu orainaldiak  
argi-izpi bat dakarrena.  
Gerta bedi hontaz jabetzea  
ahal denik azkarrena.

Amurizak:

Kolko barruan gordetzeko ez da  
gizonak dadukan hitza,  
eta alkateak ere askatasun  
didarka hortxe dabilta;  
geure eskuan eduki nahirik  
askatasunaren giltza,  
Nafarroa hortan ikusiko da  
Euskal Herriko bizitza;  
disgustoz berriz hilko litzake  
Patxi biztuko balitza.

Iraolak:

Ez zan izandu hortarakoa  
Patxiren borondatea,  
eragotzi zun euskalduneri  
zor zaiena ematea,  
geroztik ere Madril gureztat  
dago gorrotoz betea,  
ta Etxarrira ez datorrela  
Gasteizeko alkatea,  
oraindik zer dan ez dakiena  
euskalduna izatea.

Amurizak:

Madril aldetik euskal herrira  
dator etsaien itzala,  
Arabian ere jarria dute  
beren mami ta azala,  
oraingoz nonbait portatzen dira  
estranjeruak bezala.  
Araba hortan gertatzen dena  
lurrak irentsi dezala,  
hortxe baitago Euskal Herrian  
Madrileko sukurtsala.

Iraolak:

Kostatuko da nire iritzi  
sukurtsal hori galtzia,  
aurrera behar diran kontuak  
utzi dituzte atziaa,  
nun dago euskal jatortasuna?  
Non dago kontzientzia?  
Gauza hauek hola ikusirikan  
nork hartu pazientzia?  
ta hor daukagun jende txar hori  
hobe hortikan kentzia.

Amurizak:

Lotsagarria da izan ere  
alkate hoiien kondukta,  
geure lurreen jotzen digute  
madriletarren turuta,  
baina Araba geurea degu  
geurea hango burruka,  
ezin liteke probintzia bat  
beste ezerekin truka.  
Gasteiz geurea izango ahal da  
alkate hoiek kenduta!

Iraolak:

Ta oraindikan alkate hoiek  
daude herririk herrira,  
ia aspertu samarrik gaude  
jaun klase hoiei begira.  
Euskal Herrian alkate eta  
Madril serbitzeko ida.  
Herrian gogoz baldin baleude  
hutsa litzake sikira.  
Nire partetik joan ditezela  
txakurraren ipurdira.

Amurizak:

Askatasuna hain da gauza ona  
lurrean nahiz eguzkian,  
beti ez gara esklabo egongo  
geure bizitza guztian.  
Nafarroako batzarra egin  
behar dela ikustian,  
ez gara inoiz Madril hortara  
hemendik joango eskian,  
Euskal Herria han bilduko da  
Mikel deunaren azpian.

Iraolak:

Mikel deunaren azpian bildu  
hau da jokurik onena,  
urtarrilaren hamaiseirako  
prestaturik dagoena,  
eta Etxarrin batu gaitezen  
Hego Euskal Herri dena,  
han eman zagun etorkizunen  
helburu eta ordena,  
pentsako degu geure herria  
guk zer modutan goberna.



Filandian, segalari-  
rien txapelketan.  
Beteranoetan  
bigarren, 1999.



## **Laurogei/laurogeita hamarreko hamarkada**

---

### **Bertsolaritzan aldaketak**

Nik uste sekulako aldaketen aroa dela. Nire bertsolaritza edo nire gisakoena zeharo atzenduta geratzen dela. Bertsolaritza, berez, marginala bada, gure estiloa oraindik baztertua go geratzen da, bertsolari konkretu batzuen salbuespena salbuespen.

Politikak zatituko zuten entzulea, ez dut hori ukatzen, baina bertso-estiloak ez al du egin beste horrenbeste? Nik onartzen dut aurrerabidea, ez naiz ari hori kritikatzeko, deskribatzeko baizik. Kuestioa da nire erako bertsolari bati zail egiten zaiola bertsogintza berria ulertzea, bai gai eta munduaren ezagutza aldetik eta, berdin, formaren aldetik. Estilo berriak, nire iritzi apalean, bertsozale asko atzeratu du; noski, ezin ukatu bertsozale berriak erakarri ere egin dituela, batez ere belaunaldi berrien artean.

Bertsolarien soziologia erabat aldatzen da. Orain bertsolaria ez da baserritarra, baizik eta kaletarra, eta kasu askotan karreraduna.

Bestetik, bertsolariak oihartzun handia du garai honetan. Sasoi honetan hasten dira Bertso Eskolak. Bertsozaleen Elkartea garai honetan jaio zen. Bertsolari txapelketa nagusiak erritmoa hartuko du, lau urtetik behin egingo da. Tebistan sartuko da, eta horrek garrantzi eta hedapen handia emango dio. Badirudi Euskal Herri osoa bertsozale bihurtu dela. Guk, nik, ez dugu ezer aldatu lehenean jarraitzen dugu. Ez dugu problema handirik, soziedadeetan eta lagunartean jarraituko dugu bertsotan, geuk dakigun bezala. Nik uste dut egoki datorkidala eta neure egiten dut Goi-bururen kopia hau:

Ikusiz bere txapel  
eta gerrikoa,  
ezagun du ez dala  
moda berrikoa.

## **Giro sozio-kulturala**

Erljio konturik ez dugu aipatu ere egingo. Nik dakidan batek hala esango luke: «*Eso es una obviedad*». Ez naiz ikasi zaharra esaldi horrek zer esan nahi duen, eta oso pozik nago neure buruarekin, Txirritaren adinera iritsi eta oraindik ere ikasten ari naizelako. Baina ohartuko zarete, noski, edo agian ohartu beharrik ere daukazue, neuri begiratzea aski, baserritarra naizela. Eta konturatzen ari naiz paradoxa handi bat gertatzen ari dela gure artean: baserriak hustu, artzainak gutxitu eta sekula baino feria eta festa gehiago egiten dela nekazaritzaren inguruan. Ez ote gara apur bat baino gehiago folklorea murgildu? Eta bertsoaritzak ere badu arrisku hori, hau da, beti eranskin moduan hartzekoa, beste ospakizun ofizialagoen ondoan.

Hasiko bagina kontaktzen zenbat azoka berezi, artzain-egun, Santo Tomas gisako festak, ardiak urtean behin kale nagusitik zehar pasatzea. Gauza horiekin guztiekin ni pixka bat beldurtuta nago, ez ote duten benetako autentizitatea galdu eta ez ote diren bihurtu folklore gisako zerbaiteko edo museoko pieza askoren pareko. Giro hori dago, ordea, eta hemendik aurrera horrela beharko dugu.

## **Ardiki eguna**

Esate baterako, 1994an hasita, urtero (urriaren azkeneko igandean) egiten da Zaldibian *Ardiki Eguna*. Hasiara-hasieratik, jabetu ziren egun hori ere bihur zitekeela beste egun erdi folkloriko bat gehiago, eta gogor ahalegindu dira helburuak konkretatu eta definitzen.

Beti egon da zati bat etnografiari eskainia, hala nola, artzaintzan ibiltzen ziren lanabes eta ontzien erakusketa, artilea eta beste batzuk lantzeko era azaltzea, artzainen bilerak eta jokoak nolakoak ziren adieraztea, etab. Baina, horrekin batera edo horren aurretik, beste egiteko bat atxiki izan zaio egun horri: ardikia ezagutaraztea eta hortik datozen produktuentzat merkatua irekitzea, noizbait maila industrialera iristeko ametsa baztertu gabe. Beraz, alderdi ekonomikoa primatu da beste guztien gainetik.



Geroago, hamar urteko lanaren eta esperientziaren ostean, 2004an, «Ardiki» izendun Mondejuaren Kofradia sortu zutenean ere, hiru helburu zeuzkaten sortzaileek: helburu kulturala, gastronomikoa eta ekonomikoa. Baina besteen gainetik helburu ekonomikoa azpimarratu zuten.

«Kulturala diogunean zera esan nahi dugu –argitu zigun orduan Migel Mari Irastortzak, kofradiako presidenteak– antzinatik datorren ohitura gorde eta, galdu gabe, ondorengoei transmititzea. Izan ere, garbi dago artzain aroko kultura bat baduela Euskal Herriak, eta kultura aberatsa eta berezia, hainbat datuk baieztatzen dutenez»

Alderdi kulturalak garrantzi handia badu, ez du txikiagoa alderdi gastronomikoak. Adibidez, gaur egun, estimazio handia du mondejuak. Bestalde, beste edozein gauzak bezalaxe, mondejuak eboluzio handia izan du. Hain zuzen, kofradiaren egiteko bat da mondejua promozionatzea eta oraindik ezagutzen ez duten tokietan ezagutaraztea. Beraz, alderdi ekonomikoa eta gastronomikoa oso loturik daude, eta artzaintzatik bizi den sektorearentzat diru-iturri bat gehiago da, eta bere ekonomiarentzat laguntza ona.

Simil horrekin ez naiz ari bertsolaritzan egin beharreko aldaketak planteatzen, ni baino aurreragorik egongo da horretarako, baina funtzionaltasunaz esan nahi nuke zer-bait: ez da zuzena tresna eta lanabesen funtzionaltasunaz bakarrik hitz egitea; berdi-berdin mintza gintezke festaren, kirolaren edo kulturaren funtzionaltasunaz. Apustua da «operatibo» iraun edo museora pasatu. Nik esango nuke gure garaian bertsolaritza «operatibo» egon dela, nahiz eta uneren batean egon zitekeen museorako bidea hartzeko trantzeren edo bertsolariak erreserbako «indiotzat» jotzeko arriskuan. Hala ere, garrantzitsuena da *niretzat* «operatibo» egotea.

Badakigu bertsolari guztientzat ez dela izan lanik, eta bertsolari asko ezkutatu da plazan intenturen bat edo beste egin ondoren. Horregatik esan dut, beste nonbait, oso inportantea dela bertsolaritzarekin, puntako eskiatzailea izan gabe eskiatzen bezala, disfrutatu nahi duenak berak sortu behar dituela zirkuito propioak, inolako irabazpiderik gabe-

koak. Ez dugu ezer aurreratzen plazatik deitzen ez dizutelako etxean erreta geratzearekin.

### **Omenaldia'91: gogoeta txiki bat**

1991n, omenaldia egin ziguten. Hori, urtero norbait omentzea, aspalditik zetorren kontua da; gutxienez 1968tik. Gero, urtero norbaiti omenaldia egitea, Bertsolari Elkarteak hartu zuen bere gain, eta, esan bezala, 1991n Goiburu eta biori egin zigun. Egia esan, oraindik ez dut erabat ulertu omenaldi hartan zergatik sartu ninduten, baina hala gertatu zen, behintzat, eta honezkero hala beharko. Beti pentsatu izan dut ni baino aurreragoko jenderik bazegoela merezi zue-na; orduan hala pentsatzen nuen, eta orain ere bai. Ni, Sarasuak ederki asko esan izan duen eran, eskualde mailako bertsolaria kontsideratu naiz, eta...

### **Omenaldia'91: hemeroteka**

Omenaldiari esker, Goierrri aldean antolatu ziren bertso-saio eta Victoria Eugeniako ekintzaz aparte, bertso-liburua ere osatu genuen Goiburu eta biok. Bertso-liburu horretako bertso batzuk jada aldatu ditut hona, Zepai Sariarekin-eta erlazionaturik zeudelako, edo orain egiten dihardudan liburuko gairen batekin lotura dutelako. Orain beste batzuk ipiniko ditut.

Hona lehenengo saioa:

Kantatutzera noa  
nere sentipenak:  
pozak eta penak,  
oroitzapen barruan  
aurki litezkeenak,  
sortu nintzen herrian  
garrantzikoena,  
baldin laguntzen badit  
zentzuzko ahalmenak,  
kantuz historiatzen  
oraina eta lehenak.

Olegi etxe zaharra  
egina dagon lez,  
antzinako moldez,  
behetik harriz ta gora  
zurez ta oholez.  
Hantxe sortu ninduten  
nire ustekabez,  
ta gizaki-landare  
izanikan nerez;  
geroztik hemen nabil  
egunez ta gauez.

Oinez ikasi eta  
laster atarira,  
lehenengo abira,  
enparantza alde ta  
berdin artegira,  
Nañarriri begira  
aldiz aurpegira,  
berdin Gaztelu eta  
auzoko hegira,  
nire lehen zentzuak  
hortxe sortzen dira.

Aitona eta amona,  
aita eta ama,  
denek nahiko lana;  
bakoitzak bazituen  
eginkizun bana.  
Hirugarren urtean  
pausoak emana  
nintzan garaian gerra:  
soldadu eta arma,  
saltatu zan anai bat  
bestearengana.

Herria goibel eta  
festa gabe plaza,  
nola umorez dantza?  
Kale eta mendian  
odolaren mantxa,  
hainbat gaiztakeria,  
hainbeste bengantza,  
gorrotodun bihotza  
ez baita beratza,  
eta azkenean Francok  
eraman zun baza.

Gerra ondorenean  
gosetea berriz,  
jatekoen urriz,  
ez zen loditzen inor  
lepoz eta gerriz;  
mahaian begira egon  
alkarri aurpegiz,  
lehertu beldurrik gabe  
janaldi handiegiz,  
altxatu izan ginan  
makina bat aldiz.

Liburuaren amaieran bertso batzuk ipini genituen bi  
omenduek; oraingo bertsoa Goibururena da, baina guztiz bat  
harekin:

Idazten begietan  
jartzen zait gandua,  
bista daukatelako  
onena izandua,  
hizkuntza berriz goiko  
mendian landua,  
eta orain ikasteko  
nahiko berandua.

Aipatu dugun liburuaren 112 eta 113. orrialdeetan aurkituko ditu irakurleak orain azkar batean kontatuko dugun pasadizoaren xehetasunak. Bazan «Primo zaharra» esaten genion gizon bat, aitaren lehengusua; kristalak ipintzen eta horrela ibiltzen zen. Bertsotan ere egiten zuen pixka bat, nahiz komodin asko erabiltzen zuen. Behin, San Fe aurrean, gure etxean ari zen. Aita luze-iritzirik zegoen, eta bertsotan tentatu zuen:

Beste lanikan ez balegoke  
ederki gatxeudek hemen,  
eta bakoitzak bere egintzak  
kunplitu ditzagun lehenen;  
motel, badakik herriko festak  
gainean nola diraden,  
kristalak behintzat jarriko ahal dituk  
Santa Fe eguna baino lehen!

Eta orduan betiko bertso komodinarekin prestatu zuen erantzuna, hau da, aurreko egunean Azpeitiko Etxanizi entzundakoa moldatuta:

Aldamenetik tentazioan  
hasi poliki-poliki,  
ez nuen asko pentsatzen baina  
tentatzen naute ederki;  
hemen gaur zer egin behar dan  
buruzuriak badaki,  
Primok kristalak jarriko zetik  
Ez kuidadurik eduki.

Ordizian, 1974an, gezurra kontatzeko agindu zidaten. Hona nire erantzuna:

Astoaren gainean  
joan naiz ilargira,  
jendea egona da  
mundutik begira,

eta oso dotore  
egina det jira,  
babarrunak bildutzen  
orain ari dira.

Beste behin Lazkaon (1990) galdera hau egin zidaten:  
«Zer dago, Patxi, burusoil horren azpian?» Horrela erantzun  
nien:

Estalgarriak galdu ziran da  
buru-azala zuritu,  
kopeta hazi eta zimurtu  
edertasunak urritu;  
honen itxura eskasarekin  
behar kantuan aritu,  
umore on hau hor sortzen da ta  
ez al du nahiko meritu?

Hau da galdera: “Zer moduz dago  
burusoil horren azpia?”  
Hartu nahi nuke behar bezela  
erantzuteko astia,  
hauxe da nere gailurra eta  
ilargi eta eguzkia,  
naizen moduan beragatik da  
nere izate guztia.

Soilune horren azpian zer dan  
egiten dezu galdera.  
Hor daude muinak ta oroimena  
ta hor dago ezaguera;  
urte hauetan bista beheraka  
belarrietan sordera,  
zerbait guztiek galduko zuten  
ilearekin batera.

Lazkaoko saioa da segidakoa. Goiburu eta biok aritu gi-  
nen. 1988 ingurua zen. Teorian gai librean aritu ginen, baina  
aurreraxeago izan genuen gai bat Narbarte, Goiburu eta hi-

ruontzat, non rol bana eman ziguten: ni, aberatsa; Narbarte, langile arrunta; eta Goiburu, pobrea. Bertso horiek atal orokorrean sartu ditut, nahiz eta *Kantu kontari* liburuan ere badatozen batzuk, baina ez denak; adibidez, Narbarterenak. Horregatik kokatu ditut toki diferenteetan.

Esaten ari nintzen gai librean ginela Goiburu eta ni, baina lehengoa, nonbait, gogoan artean, eta hara isuri ginen. Hamalau kopla dira, Goiburu hasi eta nik jarraitu:

Goiburuk:

Patxi, nik hiri egiten diat  
begirakune argia,  
baina ez zekit hi ote haizen  
ohituretan garbia.

Iraolak:

Hik ez al dakit ni ibilia  
naizela hire inguru?  
Hi santu bahaiz ni ere banauk,  
moteil, hi hainbat aingeru!

Goiburuk:

Hik izan duan jokabideak  
ez nauk hainbeste poztua,  
hik dadukaken diru guztia  
langileari ostua.

Iraolak:

Hori egiten asmatzen duna  
ez uste danik makala,  
pentsatzen al dek hori nunahitik  
berez etorri ohi dala.

Goiburuk:

Kaso egiteko hargatik dauzka  
hainbat *guardaespalda*  
ta eramaten baldin badute  
askozaz hobe ez al da?

Iraolak:

Ikusten diat nik hi, Goiburu,  
zeinen inbidiz hagoan,  
hik ere berdin, nik bezelaxe,  
dirua daukat gogoan.

Goiburuk:

Hire bizitza behar hainbeste  
agian ez nin nahastuko,  
ni bezela izan baldin bahintza  
ez hintzan aberastuko.

Iraolak:

Dirua zeukat gainezka eta  
hi hago berriz pobrea,  
inun partitzen nolatan hasi  
nik dadukadan sobrea?

Goiburuk:

Langileari kenduta dauka,  
lehenago esan dedan gisan,  
alproja haundia degu hau eta  
errukirikan ez izan.

Iraolak:

Ez uste gero bere gogoan  
dabilenik erratua,  
harrapatuko luke berak'e  
balu non harrapatua.

Goiburuk:

Honek izan du bere denboran  
harrapatutzeko txanda,  
bukatutzera noa, guretzat  
saio hau nahikoa izan da.



Iraolak:

Honek ez dauka behor txar batzuk  
eta behi ahulak besterik,  
hoiekin inoiz ez dago inor  
munduan aberasterik.

Goiburuk:

Nik bazeuzkiat behor txar batzuk  
nola behi eta zaldi,  
lapurretarik bat'e egin gabe  
bizitzen ari nauk handi.

Iraolak:

Lapurretako gogoia badu  
igartzen diot egitan,  
agur hoinbestez, aurrera ere  
bizi nere inbiditan.

Bertso-laguna Azpillaga nuen. Aldaketa politikoaren etorrera sumatzen zen ordurako. Azpillaga nahiko definitua egongo zen, eta kritikarako gogo pixka bat ere igoal bai. Marxismoa zela eta ez zela, nik behintzat, halako batean hauxe kantatu nuen:

Gure gurdia lohitan daukagu  
kurpilez eta pertikaz,  
bere gaineko kargamendua  
beterik dago tortikaz.  
Ez dakizkigun zenbait gauza guk  
behar genituzke ikas:  
demokrazirik ez da sortuko  
batak bestea kritikaz.

Abertzaleen arteko haserreak aipatu zituen Azpillagak gero. Nik honela erantzun nion:

Nik ere triste pasatzen ditut  
eguna eta arratsak,  
ikusten ditut halako sarri  
hain jokabide narratsak,  
hainbat landare igar-zorian  
daduzka gure baratzak,  
baina ez apura, pixka banaka  
garbituko dira saltsak.

Beste bertso bat honela amaitu zuen Azpillagak:

Ni ez nintzake inora joango  
euskera galdutzekotan.

Nere erantzuna hau izan zen:

Euskera gabe nola osatu  
Euskadiren familia?  
Ordun Euskadi deitzeak ere  
ez luke merezi ia;  
baina horrekin lortu beharreko  
gauza gehio're badiaa:  
Euskadi bera bezin loturik  
dagoen langileria.

### **Omenaldia'91: elkarrizketa**

Aipatu dugun omenaldia zela eta, *Argia* aldizkariak elkarrizketa egin zigun Florentino Goiburu eta bioi. Hemen ezar-tzea pentsatu dut, pixka bat moldatua bederen. Hasieran, neure erantzunak bakarrik argitaratzeko asmoa nuen, baina uste dut askoz hobeto ulertzen dela bion erantzunak tartekaturik. Aspaldi samarrekoa da, baina gaur ere berdintsu pentsatzen dugu guk.

F.GOIBURU. Gazteak onak ikusten ditugu guk, ikasi ere asko egiten dute eta.

## **ARGIA. Ikastea bakarrik ez da ordea.**

F.G. Bakarrik ez, baina berezkoa duenari asko laguntzen dio. Lehengoan esan zidan batek: «Ez zaizkidak gustatzen eskolan ikasitako bertsolari hauek, nabarmen geratzen dituk». Ikasi gabekoak ere nabarmen geratzen dira! Beti du abantaila ikasitakoak.

P.IRAOLA. Abantaila handia du. Hizkuntza gobernatzen ikasten du batetik, bertsoaren teknikak eta egiteko erak bestetik. Guk honelakorik ez genuen izan, gure gisa nolabait hasi eta ahal genuen moduan aritzen ginen.

F.G. Hori bai, berezkoa duenak lehen bezala orain ere

P.I.- Lehen ere ez ziren denak ezpal berekoak. Bertsolari denek dute zerbait diferentea. Batzuk umoretsuak, besteak txispa, beste batzuk serio antzekoak, hori beti izango da.

F.G. Zerbait erantsi nahi dizut: eskolan ikasitakoa berezkoa baino lentoagoa ez ote da?. Zepai zena eta, batakatu bukatu orduko bestea hasi eta azkarrago aritzen ziren ordukoak. Eskolan ikasi duten hauek buruari buelta gehiago ematen diote, bertsoa ona egingo dute baina.

P.I. Arrazoi duzu, oso azkarrak ziren, etorri azkarrekoak eta, poto bat edo beste egiteari ez zioten inportantziarik ematen, ez dut uste konturatzen zirenik ere. Orain teknika osatuagoaz ari direnez gehiago begiratzen diote.

F.G. Bere lana egiten grazia ederreko bertsolariak ziren lehengoak, jendeari barrea eragiteko primerakoak.

P.I. Nik orain ere Zepai entzutea nahiago dut, haren gauzak esateko era, bizitasun hura...

F.G. Dena entenditzen zen orduan. Gaur ordea askotan dudan igoal geratzen gara gu.

P.I. Zepai horretan aparteko bertsolaria zen

## **A. Gerra ondorengo bertsolaritzaz zer gogoratzen duzue?**

P.I. Bederatzi urte nituen orduan, gogoratzen naiz nola izan ziren Uztapide eta Basarri, 42an edo. Ez zen ez trenik ez

ezer sasoi hartan. Egun osorako etortzen ziren bertsolariak. Hamaiketakoa egin eta segituan hasten ziren kantari. Jende guztia inguruan biltzen zen, eta gero, bazkalondoan ere, bi edo hiru saio egiten zituzten, arratsaldean balkoitik eta afa-londoan bestea. Uztapide behintzat jendeak alde egin arte aritzen zen.

F.G. Orain hala esaten da, entzulea gosez utzi behar dela, bertso gehiegi ez dela kantatu behar, baina Uztapide zenak asko kantatuta ere gosez utzi zuen jendea behin baino gehiagotan. Hori da inportantea, asko kantatu eta gosez, ezin aserik uztea. Uztapidek jendea gozatu eta berak ere gozatu egiten zuen. Gauza honetan gaur baino zailtasun gehiago zegoen.

P.I. Jendea orduan kultura aldetik gertuago bizi zen, denak baserri giroan, bertsoan ere herriko gorabeherak kantatzen ziren eta den-denek parte hartzen zuten, izugarri gozatzen zen gauza hauekin. Gaur jendea askoz ere banatuago bizi da. Orain bertsolari talde oso ona dator, eta poza ematen dit, baina beldur pixka bat ere bai, ez baitakit gaur edo bihar entzulerik izango duten. Honetan bertsolari eskolak lan oso inportantea egiten ari dira, bertsozaleak sortzearen aldetik eta.

### **A. Bertsolaritzaren inguruan egun boom bat gertatzen ari dela begi-bistako gauza da: Eskolak direla, saio mor-doa txapelketen arrakasta telebista nahiz irratietan programak...**

F.G. Guk lehen esan dugun garai horretan, beste bertso gose bat ikusten zen. Noizean behin entzuten ziren bertsolari onak eta hemen Ordizian, Legorretan, zaletasun gehiago zen, gaur adina entzuten ez zelako eta gaur bezalako erraztasunik ez zegoelako alde batetik bestera mugitzeko orduan.

P.I. Maila bateko bertsolari gutxi ziren. Horiek gaur izango balira ere onak izango lirateke. Zenbat izango ziren, bada? Zepai, Txapel, Uztapide... Zepai izugarri gustatzen zitzaidan, orain ere haren saioak entzuten gustura aritzen naiz; potu eginda ere hark beti joskera egokiko zerbait esaten zuen.

F.G. Uztapideri entzun nion nik: “Zepai bertsolari ona da oso; orain, hona etorri denez gero, nabarmentzen da atzeratu egin dela, bere moduko asko ez du kantatzen aritzeko eta txarrekin aritu behar horretan...”

**A. Zuek belarria gozatzeko eta ikasteko maisu handiak izan zenituzten beraz. Baina kantatzeko gogo hori egin egiten da edo zer?**

P.I. Gogo aspaldikoa da. Jaiotzetik ekartzen da hori. Nik ez nuen pentsatzen plazara joaterik sekula, eta joan egin behar nuela esaten hasi zitzaidan jendea eta... Orduan, Basarri eta Uztapide ikusita, etxean aritzen ginen. Anaia bat badut bertsoan aritzen zena, ni baino hobeto ere bai orduan, eta biok: «Gaur hi Basarri eta ni Uztapide»... Oso gazterik hori. Hamabi urte nituela taberna batean ere kantatzen hasia nintzen.

F.G. Berez datorrena, era batera edo bestera gaztetan hasitakoa izango da. Orain plazara irtetea beste gauza bat da. Ni mendian artzain ibiltzen nintzen. Berez bertsolaria denari nahiz berak ez ondo kantatu, tankera laster ematen zaio. Gero entzutearen poderioz, buruan gordetzen genituen bertsoak, batik bat onak zirenak.

P.I. Bertso ona behar du izan hor buruan gordetzeko eta ez da sekula ahazten. Bertso paper eta holakoetan aukera izugarria izaten zen. Ordiziako ferian bazen bat bizkaitarra, beso motza, izugarritzko bertso-sorta ekartzen zuena. Kantore oso ona! Bertsoak kantatzen zituen eta saldu gero. Beti erosten genion papera. Beste bat ere bazen, Bernardo Txirrista-ka, begi bakarra, hark berak jartzen zituen bertsoak, erdaraz eta euskaraz nahasian, galtzaundi doinuan...

F.G. Guk ere egin izan ditugu honelakoak, nahiz erdaraz gutxi jakin...

P.I. Batean hasten zen:

*Lo menos tengo cien millones hori diru jakinian y los billetes del banco cojo zilarrezko kofrian tengo pueblos enteros Malaga aldian tengo dos mil molinos gau ta egun lanian tengo*

*un gran piano bizkarran gainian porque alli dormia lastozko ohian*

F.G. Plaza gutxi egindakoak gara gu, txapelketaren bat, Loiolan eta.

P.I. Orain dela urte batzuk, lehentxeago, txapelketa nagusiaren hasieran, hortxe pixka bat aritua naiz Bizkaian pare bat, Nafarroan eta.

F.G. Goierrin gu batere jardun gabeko plazarik ez da izango ordea.

P.I. Afarietan-eta asko ere.

F.G. Bertsotan aritu behar duenak beharrezkoa du astean pare batetan edo aritzea. Lizaso zaharrak esan ohi du herdoildu egiten dela makineria bestela.

P.I. Tabernatik plazara asko aldatzen da, eta plazan hasi behar duenak han entsaiatu behar du, astean saio bat eginez gero hobe, eta bi eginez gero gaizki ez.

F.G. Fernando sariarekin hasi ginenean astean saio bat egiten genuen eta bentaja ikaragarria izaten zen hura. Bertsolari onarekin egun batean arituz gero hurrengo egunean gauzak errazago etortzea-edo nabaritu izan diot nire buruari.

P.I. Artean errota martxan edo...

F.G. Bertsolari onarekin aritzea hobe, hari beti hartzen zaio-eta zerbait. Bertsolari zahar batek esaten zuen: «Bertsolari onekin jarduten naiz eta pozik, baina beste erdipurdiko horiekin lan txarra jartzen zait». Bertsolariak bere arrastoa egiten du nonbait...

P.I. Uztapidek ere esaten zuen, bestalde, herrietan izaten diren sasi-bertsolari horiekin jardun egin behar zela; edukitzen zituztela hitz batzuk beste inork erabiltzen ez zituenak, beti zerbait ikasten zaiela...

F.G. Uztapidek zuen sasoiarekin edozeinekin arituko zen ondo.

**A. Francoren garaian hamaika traba eta ezintasun ere ezagutu zenuten, ezta?**

P.I. Uztapidek berak ere esaten zuen Zepaik ez zuela gerra ondorengo garai hartan Francori buruz ezer esan gabe saio bat bukatzen. Halaxe esaten omen zuen: Horregatikan nahiko euskaldun bada sartua lurpian Ogi zuririk ez dugu jango hori bizi dan artian

Gu ere zer edo zer esaten arituak izango gara... Gorriak ikusitakoak gara gu ere, Mendizabal gaztea hasi berria zenean, bazkaritan ginela, atrako bat medio eraman gintuzten, eta badakizu, horiek egurra eman egiten dute.

F.G. Garai bat izan zen bertsoak kantatzera joan eta beti nortasun agiria eskatzen zutena.

P.I. Franco bizi zen artean ez zen berriketarik, badakizu, beldur pixka bat pasatakoak gara gu.

### **A. Gauzak asko aldatu al dira bertsoaritzan?**

F.G. Gaietan orain jakinduria gehiago eskatzen zaio bertsolariari.

### **A. Publikoari musu ematera jotzen omen du orain bertsolariak.**

F.G. Publikoak nahi duena egitea ez da erraza, jende klase asko dago eta. Bertsolariak ahal duena egiten du beti, tangorik ez da egongo hor. Denen gustua egitea zaila da, berri, jende asko dagoen lekuan.

P.I. Kantatu ere izugarri egiten da orain, egun berean bi plazatan eta gai beretsuak igoal, askotan gogo gutxiz aritzen dira. Horrek ekar dezake bertso txarrak kantatzea. Neroni ere gertatu izan zait, lehen pasatako gaiak behin eta bitan kantatu beharra. eta sakondutakoak gehiago sakontzea lan zaila izaten da. Gai bat askotan ibiltzea ez da ona bertsolariarentzat.

F.G. Gauza berriak ateratzeko gaiak kanbiatzea beharrezkoa da.

P.I. Orain, egunero, periodikoa leituta egon behar badaezpada ere. Lehen garai batean holakorik gabe ibiliko ziren baina...

F.G. Horregatik esaten dut batere bertsotan egin behar duena jakinduria izatera behartuta dagoela. Ni horretan nago, bere denbora hartu behar da, ez dago beste bueltarik.

P.I. Hor Amurizak esan duen bezala, jendea zahartu egin da. Berak dioen moduan lan egitea zaila da oso ordea.

F.G. Bera bezalakoentzat eta...

P.I. Neretzako hera punta-puntakoa da, kategoria ikaragarria du.

F.G.Hoberenetakoa da.

P.I. Bertsolari bezala gehiago ere badaude, Lizaso bera bertsolari ikaragarria da, Lopetegi, eta honela esaten hasiz gero luza daiteke lista.

### **A. Orain zertan duzue burua? Bertsoekin gogoratzen al zarete?**

F.G. Berez bertsolaria dena bertsoekin nekez ahazten da. Egunak pasatzen dira akordatu gabe, eta gero derrepentean... Askotan eskuak lanean eta burua bertsoetan edukitzen dugu.

P.I. Artzaintza zer moduzkoa da, hori ez dut probatu?

F.G. Ona seguru asko, bere gisa bertsoak pentsatzeko. Xalbador zena landuko zen artzaintzan aritzen zela.

P.I. Gero ere nabarmentzen zitzaion bakarrik gehiago landu zela.

F.G. Lagunekin ona zen, baina bakarka askoz ere hobea. Zepai zena berriz lagunekin hobea zen.

P.I. Guk ere hitzetik hortzera, binaka jarrita, egiten ditugu saio mardulenak.

F.G. Neretzat horixe da bertso saio hobereana, binaka.

P.I. Kantatzeko ere bai.

F.G. Entzuteko ere hobereana.



## Omenaldia'91: agurreko bertsoak



Omenaldiko egunean publikoa agurtzen

Hurrengo bertso hauek ez dira agertzen aipatu dugun libururik horretan, liburua egin ondoren kantatuak baitira. Hain zuzen, omenaldi egunean bertan Donostian kantatuak, publikoa agurtzeko:

Horra, entzule guzti-guztiori,  
agurra lehendabiziko;  
gaurko egun hau gogoangarri  
nere denbora guziko.  
Kezka bat daukat zazta ta zazta  
hain eztenkada biziko,  
omendu behar ta omendu gabe  
norbait ez al zen utziko!  
Nik honenbeste merezi badut  
nork ez zuen mereziko?

Omenaldirik omenaldi hor  
areto edo plazikan...  
Zeinen urduri ibili naizen  
nork ez du eman trazikan?  
Etorri baina etxean egon  
nahiago dala kasikan  
baina munduan arantzik gabe  
ez baitago arrosikan;  
rato txar batzuk pasatu ditut  
baina orain nago pozikan.

Bete-beteko eguna da hau  
ezertxo ez du hutsunez,  
horregatikan esker beroak  
nere arretarik sutsunez.  
Harritu eta txoratzen nago  
jendearen erantzunez,  
inguru hontan pozten ez dana  
ez dago ondo zentzunez,  
lagun jatorren bertsoak eta  
zuen txaloak entzunez.

Sari bat dator alde batetik,  
bestetik ere zedoze,  
eta etxean pilatu behar  
hainbat oroigarri klase.  
Zerbait itxaro banuen ere  
horra azkenean ase.  
Eskerrik asko Jaurlearitzari  
Aldundi ta Udaletxe,  
eskerrik asko beste guztiei  
berdin hauei bezelaxe.

Gosariak'e agur egin du  
tripak daduzkat plakian,  
bazkariaren eskatimuan  
isil ezin edukian,

eskerrak zita gaur dadukagun  
restaurante egokian,  
famili haundi bat mahaiaren jiran  
eserko gera aulkian,  
ez baita ezer txarrik izango  
*Dana Ona* dan tokian.

Donostiako omenaldirik aurretik Idiazabalen eta Zaldibian ere izan ziren omenaldiak. Zaldibiako bertso-saioaren ostean egindako agurreko bertsoak dira sail honetako azkeneko hauek:

Mundu honetan beti da zerbait  
tristetu edo pozteko,  
bizitza honen hari laburra  
luzatu edo mozteko,  
eta hau diot ohitura zaharrez  
zerbait esaten hasteko:  
Gabon Jainkoak guzti-guztiori  
herritar da erbesteko.

«Zuek omendu behar zaituztegu»  
esan ziguten hain zuzen,  
guk erantzuna: hori guretzat  
gehiegizkoa ez al zen  
Haiek berriro: «Ideia hori  
ez dago uzterik galtzen»,  
eta obeditu egin behar guk  
gogor hartu baigintuzten.

Hainbat lan eta hainbat egintza  
omendutzeko gu hala,  
Bertsolarien Elkarte berak  
lotu lehenengo uhala,  
horregatikan denori esker  
bihotza eskuan dudala,  
ahaztu gabeen Idiazabal  
ta Zaldibiko Udala.

Lehengo igandez Idiazabalen  
ta gaur Zaldibiko plazan,  
hainbat egintza ta hainbat ekintza  
guztia gure gorantzán.  
Ez genezakeen hori guztia  
guk era honetan jasan,  
bihotza edo hor dagon zerbait  
debila egondu bazan.

Urtarrilaren hamahirua da  
eta ez nauka hain lasai  
Donostiraino joan beharra,  
gauza gehiago ere bai,  
han elkaturik elkarren hurbil  
hainbat arreba ta anai,  
guztiok ongi pasa dezagun  
beste ezer ez nuke nahi.

Luzeago ere ari ninteke  
orain ari naizen eraz,  
hainbeste gauza esan nahi banu  
badauzkat eta aukeraz,  
baina hobe det bukatutzea  
kontuak ongi ateraz;  
agur hainbestez guztioi eta  
Donostira arte beraz.

## Goierriko bertsolariak

---

### Joan Ignazio Begiristain

«Juan Ignazio Begiristain joan zaigu», komentatzen genion aurrean egokitzen zen guztiari, 2002ko uztailaren bateko iluntzean, Santa Isabel bezperan, eta bere jaioterrian, Ataungo Aian, festak hastear zeudela. Lagunarteko bertsolaria zen Juan Ignazio. Hil zen egun berean lagunarteko bazkarian parte hartzekoa zen; besteak beste, Mañukorta tar-tean zela.

Ardiak hemengo larreetan utzi eta bera larre hobeen peskisan joan zitzaigun. Bereziko zirrara eragin zidan, ustekabean jaso bainuen abisua eta haren gaztetasunak ez zuen horrelakorik iragartzen.

Osinalde Sarian ikusi genuen lehenengo aldiz txapelketan. Ez zuen irabazi, baina ez en esku-hutsik itzuli etxera: bertsolaririk gaztenaren saria eman zioten. Handik laster, Artxanberri sarian neurtu zen hurrena: horrez gain, Gipuzkoakoan eta Euskal Herri osokoan ere parte hartua da.

Hala ere, ez dezakegu esan txapelketako bertsolaria zenik. Beste asko bezalaxe, askoz hobeto moldatu ohi zen bazkalondo edo afaloste batean. Estilo zaharreko bertsolaria zela esatea ez dakit zuzena den, baina iturri zaharretik asko edana zela esango nuke; adibidez, Uztapide eredutzat eduki zuen beti.

Oso kantaera gozo eta atsegineko mutila zen. Haren bertsoa erraz sartzen zen belarritik, eta gogoan hartzeko ez zen zaila izaten. Arrazoiari ematen zion garrantzia, eztabaidari ez zion muzinik egingo, eta umorea behar zenean gutxik eramango zioten. Halabeharrez, Gabirian bi urtetan segidan beste bertsolari baten ordezkantatu behar izan zuen, eta bigarren urtean hala esan zuen:

Bi urtetan segidan  
ari naiz suplente,  
hurrengoan titular  
ekarriko ahal naute!

Nolabait esateko, Lazkao Txiki, Goiburu, X. Zeberio eta gurekin hezitako bertsolaria zen, eta hortik atera ditzakegu kontuak, gutxi-asko, zer bertso-mota gustatuko ziztaion.

Mostra gisa, haren bertso pare bat gogoratuko ditugu. 1976an izan zen lehengo Artxanberri saria. Gai batek honela zioen: «Gure berri bi aldetatik dago zapaldua, herri bezala eta langile moduan». Hau da Begiristainek bi bertsoetako bat:

Gure herriko burrukak ia,  
jaunak, egin digu gainez,  
eta guk ere egurra beti  
beste batzuen ordainez.  
Zapalkuntza da herri honetan  
dabilena zoritxarrez,  
gerra alderdi askotan eta  
zorionikan inun ez.

Gero bi bertso kantatu behar izan zion gai bati. Gutxi gorabehera horrela zegoen formulatua: «Hamar urte dira erretiroa hartu zenuela».

Daukagun jornalakin  
ez gehiegi poztu,  
hortikan ez liteke  
inor aberastu.  
Hamar urte hauetan  
ni bizi naiz juxtu,  
Begiristain gaixoak  
sobraanterik ez du.

## **Florentino Goiburu**

Florentino Goiburu eta biok kintoak gara, baina adin horiek ondo pasatuta geunden elkar ezagutu genuenerako, nahiz eta gero hamaika aldiz ibili garen elkarrekin. Uste dut Legorretako Jainkonean egin genuela topo lehenengo aldiz. Nik ezagutzen nuen hura, baina ez genuen tratabiderik. Aditzero bai, ordea. LazkaoTxikik behin baino gehiagotan esan izan zidan: «Hiru bertsolari zaudete Goierrin: Ataungo Joxe Mari Begiristain, Idiazabalgo Florentino Goiburu eta hi heu». Hori entzundakoan poz pixka bat hartzen nuen, baneukan gogo beste biei entzutekoa. Ordizian azoka berezia egiten den iraileko asteazkenean, 1960an, gertatu zen hori.

Orduan bertsolari-txapelketa izaten zen Ordizian. Goi-zean bertsoak entzuten egon eta arratsaldean lanera joan nintzen. Gauean atera nintzenean nik banekien bertsolariak nontsu egongo ziren: Aldasoro tabernan; esan eta izan. Bi sailetan banatuta ari ziren kantuan, baina denak elkartu ziren: Legorretako «Jainkoa», Lazkao Txiki, Ikaztegieta Azentzio Olaberria, Bixente Mujika «Etxaburu», eta Florentino Goiburu. Orduantxe entzun nion lehenengo aldiz.

Bestalde, badut egun horretako bertsoa gogoan jaso. Momentu batean, Lazkao Txiki eta Azentzio «Beltza» (ezizen hori esaten zioten) aritu ziren. Azentziok andrea famatzen zuen, halako familia hazi duela, eta... (benetan sail handia dira Olaberriatarrak). Lazkao Txikik bertso hau bota zion:

Zuk zeretzako hauta zenduen  
emakume berezia,  
horretan ere izandu dezu  
askok ez duten grazia,  
baina diozun hainbat famili  
baldin badezu hazia,  
hain jostun ona baldin bada ere  
izan du zeini josia.

Hurrengo bertso hau ere tabernakoa da: nik Goibururi kantatua Ordizian, 1971n:

Gazte denboran Urbia aldeko  
artzai maitea izan zan,  
han ibilia ardi kontu ta  
pagopetako «etzantzan»  
baina luzaro han segitzea  
kasi lastima ez al zan?  
Gaur hemen behean jarrai dezala  
bertsozaleen artzantzan.

Azkenik, Goibururen bertso pare bat komentatu nahi nitzuke. Nik irabazi nuen 1974ko txapelketa hartan polemika dezente handia esango nuke, sortu zuen haren bertso batek. Gaia oso zuzenekoa zen. «Zein da zuretzat bertso laririk onena» ;honela da Goibururen bertso polemiko hori:

Leitzan jaio ta Orion  
bizi dana herriz,  
hoberentzat jotzen det  
rimaz eta neurriz;  
kantatzen aho-sapai  
eztitsua berriz,  
zein ez du txoratutzen  
bere bertso berriz?  
Ez dakik holakorik  
sortuko dan berriz!

Orduan esan zen epaimahaiak pototzat hartu zuela bertso hori. Baina ondorengo egun batean oharra atera zuten ezetz esanez, alegia ez zutela pototzat hartu. Dena dela, Goiburu gogor haserretu zen, eta uste dut arrazoi zuela. Nola nahi ere, bertso hori bigarrena da, eta niri neuri lehenengoa hobea iruditzen zait. Zerbait esatekotan, bigarren bertsoa lehenengoaren osagarria da. Hona hemen:

«Bertsotan onena zein?»  
galdetzen didate,  
bertsolariak onak  
gaur asko zerate;



nik ez det inor ere  
bajatuko bat'e  
baina bat jartzekotan  
sailetik aparte,  
neretzat ederra  
Manuel Lasarte.

### **Joxe Mari Aranburu**

Herritarra dut Joxe Mari Aranburu. Ni baino dozena erdi bat urte gazteagoa da. Luistarren festa batean, 1960 inguruan, kantatu genuen elkarrekin lehenbizikoaz; harrezkero, Jesus!, hamaika kantatu dugu, "kilometroka!". Hemen Goierri aldean plaza dezente egin dut nik harekin; hasi Olaberritik, Lazkao eta jira honetan. Bolada batean, Zaldibiako Estanko taberna izan genuen biltokia; afaldu eta noizko aspertu gu bertsotan. Lehen ere esan dizuet, nire amodioa bertsoa izan dela. Ez dakit horregatik ez ote nintzen mutilzahar gelditu.

Joxe Mari oso ausarta da: etortzen zaiona blasta! botako du konplexurik gabe, eta ez da kualitate txarra bertsotan lan ona egiteko.

Oraindik ere, elkartzen gara: Ordizian asteartero, eta beste bilera batzuetan; adibidez, lehen esan dudan mendiko irtenaldietan, eta hura tartean bada saioa garantizatuta dago, kantitate aldetik behintzat.

### **Hilario Nazabal**

Joxe Mari Aranburu bezalaxe, herritarra dut Hilario, auzokoa. Bentaberrin, non bestela?, ezagutu nuen bertsotan. Mitxelenarekin eta Irurako Frantzisko Arregirekin ari zen. Hilariok ez zuen inoiz eman plazarako pausorik, baina ez bertsolari txarra zelako. Uztapidek-eta estimatzen zuten. Hemen Goierri aldean, ez dakit zergatik, beste eskualde batzuetan baino gehiago kostatzen zitzaion bertsolariari jendarean hastea. Lazkao Txiki bera ere oso berandu hasia genuen.

Nik askotan kantatu dut Hilariorekin, eta ondo konpondu izan ginen beti. Bertsozariz aparte, bertsozale handia izan da. Bertsozaririk inon sumatuz gero, ez zuen hutsik egingo. Horretan biok ere izan dugu antza.

Baina gauzak nola izaten diren. Liburu hau idazten ari nintzela hil zen, joan den San Blas egunean.

Berez, hiletako eliz funtzioaren ostean kantatzekoa nintzen, baina egun hartan gaixo egokitu, eta ez nuen joaterik izan. Ordainez edo zorrak kitatze aldera ipini nizkion bertso hauek:

Zelai-eder ta Etxabarruti  
hor zen zure gaztaroa,  
gure etxeko ataritikan  
hainbat aldiz igaroa,  
izaten baitzen ubide edo  
ote, belar ta garoa...  
Biosolako iturrikan  
aldiz eginaz tragoa.

Txakurra zaunkaz etzun orduko  
atera izan nintzan ni,  
izan ere hain setatia izan  
guk genuen txakur Toni.  
Hilario han agur eginez  
haur gazte eta aitoni  
baina helburu nagusia  
izango zuen Anttoni.

Amistadea hartu genuen  
bi auzotarrek bezela,  
ta banakien nik Hilario  
bertsolari ona zela.  
Nere burua juzkatzen nuen  
eskasa edo txepela,  
baina nozbait'e ekin genion  
ez zitekean bestela.

Mila beatziehun berrogeita beati  
edo hamargarren urtean,  
hamsei edo hamazazpi urte  
izango nitun artean,  
sermolari eta herriko apaiz  
lagun jatorren tartean,  
lehenengo aldiz kantatu gendun  
luistarren festa batean.

Grina bat edo bestea izan  
gizakia da gizaki,  
disfrutatzeke ta gozatzeko  
nork bere erak izaki.  
Hainbat alditan bilduak gera  
aitzaki eta maitzaki,  
gozamen hori nolakoa den  
proba ez dunak ez daki.

Nik, Hilario, bota nahi dizut  
sentimenduen mezua,  
maite zenduen Euskal Herria,  
euskera eta bertsoa;  
lehenengotako kantu-laguna,  
irakasle edo maisua...  
Baldin bada go zuretzat bedi  
betiko paradisua.

### **Eusebio Igarzabal**

Ni baino hamaika bat urte gazteagoa den arren, sarritan ibili naiz Igarzabalekin. Lagun eta bertsolari bezala, bietan da ona Eusebio. Asko zor diot Igarzabali, toki askotara berari esker joan naizelako, eta bestela ere antolatzaile ona delako. Garai batean asko ibili zen Eusebio, baina bertsolari moduan lana bezain inportantea da promozionatzaile gisa egin duen lana. Bera da *Osinale Sariaren* aita. Hamaika lan egin zuen, orain adina aukera ez zenean, bertsolariak aurkitu eta zuziari piztuta eusten. Bera da lehen aipatu dudana adibide horietako bat: plazatik hainbeste abisu jaso ez arren, beti bertso-

laritzarekin konprometituta egon da. Isilpeko lana egin du askotan, baina oso garrantzizkoa.

### **Xabier Zeberio**

Igarzabalalekin adinean aldea badaukat, Zeberiorekin handiagoa. Zeberiorekin ere egokitu zait aritzea. Etorri handiko bertsolaria da. Hitzak eta, nik bezalaxe, askotan ez ditu gehiegi zainduko, baina arrazoietan ez da behin ere gaizki ibiliko. Herri bertsolari autentikoa da. Bolada batean, Begiristainekin sarritan osatu ohi zuen bikotea. Orain ere asko dabil. Batez ere. Mañukortarekin ibili ohi da.

### **Mendizabal eta Murua**

Nire aldean gazteak dira biak ere, baina jardun dugu elkarrekin. Oraindik plazetan dabiltzan bertsolariak dira. Biak dira, Lazkao Txikiren ondotik, Goierriko ordezkariarik inportanteenak; biak Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren finalera iritsitakoak. Uste dut horrekin esana dagoela dena. Baina oraindik beste zerbait erantsi nahi genioke: Iñaki Muruari esker, Goierrik dauka Bertsozale Elkartearen lehendakari izateko ohorea. Hori ere aipatu beharrekoa, noski.

Liburu honetan badira Mendizabalen bertsoak, Goierriko taldearekin kantaturikoez aparte, eta orain Muruaren bertso bikain bat gogoratuko dizuet. Usurbilen kantatua da, 1995ean, final-laurdeneko saioan. Ni ez nintzen han, baina ondorengo egun batean irratiz entzun eta gogoan jaso nuen jasotzeko modukoa baita. Puntuari emandako erantzuna da.

Alkoholak hondatu du  
hamaika pertsona.

Horrek galerazten du  
sarri zoriona,  
nahiz neroni ez naizen  
sekula egona,  
errukiz ikusten dut  
mendean dagona.

Goierriko bertsolarien zerrenda asko luza daiteke oraindik: Elortza, Munduate, Sarriegi, Goikoetxea, Zubeldia, etab., baina hementxe utziko dugu. Batzuek jada zerbait eginda-koak, Elortza bezala, eta beste batzuek egin dutenak eta oraindik egingo dutenak.

### **Nikolas Zeberio**

Nikolas Zeberio ere jarduna da bertsotan. Baina lanik handiena gai-jartzaile moduan egin du. Garai batean herriz herri asko ibilia da bertso-jaialdietan gaiak ipintzen eta aurkezle lanetan. Goierriko taldearen entrenatzaile ofiziala ere bera izan zen bolada batean. Horrez gain, bertso eskoletan ere aritu da irakasle, adibidez Lasarte-Orian. Bestetik, izan da, era berean, Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile taldekoa ere.

### **Roman Elosegiri (bertsozaleen ordezkari)**

Roman Elosegiri aipatu dut Zaldibiako bertsozaleen ordezkari moduan. Hark, bertso on samarra entzunez gero, azkar hartuko du gogoan. Gutxi izango da hark adina bertso buruz dakienetik.

Oso inportantea jotzen dut bertsozaleak bertsoak gogoan hartzea, eta gero dabilen tokian harren berri ematea, nahiz eta batzuetan hitzen bat edo beste aldatzeko arriskua egon. Tamalez, orain ez da hartzen gogoan lehen adina bertso. Bi faktorek eragozten dute: zintan jasotzen direlako burua nekatu beharrik eza, eta, bigarrena, gogoan hartzeko bertso luzeegiak izatea. Bertsoa, berez, bat-batekoa behintzat, sententzia zorrotz eta motzean emateko generoa da. Hori da, behinik behin, nire iritzia.

Roman hartu dut sinbolotzat, baina gure etxean bertan ere sekulako afizioa izan da. Adibide gisa bihoa honako hau: Lazkano eta Agirre ziren Saturdin bertsotan; hurrengo hau haiek puntutan kantatua da. Gure Rufino eta Sebastianek jaso zuten gogoan. Artean mutikoak ziren, batek 13 eta besteak 12 urte izango zituzten. Gero, beraiena balitz bezala kantatzen zuten, noizbait egia aitortu zuten arte.

Agirrek: Jarriko al diogu  
alkarri puntua?  
Lazkanok: Zeinekin hasten haizen  
atera kontua.  
Agirrek: Probatu nahi al luke  
nere talentua?  
Lazkanok: Oraindik ez dit galdu  
entendimentua.



Bittor Galarraga, Patxi Iraola, Altzo Txiki eta Xapre,  
Santageda eskean herrian, 1980.

## Bestelako saioak

---

### BAT-BATEKOAK

#### Eusebio Igarzabal eta biok Legorretan

Hurrengo bertso hauek Eusebio Igarzabal eta biok Legorretan kantatuak dira. Bertsoan hasi aurretik, gai-jartzailerak txistea kontatu zuen: “Gizon bat, besoa sendatuta ere, tokean duela dabil. Lagun baten ikusi eta esaten dio: «Hi, Joxe, oraindik horrela?» Eta Joxek: «Bai, moteil, ezin diat hauxe baino gehiago jaso; izan ere, mediku txotxolo horiek!”, eta hori esatean buruz gora darama besoa. Igarzabal gaixoa eta ni medikua. Igarzabal hasita, hauxe izan zen saioa:

Igarzabalek:  
Zelebrea da hemen  
daukagun kasoa,  
medikua, zureztat  
nire eraso,  
bajan daramakit nik  
hilabete osoa;  
noiz senda behar dezu  
ai nere besoa?

Iraolak:  
Ez zaitetz modu hortan  
tekelan aritu,  
sendatuta aspaldi  
zitzaizun gelditu;  
ukalondoa gora  
ezin dula bitu,  
baina baxoerdiak  
bapo hartzen ditu.

Igarzabalek:  
Baxoerdiak ederrak  
dira neretzako,  
baina berari ere  
gustatuzen zako;  
hemen ez dago inor  
jan-edanez flako,  
honek konprenitzen dit  
berdin garelako.

Iraolak:  
Gogorik ez daduka  
egiteko lana,  
ta astero bisitan  
dator neregana;  
herrian ere badu  
alferraren fama,  
gaitz hori da medikuz  
sendatzen ez dana.

### **Goeirriko bertsolari-taldea: EITB festan**

Goiuria jatetxean ospatu zen EITBko «Hitzetik hortzera» programaren amaiera. Ezkontza bat ospatu behar, eta, hori egiteko, honela banatu zituzten paperak: Xabier Zeberio, apaiza; Patxi Iraola, aitapontekoa; Begiristain, senargaia; Mendizabal, andregaia; Goiburu, amabixia; eta Igarzabal, argazkilaria. Ordena honetan kantatu genuen: 1. apaiza (Zeberio), 2. aitapontekoa (Iraola), 3. senargaia (Begiristain), 4. andregaia (Mendizabal), 5. amabixia (Goiburu) eta 6. argazkilaria (Igarzabal):

Zeberioek:  
Aitaren Semearen  
Espiritu Santu,  
boda hastera doa  
organo ta kantu,



Goiurian nahi ditut  
bi gazte juntatu;  
elkarri baietz esan  
zoazte kontentu.

Iraolak:  
Alaba ile-gorri  
buru tentekoa,  
apaizaren aurrean  
lehen egitekoa;  
ezkontza ez da izan  
derrepentekoa...  
noizbait dela ere pozik  
aitapontekoa.

Begiristainek:  
Urte batzuk badira  
biok gabiltzala,  
izan nahi det zuretzat  
gizon serbitzala;  
Mikela, beti nahi det  
nik zure itzala  
eta apaiz potoloak  
ezkondu gaitzala.

Mendizabalek:  
Nobiotan pasea  
gera hamar urte,  
koroï zuriarekin  
nator nolabaite;  
hau da emozioa,  
Juanixio maite,  
korbata ondo jarri  
formal porta zaitte.

Goiburuk:  
Nik ere orain zerbait  
beharko det esan.  
ekarri nautelako  
amabitxi gisan.  
Holako ezkontza bat  
eginik elizan,  
gero apartatzeko  
ez dedila izan.

Igarzabalek:  
Fotografo gisara  
ni hemen nagola,  
nahiko materiala  
bestetik dagola,  
fin lan egin nahi nuke  
ahal balitz inola,  
zai dauzkat *Interviu*,  
*Lecturas* ta *Hola*.

Zeberioek:  
Zenbat kontseju eder  
bi gazte jatorri,  
neska rubia eta  
mutil musu-gorri,  
gero batek utzita  
besteak jo horri,  
reklamazioekin  
nigana ez etorri.

Iraolak:  
Bedeinkatu itzazu  
nahiz ez diran gazte,  
eta gaurtik aurrera  
senar ta emazte;  
ekarriko ahal dute  
haur bat edo beste,  
aitona eta amona  
egingo gaituzte.

Begiristainek:  
Larrosaren antzeko  
neskatxa bikaina,  
buru argia eta  
gorputza arina.  
Uste det bazerala  
neretzako aina,  
petxu txiki samarrak  
daduzkazu baina.

Mendizabalek:  
Apaizaren galdera  
ta errezo pila,  
behatza luzaturik  
ez nago trankila;  
gizona, zer zabilta,  
hau da iskanbila!  
Praketa irekita  
eraztunaan bila.

Giburuk:  
Mutil polita da nik  
ekarri detena,  
eraztuna ahaztuta  
etxetik ertena;  
neska, etzazu izan  
horrenbeste pena,  
ekarri baldin badu  
beharezkoena.

Igarzabalek:  
Aita-amabitxiez  
zer esan ez dakit,  
ederra ateratzeko  
hain zailak baitzaizkit,  
nobioak aterako  
nituen nik polit,  
apaiz potolo horrek  
utzi izan balit.

Zeberioak:  
Soineko txuri, zinta  
traje ta korbata,  
andregaiak haserre  
daduka kopeta,  
eraztunaren partez  
ekarri korneta,  
falta baldin du nik  
badaukat gordeta.

Iraolak:  
Alaba kariñoa  
nola hartu zinun,  
tontorra badu baina  
horrek burua nun?  
Praketa irekita  
pailazoen modun,  
auskalo azkenean  
zer ateratzen dun.

Begiristainek:  
Eraztuna ahaztuta  
nik huts nabarmena,  
saia det praketaren  
goia eta barrena,  
eta bertan aurkitu  
tresnarik onena,  
ilunpean berdintsu  
ikusten duena.

Mendizabalek:  
Luzatu eskua ta  
luzatu besua,  
ni naiz zure kabira  
jaitsi den usua.  
Oraintxe bai oraintxe  
bete da plazua,  
eman dezagun gure  
lehenengo musua.

Goiburuk:

Neskatxa honek badauka  
mila martingala,  
lehenengo musu eske  
nola edo hala,  
juzkatzen det gezurti  
baten igoala,  
nik ez det sinistuko  
lehenengua dala.

Igarzabalek:

Hartza gisako bat hor  
dadukate apaiz,  
neskatxa txata da-ta,  
mutila, hi zer haiz?  
Holako boda baldin  
tokatzen bazait maiz,  
makina puskatu ezik  
aberastuko naiz.

Zeberioek:

Amapontekoa hor  
begira zoratzen,  
faktura nola zaion  
padrinoi tokatzen;  
bota hamar mila duro  
has zaitez kontatzen,  
gainera IVA-rikan  
ez dizut kobratzen.

Iraolak:

Ederki kobratzen du  
apaiz honetxek'e,  
hamar bat mila duro.  
bilete edo txeke;  
gutxiagoz egin det  
makina bat neke;  
zeremoni koxkor hau  
ez da oso merke.

Begiristainek:  
Aitaponteko eta apaiz  
modu lotsagabez,  
baina ezkon berriak  
amistade onez;  
horra hamahiru txanpon  
maitasun seinalez  
har itzazu, maitea,  
eraztunan ordez.

Mendizabalek:  
Hamahiru zilar txanpon  
eman dizkit fin-fin,  
erregali horretxek  
barruan egin min;  
adi ezazu, senarra,  
behar dezu jakin:  
ez pentsa zabiltzanik  
tratuan nirekin.

Goiburuk:  
Senarrari ez eman  
horrenbeste lotsa,  
eta, neska, alaitu  
zedorren bihotza;  
nahiz hamahiru dirutan  
egin gaur ezkontza,  
gero zuretzako da  
gizon horren poltsa.

Igarzabalek:  
Nire estudiora  
orain goazela;  
entzun, neskatxa, zuk han  
daukazun papela:  
eskatzen dizut arren  
jarri zaitezela,  
lehengoan Marta Sánchez  
jarri zan bezela.

Zeberioak:  
Uste det bete dala  
zuen desioa,  
eta firmatzea da  
obligazioa;  
honekin bukatzen da  
eliz-funtzioa  
eta har ezazue  
bedeinkazioa.

### **Lazkao Txiki, Enbeita eta hirurok**

Lazkao Txiki, Jon Enbeita eta hirurok 1981eko apirilaren  
11n, Zaldibian puntutan egindako saioa.

Iraolak:	Orain behar degula puntuetan hasi,
Lazkao Txikik:	lehen galdu deguna zerbait irabazi,
Enbeitak:	askorik ezin geinke orain guk ikasi,
Iraolak:	lehen saltsa gehiegi ez al degu nahasi.
Lazkao Txikik:	Neuk ere ez diot hain ederki iritzi,
Enbeitak:	gauzak diran tokian behar dira utzi,
Iraola:	seikoa seian eta zortzi bada zortzi,
Lazkao Txikik:	formalduko ahal gera bihar edo etzi.
Enbeitak:	Gauzak esan ditugu nolabait trabeska,
Iraolak:	dana txuxen ez zala nik ere dut kezka,
Lazkao Txikik:	zuek hasi baitzerate gauz hoiengaldezka,

Enbeitak: kristorenak esanda  
gero «barka» eska.

Iraolak: Kristorenak esaten  
Erramu bezperan,

Lazkao Txikik: barkatu aurrez behar da  
pekatua esan,

Enbeitak: bertsolaiak begira  
nolakoak geran,

Iraolak: absoluzioa nork  
behar digu eman?

Lazkao Txikik: Zu komentu batean  
egona antxinan,

Enbeitak: hobe zu ere nirekin  
han egon bazinan,

Iraolak: baina handik irtena  
mundurako grinan,

Lazkao Txikik: hango mojekin hasi  
omen zen kuzinan.

Enbeitak: Han irakurtzen zuten  
infernu, zerua,

Iraolak: nola utzi zenuen  
toki eder huaa?

Lazkao Txikik: Mundua degu hotza  
ifernua berua,

Iraolak: sotanapean nuen  
nire endredua.

Iraolak: Han egondu zinan zu  
denbora luzian,

Lazkao Txikik: galdera: hilabete  
luziak al ziaan?

Enbeitak: dana ikusten nuen  
praileen klasian,

Iraolak: baina etsaia zuen  
sotana azpian.



Lazkao Txikik: Sotana azpiko hori  
 txarra zan orduan?  
 Enbeitak: Ez zan hain txarra ere  
 probatutakuan,  
 Iraolak: behetik «damu det, Jauna»,  
 goitik errezuana,  
 Lazkao Txikik: danborra falta zuen  
 makila bazuan.  
  
 Enbeitak: Lazkaok prailetara  
 joan behar zuan,  
 Iraolak: apenas damurik dun  
 ez zalako jua,  
 Lazkao Txikik: ez nuen nik irau<sup>ng</sup>o  
 zuen inguruan,  
 Enbeitak: asko ikasiko zun  
 honek komentuan.  
  
 Iraolak: Komentuan dagoke  
 bai zer ikasia,  
 Lazkao Txikik: bai esango balute  
 dakiten guzia,  
 Enbeitak: pentsamendua sobre  
 falta ikusia,  
 Iraolak: Jainkoak jakin zer den  
 hango malizia!

### **Lazkao Txiki eta biok, Junkerarekin, 1. saioa**

Lazkao Txiki eta biok jardun genuen kantuan afalondo  
 batean, Kepa Junkera soinu<sup>j</sup>olea lagun genuela. 1986ko kon-  
 tua da. Badira lau bat saio, aski luzeak gainera. Denak ez dira  
 oso bertso zuzenak izango, baina gure (nire) bertso-sistema  
 eta estiloa zein izan diren antzemateko egoki dator jardun luze  
 hau. Lazkao Txiki hasten da eta nik segi. Beraz, bertso inpa-  
 reak harenak dira, eta pareak nireak:

Lazkao Txikik :  
Joan daneko aspalditxoan  
isilikan geunden hemen  
eta gordeta edukitzeak  
ez du ederki ematen;  
«bertso batzuek kantatu orain»  
ari zaizkigu esaten,  
hiru-laubana bota ditzagun  
hoiek atseden dezaten.

Iraolak:  
Dudik ez dago nahi baldin bada  
eskuan degu gauz dena,  
hau zorionez gaurko arratsak  
gu mahai honetan gauzkena!  
Errespetua zintzo gordeaz  
ahal bada batak bestena,  
lehen ere egin izan degu-ta  
hau ez dedila azkena.

Lazkao Txikik:  
Ostiralean honela juergan  
askok gaizki esango dute,  
danen gustua egiterikan  
dagonikan ez det uste;  
hoiek kanpotik etorri eta  
guk nola ez hartu parte,  
ahal dan ongien bizi gaitezen  
bizi geraden bitarte.

Iraolak:  
Gaurko arratsez prestatu degu  
erromeria freskua,  
garai batean Bentaberrian  
izaten zan legezkoa;  
lehengo praileek esaten zuten:  
«hau da infernuko hauspu»  
baina zeruan jotzeko ere  
ez al da eder askua?

Lazkao Txikik:  
Infernuko hauspo deitzen zioten  
honek esan dun moduan  
baina, ordea, zer aldakuntzak  
egin diren gaur munduan;  
lehengo bateko ezta egunez  
harriturikan nenguan,  
boda zan eta han aldarean  
jo baitziguten lehenguan.

Iraolak:  
Beraz, orduan elizgizonak  
sartu zaizkigu zentzuan,  
denbora galtzen ibili gabe  
lehengo moda setatsuan;  
orain elizan onartu dute  
estimazio sutzuan;  
lehenago ere kondena gabe  
horrek hola behar zuan.

Lazkao Txikik:  
Hau infernuko hauspoa zala  
hamaika aldiz esana,  
izanez ere garai haietan  
pekatua baitzan dana;  
lehengoan berriz enkargatuta  
elizara eramana:  
aspaldi hontan ez da pekatu  
lehenago pekatu zana.

Iraolak:  
Pekatu zer dan kalkulatzeari,  
motel, ez zeukagu errez;  
lehen bere kasa etorri zana  
joaten ari zaiguk berez;  
orain penatan egon beharra  
sasoia aprobetxa gabez.  
Hain ona dala ta ibili gera  
Jaungoikoaren beldurrez.

Lazkao Txikik:  
Pentsamentua lehen pekatu zan  
ta egitea jakina,  
baina lehenago ez aprobetxa  
nik horrekin daukat mina;  
etorri zaigu zahartzaroa ta  
pasatu zaigu adina,  
orain daukagun gauzik txarrena  
pekatu egin ezina.

Iraolak:  
Lehen genduen sasoi on hura  
bere kasa bukatua,  
ez izan arren gure gorputza  
lehen gehiegi nekatua;  
orain ezinak galerazten du  
lehen berriz debekatua;  
premier ta gogoz egiten dana  
ote da ba pekatua?

Lazkao Txikik:  
Zenbat kate ta zenbat lokarri  
kasi min det sinistia,  
garai haietan pekatua zan  
pentsatzea eta guztia,  
eta orain gu zahartu gera eta  
zail da ona iristia...  
Jainkoak jarri zizkigun gauzak  
gizonak galeraztia!

Iraolak:  
Garai horretan jaio ginanak  
ez ginan ondo atera,  
hainbeste sermoi egiten zuten  
orduak gure kaltera  
eta nolabait eraman behar  
saio hau errematera:  
isil gaitezen, beste saio bat  
hemendik pixka batera.

Lazkao Txikik:

Bota behar det bertso polit bat  
neukan ta gogoratuta:  
lagunik gabe egina gaude  
makina bat pekatu-ta;  
edozein gauza egiten gendun  
pentsamentuak sortuta,  
mutil galantak egingo ginan  
gauetz eskuak lotuta.

Iraolak:

Orain aitortzen hasi hadi hi  
lehengo pekatu piloak...  
hobe gauean ein balitzaie  
eskuei korapiloak,  
horrenbeste lan ez zun izango  
honek dun apopiloak,  
oraindik senda ezinik dabil  
garai hartako kailoak.

Lazkao Txikik:

Gure Patxiren azken bertsoa  
despedidako izan da,  
baina nik ere bete nahi nuke  
orain iritsi dan txanda;  
ez genduen zer egin haundirik  
zutikan eta etzanda,  
garai horretan dena eskuz zen  
makinarikan ez zan da.

Iraolak:

Geure kulpa dek eta besteri  
zertako eman demanda?  
Eta ez zegok ezer galtzerik  
egia garbi esanda.  
Pekatu horrek beldurrez beti  
geu moldakaitzak izanda,  
gaur bezain samur izandu balitz  
iritsiko zuan txanda.

Lazkao Txikik:  
Berdekeritik nahikoa degu  
isildutzea guk hobe,  
beste edozein gauza esateko  
ere nola geran trebe,  
orduak joanak moja alabak  
eta praile hainbat seme,  
zenbat makina hondatua dan  
batere estrina gabe.

Iraolak:  
Batak besteai nolabait hartu  
behar diogu tinua,  
Joxe Migel nik honela daukat  
gaurko nere enpeinua;  
saio bat egin degu nolabait  
ez dakit zan engainua;  
orain Junkerak eta lagunek  
jo dezatela soinua.

### **Lazkao Txiki eta biok, Junkerarekin, 2. saioa**

Baina, gu behin hasiz gero, ugariak gara, eta berehala ekin genion bigarren saioari; oraingoa neu hasten naiz eta Lazkao Txikik segi.

Iraolak:  
Danak umorez gozatu asmoz  
bildu gera alkarrena,  
gaurko egunak zorionean  
hau da berez dakarrena:  
soinua entzun bertsoak kanta  
bertantxe daukagu dena,  
lehen saio bat egin degu ta  
oraingoa bigarrena.

Lazkao Txikik:

Eta bertsotan ari gerade  
erdi zahartuta bi lagun,  
baina oraindik zahartuagatik  
zenbat umore daukagun,  
gustatu eta kantatu gabe  
bestera ez degu nahi jun,  
gelditzen zaigun denbora pixka  
aprobetxatu dezagun.

Iraolak:

Bakoitza bere eginkizunez  
hemen behar degu ari,  
danok ez gera berdin talentuz  
gauza argia da hori;  
zahartuta ere ikusi ditut  
nik batzuek hor dantzari,  
lan hori utzi deiegun hoiei  
eta guk jarrai kantari.

Lazkao Txikik:

Zahartuagatik gure «Bedaiok»  
dantza egiten du txukun,  
benetan degu oin egokia  
nola soinu hala ttun-ttun;  
honuntza heldu dan momentuan  
zapatak besterik ez zun,  
eta alpargatak saltzen zeuzkanak  
zer suertea izan dun!

Iraolak:

Alpargata hoiek salduak dira  
hori dalako medio,  
horrek dadukan sasoian horrek  
ez du ez gutxi balio,  
urte askoan kontserba hadi  
heure saio ta jenio;  
hurrengoan'e era hortantxe  
etor hadi, Antonio.

Lazkao Txikik:  
Zahartuta hola dantzatutzea  
badauka nahiko meritu;  
lanean gutxi nekatzen dana  
hemen ezin errenditu;  
eta alpargatak beltz-beltzak dauzka  
dantzan ezin da gelditu...  
buruarekin a ze juegoa  
zuriak hartu balitu!

Iraolak:  
Hobe zuela zuri batzukin  
egin bazuen tratua,  
ile txuria eta beltz-beltza  
alpargataren trapua;  
gazte denboran Lizarragan da  
hori morroi serbitua,  
toki onean egon zan eta  
sasoian kontserbatua.

Lazkao Txikik:  
Lizarragatik Beasain aldera  
gero egin zun bisita;  
Indarrenera lanera joan zan  
hemen Zaldibin hezita;  
ni ezezikan bereak dago  
hori ere ikusita;  
baina eskola polita badu  
kardenalari ikasita.

Iraolak:  
Etxe horretan egona baitzan  
gazte-denboran antzinan,  
orduan ere gaur bezelaxe  
elkargandu izan ginan;  
zuk diozunez han ikasi zun  
kontserbatzeko doktrinan,  
lehertuta zeunden dantzan bezela  
lanean saia bazinan.



Lazkao Txikik:

Zu Lizarragan egondu zinan  
ni Abalingo moduan;  
makinatxo bat ikustekoak  
sortuak gera munduan;  
doktrina ere aurreti atzera  
bazenekien orduan,  
geroztik sarri huts egin dezu  
seigarren mandamentuan.

Iraolak:

Beraz seigarren mandamentuan  
zu zaude antza emana,  
ezin liteke berdina izan  
nik kalkulatzeko dedana;  
lantegi hori egoki samar  
izan liteke eramana;  
ez ote gero gaur huts egiten  
lehen azertatzen zuana!

Lazkao Txikik:

Ezin azerta duela orain  
Iraolak hala dio,  
zahartutakoan gaixotasunak  
bati sortutzen zaizkio  
gu ere berdintsu ez ote gaude,  
Patxi, ez naiz asko fio...  
apunteria ona du baina  
fusilak failatzen dio.

Iraolak:

Pentsatzen diat hire esana  
izango dala egia,  
horretarako hasiak gaituk  
horrela dek hitz-legia;  
lehenago ere esan diagu  
makina bat tonteria,  
disparatzen ez dun fusilakin  
alperrik apunteria.

Lazkao Txikik:

Hara disparo txarra deala  
aitortzen dik azkenean,  
fusila ere izurratzen dek  
piska bat zahartzen danean.  
Oraindik ere saiatutzen haiz  
apunteriko lanean,  
blanko berriak egongo ditut  
probako luketenean.

Iraolak:

Blanko berria jarriagatik  
ezin liteke abitu...  
Lotsarengatik oraindik ere  
liteke hori atrebitu.  
Intentzioa eduki arren  
ametsik ezin mamitu,  
disparo ederrak egin litzake  
muelleak ondo balitu.

Lazkao Txikik:

Hobe genduke guk hizpidea  
pixka-pixka bat zuzendu,  
«horrek lotsarik ez dadukala»,  
horrek gaizki ematen du,  
hiru bat seme edo alaba  
ditu jantzi ta mantendu,  
guk isilikan behar genduen  
lotsarik izan bagendu.

Iraolak:

Hitz bat gaizki nik, zu berehala  
Antonioren anparoan,  
nola sortua dun familia  
guztiz modu oparoan.  
Gurerik inun ez da aurkitzen  
lanean edo paroan,  
hala ere hainbat gazte kalean  
zer-suma daude korroan.

Lazkao Txikik:  
Hobe genduke hitz egitea  
geldi-geldi bare-bare,  
hirurogei bat urte ia ta  
oraindik mutil-zahar gaude;  
hala eta guztiz mundu honetan  
badago zenbait landare;  
hortelanorik ez zaigu falta  
gu geldirik egonda ere

### **Lazkao Txiki eta biok, Junkerarekin, 3. saioa**

Ondoren puntutan jardun genuen. Bertso asko dira. Besteak beste agintari berri eta zaharren gainean jardun genuen; Iruñan eta Errenteriako eskaparateak eta gertaturiko gauzak astindu genituen, gertatu berri samarrak baitziren. Ez dira bertso guztiak, mostratxo bat baizik:

Iraolak:	Sufritzen emakume sufritzen gizonak,
Lazkao Txikik:	agitzen jarri arte danak dituk onak,
Iraola:	nor nola engainatu ikasten egonak,
Lazkao Txikik:	gero ikusiko dizkik mendean dagonak.
Lazkao Txikik:	Kontua ugari bai alderdi danetan,
Iraolak:	bat bezain txarrak danak gobernu lanetan,
Lazkao Txikik:	asko fidatzen dituk hioen esanetan,
Iraolak:	berdinak omen ditut toki gehienetan.

Lazkao Txikik: Hemen jende gehiena  
zegen suminduta,  
Iraolak: asko agindu baina  
gutxi eman du-ta,  
Lazkao Txikik: jendea esku-hutsik  
asko aginduta,  
Iraolak: horrelaxe galdu du  
lehen zuen kondukta

Oharra: Felipe González zegoen agintzen.

Iraolak: Guardia zibila Iruñan  
dendatik ostutzen,  
Lazkao Txikik: lehengo oilo-lapurrei  
ez zaiek ahaztutzen,  
Iraolak: saiatu dituk hango  
kajoiak hustutzen,  
Lazkao Txikik: zail den hoiek zuzentzen  
ez badira zahartzen.

Lazkao Txikik: Hamaika urte dituk  
Prantxisko hil zala,  
Iraolak: nik gogoan zedukat  
orduko itzala,  
Lazkao Txikik: jakin dit moxorroak  
bizkor dabilzala,  
Iraolak: zerbaitek aztarrenak  
bukatu ditzala.

Lazkao Txikik: Zer eskandalo berriz  
piztuko balitza,  
Iraolak: «España una y grande»  
lehenbiziko hitza,  
Lazkao Txikik: hartu beharko genduke  
hamaika paliza,  
Iraolak: goian ere ez ote du  
San Pedroren giltza?

Iraolak: Lanerako presaka  
dituk hiru lagun,  
Lazkao Txikik: isil gaiten, jendeak  
jakinik zer nahi dun;  
Iraolak: erresetua gorde  
legez ohi den modun,  
Lazkao Txikik: soinuaren txanda da,  
guk buka dezagun.

### **Lazkao Txiki eta biok, Junkerarekin, 4. saioa**

Egun hartakorekin amaitzeko hona azkeneko saioa.  
Orain ere neu hasten naiz eta Lazkao Txikik jarraitu:

Iraolak:  
Egin nahi eta nahi hainbat ezin  
badaukagu nahiko lana,  
eta bestetik danok daukagu  
hemen eginkizun bana,  
lan zaila da eta zertan joko det  
harrokerizko afana,  
borondatea badegu eta  
egingo degu ahal dana.

Lazkao Txikik:  
Pasatzen degun arrats honekin  
pozez txoraturik nago,  
nahiko soinua nahiko bertsoak  
ta zer eskatu gehiago?  
Nahiago nuen holako asko  
egin baginu lehenago;  
zeruan ere ez gera izango  
hemen baino hobetoago.

Iraolak:

Bildu gerade elkarrengana  
gaurkoz horrenbeste lagun,  
esan dezuna egia da bai  
zer umorea daukagun!  
Soinu ta bertso edo hizketan  
badaukagu zertan jardun  
zerua ez dakit zer den nik baina  
hemen gozatu dezagun.

Lazkao Txikik:

Bilbaotikan etorri zaigu  
zorionez hiru gazte,  
lehen'e tristeak ez gera baina  
hauetxek poztu gaituzte;  
horren abilik munduan danik  
batek ez lezake uste,  
hauek badira ez dakien bat  
txoratutzeko hainbeste.

Iraolak:

Ona izan da gaurko egunaren  
festarako aitzakia,  
bizkaitar hauek agertu dute  
artistaren edukia.  
Soinujole eta bi panderista  
hirukote egokia,  
txorako huke begira balitz  
hemen Lorentxo Txikia.

Lazkao Txikik:

Zaldibiara aurtengo urtez  
iritsi zerate lehenen,  
zuek ikusiz pozez txoratzen  
jende dana dago hemen;  
zoragarriak zaituztegula  
danak ari dira esaten,  
ea berriz'e gaur bezelaxe  
sarri etortzen zeraten.

Iraolak:

Ezin hobeto porta zerate  
gaurkoan hemen lanean,  
erratu gabe xuxen sarturik  
egin zenduten planean;  
jendea ondo gozatua da  
gaur zuen aldamenean,  
berriz'e deia zuengana doa  
festarik behar danean.

Lazkao Txikik:

Jende guztia zuekin dago  
dena pozez eta bero,  
inork ez zuen zuengandikan  
horrenbesterik espero.  
Sinets zazue jende guztia  
harriturik dala gero!  
Hemengo errege zuen zerate  
euskara ikasi ezkerero.

Iraolak:

Beste mutil bat jaio zitzaigun  
auzoan, aldamenean  
eta geroztik lan egiten du  
borondate onenean;  
horregatikan hitz egin nahi det  
inor baztertu gabean,  
Bizkaitik norbait ekarriko da  
Xaprek ezin duenean.

Lazkao Txikik:

Beste gazte bat ere hor dago  
pandero-jolea edo,  
ikusten degu entsaiatuta  
dabilela egunero;  
mutil gazte bat oso bikaina  
sasoiko eta soltero,  
zeure bizitzan jo behar dezu  
makinatxo bat pandero.

Iraolak:

Eta bestetik nola ez dagon  
umore gabe tristea,  
hain zaila da dohain guztiak  
era hortan iristia;  
gorputz ederra aurpegi alaia  
bestetik gazte-gaztea  
ta pandero bat utzi orduko  
prestu nahi-eran bestea.

Lazkao Txikik:

Zuk ondo hartu ezazu, gazte  
zaharrago baten esana,  
nire lagun hau ere hortan da  
oso bizkorra izana.  
Ni bezelaxe hau ere dago  
ia onenak emana...  
Panderorikan txarrena dezu  
gustora hasitzen dana.

Iraolak:

Azkenetako nahiko jendetza  
inguruan zaigu bittu,  
dagoen giroz askozaz ere  
hobe degu errenditu,  
giro txarrean zenbait lanetan  
ezin liteke aritu,  
nik uste hobe kantuzko lanak  
ia oraintxe amaitu.

Zeberio, Begiristain eta Iraola dira bertsolariak. 1977ko martxoa edo apirilekoak dira. Zaldibiako Guraso Elkartean egindako saioa da. Hiru bertso-saio dira berez, eta hau da lehenengoa



Iraolak:

Ahal den ondoen zuzen nahi ditut  
nire kantuzko mintzoak,  
hoiek guztiak merezi ditu  
gaurko bazkari gozoak,  
horregatikan gogoan dauzkat  
gauza guztiak jasoak,  
lehen-lehenbiziko eskertzen ditut  
nik serbitzari zintzoak.

Begiristainek:

Zerbait entzun nahi beti izaten du  
bertsoaren zai dagonak,  
eta guk berriz abestu behar  
hain bertso on ta sakonak,  
bildu zerate senar-emazte  
umeak eta aitonak,  
lehendabiziko arratsalde on,  
Zaldibiko lagun onak.

Zeberioak:

Pozik etxera joan beharren gera  
gurasoen elkartetik,  
ta esker ona kuzinariei  
eman behar diet bertatik;  
sei bat platera eta goseak  
irten zan bat hoteletik,  
oraindik majo jaten da hemen  
platera txiki batetik.

Iraolak:

Nahiz ta platera txikia izan  
sarri hustu ta betea,  
hori da gure gustokoa dan  
jokaera izatea.  
Ez da nahikoa platera asko  
dauden tokira joatea,  
nik nahiago det bakarretikan  
nahi dedan eran jatea.

Zeberioak:

Zopa, letxua eta tortilla,  
arkumez bete tartera,  
ta hoteletan jartzen dizute  
zortzi-hamar bat platera.  
Danak zikindu gauza askokin,  
eta goseak atera.  
Berriz'e pozik etorriko naiz  
holako leku batera.

Iraolak:

Jakian orde z zenbait tokitan  
mahai plateraz beterik,  
eta sarritan gehiegi janak  
ez du egingo kalterik,  
eta ez dago ondorenean  
sufritzen dana esaterik.  
Platera asko hutsak badira  
handik ez dago jaterik.

Begiristainek:

Nolabait jan ta edan eginik  
iritsi ditugu mailak,  
egia da bai batzuk gizentzen  
ez dirade oso zailak,  
berdin dauzkagu hanka ta buru  
eta berdin ukabilak,  
nahiko taloa janda hazi gaituk  
gu honbesteko mutilak.

Iraolak:

Ez gera lujoz haziak ez gu,  
ikus leike ispiluan,  
baina ez gera hain sufrituak  
gosearen istiluan.  
Esne lodia ematen zuten  
behiak ziran ikiluan,  
talo-zukua gozo askorik  
janak gaituk katiluan.

Zeberioak:

Jan ta edan beti ondo ein nahi degu  
ta egiteko gogua,  
ta ia pixka bat moldatutzeko  
ez ote degu ordua?  
Lehen talo ta esnea janak gera  
esan dezuten modua  
alkatxofakin ez da izaten  
holako lepo-ondua.

Iraolak:

Alkatxofaren terrenoa da  
dudik'pe Andaluzian,  
joan dan aspaldin Euskadi ta hura  
hemen gabiltza auzian,  
batzuk ogia jatera datoz  
besteak odol-jauzian,  
ea pixka bat mudatutzen dan  
oraingo demokrazian.

Begiristainek:

Indar handina bertsolariek  
izaten degu haseran,  
baina gero'e botako'itugu  
jende danaren aukeran,  
bukatuko... det joan den asteetan  
nolatan ibili geran:  
demokrazia agindu eta  
bizkarreko latzak eman.

Bigarren saioa gaia emanda egin genun. «Amnistia» ge-  
nuen gaia

Iraolak:

Ez zait gustatzen hitz egitea  
inbustieriz edo txuri,  
aipatu behar joan dan astean  
zer gertatu zaigun guri.

Euskadi mailan herri danetan  
ein da borroka ugari,  
amnestiaren eske hasi ta  
odol berria isuri.

Begiristainek:  
Guztientzako amnistia hori  
eskatzen zuen herriak,  
beharrezkoak dirade oso  
askatasun-egarriak,  
baina tristeak izan ditugu  
gertatu diran berriak,  
behin ta berriro negar gogotik  
egin du Euskal Herriak,

Zeberioak:  
Batzuek baietz besteek ezetz  
ez dala elektorik,  
baina horiek ez dute ahanzten  
faxismoan leziorik.  
Amnistiakin ez dute egingo  
nahi duten negoziarik,  
beste gainontzen gure herrian  
ez da faltako sesiorik.

Begiristainek:  
Nik aste horri buruz emango  
Det orain nere iritzia:  
ez dago ondo borroka hortan  
kulpik gabeak hiltzia,  
eta ezta ere preso zeudenak  
Belgikara bialtzia,  
nik nahi nukeena lehengo anaiak  
danak etxera biltzia.

Iraolak:

Ez gaitezela ahalbait erori  
gure moralan ahuldadez,  
badegu hainbat esperientzi ta  
sartutakoak edadez,  
sinets Francoren semea dala  
Gobernun dagon Suarez,  
ta ez dadila inor engaina  
bere hizkuntza suabez.

Zeberioak:

Batzuk kartzelan, beste batzuak  
fusilan balakin bota,  
besteak berri kartzelan daude  
ta egurrez ondo jota,  
egin dezagun greba gogorra  
huelga edo boikota,  
onez ez bada txarrez Suarez  
eman beharren dago-ta.

Iraolak:

Eta haserre egoteko guk  
badauzkagu motibuak,  
gogoan izanik heriotza ta  
hartutako latiguak,  
orain egin nahi nolabait ere  
gu bildutzeko moduak  
baina ez dauka botorik aurtan  
“euskal” ez dan partiduak.

Begiristainek:

Ez gera kristau maltzurak eta  
ez gera kristau lapurrak,  
bakar-bakarrik hondatzen gaitu  
otso gaiztoen bildurrak,  
eta gehiago manifestatzen  
eman dituzten egurrak,  
gauza txar hoiek egiten zetik  
goseak dagon txakurrak.

Iraolak:

Bide zuzena bakarra da-ta  
ekin deiogun lanari,  
bere erantzuna ematez gero  
gure sorterri danari  
abertzaleok bihotz-bihotzez  
egin behar degu hori,  
aspertu gera beti izaten  
txakur maltzurren janari.

Zeberioak:

Lehen kartzelan ta orain Belgikan  
ein behar euren bizitza,  
esango nuke kartzelan modun  
dala han daukaten giltza,  
ta Suarezzi nagon lekutik  
nik egiten diot hitza:  
Euskaldun onak hildako hoiek  
libre zertako dabilta?

Iraolak:

Amnistia hori egiaz bada  
zertan entrega Belgikan?  
Uste al dute Euskadirentzat  
ahaztuko'irala handikan,  
lehenago maite zuten herria  
maite dute oraindikan,  
etorzen ba'ira zerbaitetara  
gero ez eman kulpikan.

Begiristainek:

Kanpoan nola izango dute  
mantenu eta osasun?  
Ataungo Aia ez al dakizu  
semeak zuk non dauzkazun?  
Eta noizbaten izan badute  
tristura ta estuasun,  
Ataungo Aian izango dute  
lehen hainbeste maitestasun,

Zeberioak:  
Astakeriak begira hemen  
bururatze'ira azkenen,  
pentsatutzen den txibatorikan  
ez ahal dala egongo hemen;  
txibatotzarik ez dezala egin  
Jaungoikoaren izenen,  
bestela Martutenera goaz  
etxera joan baino lehen.

Hirugarren saio bat ere egin zuten. Oraingoan «dibortzioa» zuten gaia.

Zeberioak:  
Entzun behar dezute  
nere kantzioa,  
noiznahi faltatzen dala  
gauetz razioa,  
ahaztuta noiz zan ia  
azken funtzioa,  
hola bizi baino hobe  
da dibortzioa.

Begiristainek:  
Batzuek ezkontuta  
bizi dira trebe,  
bestek ezkontu gabe  
bizi dira hobe,  
ezkontuta ere lanak  
gaur haundiak daude,  
horregatikan nago  
andregairik gabe

Iraolak:  
Entzuten egondu naiz  
ni Zeberiori,  
etxean aspertuta  
badaudela ugari,

hemen norbaiti gerta-  
tzen bazaio hori,  
premian gaude-eta  
abisatu guri.

Zeberioak:  
Mutilzaharrak'e badu  
hor bere idia,  
ta Iraolak ere  
bota du beria,  
ezkonduta ere bada  
nahiko komeria,  
tokatzen bada andre  
ostikalaria.

Iraolak:  
Gertatuko dira bai  
komeria franko,  
dibortziatu hobe  
hau da nerekiko,  
beti ibiltzekotan  
bultza ta ostiko  
bizimodu tristea  
bizitza guztiko.

Zeberioak:  
Gure Patxi Iraola  
ez daukagu ero,  
andrearen mendean  
ezkondu ezkerro,  
orain nola dabilen  
parrandan gauero,  
hola ezin ibili  
ezkondu ta gero.

Begiristainek:  
Patxi ta ni gaur gaude  
hain bide libreti,  
juerga asko eta  
emakume gutti,



ta Zeberio berriz  
hain bide oneti,  
konturak atera itzak  
ezkondu aurreti.

Iraolak:  
Zeberio, daukazu  
zuk karta eskuan,  
orain aurkitzen zera  
sasoi garaizkuan,  
behin ezkondu ezker  
zaude arriskuan,  
baina kulpak besteri  
ematera ez juan.

Zeberio:  
Gazteak izaten du  
berriketa gutxi,  
baina zer gertako da  
bihar edo etzi?  
Hemen izango dira  
hamaika iritzi  
oraindik dudan nago  
hartu ala utzi.

Begiristainek:  
Eta badadukala  
ez esan inori,  
bakarrik maitasuna  
eskaini berari.  
Orain aurkituzen haiz  
lodi edo guri,  
ordun igartuko zaik  
lepo-ondo hori.

Iraolak:  
Zeberio estutu gabe  
hago hi trunkila:  
Orain egin zitekek  
ezkontza zibila,

ez bada emaztea  
jatorra ta umila,  
utzita joan hinteke  
beste baten bila.

Zeberioak:

Ni ibiltzen naiz orain  
andregaiarekin,  
hara, entzun dezute  
nahi duenak jakin,  
hauek bakarrrik dabiltz  
parranderoekin,  
zer egin egin behar dezute  
laurogei urtekin?

Begiristainek:

Neska bezela orain  
hura dek azaltzen,  
ta hire maitasuna  
ari dek ugaltzen.  
Ahalmena izango dik  
zigarro erretzen,  
galdetu badakian  
bazkaria jartzen.

Iraolak:

Hauek dabilta aspaldin  
alkargandik gertu,  
itxura zaintzen dute  
ta gauez ulertu.  
Hik ein behar dekena  
momentuan hartu,  
orain aprobetxatu  
nahiz ta gero txartu.

Zeberioak:

Galdetuko'iot gai dan  
bazkaia jartzeko,  
ta ez ahal da izango  
askoren antzeko,

orain gogo daukat  
nik hura hartzeko,  
dibortzioa hor dago  
nahi danen uzteko.

Begiristainek:  
Gutxi ikusten dira  
hain bikote trebek,  
txarragok gehio eta  
gutxiago hobek.  
Ezkondu ta, laguna,  
sortu itzak umek,  
bestela guri ekarri  
balio ez badek.

Zeberioak:  
Hauek hartuko dute  
makina't tamaino,  
euren buruz badute  
hamaika engaino,  
hauei ematen zertan  
hoinbeste enpeño?  
Hortako hobia nago  
lanerako baino.

Iraolak:  
Hori izan litekek  
motibo tristia  
etxean ezin eta  
kanpora iristia,  
berak mantendu behar  
besteren pistia.  
Ahal badek heu saiatu  
ahal deken guztia.

Zeberioak:  
Begiristain hau ere  
jartzen zaigu ero,  
ta Aiako martxa honek  
badaki honezkero,

han ere bat bazegok  
portatu ezkerro,  
hitz egingo diagu  
saiatu ta gero.

Iraolak:  
Ez daki Maritxu dan  
edo dan Pakita.  
Zeberioek esan du  
guztiz egoki-ta.  
Kontuz ibili zaitez  
nolanahi jaikita  
seguru ote da  
horrek badaki-ta?

Zeberioek:  
Patxi're mutilzahartzen  
ai zaigu ia-ian,  
ta hura oso gutxi  
ibiltzen da plaian,  
eta badaki segan  
eta berdin laian,  
zuretzat modukoa  
badago, bai, Aian.

Iraolak:  
Proportzio polita  
neri orain eman,  
eta ez naiz jardungo  
luzaroan teman,  
ondo omen daki hark  
laian eta segan,  
hona ekarri eta  
probako deu zer dan.

Begiristainek:  
Kalteik ez dio egingo  
ez harek inori,  
baina, lagunzahar Patxi,  
zu argi ibili,

egokitzen bazaizu  
egun baten zuri,  
hark konpondu dizu  
buru zuri hori!

Zeberioak:  
Beraz maiteko dezu  
hura bihotzean,  
ezkontzerako hasi  
zaitez otoitzean.  
Ezkondutzen bazera  
askoren antzean,  
gizonikan ez zaizu  
faltako etxean.

### **Lazkao Txiki eta biok, nafarrekin, 1. saioa**

1968an, Zaldibiako Ehiza eta Arrantza elkartean egin genuen afaria nafar batzuekin. Tartean bazen herrian bizi den intzatar bat, gaztetan seminarioak egondakoa; gainera, afaldarren artean bazeuden bi apaiz gazte, Intzakoaren lagunak. Lazkao Txikik ekin zion eta nik segi.

Lazkao Txikik:  
Intzeko gazte honek  
ote digu etsi?  
Kristoren doktrinarik  
ezin du sinetsi,  
dudan dago zer dagon  
bihar edo etzi,  
kristaua degu baina  
esperantza gutxi.

Iraolak:  
Hortan saiatutzeko  
ez dakar gogorik,  
zuk bezelatsu berdin  
igartzen diot nik.

Ez huan zabalduko  
ez erlijiorik  
ez balitza izandu  
nafar berogorik.

Lazkao Txikik:  
Hobe degu guk gorde  
lehengo lege zaharra,  
geroko, sinistea  
ez da gauza txarra,  
esperantzeta jarri,  
zaitez zu naparra,  
kristauarentzat ez da  
gaurkoa bakarra.

Iraolak:  
Hotz samarra ote dan  
baneukan beldurra,  
horrek egin ondoren  
halako agurra,  
lehen ere fedez urri  
dago gure lurra;  
honek kenduko digu  
daukagun apurra.

Lazkao Txikik:  
Hobe dek entzutea  
abadeen hotsak,  
hauek alde bat utzi  
kezkatuta lotsak...  
Luziferren sardeak  
dauzkagu zorrotzak,  
gaurko zabarkeriak  
akordatuko zak.

Iraolak:  
Izan itzak hitz hoiek  
goguan jasuak,  
gero pentsa nolatan  
hik eman pausuak;

galdua fedea ta  
ahaztu errezuak,  
ez al hau beldurtutzen  
infernuko suak?

Lazkao Txikik:  
Jende guztia dago  
zugatik minbera,  
gaiztotzen ari zera  
urtetik urtera,  
zuek ez joan horrera (*apaizei begiratuta*)  
Amerika aldera,  
hau konbentzitu arte  
etorri honera.

Iraolak:  
Egun batez sartua  
Zaldibi aldera,  
uste gabe azaldu  
zitzaigun honera,  
eta gauza hola da  
gutxi gorebahera:  
aingeru bat hartu zun,  
ta gaiztoa bera.

Lazkao Txikik:  
Zaldibin ezkondu zan  
nola edo hala,  
baina ikusten zaio  
sinismen argala.  
Gaurtik juzkatutzen det  
horren iguala,  
badaki Luzifer'e  
aingerua zala.

Iraolak:  
Luziferren jokia  
modu beltzekoa,  
Aita Eternoaren  
kontra jartzekoa;

Hark gaizki hartu zuen  
gaizki hartzekoa,  
baina Migel ote da  
haren antzekoa?

Lazkao Txikik:  
Kontuan badegula  
ez zaitez atzendu,  
hobe genduke garbi  
hartuko bagendu;  
zeure emazteari  
federik ez kendu  
patata ustel batek  
bestea usteltzen du.

Iraolak:  
Ez zazu penaz urtu  
zure emazterik,  
ez pentsatu inoiz'e  
hortatik hasterik,  
eta ez hortan hezi  
famili gazterik,  
hortik kristau bidera  
ez dago iristerik.

Lazkao Txikik:  
Bestela izango da  
errespetu gutxi,  
akordatuko zera  
bihar edo etzi,  
lehengo erlijioari  
hobe degu eutsi:  
zeu sinestu ezta ere  
haurrei erakutsi.

Iraolak:  
Joxe Migel, ez al du  
zelebrezkoa lana?  
Konplitzeko agindu  
diok zuzen dana;



agindu hori litekek  
alperrik emana,  
besteri nola eman  
berak ez daukana?

Lazkao Txikik:  
Saiatu behar dezu  
zu zuzen ibiltzen,  
fedea utzi gabe,  
hainbeste debiltzen.  
Beste batek esanda  
harrituko nintzen  
horrelakorik zanik  
Nafarroko Intzen.

Iraolak:  
Zuk dezentea bota  
ta jendeak parra,  
hemen daukagulako  
holako naparra,  
hizketan hasaldira  
kontrako marmarra,  
mingain librea baina  
ez du bihotz txarra.

Lazkao Txikik:  
Hori ez nuen egitzat  
hartuko sekula,  
eskerrik asko Patxik  
aitortu digula,  
zuk kristaua zerala  
ezin disimula,  
ta nola hitz egin hola  
sinisten dezula?

Iraolak:  
Haundi samarrak dira  
gaur entzun diranak,  
sake librez Migeli  
botata eta juanak,

baina barka beharra  
daduzkazu danak  
nola dituen honek  
brometan esanak.

Lazkao Txikik:  
Legea betetzea  
da eginkizuna,  
zure urte onenak  
lehendik zaude juna,  
hobe da izatea  
Jainkoa laguna,  
gorderikan amatxok  
erakuts zizuna.

Iraolak:  
Biak uztarri baten  
maitasunaz pozik,  
Migelek ez zeramak  
etxerako lotsik,  
ez diat egin baina  
andreakin hitzik,  
senar ona duela  
pentsatzen dik Patxik.

Lazkao Txikik:  
Kantari ari gerala  
hiru ordu laurden,  
gehienean gainera  
gu gaizki esaten;  
gizonak beti berdin  
ez du ondo ematen,  
hau lasai gera dedin  
isildu gaitezen.

**Lazkao Txiki eta biok, nafarrekin,  
2. saioa**

Isildu ginen bai, baina laster ekin genion berriro. Tentatu genituen guk hango apaizak eta gaineratikoak. Berriz ere neu hasi nintzen, eta Lazkao Txikik jarraitu:

Iraolak:

Hemen nolatan batek egin dun  
arrantzarako planua,  
oraintsu horren berri entzun det  
eta zabaltzera nua:  
hau errekan da hori honen zai  
ai zer guarda sanua,  
lizentzirikan batere ez da  
bost hortzekoa amua.

Lazkao Txikik:

Herri hortako guarda jauna  
ez zan, lagun, huts egina,  
baina herriko jendea ere  
ez zen hain pertsona fina;  
horrek guarda zaintzen egiten  
zuen bere ahalegina;  
beraz apeza izango zen  
bita lapurrik haundina.

Iraolak:

Hoiek Migel hau izaten zuten  
bijilantziko bezela,  
hari begira hau jarri eta  
hoiek saia zitezela;  
jakina dago segurantzarik  
han ez zegoen bestela,  
baina guardarik etorri balitz  
Migel joango zen behela!

Lazkao Txikik:  
Errez haruntza noizik eta behin  
egiten zuek bisita,  
biok zaudete herriko danak  
gaizkira esnatzen hasita,  
zuek arrantzan hor zabilzate  
lege guztiak hautsita,  
herrikoek zer egingo dute  
zuek hala ikusita?

Iraolak:  
Ordena sendo bat hartu zuten  
ni horren kontra ez nago,  
hauen antzeko gizonak hobe  
bai zenbat eta gehiago,  
pikardiaz ibiltzeko ere  
jakinduria hor dago,  
pekatu haren berri zekiten  
apaiztu baino lehenago.

Lazkao Txikik:  
Gure Jainkoak jarri zituen  
hamarren bat agindu-ta,  
Sinai mendian eman zizkigun  
danok gaude jakinduta.  
Eginkizun hori ikustean  
Jauna dago saminduta,  
penitentzia betetzen dute  
tripa ondo berdinduta.

Iraolak:  
Une honetan ari gerade  
asto koskorren antziaa,  
ezjakin batek oso zaila da  
gaia hain ondo lantzia;  
betebeharra nolatan bete  
hor dago diferentzia,  
lehendabiziko urdaila bete  
ta gero penitentzia.

Lazkao Txikik:

Abadade jaunak, guk ez degu nahi  
Jaunan agindurik hautsi,  
hori genduen gaztetandikan  
geure etxean ikasi;  
baina arrantzan hor zabiltzate  
zeuon tranpa eta guzi,  
ejenplo onak behar ditugu,  
lehenengo etxetik hasi.

Iraolak:

Apaizen zenbait hizketa-saiok  
ematen digu atsegin,  
eta aitortzen det horretan maiz  
ai nik dedala hutsegin;  
zertan ibili beste inori  
non eta nola eman min?  
Beharrena da ahal bada lagun,  
txarrik ez inori ez egin.

Lazkao Txikik:

Alde batera gauza ederra da  
holako sinistapena,  
eta hori da mundu honetan  
degun gauza ederrena:  
batak besteai gaitzik ez egin  
da Jainkoaren ordena,  
baina uste det dala gauza bat  
kunplitu ez litekeena.

Iraolak:

Sermolariek pulpitutikan  
beti ez gozo ta bigun,  
elizgizonek esandakoak  
zenbat gauza entzun ditugun:  
lagun hurkoaren serbitzuan  
pertsonek liteke ezagun,  
kristau gerala uste badegu  
errespetatu dezagun.

Lazkao Txikik:  
Ongi dakite nolakoa dan  
berritsuen jenioa,  
zeuen pekatuak aitortzea  
ez da obligazioa,  
baina banuen nik gauza batzuk  
azaltzeko desioa:  
egin ditugun pekatugatik  
eman absoluzioa.

Iraolak:  
Zigor-beldurak, zuk, Joxe Migel,  
ere dezu gogotikan,  
hitzez arrazoi franko entzun da  
gaurkoz zure ahotikan.  
Geu zabartutzen gerade inoiz  
hutseginaz nunahitikan,  
aitortzen degu eta ez bedi  
izan barkamen faltikan.

Lazkao Txikik:  
Ikusten ditut abade jaunak  
dira umil ta otxanak,  
zerbait esaten aritu gera  
ezer ere ez dakigunak;  
errexago da maixiatzea  
lagun hurkoaren lanak,  
horregatikan barka itzazue  
lehenago gaizki esanak.

### **Lazkao Txiki eta biok Ordizian**

Bertso hauek dira 1982 inguruan kantatuak, Ordizian. Gaia emanda jardun genuen: «Aizkorritik Txindokira hegan zoazte». Lazkao Txiki hasi eta nik jarraitu:

Lazkao Txikik:

Gai zelebrea jarri digute  
eta nik hasiera eman,  
gauza berri bat sortu zaigula  
ez al dezue antzeman?  
Aizkorritikan Aralarrera  
joan behar degu hegan,  
neretzat ez da gauza gaiztoa  
nola pisu gutxi dedan.

Iraolak:

Nik ere zerbait esan beharko  
honek esanik beriak,  
guk orain hartutako asmoak  
ditugu paregabiak:  
Aizkorritikan Txindokiraino  
biok gu hegan abiak,  
Jesukristok'e egin al zitun  
hoinbesteko mirariak?

Lazkao Txikik:

Geure bizitza guztia degu  
ondo asko penatuta,  
eta orain ere gauz zaila degu  
lagun honek eskatuta,  
baina biajea nola egin nik  
daukat ondo pentsatuta:  
lehengoan hemen eballi zuten  
globo haundian sartuta

Iraolak:

Nik ere hori beraxe neukan  
modu honetan gogoan:  
biaje hori egin leikela  
askoz modu hobegoan;  
zuk eta biok talentu berdin  
samarra degu hegoan;  
egia da bai, badaezpa ere  
hobeko degu globoan.

## **Amuriza, Lasarte, Mendizabal eta laurok**

Hurrengo saioa da 1980ko martxoaren 8an egina. Amuriza, Lasarte Mendizabal eta ni neu aritu ginen bertso-tan, ordena honetan: Amuriza, ni, Mendizabal eta Lasarte:

Amurizak:

Sariak eman dituzte eta  
berriz kantuzko hotsean,  
bikote batek nagusi behar  
holako joko batean,  
irabazleak hoiek ziran ta  
besteak ere pakean,  
gorde ezazue burua fresko,  
txapel horren itzalpean.

Iraolak:

Txapelketa bat gaurko egunez  
bukatu baita serio,  
lehiaketa hortan pasa ondoren  
hilabete bat propio.  
Bikote batek suertez bota  
ditu hainbat arerio,  
zoriontzen det Antonio ta  
berdin lagun «Amurrio».

Mendizabalek:

Zuen ondoren gu ere kantuz  
beharko gera ahalegindu,  
isil gelditu ezkerero hemen  
norbait liteke samindu,  
Lasarte eta Amurizakin  
nolaz gintezke berdindu?  
Kobratzekoak hauek dira-ta  
guri lanik ez agindu.



Lasartek:

Mendizabalek neke berdina  
ohi du goiz ta arratsalde,  
jendeak daki gauza hori eta  
zertan egin dezu galde?  
Hitz egingo det nire aldetik  
gutziz apal ta suabe:  
zure edadean kantatzen nuen  
sosikan kobratu gabe.

Amurizak:

Kobratze horrek gure munduan  
kezka pixkat beraz badu,  
mutil gazteak hitz egin digu  
sentitu bezain ondradu.  
Lasarte ta nik geure ustetan  
bihotz onak badauzkagu,  
premizko bada irabaziak  
partituko dizkiagu.

Iraolak:

Ni nabil hemen pasa samarra  
zu zabiltz oraindik hasten,  
esan gabe ere hori gutzia  
samurra dago ikusten.  
Badakigu guk bertsozaleek  
nola juzkatzen gaituzten,  
debalde behar kategorian  
ez gera-eta iristen.

Mendizabalek:

Gu ez gerala iristen eta  
denok gerade lekuko,  
platera aurrez jarri ezker  
nola egin liteke uko?  
Patxi eta ni akolitoak  
lagun hauen inguruko;  
gure moduko morroiarekin  
hauek ez dira galduko.

Lasartek:

Debaldekoak ikusten dira  
hamaika morroi serio,  
ontzat hartuko liguke horrek  
nik dei egingo banio,  
kobratu gabe kantatzen dula  
gazte horrek hala dio,  
propina eder bat hartuko luke  
inork emango balio.

Amurizak:

Beraz ez dago hemen gaurtikan  
nola jarri filtro fina,  
krisi garaia nola daukagun  
hori da gaurko doktrina;  
dirua ez da munduan dana  
bada gehiagoren grina;  
nahiko aberats gintezke denak  
hola batuko bagina.

Iraolak:

Hik, Mendizabal, agertutzen dek  
egundoko apurua,  
bihotzez ere mutil ona haiz  
eta argi dek burua;  
oraindik oso gaztea eta  
bertsolari segurua,  
aurrera hola segitzen badek  
laster dek nahiko dirua.

Mendizabalek:

Barrendik ere sentitu izan  
izan det ahal deten dena,  
eta eskatzen dizuet orain  
lehengoaren barkamena;  
badakizue gazteak zuen  
premi haundian gaudena:  
zuen laguntza dudarik gabe  
gutzat propinik onena.

Lasartek:

Mendizabal, zu ikusten zaitut  
oso hitzun ugaria,  
erein ezazu hazia eta  
jasoko dezu garia;  
denok dirua nahi degu hemen  
hau da gure komeria,  
baina gizonak kobratzeko ere  
behar du kategoria.

Amurizak:

Kategoria altxatutzeko  
hor sor liteke burruka,  
bakoitzak bere buruarekin  
hutsean lezake truka;  
zu, Mendizabal, eta ni behintzat  
ez gera hasiko aurka,  
diru guztia eman nezake  
zure sasoi baneuka.

Iraolak:

Honek esan du zuk, Mendizabal,  
sasoi ederra dezuna,  
hori da gauza eros lezakeen  
dirurik inork ez duna;  
beste aldetik, kantuz ere bai,  
daukazun etorkizuna!  
Eta zertako urre-zilarrak,  
aski dezu osasuna.

Mendizabalek:

Osasuna ta sasoi ona ere  
heldu dira neregana,  
zuek sentitzen ote dezute  
grazi eder hoi juana?  
Elkarrekin guk konfiantzan ta  
iritsi orduko fama,  
hori da bizi geran munduan  
diruz ordaintzen ez dana.

Lasartek:

O!, Mendizabal, gazte maitea,  
atoz nigana onean,  
bihotza ere emango nuke  
hortarako nagoenean;  
Amuriza ere hemen bizi da  
nekatu gabe lanean:  
limosnatikan aberastu zan  
apaiza izan zanean.

Amurizak:

Beraz apaiza izan nintzela  
orain zaudete jakinda,  
histori hori bukatu zan da  
oraingo ia berdin da;  
lan kontu hori, aizu Manuel,  
nago konpreni ezinda,  
lanean ez naiz asko nekatu  
sekula ez det egin-da.

Iraolak:

Lanikan gabe salbatukotzeko  
asko dira berezkuak,  
eta hartutzen dituzte bide  
oker edo legezkuak;  
Amurizak'e bizitzan ditu  
jokabide tajuzkuak:  
burua asko nekatu baina  
salbatu ditu eskuak.

Mendizabalek:

Gogo txarretik egingo zitun  
honek hainbeste endredo,  
sotana beltzak hor arrastaka  
zituela egunero;  
apaiz eginda aberastuta  
jarri zala bero-bero,  
apaizgintza ere utzi digu  
aberastu eta gero.

Lasartek:

Beste bertso bat botako dizut  
belarriaren ertzeroa,  
gauzak horrela aldatutzeko  
zu, Amuriza, zer zera?  
Arrazoiren bat badezu eta  
ezin joan gogortzera;  
ni zuregana ez naiz joango  
pekatuak aitortzera.

Amurizak:

Hasten direna buka orduko  
beren arrazoia dute...  
aizu, Manuel, horra ordaina  
zure arrazoien truke:  
konfesioa ez dezu maite,  
hala pentsatuko nuke;  
hobe zenduke seguru asko  
zer aitortu bazenduke.

Iraolak:

Zer aitorturik ez ote daukan  
honek ikusirik nor dan,  
eta ez dauka zertan sarturik  
Amuriza honen bordan;  
sotanarekin ibilia da  
orduan nola zan modan,  
propina ere jaso zuen  
sartu zutenen Zamoran.

Mendizabalek:

Hamaika gauza entzungo zuen  
pekatu-hitzen planuak,  
Lasartek ere aztertu nahia  
aitortutzeko tratuak.  
Gazte geranak aurkitzen gera  
lokatzetan tratatuak...  
baina pisurik ez du izango  
Lasarteren pekatuak.

Lasartek:

Ikusten det nik zuk, Mendizabal,  
ni arintzat naukazuna,  
aitortzen dizut bihotz-bihotzez  
hor arrazoi daukazuna;  
ta Amurizak apaiz garaian  
zun eginkizun astuna,  
beste batzuei sinistarazten  
berak sinisten ez zuna.

Amurizak:

Ez zuen beraz fede haundirik  
Amurizaren gurdiak,  
nahiz ta sotanaz arrantzan ari  
begiak nitun argiak;  
konfesatzean jasotzen nitun  
gorriak eta berdiak,  
nahiago nuen neuk egitea  
entzuten nitun erdiak.

Iraolak:

Zetorrenari galdetu, entzun  
guztiz borondate finan;  
kontseju onenak, alda zitezen  
pekatu bideko grinan;  
danak esanda entzuten hantxe  
konfesenario eskinan,  
jakin nahi nuke azpi aldetik  
zu nola egoten zinan?

Mendizabalek:

Konfesenarior edukiko du  
hor nahikoa zer kontatu,  
apaizetatik ateratzean  
eginik hainbeste tratu;  
berak nahi zuen guztia egin  
ta besteri debekatu.  
Horrenaa aitortzera joatea  
ez al da nahiko pekatu?

Lasartek:

Broma bezela erabaki bat  
emango det orainguan,  
zu, Amuriza, hitz egiteko  
intentzioan nenguan,  
uste gabeko deskuidoren bat  
zuk izan dezu munduan:  
gogozko ez zan zure karrera  
zertan ikasi zenduan?

Amurizak:

Karrera horrek izaten ditu  
munduan hainbat endredo:  
batzuek apaiz eta besteak  
praile tentel edo lego;  
azpitik bero egoten nintzen  
burutik ordea ero,  
hola ibili behar genduen  
zuzen portatu ezkerero.

Iraolak:

Ez zaitez tuela horregatikan  
jarri triste ta serio,  
noizbait behar ta sotanari're  
egin zenion adio;  
gizon artean izateko zuk  
ez dezu gutxi balio,  
hainbeste broma sortzen da zure  
historia dala medio.

Mendizabalek:

Berak sinisten ez zuna ia  
besteri nahi erakutsi;  
garai haietan emango zuen  
hainbat laztan da igurtzi;  
horren izan dun jokabideak  
ez dauka delitu gutxi:  
jendea elizaa ez doala-ta  
orain apaizgintza utzi.

Lasartek:

Komeni dana eiteko libre  
beraz hemendik aurrera,  
egokierak hartzeko zu're  
sortu baitzinan lurrera;  
laster ezkondu behar dezula,  
hala enteratu gera;  
oraingo hontan hasiko dezu  
bukatzen ez dan karrera.

Amurizak:

Bukatzen ez dan karrera hori  
mundu hontan ezaguna;  
gaur badirudi Lasartek ere  
hori aprobatu duna;  
eta martxoan nola daukagun  
emakumeen eguna,  
zerbaiten faltan inor balego  
nerekin badu laguna.

Iraolak:

Lehen'e badezu zuk maitalea  
gaztea ta egokia,  
badaukazu non ibili ta  
jostatutzeko tokia,  
zeuk eman eta hartu zuena  
lehen komunio txikia,  
orain beste bat dezu emateko:  
maitasunaren kabia.

Mendizabalek:

Bakarrik gaizki zaudela orain  
da nik galdetzen nuana...  
horretarako sasoia ere  
nola ez zauden juana,  
zu ezkontzeko asmoz zaudela  
Lasartek esan duana  
eta andrea hartzen omen du  
berak konfesa zuana.



Lasartek:

Hainbesteraio zaitut nik maite,  
emango nizuke musu;  
Amuriza, zuk zure alderdiak  
garbi azaltzen dituzu;  
nik uste nuen aldean ere  
gizon argia zera zu,  
zure bodara pozik joango naiz  
konbidatutzen banauzu.

Amurizak:

Konbidatzea aipatu dezu  
orain, laguna, ondradu;  
egun hari're noizbait munduan  
ekin beharra daukagu;  
nire partetik ez da ezetzik,  
hortan hartuko det kargu;  
nigatik lasai etor zintezke  
lagunak ere nahi badu.

Iraolak:

Inor konbida gabe eztaiak  
ez dirade ez puntako,  
jendea gogoz egon liteke  
dudarik gabe hortaako;  
Amuriza hau gizon jatorra,  
umil ta ona dalako,  
konbitik bada neu ere ez naiz  
joan gaberik gerako.

Mendizabalek:

Umil hasiak bagera ere  
jarri naiz atrebitua,  
saio haundia egin baitegu  
gaurkoz alajangoikua!  
Ta aizu, Patxi, ni bukaera  
hor ematera nijua;  
kobratu gabe kantatzekotan  
ia ez al da nahikua?

Lasartek:  
Ezkontza hori egingo dezu  
arrazoizko ta juxtua,  
inor ez dago hemen loturik,  
bakoitzak bere gustua;  
andrearekin bizitzeko're  
zera gizon tajuzkua...  
saioa hemen bukatzen det nik  
ta emaidazu eskua.

### **Goiburu, Zeberio eta hirurok**

Hurrengo saioa Lazkaon (1985) egina da: Goiburu, Zeberio eta hirurok jardun genuen. Ez dut uste Goierriko ohitura bakkarik denik herri bakoitzak bere goitizena izatea, baina hemen badira politak: Idiazabaldarrak «axeriak», Itsasondokoak «ijitoak» eta Zaldibitarrak, gu, alegia, «arkakusoak». Topo egin degu hirurok Lazkaoko plazan: Zeberio (ijittoa), Goiburu (axeria) eta ni (arkakusoa). Goiburu hasi, Zeberio segü eta nik amaitu egin genuen saioa:

Goiburuk:  
Hizketan hasitzeko  
ez nago dudazko,  
pasea hainbat oilatoki  
eta mendi-kasko,  
jan ere zenbait oilo,  
oilanda ta oilasko,  
azaria bizi da  
gaur ederki asko.

Zeberio:  
Azariak gaur digu  
mundu dana nahastu,  
eskupeta-bildurrez  
hortxe dabil estu;  
desinfektanteekin  
hau hor juxtu-juxtu,  
ta ijitoak, noski,  
inbiririk ez du.

Iraolak:  
Garbi aitortuko det  
nor naizen gaurkuan,  
ta zer egiten dedan  
nabilen lekuan,  
azarien lepoan,  
ijitoen kolkuan,  
aspaldian odolez  
nabil ni nahikuan.

Goiburuk:  
Hori egia zanik  
nik neuk ez det uste,  
holakoak zenbaitek  
esaten dituzte;  
azariak ez dauka  
ez hainbeste peste,  
ez diguzu edango  
nahi dezun hainbeste.

Zeberioak:  
Ijitoak badauzka  
mila irabazi  
lapurretan'e sarri  
ohi gerade hasi,  
azaria hemen det  
arkakoso ta guzi,  
salgai daduzkat biak  
nahi'itunak erosi.

Iraolak:  
Biak manejatuak  
dotore antzian,  
azariakin gorde  
belarri atzian;  
ijittoa jartzen det  
amorru bizian,  
ta sasi tartera ni  
golpe tiratzian.

Goiburuk:  
Jituak kantatu du  
itxura prestuan,  
nola honek bestelako  
hitzikan ez duan;  
gu eduki arren honek  
saltzeko asmuhan,  
jituakin nork hasi  
nahi luke tratuan.

Zeberioak:  
Azaria harrapa det  
oso-osorikan,  
ez dakit zegon libre  
edo gaixorikan;  
inork ez dit erosten  
arkakosorikan,  
beraz honi ez egin  
zuek kasorikan.

Iraolak:  
Baina bizi naizela  
gauza nabarmena,  
egin zuek oilotan  
ahal zenzaketena,  
egon zuek guri-guri  
ta ahal dan lerdeneana,  
gero xurga dezadan  
odol mardulena.

### **Goierriko taldea Liernin**

Hurrengo saioa ere Goierriko Taldearen eskutik borobil-  
dua da. 1992an izan zen Liernin, «Hizetik Hortzera»ren des-  
pedidan. Gaiak honela zioen: «Beasaingo CAFen egin omen  
dute jadanik Europarekin lotuko gaituen abiadura azkarreko  
trena. Honela banatu ziren paperak: Goiburu, makinista;  
Iraola, injinerua; Igarzabal, mekanikoa; Begiristain elektri-

zista; Zeberio, errebisadorea; eta Murua, dekoradorea. Orde-  
na horretan egin zuten klopetan»:

Goiburuk:  
Tren horretako ni naiz  
txofer bat fijoia,  
“aitaren” egin eta  
sartzera nijoa.

Iraolak:  
Tekniko hauen buru  
ingeniaria,  
kontatutzera goaz  
gure miraria.

Igarzabalek:  
Alper hutsakin hemen  
ez baita nahikoa,  
lan egindun bakarra  
ni mekanikoa.

Begiristainek:  
Argia jarri diot  
neurri dezentean,  
ta piztuko ahal zaio  
halakoon batean

Zeberioek:  
Errebisadore naiz,  
nere errebista  
zer moduz porta diran  
beste bost artista.

Muruak:  
Dekoradorea ere  
beharko zan noski,  
literak jarri ditut  
koltxoi flex ta guzti.

Goiburuk:  
Argiak ere dauzka  
dotore antzean:  
pilotoak aurretik,  
farolak atzean.

Iraolak:  
Bertsolari bikaina  
da mekanikoa,  
ta makinista berriz  
artzai teknikoa.

Igarzabalek:  
Tren hau ibiliko da  
tximistaren pare,  
Ormaiztegin pasatuz  
zubirikan gabe.

Begiristainek:  
Makinista has zaitez  
bidean pentsatzen,  
tunelean ez hasi  
kanpotik pasatzen.

Zeberioak:  
Ingeniari zahar horrek  
zuria meloia,  
bidean galdu zaio  
atzeko bagoia.

Muruak:  
Lehenago ez galtzea  
nago harrituta,  
lasto-fardoak lotzeko  
sokaakin lotuta.

Goiburuk:  
Bidean galdu zaigu  
atzeko bagoia,  
hor dira ezkonberriak  
eta beren ohia.

Iraolak:  
Rebisadoreen kulpa  
bagoia galtzea,  
nola begiratu dek  
haren engantxea?

Igarzabalek:  
Bagoia galdu eta  
ohia han joan da,  
ingeniari meloian  
errua izan da.

Begiristainek:  
Bonbilla ilun samarrak  
daduzkat jarriak,  
zerbait berotutzeko  
gaurko ezkonberriak.

Zeberioak  
Makinista dijoa  
tximistaren ostin:  
Tolosan frenatuta  
gelditu Donostin.

Muruak:  
Beraz Donostiraino  
tximista bezela,  
Villabonan daudenak  
oinez doazela!

Goiburuk:  
Rebisadore-lana  
dana frakaso,  
hobeto rebisatzen  
du mahaiko basoa.

Iraolak:  
Bagoia aurrera ta  
atzera makina,  
makinista frenua  
non dan ez dakina.

Igarzabalek:  
Rebisadorearen  
beldur denak kendu,  
gazta erdi bat emanda  
dana pasatzen du.

Begiristainek:  
Dekoradorea ere  
daukagu txukuna,  
kristal eta guztiak  
pintatzen dituna.

Zeberioak:  
Jarri dek argi gorri  
berde eta txuri,  
gure tren zahar honek  
puting klub dirudi.

Muruak:  
Tunelean sartuta  
argiak akabo,  
elekttrizista orain'e  
komunean dago.



Goiburuk:  
Komun asko dauzka ta  
hala komeni zan,  
inork gantzontzilorik  
zikindu ez dezan.

Iraolak:  
Bandido hauekin galdu  
det nik nere fama,  
hobe eman banie  
lehen buruko bana.

Igarzabalek:  
Dekoradore hori  
zer dan ez dakigu,  
rebista pornoekin  
dekoratu digu.

Begiristainek:  
Ingeniari zahar honek  
zun burutapena,  
batere frenu gabe  
egin digu tren,

Zeberioak:  
Iritsiko ote gera  
gu Estrasburgora?  
Bai erortzen ez bada  
ipurtzuloz gora.

Muruak:  
Probatu nahi duenak  
gure tren abila,  
testamendua eginda  
etorri dedila.

## **Azpillaga eta Lopategirekin,**

### **1. saioa**

Oraingoan Azpillaga, Lopategi eta neu gara bertsolarian; ordena horretantxe kantatzen dugu. Motiboa da Zaldibiako zaharren omenaldia. Tokia: Guraso Elkarte:

Azpillagak:

Kanpotarrikan hemen ez dago  
danak dira etxeakoak;  
dakitena da bat eta biak  
bat bestien antzekoak;  
hain abertzale purrukatuak  
eta danak hitzekoak...  
bazkariak on egin dezala,  
euskaldun bihotzekoak.

Lopategik:

Eta hauxe degu berriro ere  
herri honetako jira;  
badago hemen alaitasuna,  
ateratzen du distira;  
on egitea seguru dago  
bazkariari begira,  
izugarria baitzegen dana  
arrain-zopatik mamira.

Iraolak:

Egunsentia argitu zaigu  
uxaturikan iluna,  
gaurko tristura une hontantxe  
niregandik degu juna;  
eguerdiz festa, bazkari ederra,  
hauxe da edertasuna!  
Buka dezagun ongi, holaxe,  
onghi hasi dan eguna.

Azpillagak:

Etortzerako hemen zer zegon  
nengon ongi igarria,  
alaitasunak kendu lezake  
gure barrenko larria,  
ikusten degu hemen dagola  
indar ikaragarria...  
kolpe batean ez da erortzen  
baturik dagon herria.

Lopategik:

Batzeko duten lokarri hori  
eten gabe egon dedin,  
animo pixkat eman nahi degu  
bertso-kantuarekin fin;  
bakoitzak berak sentitzen duna  
nahiz eta lasai hitz egin,  
giro ona ta alkartasuna  
ez dira falta Zaldibin.

Iraolak:

Alkartutzea gauza ederra da  
eta alkartu ahal balitz,  
nik horri buruz- nire bizitzan  
eginik daukat zenbait hitz  
gure hildako gudari hoi  
izenak ere hor dabiltz,  
lehen urtean behin Zaldibin festa,  
orain urtean bi aldiz.

Azpillagak:

Zaldibi beti bertsoarentzat  
izan da hain serbitzala,  
hemeretzi bat urte badira  
aurrena etorri nintzala,  
geroztik ere hemen badago  
bertsoarentzat itzala;  
urte askoan gure Jainkoak  
guztiok gorde gaitzala.

Lopategik:

Gogo ederra azaldu du ta  
heldu bedi ondorena;  
gauza batekin bakar-bakarrik  
sentitzen det nik gaur pena,  
bertsotarako zaletasuna  
beti da hemen nabarmena,  
baina kozinan sartu digute  
bertsolaririk onena.

Iraolak:

Kozinan ere horrek badaki  
jakin behar dan antzean;  
kapritxoz bera jartzen danean  
kanpoan eta etxean.  
Jende guztia konforme ohi da  
horrek zedozer jartzean.  
Bertsotan ere oain hutsegina  
ordainduko du arratsean.

Azpillagak:

Kozina eta bertsolaritza  
batera egin ezin da;  
berez gogorra dan gizon baten  
badu aski ahalegin da;  
Joxe Mari hau nolakoa dan  
esanda ere berdin da:  
arkume ederra jarri du baina  
panaderian eginda.

Lopategik:

Oso goxoa zegoen eta  
ez ezazu har serio;  
jaiotzetikan artista danak  
gero edozertan balio,  
bazkari ederra janak baikau  
berori dala medio.  
Besteri ematen saiatzen danak  
berari on egiten dio.

Iraolak:

Berari're on eingo diola,  
hortaz ez dago dudarik;  
pausoak neurtzen behin ikasi ta  
berdin jarraitzen dularik;  
baina badakit nondikan nora  
neurtu litekeen mugarik,  
gaur arkume hau erre duenak  
ez digu egin grebarik.

Azpillagak:

Zaldibi hontan denek dakite  
Joxe Mari jauna nor dan,  
orain kalean bapo bizi da  
lehen ibiltzen zana bordan;  
ezkondu gabe elkarbiltzea  
orain aurkitzen da modan...  
Ni bodarako esanda nago,  
ez dakit noiz izango dan.

Lopategik:

Ez dakit inoiz maiteko ditun  
bere inguruko gonak,  
kozina eta gauza hoietan  
zabaldu zituen sonak;  
lagun artean jartzen baititu  
jan-edanak eta bromak,  
ezkondutzerik ez du merezi  
era horretako gizonak.

Iraolak:

Etxe batean jaioak gara  
elkartzen gera batera,  
hango kuzinak guk geure kasa  
kutxara eta platera.  
Gonbita hori juxtu-juxtuan  
ez liteke ez atera:  
boda baino lehen etor zintezke  
berriz arkume jatera.

Azpillagak:  
Arkume jaten etortzea ere,  
Patxi, nik ez det utziko  
baina egiaz Joxemairentzat  
arkumea al da graziko?  
Sukalde ondoko emakumeak,  
agur bat lehendabiziko,  
haiek egondu ez balira hor  
Joxemai ez zan hasiko.

Lopategik:  
Horren joera nolakoa dan  
ez naiz batere harritu,  
ezenen dudik baldin bazenu  
nik nahi zintuzket argitu:  
kozinan neskak egonagatik  
horrek ez die begitu,  
baina Aralarko bildots guztiak  
berak manejatzen ditu.

Iraolak:  
Ari da arkume batzuk erretzen  
ta manejatzen da errez,  
horretarako ere gizonak  
jaio behar baitu berez;  
askok kritika egiten dio  
dagolako andre gabez;  
neroni ere hementxe nago  
dibortziuan beldurrez.

Azpillagak:  
Dibortziua oaindik ez dago  
hainbesteko beldurrian,  
ta Joxe Mari ezkontzeko ere  
horren gorputz ederrian,  
hiru neskazahar eder askoak  
badaude gure herrian,  
haiek hartuta etorriko naiz  
datorren udaberrian.

Lopategik:

Proposizioz hasiak daude  
orain nire inguruak,  
baina nork daki zer pentsatzen dun  
Joxe Mariren buruak?  
Ezkondu nahian baldin baditu  
halako asmo beruak  
gaztea ere ez du faltako  
holako kozineruak..

Iraolak:

Nolabait ere jaio ginan ta  
bizi beharra munduan,  
guk holakoxe dohaina berez  
nonbait ekarri genduan;  
zuk, Azpillaga, hiru neskazahar  
badauzkazula orduan!  
Guretzat bi aski, kontuak egin  
bestea nork behar duan.

Azpillagak:

Anai bat hartu eta bestea  
ez du merezi uzteak,  
pena ematen du bi anai hola  
mutilzahartuta ikusteak;  
esperientzia nola behar dun  
mutilzaharren emazteak;  
hauentzat zaharrak gordetzen ditut  
neuk behar ditut gazteak.

Lopategik:

Pentsatu eta esan egin du  
nola ez darabilen lotsik;  
ez ote degu neurtuko inoiz  
Azpillagaren bihotzik?  
Beste anaiok soltero daude  
hala ere biak pozik;  
gaur egunean ez da ezkontzen  
tonto batzuk izan ezik.

Iraolak:

Azpillagari fin ari danik  
ez diot gaurkoz iritzi,  
halamoduzko tankeran horrek  
lehen egina du irrintzi,  
gazteak berak behar ditula  
zaharrak guretzako utzi;  
haiei ere lehen emango zien  
makinatxo bat igurtzi.

Azpillagak:

Konturatu naiz Patxi kontu hau  
esaten hasi danian,  
gazterik ezin liteke jarri  
mutilzaharraren planian;  
hiru neskazahar daude Mutrikun,  
lagunak bizi danian;  
bildurrik gabe hartu daitezke,  
ondo dakite lanian.

Lopategik:

Esperientzia kasu batzutan  
txarra ez baita izaten,  
Azpillaga ere hasia degu  
dakien dana esaten;  
harrokeriak gure artean  
ez baitu ongi ematen:  
etxeckoekin nahiko lan degu  
besteei utzi joaten.

Iraolak:

Neskatxa hoiek bizi diraden  
herria dala Mutriko,  
ibiliko zan Azpillagaren  
antzeko zenbait mutiko,  
orain Zaldibin saldu nahi ditu  
horrelako hiru tipo...  
Nik horrenbestez bukatutzen det,  
ez gera hasi betiko.



## **Azpillaga eta Lopategirekin, 2. saioa**

Egun horrek bigarren saio bat ere izan zuen. Berriz ere Azpillaga hasten da (puntako ona da hura). Lopategik jarraitu eta ni hirugarren.

Azpillagak:

Guk honenbestez beste saio bat  
behar genduke atera,  
andre ta gizon bildu gerade  
Gurasoen Alkartera;  
matxismo eta feminismorik  
ez dator gure tartera;  
guztiok elkar maita dezagun  
ta goazen denok batera.

Lopategik:

Matxismoa ta emakumeak  
datoz bertso-bihurrian,  
norbaitzuk hemen nola ditugun  
gai horrexen egarrian;  
hogeita hamahiru erre zituzten  
noizbait Hebroiko herrian,  
horrelakorik ez da gertatu  
sekula Euskal Herrian.

Iraolak:

Inoiz ahaztuko ez zaigu eta  
Chicagoko oroimena,  
orduan triste gertatu zan da  
oraindik daukagu pena;  
emakumeek defenditu nahi  
lukete nonbait berena  
beti izaten segitu gabe  
gizonezkoaren tresna.

Azpillagak:

Orain artean ni saiatu naiz  
hain intentzio finetan,  
emakumea maitatutzea  
beti ni ahaleginetan;  
jarri behar bada jarri gaitezen  
emaztearen oinetan;  
andre-gizonek bizi behar degu  
kondizio berdinetan.

Lopategik:

Noizean behinka arrazoietan  
gu ere mantsoki gabiltz,  
era horretan gure Azpillagak  
egiten digu hemen hitz;  
emakumeak hartu ditzagun  
denok errespetu haundiz  
gizonezkorik ez bailegoke  
emakumerik ez balitz.

Iraolak:

Har eta eme izanik berdin  
geure gorputz ta arima,  
hobe genduke hobetoago  
konturatuko bagina,  
behingoz Chicagon gertatu hura,  
danok daukagu lastima  
berriz'e berdin gertatuko da  
aldatu ezean sistima.

Azpillagak:

Nahiz ta pentsatu gizonezkoak  
hortaz daukala lazoa,  
bera dalako, gizonezkoa  
izaten da gurasoa;  
hain da izaki berdin gabea  
polita eta goxoa,  
bera maitatzen daramakit nik  
nere bizi osoa.

Lopategik:

Nik ere hontan izaten ditut  
beti nire sesioak,  
baina sarritan burua galtzen  
du gizonen desioak,  
horrela datoz aspaldi hontan,  
tira-biron azioak,  
inkontrolatu tartetik datoz  
horrelako lezioak.

Iraolak:

Dudik ez dago inkontrolatuz  
herria dago jantzia,  
ia oraintxe hasiak gaude  
amaitzen pazientzia,  
batzuek mende eta besteek  
berek nahi duten guztia,  
gobernu hontan dagoena da  
holako kontzientzia.

Azpillagak:

Matxismo eta feminismoa  
ez al da gauza tristia?  
Garai batean nork uste zuan  
holakoak ikustia?  
Emakumea maite ez dunak  
maitatuko du bestia,  
horrelakoak merezi luke  
bere isatsa moztia.

Lopategik:

Sasoi batetik garai hontara  
gertatu da hemen bira,  
gu errespetoz ibiltzen gera  
emakumeei begira  
baina halare sarri askotan  
tristeak gertatzen dira,  
hioen kontrako "terrorismoa"  
Madriletik etorri da.

Iraolak:  
Madriletikan «terrorismoan»  
beren legez zaigu ari,  
zapalkuntzan gu gizon ta emazte  
guztiok gera erori;  
amarengandik sortutzen gera  
langile eta gudari,  
Zaharraren ama hementxe da-ta  
txalo bero bat berari.

Azpillagak:  
Ai, Lopategi, inolaz ere  
gauza ez ezazu narrastu,  
emakumeen kontra joanda  
inor ez da aberastu.  
Jauntxo matxista hoi lanakin  
ere ez zaitezela ahaztu:  
Emazteari aurpegi beltza  
neskameakin jolastu.

Lopategik:  
Honek badauka bere kontrako  
amenazu-interesa,  
emazteari beti eman diot  
maitasunezko babesa,  
beste erara jolastutzeko  
ez det sentitzen laineza:  
neskamerikan ez den oraindik  
ni ez bainauzu burgesa.

Iraolak:  
Bien artean sortu digute  
hauek egundoko gerra,  
gogoen berri ez dakigu-ta  
dudan egotea alperra,  
burges ez bada ez Lopategi  
eta ez Azpillaga hau bera  
baina auskalo zer egin daiken  
gogoaren arabera.

Azpillagak:  
Burgesa zeran edo ez zeran  
ni ez det egin galdera,  
baina zer zeran aitortutzeko  
eduki dezu aukera;  
gaurkoagatik saia gaitezen  
emakumeen aldera:  
horiek ondo baldin badabiltz  
gu ere biziko gera.

Lopategik:  
Hala degu-ta hala mantendu  
behar zan gaurko patxada,  
emakumea, bertsolariei  
arren ez izan ikara!  
gauza da broman edo serio  
azkenik parre-algara;  
emakumerik ez det serbitzen  
borondatean ez bada.

Iraolak:  
Borondatea dadukanari  
halako batez bilduta,  
izan daiteke txolarte hontaz  
hitzak ondo azalduta...  
ta saio honek ia oraintxe  
berea emana du-ta,  
aurkixeago beste bat berriz  
beste gai bati helduta.

### **Azpillaga eta Lopategirekin, 3. saioa**

Egun horretako hirugarren eta azkeneko saioa dugu oraingoa. Azpillaga, Lopategi eta ni. Beraz, beti bezala Azpillagak ematen dio hasiera:

Azpillagak:

Bertso kantatuz txandaka gabiltz  
ematen gure neurriak,  
kanta dezagun laguntzen badu  
zenezumen ta eztarriak;  
jendeak jakin beharra dauzka  
pasatzen diran berriak,  
Madrilen pasa diranak ere  
jakin ditzala herriak.

Lopategik:

Urte gehiegi damarazkigu  
munduaren errukarri,  
garai baten diktaturakin  
eta orain ere larri;  
bertso kantuan jardungo gara  
bihotz danen suspergarri,  
baina Madrila joan ezkerro  
gauza onik ezin ekarri.

Iraolak:

Madrilen bildu gure ondasunak,  
han janzten dira indarrez,  
ta guk ordenak kunplitu behar  
haiek emanikan aurrez,  
bizi osoa daramakigu  
guk madrildarren beldurrez;  
orain ere hor zer gertatu dan  
jakiten ez dago errez.

Azpillagak:

Ikusten degu kontu horretan  
erdi aidean gaudena,  
gauza garbirik inork ez daki  
horrek ematen dit pena,  
berrogei mila lider hartzea  
Millans de Bosch-ena ordena,  
joan da bera harrapatzea  
ez al da gauzik onena?

Lopategik:

Bosch ta Tejero jarri dituzte  
propagandakin ezagun,  
baina gauza hori sakonetikan  
analizatu dezagun;  
Villa ta Fraga barruan zeunden  
baina guardiekin lagun,  
hortik atera demokrazi hontan  
zer espero dezakegun.

Iraolak:

Eta Tejero han sartutzean  
honek hola egin zuen hitz:  
«militar batzuk hemen ordena  
jartzeko asmotan dabiltz,  
guztiok jota bertan garbitu  
inor mugituko balitz»...  
independentzia lortutzeko  
esku ederretan gabiltz.

Azpillagak:

Tejerokeri bat izan zala  
eman dute bataiua,  
hemezortzi bat ordukoa zan  
egindako katigua;  
hogeita hamar urtekoa da  
Tejeroren kastigua;  
ikusiko da zer gertatzen dan,  
denbora da testigua.

Lopategik:

Gauzak mejoran joango balira  
euskaldun denentzat hobe,  
bien bitartean batasunean  
jarri behar dugu trebe,  
Tejero eta bere lagunak  
bibotedun edo gabe...  
oraindik lehengo diktadorea  
demokraziaren jabe.

Iraolak:  
Izan zitekeen tejerada bat,  
bildurtu edo isiltzeko,  
motiborikan bada oraintxe  
alkarregana biltzeko,  
bestela gaude hemen holaxe  
puska baten ibiltzeko,  
zer edo zer sortzen ez bada  
belar gaiztoa galtzeko.

### **Lazkao Txikirekin elizan**

Lau apaizen urrezko ezteiak: Migel Mari Mendizabal, Esteban eta Joxe Mari Arrizubieta, eta Angel Sukia, 1990ean. Lazkao Txiki eta biok ginen kantuan; bina bertso kantatu genituen neu hasita, nireak dira lehenengoa eta hirugarrena.

Iraolak:  
Egun batean aldare hontan  
lau gizon ta apaiz berri,  
lautatik hiru hemen ditugu  
zeruan da Migel Mari,  
erantzun zion goitik Jainkoak  
egina zion deiari,  
aintza ta ospe gaurkoan kantuz  
eskeintzen diet lauri.

Lazkao Txikik:  
Zeru eta lurren jabe zeranez  
ein zure borondatea,  
baina ikusi: lur hau daukagu  
mila arazoz betea,  
horregatikan eskatzen dizut,  
gutaz oroitu zaitea,  
zeruetatik bidal zaiguzu  
maitasuna ta pakea.



Iraolak:  
Berrogei eta hamar urtean  
elizaren serbitzari  
eta ukorik egin gabean  
eman zenuten hitzari,  
aurrerantz ere zuen argia  
luzaz ez bedi itzali,  
ta har zazute gure omen hau  
zuen egintza onen sari.

### **Goiburu eta biok**

Santa Barbara aurrean: 2008. urte horretan, auzotarrak bi puska egin ziren, eta bakoitzak bere aldetik ospatu zuen eguna; bazkaria taberna banatan izan zuten, bakoitzak bere bertsolariekin. Nik Goiburu nuen bertso-lagun, eta bion artean egindako saiotik jaso ditut neure hauek; baliteke hitzen bat edo beste aldatuta egotea, baina arrazoietan honelatsu kantatu nituen.

Abenduaren hasiera eta  
azaroaren amaia,  
aurtengoz ere iritsia da  
elkartutzeko garaia,  
Santa Barbaraan babes gozoan  
arreba eta anaia,  
bihotz-bihotzez opa dizuet  
egun on eta alaia.

«Anaitasunez elkar gaitezen»  
esaten degu guk beti,  
baina zerbaitek huts egiten du  
guk hori esanagati.  
Errezatzeko elkartu gera  
ondorenean bi zati,  
zuentzat dago Lazkaoetxe  
guretzat berriz Illati.

Jesukristoren agindua da  
maitasunean elkartu  
batak besteen hutsegiteak  
hitz egin eta barkatu.  
Jakín batzea indarra dala  
eta hala ere bakartu.  
Mundua nola konponduko da  
hola bagabiltz lau katu?

**Ormaiztegin, bakarka: «Txindokitik Azikorrira»**

Ormaiztegin, 1990ean, kantatuak dira hurrengo hiru bertsoak. Gaia: Txindokitik Aizkorrira:

Txindokitan Aizkorriruntza  
nago begira egonik,  
eta berdintsu zenbait alditan  
Aizkorri aldera joanik.  
Jaio, ta gero, urte guztiok  
hementxe daramazkit nik,  
ta ez dut pentsatzen mundu guztian  
toki hoberik badanik.

Toki menditsu edo aldapa  
ez da ordeka lisua,  
muino haundiak eta tontorrak  
eta harkaitzez pisua,  
baina bestetik gure sakon hau  
babesa eta goxua,  
ez dago nunahi bilatutzerik  
holako paradisua.

Eta holaxe goraldú nahi det  
hainbat maite baitut bera,  
jaio ezkerok hemendik urrun  
ez naiz askotan atera,  
eta berriro izango banu  
berriro jaiotzeko era,  
nahiago nuke bertantxe sortu  
berriro bizi izatera.

## **Notarioa**

Orain non oroitzen ez naizen toki batean notario pape-rean kantatu behar izan nuen. Hauxe da emaitza:

Horra, gizona, hemen zaude-ta  
hasi beharko hitz-tratoz,  
eta hasera emango diot  
dagokizun errespetoz,  
zaku ta xarpa, bizar luxea,  
difuntua erretratoz,  
testamentua egin nahi edo  
zer eskatutzera zatoz?

Gazte denboran etorkizuna  
hartu gabea serio,  
nere iritziz zeu izan zera  
zu zerorren kontrario.  
Ez da pertsona tontoarena  
zuk daukazun hitz-jario,  
saia bazina ni baino aisego  
eingo zinen notario.

Horra gizona gaurkoz presaka  
neregana iritsia,  
testamentuan seinala nahita  
bereraren heredentzia,  
eta honela utziko det nik  
artxiboan idatzia:  
«Zapoei soina ta Estaduantzat  
zakua eta jantzia»

## **Murua eta biok Iruñan**

Bertso hauek Iruñan kantatuak dira. Murua eta biok gi-nen. Gai hau eman ziguten: «Murua, Retegi pilotaria; eta ni santua, Retegiren zaindaria. Ez naiz gogoratzen Muruak zer kantatu zuen. Gero nik, poliki samar atera zitzaidala iruditu-

rik, bidean pixka bat hausnartu eta etxera etortzean apuntatu egin nitue. Hauetxek dira:

Frontoian sartutzean  
uzten dezu broma,  
pilotarekin gogor  
kolpatuaz horma,  
ni naiz zuri zerutik  
laguntzen nagona,  
horregatikan zera  
pilotari ona.

Txapagain jotzen hasi  
eta txapapera,  
hortzak estutu eta  
begiz gora aldera,  
deskuidoz gertatzean  
tantua galtzera,  
Jainko eta santuez  
ohartutzen zera.

Gotik begira gaude  
santu dohatsuak,  
laguntzeko badira  
premizko kasuak,  
eta entzuten ditut  
zure errezuak,  
nahiz ez diran askotan  
izaten gozuak.

Txapeldunen txapeldun  
izatera iritsi,  
oraindik ez zintuzket  
eskutik nahi utzi;  
zure zaindariaz zu  
ez zaitez ahortzi,  
beste txapel berri bat  
nahi badezu jantzi.

Gaia ipinita kantaturiko bertsoak dira. Erraz igarri daitekeenez, badaikgu zer problema zebilen hemen. Norbaitek txisteia ere atera zuen: Aita Santuak Espainira etorri nahi zuela hiltzera edo horrelako zerbait.

Larogeita hamabost  
mila beaziehun da,  
ikaragarria da  
lapurren burruna,  
gizon garbi bat inun  
ezin da barrunda,  
gure itxaropena  
tokitara jun da!

Aita Santuak ere  
dio aditzera  
Espainira etorri  
nahi dula hiltzera;  
lapurrak inguratu  
bere saihetsera,  
ta azken arnasa eman  
Kristoren antzera.

Agintean ipini  
zenbait animalia,  
herriaren diruak  
Suizara bidali.  
Eskubidea zeinek  
eman dio Gali  
diru erresebatuak  
nola erabili?

### **Lazkaon Goiburu eta Narbarterekin**

Orain datozen bertsoak Lazkaon, 1988 aldera, kantatuak dira. Goiburu, Narbarte eta hirurok ginen. Gaiak honela zioen: «Iraola, gizon aberatsa da, Narbarte, gizon arrunta eta

Goiburu, gizon pobrea. Neu hasten naiz, Narbartek jarraitu eta Goiburuk amaitu:

Iraolak:

Mundu honetan pasatu ditut  
berrogeita hamabost urte,  
nahiko dirua badaukat eta  
osasunez ere fuerte,  
alde hortatik ez du edozeinek  
nik dedan hainbeste suerte,  
zuek'e aberastu zinezkete bai  
saiatutzen bazerate.

Narbate:

Gu biok ere badegu, lagun,  
beharrezko dan defentsa,  
eta ederki defenditzea  
hau da gure interesa,  
aberatsak beti asko dauka  
eta gehiagon ametsa,  
gutxi duena zu baino gaizki-  
go denik ez zazu pentsa.

Goiburu:

Ni abarkatan egina nago  
neuk ez dakit zenbat gastu,  
Patxi zahar honek ez du oraindik  
nik aina lokatza nahastu;  
nik orain esaten dizudana  
ai ez zaizuela ahastu,  
langile finik mundu hontan ez  
da oraindik aberastu.

Iraola:

Zuk abarketan egina dezu  
horrenbesteko gastua,  
behor da ardi edo berdin behi  
lokatza asko nahastua,

nik al dedana ongi kobratu  
ostu bada nun ostua,  
uste al dezu txintxo ibilita  
nagola aberastua?

Narbate:

Fabrika baten lan egiten det  
nik berdin jai eta aste,  
jornal txikiak neretzat handik  
sarritan nahiz badatozte,  
apur txiki bat badadukat nik  
gaizki nagonik ez uste,  
behintzat oraindik ateratzen det  
bizituzeko hainbeste.

Goiburu:

Abarkarekin eginik nago  
hainbat neke eta korri,  
sarri askotan izarditurik  
kolore guztiak gorri,  
kaso ein behar hainbeste behi  
eta hainbeste behorri,  
gutxigo einda Patxi zaharra, hi,  
aberastu haiz heorri.

Iraola:

Ni nolakoa izandu naizen  
garbi esan dizut aurrez,  
horretarako suerteduna  
munduan behar da berez,  
mundu hontako joan-etorriak  
manejatzen ditut errez:  
dozena erdi bat *guarda espaldakin*,  
sekuestratzeko beldurrez.

Narbate:

*Guarda espaldak'e* baditula  
hori da bere hizketa,  
hola bizitzea, ez pentsatu,  
ez da izaten berriketa.

Nahiz nik miloiaz beteta ez izan  
nere etxeko maleta,  
gustura nago dedan gutxikin  
ondo bizitzen naiz eta.

Goiburuk:  
Gure Patxi hau bizi izan da  
beti diruan egarrik,  
etxean dauzkan gehienak dira  
bide txarretik ekarrik,  
sekuestratzeko beldurrez dago  
ez dago esan beharrik,  
eramaten baldin badute ere  
ez det egingo negarrik.

### **Publikoa**

Behin batean, bertso saioa agurtzeko honako bertso hau  
kantatu nuen:

Nola mendiko jende  
hala hirikoa,  
hemen gaur bildu dana  
kategorikoa,  
nahiz ta gure saioa  
ez zan purikoa,  
hala ere txalotu,  
hau da publikoa!



## **BERTSO JARRIAK**

### **Bixente Nazabal artzainaren heriotzan**

Agurtu zera zeure  
mendiz eta ardiz,  
lan guztiak eginda  
txukuntasun garbiz,  
ez zaitugu gehiago  
ikusiko begiz,  
baina bai errez asko  
oroitzaren argiz,  
zutaz gogoratutzen  
geran hainbat aldiz.

Artzai zintzo leiala  
zinan hain juxtu-ta,  
errakuntzarik gabe  
bidean nahastuta;  
lanetik bizi eta  
lanean disfruta,  
azkenean betiko  
mundutik ezkuta,  
zuk zeneukan guztia  
ematen hustuta.

Hunkiturik Bixente  
ondotik joateak,  
bihotzak ditugula  
tristuraz beteak,  
baina behartu zaitu  
kontu emateak;  
balio baldin badu  
otoitz egiteak,  
Jaunak zabal deizula  
zeruko ateak.

## **Antonio Muruari “Gorriñe” (1997)**

Jende guztiarekin  
hartu-emanetan,  
ezagutu zaitugu  
guk herri honetan;  
sasoiko gizon lerden  
indartsu benetan;  
orain bukatutzean  
munduko lanetan;  
Jaunak ase zaitzala  
zeruko manetan.

Gaztetatik hasita  
bizitza osoa,  
elkar ezagutzea  
da gure kasoa,  
hiztun egoki eta  
tarteka bertsoa,  
famili bikainaren  
aita, gurasoa;  
ahaztuko ez zaitugun  
lagun bromosoa.

## **Antonio Arrubarrenari**

Beti izan zerana  
gure gidaria,  
istripu demonioz  
hiltzeko zoria  
lagunen bihotzetan  
eginik zauria  
utzi dezu negarra  
zeinek isuria.  
Agur ta gero arte  
taldeko txoria,

## **Jexux Gurrutzagari (1997)**

Jaiotzak heriotza  
du ondorioa,  
guztiz beldurgarria  
eta serioa,  
Jexux, igaro dezu  
zeuk'e herioa,  
beste errurik gabe  
hiltzeko jaioa.

Hiztun zorrotza baina  
bihotzez samurra,  
joan zaizu munduko  
izate laburra.  
Hartzera zoazela  
hilobiko lurra,  
hau da zure lagunen  
maitasun-agurra.

Sukaldaritza zinen  
arreta biziko,  
ez zintuen horretan  
edonork hautsiko;  
berriz ez zaitu inork  
hortan ikusiko,  
ez diguzu gehiago  
babaik egosiko.

## **Damian Erauskini, Ameriketari hila**

Ezin eramanikan  
ondoezen jasa,  
morala galdurikan  
animo eskasa,

hara joan ginen, hemen  
ez baikeunden lasa,  
sentitutzera zure  
azkeneko arnasa.

Munduan bizi izana  
beti ametsetan,  
gogoaz zendularik  
hain goiko gauzetan;  
azkena eman dezu  
hori ezin asetan,  
gaur gerta zaitezela  
betiko pozetan.

Gaztetan bizi gendun  
fedearen garra,  
hura konfesio ta  
komulga beharra  
eta egia bada  
erlijio zaharra,  
orain ez dadukazu  
gozamendu txarra.

### **Damiani Olanori**

Horra, Damian, ordaindu dezu  
jaiotzaren ondorena,  
iritsi zaizu horretarako  
ordua edo orena,  
bien bitartean bete ondoren  
gizon zintzoen ordena;  
utzi diguzu bertso eta histori  
betirako oroimena,  
zauden tokitik hariezadazu  
eskerrik bihozkorrena.

Hainbat tertuli egin genuen:  
jatorrak eta gozoak,  
eta hizpide gure herriko  
histori edo bertsoak;  
oso eliztar zintzoa zinan  
etxean ere errezoak,  
San Pedrok libre utzi deizula  
zerura arteko pasoak,  
gozamenetan hartu zaitzala  
betikotasun osoak.

### **Pedro Iraola anaiari (2002)**

Bukatu arte eman ta eman:  
zure izate osoa,  
guztiok ondo ikusi nahia  
zein jokabide gozoa!;  
erakutsiaz nola behar den  
egiazkoa gurasoa  
eta hilezkor bihurtuko da  
guk zuregandik jaso.

Gure zortzikoaren  
lehenbiziko printza,  
halabeharrez zaigu  
arestian pitza,  
banatzera etorri  
da heriotza-sitsa;  
ez haugula ahaztuko  
horra gure hitza,  
ondo has dezakela  
betiko bizitza.

### **Olaako Lorentxo Sukiari (1999)**

Larogeita sei urtez  
bizitua alai,  
bertsozale sutsua  
ehizean ere bai;  
oraindik zu hiltzerik  
guk ez genduen nahi,  
baina hau gertatzen da:  
noizbait behar amai;  
betiko atsedenean  
hartu ezazu jai.

### **Migel Etxeberriari (1996)**

Beste bi lagun maitek  
orain dala gutxi,  
guk nahi ez genduela  
hor gintuzten utzi,  
Miel, gaur zure txanda  
uste gabe iritsi,  
zeuek zorrak ordaindu  
gu zorretan jantzi,  
besarkatu itzazu  
Andres eta Patxi.

### **Hildako artzainei mezatan, Amezketarranean (Aitzior): 1998**

Egunik egun urterik urte  
gertatutzen da zedoze,  
batzuek jaio eta besteak hil  
zenbat gertakizun klase,  
lur gosearen sabelik inoiz  
bestela ez liteke ase;

lehengoak lehengo iaztik aurtena  
joan zaigu Joan Joxe  
artzai ta kantuz saiatu zana  
gaur gu orain bezelaxe.

Beste mundura bidali nahi det  
otoitzezko albistea,  
era horretan oinarritzen da  
kristauaren sinistea,  
nahi nukeena da artzai hilengan  
xuxe-xuxen iristea,  
bukatu bedi sufrimenduzko  
burgatorio tristea,  
gerta dedila goiko larreetan  
zorionean piztea.

### **Gure lehengusu Patxi Nazabal Iraolaren errautsak botatzekoan**

Zer misterio duen berekin  
jaiotzak eta hiltzeak,  
horra hor orain errauts lehorrak  
lehengo gorpuzki hezeak;  
Patxi, hik hemen erromerian  
hainbat jaiegun paseak,  
lagun guztiak besarkatuaz  
alaitasunez aseak,  
eta orain hor hau garai haietan  
arnasten huen haizeak.

Nola emazte edota seme  
berdin dio senitarte,  
heriotzaren etorkizunak  
egiten gaitu bi parte.  
Zein gogorra den zail da neurtzea  
etxean gerta bitarte...

Patxi, hi ere joana haugu  
guregandikan aparte,  
baina betiko ezin agurtu  
baizik eta gero arte.

Konparazioz hitz egiteko  
gure logikaren grinak:  
markesengandik markeskumea  
erregeak erreginak;  
jarrai dezala aurrerantz ere  
naturaren eraginak,  
sortu ditezen gizon bizkorrak  
argiak eta gordinak,  
hire antzeko zurginak eta  
hire antzeko harginak.

### **Alabak amari (Dolores Tolosa): 1998**

Maitasun osoakin  
bihotza emana,  
hain da hunkigarria  
horrek duen xarma,  
bihotza da egiaz  
maitatzeko arma,  
guk horrekintxe maite  
zaitugu zu ama

### **Nikolas Antxusiri, hileta egunean Legorretan kantatuak**

Gizatxarkeriz ibili gabe  
bartzarrak nundik nahastuko,  
hortan zenduen dohai ederra  
inoiz ez da erraustuko,  
umoretsua eta alaia  
hain gizatasun prestuko,  
zenbat une on pasatu degun  
sekula ez zait ahaztuko.



Nikolas, ez dut mantxik aurkitu  
zure birtute garbian,  
zuk izan ezik nork biajatu  
espirituzko gurdian?  
Aita eternoak eskutik hartu  
eta aingeruak guardian,  
irri-parrezka egongo zera  
zeruan erdi-erdian.

**Joan Asurabarrena koinatuaren erreordatorioa,  
(1997)**

Falta nabari degu  
etxe inguruan,  
ikusia hainbeste  
urteren buruan,  
zenduena emanaz  
amaitu zenduan  
gizon zintzoek egin  
ohi duten moduan,  
orain izatekotan  
betiko zeruan.

Betirako lotoki  
lurraren sabela,  
noizbait guztientzako  
prest dagoen gela,  
argazkian dirudi  
begira zaudela,  
gero arte esan nahi  
bazenu bezela,  
desio dezun eran  
elkar gaitezela.

### **Gau batean tabernatik etxera**

Abiatuagatik  
etxera berandu,  
baina gaur Patxik neurriz  
jan eta edan du.  
Begietan ez daukat  
inoiz aina kandu,  
neurrian errenditu  
horrek nahiko landu  
baina eginez gero  
poza ematen du.

### **Bertso bat denek ulertzeko modukoa**

Ez da gogorik zor zaion hura  
zor zaionari uzteko,  
Aita Gurean parte hau hoiek  
utzi zuten ikasteko,  
baina badegu itxaropena  
egiak irabazteko,  
banatzen gaitun artzizkunaren  
horma guztiak hausteko,  
Euskal Herria batasunean  
munduai erakusteko.

**Joxe Mari eta Erramun Izagireren mezatan,  
Ernagan**

Kristau onak zinatzen  
zuek onenetan,  
hara nik zuen baitan  
nola uste detan:  
zerutar guztiekin  
hartu-emanetan,  
horrek izan behar du  
ederra benetan.

Enkargu bat zueri  
eman beharrean,  
amaitzen deguneko  
mundu kaxkarrean,  
guretzat toki egin  
aurki lasterrean,  
besterikan ez bada  
aulki baxtarrean.

**Joxepa Muruari: 1998**

Horra, Joxepa, Joan Kruzenea  
zenuen ordezkatur,  
geroz herria nola serbitu  
hainbestetan kezkatua,  
konpromisorik handiena ere  
beti tajuz prestatua,  
hainbat urtetan lana eginik  
noizbait ere gastatua  
baina bizirik utzi digu  
gure Herri Ostatua.

Gaztetxoentzat izandu zinen  
babesa edo epela,  
jakinagatik bihurriren bat  
hioen tartean bazela,  
eskuratu nahiz azeitunan bat  
gaileta edo pastela,  
aurpegi alaiz eztabaidatuz  
zenbait buila ta tekela,  
baina guztiak ondo serbitu  
amak etxean bezela.

Sekula ere ez zait ahaztuko  
zure aurpegiko irria,  
hziketan ere guztiz txukuna  
ez zinan hiltun urria.  
Hainbat urtean bizi ondoren  
topa dezu hilerria,  
Joxepanean utzi diguzu  
guretzat oroitarrria.  
Agur, Joxepa, agur bihotzez  
hain zera agurgarria!

### **Etxe inguruko pagoari**

Hainbeste zuhaitz maitagarriak  
daude gure oihanetan,  
bat edo beste tratu bereziz  
maitatzen da gehienetan;  
zu, pago gazte, hemen zauzkagu  
ia etxeko ateetan;  
egurats onez siestan edo  
berdin sega-pikaketan,  
o!, pago eder, zure azpian  
nik zenbat gozatzen detan.

## **Mendi-bideko pagoari**

Nire mendi-bideko  
pago berezia,  
sabelean dadukak  
alanbre-hesia  
meharrago hintzala  
norbaitek josia,  
eta zura tartean  
zeharo nahasia...  
Ez dezala sorraraz  
hire minbizia.<sup>2</sup>

## **Pago zahar bati**

Liraintasunez ez izan arren  
zenbait aritzek dun forma,  
baina zenbatsu urte dituen  
zeinek zuzenki informa?  
Nabarmena da urte askoan  
bide ertz hontan dagona.  
Burgatorion ez ahal da egongo  
landatu zuen aitona!

## **Julian Muruari**

Gure lagun maitea  
ez beharrez hila,  
alkarrekin izanak  
hartu-eman mila;

---

2 Iparragirre baserritik Floreagako bide-ertzean dago pago hori.

Estebanen semea  
nolako mutila!  
Zu hil zinanez gero  
tristuraz nabila,  
saiatuagatikan  
alaitasun bila.

Julian, nola galdu  
guk zure oroitzza  
baina ezin besterik  
ez bada otoitzza;  
zu hiltzeko oraindik  
bazen nahiko goiza,  
hari hori mozteko  
zai zegon goraiza,  
heriotzak beregan  
hartu zaitu aisa.

Heriotza sartu zaizu  
jo gabe aldaba,  
indar ikustezina:  
suaren galda da,  
horrela gertatzea  
nahiko tamala da,  
amaitu da zuretzat  
munduko bolada,  
minez lagun, emazte,  
seme eta alaba.

Ezin galdu inor zuk  
egindako gaitzak,  
beti ahalik txukunen  
zenitun ekintzak,  
arrazoia eredu  
ta neurriko hitzak,  
meriturikan asko  
badauka Ernaitzak  
berek ditulako  
holako emaitzak.

Gauza gehiago ere  
nahi nituzke aitor:  
ez zinan zenbait bezain  
berritsu ta kottor,  
egiaren maitale,  
gezurretik opor,  
aberriaren alde  
leial ta mugikor,  
ezin azaldu zaitut  
zinan bezain jator.

«Kaixo, Patxi» esanaz  
irripar txikian,  
ile beltza estalgai  
zeure bekokian,  
inoiz kontu-kontari  
hizkera egokian  
alkarrekin topatu  
ohi ginan tokian,  
inor nola zirika  
ondo zenekian.

Afalondoan sarri  
saioa jokoan  
beti norbaitzuekin  
eginik topo han,  
erlojua ere inoiz  
ahaztu holakoan,  
orduak aisa pasa  
taberna-txokoan,  
nahiz biharamunean  
damua kolkoan.

Jokoan ez zinan ez  
pertsona zabarra,  
nonahi izandu zera  
zu txintxo samarra,  
ez zenduen tirako  
besteren hamarra,

jo gabe askok adina  
haserre-kamarra,  
galdu edo irabazi  
garbi hatzamarra.

Entzun nuen unean  
hil zela Julian  
anaiak esanikan  
etxe-atarian,  
esan nion egia  
ez zala agian;  
baietz erantzun zidan  
informe garbian,  
bihotzetik laster zen  
negarra begian.

Zure ezaupideak  
ditugula esker,  
inoiz ere otoitzez  
ez gintezke asper,  
baina ez genezake  
bestirikan ezer  
eta guretzat ere  
bidean da hauster,  
zuk itxaron patxadan  
hor gaituzu laster.

### **Joxe Martin eta Hilariaren semeak**

Hamalau urte nituelarik  
hitzezko iragarkiak:  
Joxe Martinen andre Hilarik  
izanak ditu bikiak,  
ume ederrak eta sanoak



eta ez oso txikiak,  
berehalaxe kalean ziran  
sehaskatikan jaikiak,  
inguru hontan jende guztiak  
atentzioz edukiak.

Gero batekin zer gertatu zan  
esan behar det azkenik:  
joan beharra izandu zuen  
egonda ez zun gauza onik,  
eta artean jendeak ez zun  
ezagututzen gizonik,  
“langintza” hartan parte harturik  
hura hor egongo zanik,  
jende guztia harritu zuen  
ia sinistu ezinik.

### **Fabrika Handian Anjel Marirekin**

Anjel eta ni Fabrika Haundian  
esplika nahi det kasoa,  
periodikoai goizero biok  
lehenengo errepasoa,  
gero nor bere tokiz serio  
lanean egun osoa.  
Hura izan zan neretzat lagun  
jatorra eta gozoa.

Hainbeste dira egunkariak  
ekartzen ditun mezuak,  
baina bakoitzak geure santuei  
eite'izkagu errezuak.  
Pasatzen zitun duke ta markes  
aktorea ta atsuak,  
haren gustuko nola ziraden  
beste kronika batzuak.

## Saturdin: 1997

Ekin, ordua iritsi da-ta  
zertan gehiago itxaron,  
hobe da lanak bukatu eta  
gero patxadatsu egon,  
eguraldia ere eguzkitsu  
o! zeinen ederra dagon,  
ohitura zaharrez entzuleari  
agur eta eguerdi on!

Saturninoren kokatokia  
degu Urreta bailera,  
hemendik zehar izaten omen  
gizon horren ibilera,  
atsedentxo bat hemen hartuta  
joaten zen Iruñera,  
Fermin ta lagun nafartarrekin  
han egiteko bilera.

Ermitatxo hau ezagutu nun  
nik oso neurri bittuan,  
estalpe hori egin zioten,  
estreinako berrituan,  
nik obra hori hasi zanean  
hamar bat urte nituan,  
auzolanean ibili nintzan:  
astoakin karretuan.

Mila beatziehun berrogeita bost:  
apustu bat zan zerratu  
«Biandetxe» eta «Motza» bestetik  
herronkan ezin geratu,  
egun berean motz indartsua  
gaixotutzea tokatu,  
apustu hori suspenditu zan  
eta ez zuten jokatu.

*Gaur goizean hartu det  
notizi garratza,  
orduantxe tristetu  
da nire bihotza;  
kunplimentu ugrari  
pulumentu hotza,  
nik galdetzen dizuet  
non gorde dan "Motza"*

(Basarri)

(...)  
*Jokoa galdu eta  
trabesean kitto,  
lanean leher eginda  
ez dirade itto.*

(Uztapide)

Inguru honi aldatu zaio  
garai hartan zuen antza:  
kamiorik ez bide xidorra  
Telleritikan gorantza.  
Nonahitikan abiatuta ere  
bide txarra eta aldatza;  
alde hauetan ez dago orain  
orduan aina lokatza.

Hemen daukagun aitona bat nik  
nahi det aipatu hurrena  
nola dan bera bailera hontako  
bizilagunik zaharrena,  
nekazaritzan eta artzantzan  
beti jarraitu duena,  
gora beraren sehaska zaharra...  
Gora Urretagoena!

Zure urteek ez dirudite  
zenbaitenek hainbat pisu,  
joan daneko aspaldi hontan  
ikusten zaitut berdintsu,

arroz-kolore gorristarekin  
zure masail eta musu  
eta sari bat eskeintzen zaizu  
danak merezi dituzu.

hainbat urtetan bizitzea zuk  
jaiotzaren ondorio,  
pasatu dezu zenbait hotz-bero  
lagun eta arerio,  
ehun urtera arrimatzen ta  
oso bizkor oraindio,  
segi holaxe urte askoan  
gora Migel Antonio.

### **San Isidro: 1997**

O!, San Isidro, zuk badakizu  
beti eske gauzkazuna  
eta zugandik espero degu  
itxurazko erantzuna,  
ereiki ezazu gure artean  
pakea eta maitasuna  
eta ondoren dezente antzean  
gozatzeko ondasuna.

Harrigarriak zeure denboran  
egindako mirariak:  
zeu elizan eta soro-lanetan  
aingeruekin idiak,  
Jaunak ordainez ematen zizun  
gutziz uzta ugariak,  
arkea guztiak gainezkaturik  
artoak eta gariak.

Eta honela esaten zuten  
lehengo sermolariak  
nola arkatik jan izan zuten  
usoak eta txoriak,  
eta arkarik lermatu gabe,  
zer gauza harrigarriak!  
Zeu zinan eran lagun itzazu  
gaur ere nekazariak.

### **Santa Feak: 2001**

Elizatik hasita  
ondoren kalean  
Santa Fe egunean  
ohiturari jarraituz  
asaben legean,  
otoitz beroak egin  
denbora berean,  
ez gaitzan harrapatu  
etsaiak bidean...  
festak goza ditzagun  
okerrik gabean.

Santa Feri lehenengo  
otoitz oparoak  
ez izan txoroak  
ez gaitzan abandona  
bere anparoak  
eta tripa-festa ere  
badakar geroak:  
ardo beltz ona eta  
mondeju beroak,  
ahuleziak kentzeko  
a ze jeneroak!

Bakoitzak ahal dun eran  
behar du prestatu,  
zergatik kezkatu?  
denontzako aukera  
Santa Fe festak du:  
kirol, soinu eta dantza  
bada non jostatu,  
nahi duenak aukeran  
plaza edo ostatu,  
agur, anai-arrebok,  
ondo-ondo ospatu.

### **Goierriko paisajea**

Aizkorri, Murumendi,  
Intzartzu, Nañarri  
atera litezkenak  
zenbait saski-harri,  
ibarren gailur-buru  
eta apaingarri,  
hoiek babesten dute  
o! gure Goierrri.

Ezagueraren argiz  
ireki begiak  
eta lehenik ikusi  
nituen mendiak,  
lurrez zabalak eta  
harkaitzez haundiak...  
nola ahaztu orduko  
zentzu-irudiak?

Ibai garden arraintsu  
eta iturriak  
Oriaren sortzaile  
leial ta garbiak

nahastuak fabrikako  
pozoin-isuriak,  
ez dauka lehengo antzik  
oraingo Oriak.

Soro, baratz, belardi  
murko eta pendiz,  
gaztain, pago, lizarrak  
urki eta haritz,  
sagar, aran, txermena,  
intxaur eta geriz.  
Paradiso hura noiz  
izango da berriz?

Baina galduagatik  
lehen zuen antza,  
berpiztuko zaigula  
badut esperantza  
haize berriz Goierrik  
har dezan arnasa,  
itxaropenez diot  
kantuzko gorantza.

### **Aiestaran-errekako festa-eguna: 1995**

Aitak lepoa ebaki zizun,  
Bitiniako alaba,  
sinesten gaitza baldin bada ere  
gertakizuna hala da  
baina geroztik dohatsu zera  
zeruan, Santa Barbara,  
ezbehar eta ekaitzetatik  
arren gaitzazu anpara!

Zaindu itzazu trumoi-tximistak  
ekaitzak eta euriak,  
izan ditezen grazi onean  
zeru goitik eroriak;  
gizartean'e hainbeste gerra  
haserre eta komeriak,  
era berean bare itzazu  
gure kaskailukeriak.

Inguruari begiratu  
dauzkat guztizko arretan,  
ardi mordoskak ikusten ditut  
goiko aldeko larreetan,  
eta amorrarik finena berriz  
dezute beheko errekan...  
bizi zaitezte gozamenean  
zuen ohitura zaharretan.

## **Eguberriak**

Profeta jakintsuen  
adieraziaz  
ia bi mila urte  
jaiorik Mesias  
mundua ondu zedin  
gizona heziaz,  
eta oraindik gabiltz  
ezin ikasiaz.

Gosete eta gerra  
hainbeste desgrazi,  
inoiz baino beltzago  
ez al gera bizi?  
*Gogorrena juez ta  
indarra nagusi*  
kasu handirik egin  
gaberik Jesusi.



Hauexek dira nere  
bihotzaren nahiak:  
osa bitez, hutsunez  
betetako mahaiak,  
buka bitez haserre  
liskar eta lehiak,  
pozez elkar gaitezen  
arriba eta anaiak.

### **Gandiagaren bertsoak, zortziko txikian**

Eguberriez ari nintzelarik, ezin izan dut errisistitu Gandiaren hiru bertso hauek hemen zeharraldatzea; hain datoz egoki testuinguruan, eta hain dira bertso bikainak. Hobeto ez dago laburbildu eta definitzerik guk ikasi genuen historia.

Moises ere bai eta  
profeta ugari  
bidali zenizkion  
zeure herriari;  
gizalditan aritu  
ziren mezulari  
Mesias zetorrela  
guztion gidari.

Noizbait horra etorri  
etortzeko zena,  
zorion-biderako  
berri onez dena;  
zintzoei poza eta  
makalei kemena,  
maitasuna dario  
eta barkamena.

Aitagandik jaitsi zen,  
Aitagana igo;  
handik itzuliko da  
mundura berriro;  
zuzen epaituko du  
sosdun eta txiro,  
gabiltzan justizian  
eta anaikiro.

### **Gizon txintxo baten harrokeriak (1987)**

Osasuna, dirua  
eta amodioa,  
ez dute gizon denek  
nere balioa,  
Jaungoikoak emana  
daukat jenioa,  
txintxoa izateko  
mundura jaioa.

Famili ederra det  
bada ederrikan,  
ez dute ondo zaindu  
beste beharrikan,  
ta txintxo-txintxo lana  
eginik fabrikan,  
etxean behar dana  
dakarkit handikan.

Lanera nindoala  
goizean lehenguan  
beheko soziedadean  
argia zeguan.  
Tabernan nola leike  
hainbeste ordu han?  
makina bat ganberro  
badago munduan.

Etxe hortan badute  
nahiko pazientzi,  
ez badira goitikan  
erritara jetsi;  
ez zan jende askorik  
bi bakarrik: gutxi,  
enteratu naizenez  
«Txubel» eta «Patxi»

Besteri kasu gutxi  
nik beti nerea,  
maisua ere daukat  
gizon dotorea  
erregalatu nion  
oilasko pare  
geroztik errezago  
eiten det tarea.

Bururik ez duenak  
zertako txapela?...  
elizara joango naiz  
guraso bezela  
hurrekin gauza onik  
ez dago bestela,  
Jainkoaren beldurrez  
hezi ditezela.

Andrea ere umila  
dadukat egitan  
errespetua jartzen  
nik nola dakitan;  
ez, dabilzan bezela  
hor zenbait tokitan:  
senarra kabo eta  
andrea kapitan.

Hutsegiterik gabe  
meza igandian,  
hargatikan bizi naiz  
suerte handian,  
otoitz bat egunero  
bigarren aldian  
emaztea alargun  
gerta ez dadian.

### **Atsoaren kritikari (1997)**

Lehengo egun batean  
atso bat ari zan  
mutilzaharreatik  
honelako gisan:  
bizibide tristean,  
neska, hoiek zebiltzan  
tabernan sarri eta  
trabaarik ez elizan.

Hizketan ari zala  
diotan gainean,  
begiratu zorrotza  
alboko mahaiean  
mutilzaharren ondra  
lurpera nahiean,  
beste dibertsiorik  
ez dauka jaiean.

Ez harritu honela  
kantuz aritua,  
belarriak mintzeko  
hitzak aditua,  
bere etxean bada  
ondo serbitua  
zergatik dauka gure  
ezin surfritua?

Saiatuko litzake  
bera nolabaite  
mutilzaharrok urruti  
desterratu arte,  
ez dauka guretzako  
errukirik bat'e  
ezta nik ere bera  
ez det asko maite.

Geroztik pentsatu det  
makina bat aldiz  
horren koinaturen bat  
mutilzaharra balitz  
ez dedila gertatu  
ondoez-ahuleriz  
besterik gabe horrek  
laguntzeko premiz.

Ondoko lagunari  
zioen errietan:  
egunez jan ta edan  
gehixokerietan  
eta gauean berriz  
hik badakin zertan  
semaforo gabeko  
argi gorrietan.

## **Zaldibiako kalea**

Saihesbidea gaude  
gu egin premitan  
urte gehiegitan  
kotxe eta kamioi  
kaleko neurritan  
eskandaloak sortzen  
dituzte sarritan

txofer batek bestea  
harturik begitan  
biak kulparik gabe  
alkarri erritan.

### **Pello Zabala**

Ez dakit praile edo  
dagon apopilo,  
musika ta eguraldi  
zenbat kontu pilo!  
Pronostikoa ematen  
jarduten da Pello,  
baina egiten digu  
makina bat fallo.

### **Toshak**

Realen entrenadore  
dadukagu Tohsak,  
hor dabil: «hik honuntza  
ta hik hara jo zak».  
Ondo kobratzen du-ta  
bizi zaigu pozak,  
horrentzat aina dira  
Donostiko sosak.

### **Insumisoa**

Insumisio bidea beraz  
behar genduke estima  
gizartean gerta ez dedin  
hainbat pena ta lastima,  
gogor daudenak jarraitu gogor  
dudan daudenak anima,  
bukatu dedin besteren umeei  
burla egiteko sistima.

## **Ezkonberriei (aginduta jarriak, beste batek kantatzeko)**

Zoriondu nahi zaitut  
zu, nere anaia,  
ospatzen dezulako  
gaur zuk ezkon-jaia;  
orain dezu emazte  
lehen zenuen gaia  
biok dezazutela  
bizitza alai.

Satisfazioak du  
bai lasaitasuna  
kezkati bizitzeak  
izango ez duna,  
sortu alkarren poza  
eta maitasuna  
horrek arinduko du  
gurutze astuna.

Txoritxoak bezela  
zuek udaberriz  
bizitza ugaltzeko  
maitasun egarriz  
belaunaldi berria  
mundura ekarriz  
bizitzak jarraipena  
izan dezan berriz.

Udaberriz elkartzen  
dira txori onak  
sasoia noiz helduko  
neguan egonak,  
gaur uztartuak dira  
maitasun bionak;  
gora ezkonberriak  
eta zorionak!

## **Bruno Imaz musikaria jaio zela ehungarren urteurrena**

Ehun urteak betetzen dira  
aurtengo urrian, bostean  
musikari haundi bat sortu zala  
Zaldibiako partean,  
ibili zana langintza hortan  
sarturik bete-betea  
eta jarraitu etsipen gabe  
goi-maila lortu artean  
horregatikan omentzen degu  
Bruno aurtengo urtean.

## **Zaldibiatik Alemaniara**

Esan behar da nola izan dan  
Alemaniko irtera:  
batzuk denborapasa joan ginan  
besteak zerbait egitera.  
Txistu, trikiti eta dantzari  
ondo bete zen papera,  
sega-lanean ere izan zuten  
lehiatutzeko aukera  
ondo hartuak izan gera-ta  
pozikan itzuli gera.

## **Lagun bati**

Estimazio txarrean  
dago etxe baztarrean,  
maitasun gabe emaztearen  
bihotz gogorrean,  
ikusi nahi ez aurrean,  
ez urrin ta ez urrean,  
gertatutzen da gustorik gabe  
bizi beharrean.



Atsekabearen galda  
negar mingotsaren salda,  
gauza hori zer dan pentsatu hutsak  
lezake asalda,  
gizon horren abiada  
ez gertatu hobia da,  
bere burua galdu baino lehen  
lasaituko ahal da!

### **Zaldibiako dendak gerra ostean: 2002**

Lehen errotetan irindutzen zen  
artoa eta garia,  
hortik aparte denda bezela  
bat gendun Konfiteria.  
Beste denda bat ere bagendun  
haren jabea Maria,  
nola arropa, jaki, janari  
jostorratz edo haria,  
besteak beste hura baizela  
benetako dendaria.

Migel Marinen sega-kirtenak  
aspil eta eskuareak,  
gazta egiteko zumitzak ere  
txukun eta dotoreak,  
gaitzeru, lakari eta abar  
neurtutzeko laboreak,  
tabernan berriz serbitzen ziran  
gazte eta agureak.  
Zenbat tertuli egin ote zun  
aitona zana gureak!

Astoarekin kale aldera  
esne-marmitak harturik,  
gero etxerako jenero bila  
esneak entregaturik,

herriko denda gehientsunetan  
izan ohi gendun trataturik,  
ibiltzen nintzen batetik irten  
eta bestean sarturik;  
orduaz ez zan Eroskirikan  
eta supermerkataturik.

Garai hartako izateko era  
sarri datorkit burura,  
herria txukun serbitzea zen  
dendari haien ardura,  
jaietan ere dendak ireki  
aste guztiko modura,  
herritar danak egun on opaz  
alkarregana ingura.  
Gendunarekin konformaturik  
gauza polita zan hura.

Egun batean joan nintzen perretxikoak biltzeko asmoan, eguerdi arte osoa pasatu eta alerik ez nuen bildu. Topatu nituenak, berriz, bareek-eta hasitakoak eta horrela: txarrak. Bueltan nentorrela bertso hauexek bururatu zitzaidan:

Abiatu naiz perretxikoak  
nolabait bildu asmoan  
goizean hasi haruntz ta honuntz  
eguerdiarte osoan,  
intentzioa banuen baina  
alerik ezin jaso han,  
hainbeste orduz alfer-aferrik  
hor ibili naiz basoan.

Asko-askotan ez zait gertatu  
neri holako kasorik,  
zuztar huts batzuk aurkitu ditut  
batere ez zegon osorik,

ez zegoen ez onikan eta  
hain gutxi benenosorik.  
Hor ibili naiz baina hobe nun  
eman ez banu pausorik.

Gau oskarbirik ez du egiten  
nahiz eguraldi hezea,  
egun batean hegoa bada  
zortzian ipar-haizea,  
egunez oso ostarate gutxi,  
lanbro edo euri xehea,  
perretxikoak jaiotzeko hau  
ez da eguraldi klasea.

Iritzi batzuk emango ditut  
nahiz eta eskas jakintzak,  
nola litezkeen gure lur honen  
fruituak edo emaitzak,  
bere neurrian euri mardula,  
gau oskarbiaren ihintzak,  
nere iritziz hori behar du  
perretxikoen sorgintzak.

Baina horrela izatetikan  
nola gabiltzan urrina,  
gauzez gandua, egunez berriz  
lanbroa eta lurrina;  
zergatik zaude ager nahi ezik  
ortzi inguru urdina,  
jakin non zeran ta ezin ikusi  
horrek ematen du mina.

Zerikusia badezu bai zuk  
zenbait gauzaren jaiotzaz,  
zurea baita eragin dana  
euteraz eta laiotzaz.  
Perretxikoa hortxe daukagu  
aurten jaiotzeko lotsaz,  
eta jaiotzen ez baldin bada  
zorrik ez du heriotzaz.

Baso itzalak aurkitu ditut  
arrote eta errukarri,  
perretxikoak biltzeko asmoz  
ez naiz alferrik etorri,  
hainbeste orduz ibili arren  
korri honuntz haruntz korri,  
ez zegon eta ez dan tokitik  
ezin ezertxo ekarri.

Hankik ez dute lumik ere ez  
hain gutxiago hegoak,  
baina basoko gauzak berentzat  
han dauden *endogenoak*,  
janari bila nahiz ez pasatu  
kilometro edo legoak,  
zaintzen dituzte perretxikoak  
sortzen diren *oaroak*.

Ez egin arren azeri edo  
erbin antzeko saltoak,  
zaintzen dituzte baso libreak  
zaintzen dituzte kotoak,  
badakite non jaio litezkeen  
gibelurdin ta onttoak,  
mugimendua makala baina  
buruz ez dira tontoak.

Lehen nioena zuztar ahul batzuk  
txapela bareak janak,  
gutxi sortutzen dira ta errez  
egiten dituzte lanak.  
Perretxikoak tiratzen ditu  
nola burnia imanak,  
sortu orduko jaten dituzte  
aurten jaiotzen diranak.

Naturaleza ikusi gabe  
zer den zaila da jakiten,  
bareekin ere konturatu naiz  
zertan gehiago dakiten:

elkar laztanduz hainbat bikote  
txoramenez irakiten,  
hor ari ziren lerre-jario  
amodioa egiten.

## **Oporretan**

Iaz bezela aurtengoz ere  
igo naiz Aralarrera,  
oporraldia datorrenean  
pozik joaten naiz harera,  
bere gustoko tokia behar  
jostatzez gero norbera,  
eta ni hantxe gozatutzen naiz  
naturarekin batera.

Nahi dedanean jaiki ta etzan  
han ez dago derrigorrik,  
eta mendian ibilaldi bat  
ez gorputzari zigorrik,  
eta gorputzak hartu izan du  
arnasberritu ederrik,  
mundu honetan ez da neretzat  
horrelako Benidorrik.

Urte hauetan modu hontantxe  
ibiltzen naiz oporretan,  
zein pentsamendu zoragarriak  
goiko mendi-tontorretan,  
eta bestetik zer konfiantza  
artzai lagun jatorretan,  
egunak azkar pasatzen zaizkit  
pena bat daukat horretan.

Ez dakigu noiz itzaliko dan  
hartu genduen argirik,  
baina badaukat nik nere kasa  
erabaki bat garbirik,  
hontaz aurrera ez leike baina  
hain konfiantza haundirik,  
pauso bat eman ahal dedan arte  
ez det utziko mendirik.